

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

7897 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenarena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

AURKIBIDEA

- Atariko titulua. Xedapen orokorrak.
- I. kapitulua. Xedea eta aplikazio-eremua.
1. artikulua. Legearen xedea eta helburua.
 2. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.
 3. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.
 4. artikulua. Salbuetsitako jarduerak.
 5. artikulua. Aseguru-entitateei debekatutako eragiketak.
- II. kapitulua. Definizioak.
6. artikulua. Entitateak.
 7. artikulua. Ikuskapen-agintaritzaz nazionala.
 8. artikulua. Jatorrizko estatu kidea, estatu kide hartzailea, eta zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideko jarduerak.
 9. artikulua. Entitateen arteko kontrol- edo partaidetza-harremanak.
 10. artikulua. Merkatu arautuak.
 11. artikulua. Arrisku handiak.
 12. artikulua. Komunitatearen koasegurua.
 13. artikulua. Funtzioak gobernatu eta kanporatzeko sistema.
 14. artikulua. Arriskuak.
 15. artikulua. Saneamendu-neurriak eta likidazio-prozedurak.
- I. titulua. Ikuskapen-organoak eta eskumenak.
- I. kapitulua. Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenak.
16. artikulua. Estatuko Administrazio Orokorraren ikuskapen-eskumenak.
 17. artikulua. Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusia.
 18. artikulua. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordea.
- II. kapitulua. Autonomia-erkidegoen eskumenak.
19. artikulua. Eskumen-banaketa.
- II. titulua. Aseguru- eta berraseguru-jarduerara sartzea.
- I. kapitulua. Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduerara sartzea.
1. atala. Jarduerara sartzeko baldintzak.
 20. artikulua. Administrazio-baimena.
 21. artikulua. Agintaritzaren irismena.

2. atala. Baimena lortzeko baldintzak.

22. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen baimena lortzeko baldintza orokorrak.

23. artikulua. Baimena ukatzea.

24. artikulua. Administrazio-baimenik gabe egindako eragiketak.

25. artikulua. Elkarteak eta taldeak.

26. artikulua. Ikuskapen-agintarien aldez aurretiko kontsulta.

27. artikulua. Aseguru eta berraseguru-entitateen izaera, forma eta izena.

28. artikulua. Eraketa.

29. artikulua. Izena.

30. artikulua. Egoitza soziala.

31. artikulua. Helburu soziala.

32. artikulua. Jarduera-programa.

33. artikulua. Kapital soziala.

34. artikulua. Mutua-funtsa.

35. artikulua. Dibidenduak, derramak edo kapital sozialarekin lotutako bestelako ordainsariak banatzeko mugak.

36. artikulua. Bazkideak.

37. artikulua. Lotura estuak.

38. artikulua. Zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenen edo entitatearen gobernu-sistemako funtzioak betetzen dituzten pertsonen zintzotasuna eta gaitasuna.

39. artikulua. Aseguru- edo berraseguru-entitateetako administrazio- edo zuzendaritza-organoen erantzukizuna eta betebeharrak.

40. artikulua. Administrazio-erregistroa.

3. atala. Aseguru-mutuak, aseguru-kooperatibak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak.

41. artikulua. Aseguru-mutuak.

42. artikulua. Aseguru-kooperatibak.

43. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak.

44. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen estaldura-eremua eta prestazioak.

45. artikulua. Aseguru arloka jarduteko baimena duten aurreikuspen-mutualitateak.

4. atala. Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera Europar Batasunean zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubideari jarraikiz.

46. artikulua. Europar Batasunean jardun dezaketen Espainiako entitateak.

47. artikulua. Sukurtsalak jartzeko baldintzak.

48. artikulua. Zerbitzuak modu askean eskaini ahal izateko jakinarazpena.

49. artikulua. Espainiako aseguru-entitateen mugaz haraindiko jardueri buruzko informazio estatistikoa.

5. atala. Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateek hirugarren herrialdeetan gauzatzen duten jarduera.

50. artikulua. Hirugarren herrialdeetan entitateak sortu eta beste eragiketa batzuk gauzatzea.

II. kapitulua. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako aseguru- eta berraseguru-entitateek Espainian gauzatzen dituzten jardueretara sarbidea izatea.

1. atala. Aseguru- eta berraseguru-entitateentzako xedapen orokorrak.

51. artikulua. Espainian jardun dezaketen beste estatu kide batzuetako aseguru- eta berraseguru-entitateak.

52. artikulua. Zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubideari jarraikiz Espainian jarduten duten aseguru- eta berraseguru-entitateen aldetik legezko xedapenak betetzea.

53. artikulua. Tributuak eta errekarquak.

54. artikulua. Erantzukizun zibileko aseguru lurreko ibilgailu automobiletan.

2. atala. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera kokatzeko eskubidearen araubidean.

55. artikulua. Jarduteko baldintzak, kokatzeko eskubidearen araubideari jarraikiz.

56. artikulua. Espainiako sukurtsalen ikuskapena jatorrizko estatuko agintarien aldetik.

3. atala. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidean.

57. artikulua. Zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidean gauzatutako jardueretara sartzeko baldintzak.

58. artikulua. Lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko asegururako baldintza zehatzak.

59. artikulua. Zerga-betebeharrak.

60. artikulua. Harpidetza-agentziak.

III. kapitulua. Hirugarren herrialdeetako aseguru- eta berraseguru-entitateek Espainiako jarduerara sarbidea izatea.

1. atala. Hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateak.

61. artikulua. Hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateen sukurtsalak irekitzeko baimena.

62. artikulua. Espainian hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateen jarduera gauzatzeko mugak.

2. atala. Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateak.

63. artikulua. Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen sukurtsalak.

64. artikulua. Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen Espainiako jarduera jatorrizko herrialdetik.

III. titulua. Jarduera gauzatzea.

I. kapitulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen gobernu-sistema.

65. artikulua. Gobernu-sistemak bete beharreko baldintza orokorrak.

66. artikulua. Arriskuen kudeaketa-sistema, arriskuen barne-ebaluazioa eta kaudimena, barne-kontrolerako sistema eta gobernu-sistemaren funtzioak.

67. artikulua. Zerbitzuak kanpora ateratzea.

II. kapitulua. Aktibo eta pasibo, finantza-berme eta inbertsioen balorazioa.

1. atala. Aktiboen eta pasiboen balorazioa, eta hornidura teknikoei buruzko arauak.

68. artikulua. Aktiboen eta pasiboen balorazioa.

69. artikulua. Hornidura teknikoak.

70. artikulua. Hornidura teknikoen zenbatekoa eskatu eta handitzea.

2. atala. Funts propioak.

71. artikulua. Funts propioen zehaztapena.

72. artikulua. Funts propioen mailakako sailkapena.

73. artikulua. Funts propioen onargarritasuna.

3. atala. Nahitaezko kaudimen-kapitala.
74. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko metodoak.
75. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko metodoak.
76. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatzea.
77. artikulua. Administrazio-organoak barne-ereduei dagokienez duen erantzukizuna.
4. atala. Nahitaezko gutxieneko kapitala.
78. artikulua. Nahitaezko gutxieneko kapitala.
5. atala. Inbertsioak.
79. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen inbertsioei buruzko arauak.
- III. kapitulua. Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko informazio publikoa.
80. artikulua. Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena.
81. artikulua. Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostenean informazioa hedatzeko dispentsa.
82. artikulua. Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostenaren eguneraketak eta borondatzeko informazio gehigarria.
- IV. kapitulua. Kontabilitate-betebeharrak.
83. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen kontabilitatea.
84. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen kontu bateratuen formulazioa.
- V. kapitulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateetako partaidetzen araubidea.
85. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateetan partaidetzak eskuratzeko betebeharrak.
86. artikulua. Betebeharrak ez betetzearen ondorioak.
87. artikulua. Aseguru- edo berraseguru-entitate batean duen partaidetza esanguratsua murrizteko betebeharrak.
88. artikulua. Informazio-betebehar gehigarriak.
- VI. kapitulua. Sozietate-eragiketak.
1. atala. Aseguru-zorroa lagatzea.
89. artikulua. Aseguru-entitateen artean aseguru-zorroa lagatzea.
2. atala. Egiturazko aldaketak.
90. artikulua. Egiturazko aldaketak.
91. artikulua. Egiturazko aldaketen salbuespenezko egoerak.
3. atala. Estatutuetako aldaketak.
92. artikulua. Estatutuetako aldaketak.
4. atala. Aseguru- edo berraseguru-entitateen elkarrekin eta aldi baterako batasunak.
93. artikulua. Interes ekonomikoko elkarrekin eta aseguru- edo berraseguru-entitateen aldi baterako batasunak.
- VII. kapitulua. Merkatuaren jokabideak.
1. atala. Polizak eta tarifak.
94. artikulua. Prima-tarifak eta oinarri teknikoak.
95. artikulua. Jardueraren polizak, tarifak eta dokumentazio teknikoaren kontrolatzea.

2. atala. Informazioa eman beharra.
96. artikulua. Aseguru-hartzaileari informazioa eman behar orokorra.
3. atala. Gatazkak konpontzeko mekanismoak. Bestelako xedapenak.
97. artikulua. Gatazkak konpontzeko mekanismoak.
98. artikulua. Publizitatea.
99. artikulua. Datu pertsonalak babestea.
100. artikulua. Aseguruetako iruzurraren aurkako borroka.
- VIII. kapitulua. Kaudimen-araubide berezia.
101. artikulua. Aplikazio-eremua.
102. artikulua. Araubide bereziaren eraginpean dauden entitateek jarduteko baldintzak.
- IX. kapitulua. Komunitatearen koasegurua. Berraseguru mugatua.
103. artikulua. Komunitatearen koaseguruari dagokion araubidea.
104. artikulua. Komunitatearen koaseguruari dagozkion hornidura teknikoak.
105. artikulua. Berraseguru mugatua.
- X. kapitulua. Hirugarren herrialdeetako aseguru- eta berraseguru-entitateen sukurtsalek eta filialek gauzatutako jarduerari dagozkion baldintzak.
106. artikulua. Hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateen sukurtsalen finantza-bermeak.
107. artikulua. Hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden eta zenbait estatu kidetan baimenduta dauden entitateen sukurtsalei dagokien araubidea.
108. artikulua. Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen kaudimen-araubidearen baliokidetasuna.
- IV. titulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapena.
- I. kapitulua. Printzipio orokorrak.
109. artikulua. Ikuskapenaren eremu subjektiboa eta objektiboa.
110. artikulua. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren jarduketaren proportzionaltasuna.
111. artikulua. Ikuskapen-jarduketaren gardentasuna.
112. artikulua. Ikuskapen-praktiken konbergentzia.
113. artikulua. Ikuskapenerako gaitasun orokorrak.
114. artikulua. Ikuskapen-, estatistika- eta kontabilitate-ondorioetarako helarazi beharko den informazioa.
115. artikulua. Zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideari jarraikiz Espainian jarduten duten Europar Batasuneko aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapena.
116. artikulua. Beste estatu kide batean kokatuta dauden Espainiako sukurtsalen ikuskapena.
- II. kapitulua. Finantza-ikuskapena.
117. artikulua. Finantza-ikuskapenaren edukia.
- III. kapitulua. Merkatuko jokaeren ikuskapena.
118. artikulua. Merkatuko jokaeren ikuskapenari dagokion edukia.
119. artikulua. Administrazioaren babesa.
120. artikulua. Polizak eta tarifak debekatzea.

- IV. kapitulua. Ikuskapen bidez gainbegiratzea.
- 121. artikulua. Ikuskapen-jarduerak.
 - 122. artikulua. Ikuskapen-jardueraren subjektuak.
 - 123. artikulua. Ikuskatzaileak.
 - 124. artikulua. Ikuskapen-gaitasunak.
 - 125. artikulua. Ikuskapen-jarduketak dokumentatzea.
 - 126. artikulua. Ikuskapen bidez gainbegiratzeko prozedura.
- V. kapitulua. Sekretu profesionala eta informazio konfidentzialaren erabilera.
- 127. artikulua. Sekretu profesionala mantendu beharra.
 - 128. artikulua. Informazio konfidentziala trukitzea.
 - 129. artikulua. Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzarekin mantendu beharreko lankidetzak.
 - 130. artikulua. Lankidetzak-hitzarmenak hirugarren herrialdeekin.
- V. titulua. Aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen ikuskapena.
- I. kapitulua. Taldeei buruzko xedapen orokorrak.
- 131. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen ikuskapenari buruzko arauak eta definizioak.
 - 132. artikulua. Ikuskapenari atxikita dauden taldeak.
 - 133. artikulua. Taldearen ikuskapenari dagokion aplikazio-eremua.
- II. kapitulua. Taldeen ikuskapena gauzatzea.
1. atala. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile gisa dituen funtzioak eta eskumenak.
- 134. artikulua. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskapen-funtzioak gauzatzea.
 - 135. artikulua. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile gisa dituen eskumenak. Ikuskatzaileen elkargoa.
 - 136. artikulua. Informaziora sartu eta hura egiaztatzea.
2. atala. Beste ikuskapen-agintari batzuekin mantendu beharreko lankidetzak.
- 137. artikulua. Deialdia eta ikuskapen-agintarien arteko kontsulta.
 - 138. artikulua. Beste ikuskapen-agintari batzuei eskatutako informazioa.
 - 139. artikulua. Kreditu-erakundeetako eta inbertsio-zerbitzuen enpresetako ikuskapen-agintariekin mantendu beharreko lankidetzak.
3. atala. Ikuskapen-mailak.
- 140. artikulua. Europar Batasuneko azken erakunde nagusia.
 - 141. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen azpitalde nazionala.
 - 142. artikulua. Zenbait estatu kideetako azpitalde nazionalak barne hartzen dituen entitateen azpitaldea.
- III. kapitulua. Taldearen finantza-egoera.
1. atala. Taldearen kaudimena.
- 143. artikulua. Taldeak duen kaudimenaren ikuskapena.
 - 144. artikulua. Taldearen finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena.
 - 145. artikulua. Entitate parte-hartzaileen taldeak duen kaudimenaren kalkulua.
 - 146. artikulua. Talde kontsolidatuaren kaudimena kalkulatzeko: kontabilitate-kontsolidazioan oinarritutako metodoa.

147. artikulua. Talde kontsolidatuaren eta taldeko aseguru- eta berraseguru-entitateen barne-eredua.

148. artikulua. Talde kontsolidatuaren nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatzea.

149. artikulua. Kentzeko eta gehitzeko metodoa.

150. artikulua. Arriskuen kudeaketa zentralizatua duten taldeen araubidea.

2. atala. Arriskuaren kontzentrazioa eta taldearen barneko eragiketak.

151. artikulua. Arriskuaren kontzentrazioa eta taldearen barneko eragiketak ikuskatzea.

3. atala. Arriskuen kudeaketa eta barne-kontrola.

152. artikulua. Taldearen gobernu-sistemaren ikuskapena.

4. atala. Talde mailako kaudimena ez betetzea.

153. artikulua. Ez-betetzeei aurre egiteko neurriak.

IV. kapitulua. Entitate matrizeak Europar Batasunetik kanpo dituzten taldeak.

154. artikulua. Baliokidetasuna egiaztatzea.

VI. titulua. Finantza-narriaduraren egoerak. Kontrol bereziko neurriak.

I. kapitulua. Finantza-narriaduraren egoerak.

155. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateen finantza-narriadura.

156. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapitala ez betetzea.

157. artikulua. Nahitaezko gutxieneko kapitala ez betetzea.

158. artikulua. Planaren edukia.

II. kapitulua. Kontrol bereziko neurriak.

159. artikulua. Kontrol bereziko neurriak hartzea eragiten duten egoerak.

160. artikulua. Har daitezkeen kontrol bereziko neurriak.

161. artikulua. Kontrol bereziko neurri gehigarriak.

162. artikulua. Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioaren lankidetzaren hartutako kontrol bereziko neurriak gauzatzeko orduan.

163. artikulua. Aseguru-entitatearen esku-hartzea.

164. artikulua. Kontrol bereziko neurriak hartzeko prozedura.

165. artikulua. Administrazio-organoen behin-behineko ordezkapena.

166. artikulua. Kontrol bereziko neurriek beste estatu kide batzuetan dituzten ondorioak.

167. artikulua. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru-entitateei dagokienez hartutako neurriak.

168. artikulua. Konkurtso-prozedurak.

VII. titulua. Baliogabetzea, desegitea eta likidatzea.

I. kapitulua. Administrazio-agintaritza baliogabetzea.

169. artikulua. Baliogabetu izanaren arrazoiak eta ondorioak.

170. artikulua. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru-entitateei administrazio-agintaritza baliogabetzea.

171. artikulua. Hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden entitateen sukurtsalen administrazio-baimena baliogabetzea.

II. kapitulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateak desegin eta likidatzea.

1. atala. Desegitea.

172. artikulua. Desegiteko arrazoiak.

173. artikulua. Desegiteko hitzarmena.

174. artikulua. Administrazioa desegitea.

2. atala. Likidazioa.

175. artikulua. Likidazio-arau orokorrak.

176. artikulua. Espainiako entitateen likidazioak beste estatu kide batzuetan eragindako ondorioak.

177. artikulua. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden eta Espainian zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten aseguru-entitateen likidazioak Espainian eragiten dituen ondorioak.

178. artikulua. Likidazioa ikuskatzea.

179. artikulua. Aseguru-kontratu bidezko kredituen babesa.

180. artikulua. Likidatzaileen araubide juridikoa.

181. artikulua. Likidazio-prozesua.

182. artikulua. Likidatzen ari diren berraseguru-entitateetan akzioei eragindako ondorioak.

3. atala. Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren likidazioa.

183. artikulua. Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren jarduketa aseguru- eta berraseguru-entitateak likidatzeko orduan.

184. artikulua. Funtsezko arau orokorrak.

185. artikulua. Prozedurako arau orokorrak.

186. artikulua. Kredituak Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren bitartekoen kargura erostea.

187. artikulua. Entitateak dituen bitartekoen kontura egindako ordainketak.

188. artikulua. Hartzekodunen batzar orokorra.

189. artikulua. Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren jarduketa konkurtso-prozeduretan.

VIII. titulua. Arau-haustek eta zehapenak.

I. kapitulua. Arau-haustek.

190. artikulua. Arau-hausleak.

191. artikulua. Parte-hartzaile, likidatzaile edo administrazio- eta zuzendaritza-karguen erantzukizuna.

192. artikulua. Zehatzeko ahala beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru-entitateei dagokienez.

193. artikulua. Arau-hauste motak.

194. artikulua. Arau-hauste oso astunak.

195. artikulua. Arau-hauste astunak.

196. artikulua. Arau-hauste arinak.

197. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

II. kapitulua. Zehapenak.

198. artikulua. Entitateei arau-hauste oso astunengatik ezarritako administrazio-zehapenak.

199. artikulua. Entitateei arau-hauste astunengatik ezarritako administrazio-zehapenak.

200. artikulua. Entitateei arau-hauste arinengatik ezarritako administrazio-zehapenak.

201. artikulua. Bat-egite, aktiboaren eta pasiboaren lagapen global, edo bereizketa kasuetan duen erantzukizuna.

202. artikulua. Parte-hartzaileek, likidatzaileek eta, edozein titulupean, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenek eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituztenek egindako arau-hauste oso astunengatiko zehapenak.

203. artikulua. Parte-hartzaileek, likidatzaileek eta, edozein titulupean, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenek eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituztenek egindako arau-hauste astunengatiko zehapenak.

204. artikulua. Parte-hartzaileek, likidatzaileek eta, edozein titulupean, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenek eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituztenek egindako arau-hauste arinengatiko zehapenak.

205. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideak.

206. artikulua. Administrazio-zehapenekin lotuta dauden neurriak.

207. artikulua. Administrazio-prozeduren eta prozesu penalen konkurrentzia.

208. artikulua. Aseguru- eta berraseguru-entitateei gordetako izenak erabili eta jarduerak gauzatzea.

209. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

III. kapitulua. Zehapen-prozedura.

210. artikulua. Zehapen-prozedura arautzea.

211. artikulua. Salaketa publikoa.

212. artikulua. Administrazio-eskumenak.

213. artikulua. Epeak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Europar Batasunaren barnean ez dauden Europako Esparru Ekonomikoko estatuei aplikatu beharreko araubidea.

Bigarren xedapen gehigarria. Nahitaezko aseguruaren ezarpena eta horiei buruzko informazioa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Administrazio-baimenak Europar Batasun osoan duen baliotasuna.

Laugarren xedapen gehigarria. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei emandako prestazioak areagotzeko baimenen baliotasuna.

Bosgarren xedapen gehigarria. Europako Batzordeari eta Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen zailtasunei buruzko informazioa ematea.

Seigarren xedapen gehigarria. Zeregin berezia duten entitateak.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Eurotan adierazitako zenbatekoen berrikuspena.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Aseguru- eta berraseguru-entitateen kontu-auditoreen betebeharrak.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Aseguru-aktuarioak.

Hamargarren xedapen gehigarria. Aseguru-perituak, matxura-komisarioak eta matxura-likidatzaileak.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Aseguru-entitateek eta Gizarte Segurantzako Administrazioako erakundeek egindako itunak.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Zehapen arloko ikuskatzaileen arteko jakinarazpenak.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Administrazio Publikoen aldeko kauzio-asegurua.

Hamalaugarren xedapen gehigarria. Sute eta elementu naturalen arloan jarduten duten aseguru-entitateen informazioa emateko betebeharrak gehigarriak.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Ehorzketa-aseguruak dituzten arriskuen oinarri teknikoak eta kalibrazioa.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Lege honetan zehaztutako baimenak eta II. Kaudimenera egokitzeko beste neurri batzuk pixkanaka txertatzea.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bitartez egin beharra.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Hornidura teknikoak kontabilitate-ondorioetarako kalkulatzeko araubidea.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Araudiei buruzko aipamenak.

Hogeigarren xedapen gehigarria. Baliabideak berriz esleitzea.

Lehenengo xedapen iragankorra. Aseguru-mutuen, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen eta prima aldakorreko kooperatiben araubidea.

Bigarren xedapen iragankorra. Kapital sozialeko eta mutua-funtsaren gutxieneko zenbatekoetara egokitzeko araubide iragankorra.

Hirugarren xedapen iragankorra. Abian diren administrazio-prozedurak.

Laugarren xedapen iragankorra. Prestazioak areagotzeko administrazio-baimena lortu ez duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen jarduketarako baldintzen araubide iragankorra.

Bosgarren xedapen iragankorra. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako aseguru pribatuak antolatzeari eta gainbegiratzeari buruzko Legearen testu bateginari jarraikiz egindako aseguru-eragiketa jakin batzuen araubidea. Mugen salbuespena kapital gisako prestazioetan.

Seigarren xedapen iragankorra. 2016ko urtarrilaren 1ean inskribatuta dauden aholkulari laguntzaileak.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako aseguru pribatuak antolatzeari eta gainbegiratzeari buruzko Legearen testu bateginari jarraikiz baimendutako prestazio sozialen araubidea.

Zortzigarren xedapen iragankorra. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitate-federazioen berraseguru-jardueraren araubide iragankorra.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Nahitaezko gutxieneko kapitalaren araubide iragankorra.

Hamargarren xedapen iragankorra. Kaudimen-araubide bereziaren aplikazio-eremua.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera kontratu berririk sinatzen ez duten aseguru- eta berraseguru-entitateak.

Hamabigarren xedapen iragankorra. Aldi baterako indarraldia.

Hamahirugarren xedapen iragankorra. Lege honetako azken xedapenetatik lehenengoaren bitartez Aseguru Kontratuaren Legean txertatu diren aldaketen araubide iragankorra.

Xedapen indargabetzailea.

Azken xedapenetatik lehena. Aseguru-kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik bigarrena. Zergen, Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik laugarrena. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzea.

Azken xedapenetatik bosgarrena. Konkurtsoari buruzko 22/2003 Legea, uztailaren 9koa, aldatzea.

Azken xedapenetatik seigarrena. Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzea.

Azken xedapenetatik zazpigarrena. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren aldaketa –martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen lege hori–.

Azken xedapenetatik zortzigarrena. Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguruaren Konpentsazio Kontsurtzioaren Lege Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Azken xedapenetatik bederatzigarrena. Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretua aldatzea. Dekretu horren bidez, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioaren inguruko Erantzukizun Zibilar eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen da.

Azken xedapenetatik hamargarrena. Aseguru eta Berraseguru Pribatuen Bitartekotzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hamaikagarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko, ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hamabigarrena. Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen apirilaren 1eko 4/2014 oinarrizko Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hamahirugarrena. Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea.

Azken xedapenetatik hamalauagarrena. Eskumen-titulua.

Azken xedapenetatik hamabosgarrena. Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea.

Azken xedapenetatik hamaseigarrena. Lege honetan araututako prozedurei aplikagarri zaizkien arauak.

Azken xedapenetatik hamazazpigarrena. Erregelamenduak egiteko ahala.

Azken xedapenetatik hemezortzigarrena. Arriskurik gabeko interes-tasei buruzko neurri iragankorra.

Azken xedapenetatik hemeretzigarrena. Hornidura teknikoei buruzko neurri iragankorra.

Azken xedapenetatik hogeigarrena. Beste neurri iragankor batzuk.

Azken xedapenetatik hogeita batgarrena. Indarrean jartzea.

Eranskina. Aseguru-arloak.

HITZAURREA

I

Finantza-sektoreak eta, batez ere, aseguru-sektoreak beste sektore batzuek baino arauketa eta esku-hartze publiko handiagoa izan dute historian zehar, ekonomian betetzen duten funtsezko eginkizuna dela-eta. 1908ko maiatzaren 14ko Legeak aseguru pribatuen antolamendua abiarazi zuen Espainian, eta ordudanik, araubide hori aseguru-kontratu pribatuen hartzaile, aseguratu, onuradun eta hirugarren kaltetuen gainean duen tutoretza-funtzioagatik bereizi izan da. Aseguru-jardueraren bitartez, momentuko eta benetako prestazioa –prima– etorkizuneko eta zalantzazko beste prestazio batekin –kalte-ordaina– trukutzen da. Hori dela-eta, kalte-ordaina ordaintzea eragiten duen ezbeharra gertatzen denean, aseguru-entitateak bere betebeharrari aurre egiteko moduan egon behar du. Horregatik, botere publikoek egiten duten aseguru-entitateen antolamendua eta ikuskapena interes publikoko esparrua da, horrela, beren helburu soziala betetzea ahalbidetzen duen beharrezko kaudimen-egoera mantentzen dutela egiaztatzen baita.

Urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, orain arte indarrean izan denak, onartutako aseguru pribatuen antolamenduari eta ikuskapenari buruzko Legearen testu bateginak modu antolatuan eta armonizatuan txertatu zituen, testu bakar batean, aseguru pribatuak antolatzeko eta ikuskatzeko azaroaren 8ko 30/1995 Legean jasotako xedapenak, eta gero, arau hartan txertatu ziren aldaketak. Europako Erkidegoko zuzenbideko arauen txertaketak eta hura aseguru-jardueraren etengabeko bilakaerara egokitu beharrak arrazoitzen dituzte aldaketa haiek.

Testu bateginean ere hainbat aldaketa egin dira ondoz ondoko legeen bitartez. Bereziki, eta nagusiki, honako lege hauen bitartez: Finantza-multzoen ikuskapenari buruzko apirilaren 22ko 5/2005 Legea, finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituena; Berraseguraturia ikuskatzeko uztailaren 2ko 13/2007 Legea; eta Inbertsio-zerbitzuetako enpresetan, kreditu-entitateetan eta aseguru-entitateetan partaidetza esanguratsuak hartzeko araubidea aldatzen duen ekainaren 29ko 5/2009 Legea.

Azkenik, Ekonomia jasagarriari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen azken xedapenetatik hamalagarrenak gauzatutako aldaketak nabarmendu behar dira, aseguru pribatuen arauketa garatu eta finkatzeko ildo beretik jarraitzen baitute.

Aseguruen Europako Erkidegoko zuzenbidea txertatu beharra eta araudia aseguru-sektorearen garapenera egokitu beharra ere lege hau egiteko arrazoi nagusiak dira. Hark bizitza-aseguruari, aseguru- eta berraseguru-jardueran sartu eta jarduteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 2009/138/EE Zuzentarauko (aurrerantzean, II. Kaudimen Zuzentaraua) xedapenak jasotzen ditu eta horiek lege-mailako arau batera txertatu behar dira, aseguru-jardueraren ikuskapen-eskeman aldaketa garrantzitsuak txertatzen baititu. Zuzentarau hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 2014/51/EB Zuzentaruaren bidez aldatu da batez ere, eta hark 2003/71/EE eta 2009/138/EE Zuzentaruak eta 1060/2009 (EE), 1094/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak aldatzen ditu Europako Ikuskapen Agintaritzaren agintariei (Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritza) eta Europako Ikuskapen Ikuskaritzari (Balio eta Merkatuen Europako Agintaritza) (Omnibus II Zuzentaraua) dagokienez.

Aldaketa horien guztien garrantzia dela-eta, indarrean den testu bategina lege berri batekin ordeztea gomendatu da. Hala, lege berri horretan, II. Kaudimen Zuzentaruak gauzatutako erkidegoko araudiaren birfundazioaren antzera, indarrean jarraitzen duten xedapenak, kaudimen-sistema berria eta txertatu behar izan diren beste arau batzuk gaineratu dira, betiere aseguru-merkatuaren bilakaera kontuan hartuta.

Nolanahi ere, zuzentaruaren transposizioa ez da lege honetan amaitzen, haren xedapen batzuk Espainiako araudira gaineratuko baitira erregelamendu baten bidez; bertan, lege honetan jasotako aurreikuspen batzuk garatuko dira, Europako Batzordeak agindutako exekuzio-neurriek kalterik egin gabe.

II

II. Kaudimen Zuzentaruak harmonizazio-jarduketa nabarmena eragiten du, eta Europar Batasunean aseguru- eta berraseguru-jardueraren sarbidea eta jarduketa erraztu nahi ditu. Horretarako, estatu kideetako legedien arteko desberdintasun garrantzitsuenak ezabatu behar dira, eta beraz, lege-esparru bat ezarri behar da, haren barnean, erakunde-eta berraseguru-entitateek barne-merkatu bakar batean jardun dezaten.

II. Kaudimen Zuzentaruak aseguru- eta berraseguru-entitateen kaudimenari dagokion kontzeptu bat artikulatzen du, eta hura elkarrekin sendotzen diren hiru zutabetan oinarrituta dago. Lehenengoa, entitateek bereganatutako arriskuen arabera finkatutako kapital-eskakizunei buruzko arau uniformeek osatzen dute, arriskuen kudeaketa arloan lortu diren garapenekin eta beste finantza-sektore batzuen bilakaerarekin bat etorritz. Horrela, Europako aseguru-sektorearentzat arriskuan oinarritutako ikuspegi bat hartu da, kapital ekonomikoari buruzko arau zehatzak txertatuz. Bigarren zutabea ikuskapen-sistema berri batek osatzen du, entitateek bereganatzen dituzten arriskuen barne-kudeaketa hobetu dadila sustatzeko helburuarekin. Hirugarren zutabea merkatuko informazio- eta gardentasun-betebeharrei buruzkoa da, entitateek bereganatutako arriskuen funtsezko alderdiei eta horiek kudeatzeko moduari dagokionez.

Arriskuan oinarritutako kaudimen-sistema berria txertatu eta horretarako entitateen kudeaketari eta ikuskapen-agintarien jarduketari dagokionez egin beharreko aldaketak txertatzeaz gain, II. Kaudimen Zuzentaruak aseguru pribatuen arloko gainerako antolamendu europarra sendotzen du eraberritze bidez, automobilen aseguruari dagokionez salbu. Hark bere momentuan aseguruen Espainiako Zuzenbidera txertatutako zuzentarueta jasotzen diren edukiak gaineratzen ditu, hala nola, aseguru-konpainien saneamenduari eta likidazioari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko martxoaren 19ko 2001/17/EE Zuzentaraua.

Eskema osatzeko, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzaren bitartez Europar Batasunean esparru horretan diseinatutako ikuskapen-egitura berritik eratorritako exekuzio-neurriak eta araudi-garapenak erabili dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 1094/2010 (EE) Erregelamenduaren bitartez; izan ere,

erregelamendu horren bidez Ikuskapenerako Europako Agintaritza sortu da (Aseguru eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritza), 716/2009/EE Erabakia aldatu da eta Batzordearen 2009/79/EE Erabakia indargabetu da, eta koordinaziorako eta erabakiak hartzeko eskumen garrantzitsuak esleitzen dizkio aseguru eta berraseguru ikuskapen eta antolamendu arloan, harmonizazio arautzaile handiagoa eta nazioarteko eta sektore arteko koordinazio hobea lortuz.

Lege honetan eta hura garatuko duen erregelamenduan –II. Kaudimen Zuzentzarauaren transposizioaren emaitza gisa– jasotzen diren xedapenak Europako Batzordeak eta Aseguru eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak emandako exekuzio-neurriekin eta araudi-garapenekin batera txertatu behar dira, honako alderdi hauei dagokienez: aktibo eta pasibo balorazioa, hornidura teknikoak, funts propioak, nahitaezko kaudimen-kapitalaren kalkulua, barne-ereduak, nahitaezko gutxieneko kapitala, inbertsio-arauak, gobernu-sistema, kapital gehigarria, ikuskapen-ondorioetarako informazioa, ikuskapen-agintaritzaren gardentasuna, entitate-talde kaudimena, eta hirugarren herrialdeetako araubideek II. Kaudimen Zuzentzarauko xedapenekin duten baliokidetasunaren zehaztapena.

III

Legeak aurretiko titulu bat eta zortzi titulu, hogeitaz xedapen gehigarri, hamahiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, hogeita bat azken xedapen eta eranskin bat ditu.

Aurretiko tituluak haren helburua, aplikazio-eremua eta lege honen ondorioetarako aplikatu behar diren definizioak zehazten ditu. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia ikuskapen-agintaritza nazional gisa identifikatzen da, lege honetan eta antolamendu juridikoaren gainerako guztietan Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari berriaz esleitzen zaizkion ikuskapen- eta arautze-eskumenei eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.

Legearen I. titulua Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko eskumen-banaketa dagokio. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagozkion zenbait funtzio finkatzen dira, eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorriari aseguru eta berraseguru ikuskapen-eremuan nahitaez bete beharreko zirkularrak igortzeko araudi-gaitasuna aitortzen zaio.

Hartzaileak, aseguratuak eta onuradunak hobeto babesteko helburuarekin, eta Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6., 11. eta 13. zenbakien babespean, lege honek aseguru eta berraseguru pribatuen ikuskapenari dagozkion oinarriak jasotzen ditu. Horretarako, aseguru-jardueraren ikuskapena arautzen duten arauen nolabaiteko uniformetasuna lortu behar da, Espainiako aseguru-entitateen arteko harremana, horiek Europar Batasunean kokatuta dauden beste aseguru-entitateekin duten harremana, eta horiek guztiek nazioarteko merkatuekin duten harremana errazteko. Horregatik, eta aseguru-sektoreak ekonomian duen finantza-garrantzia dela-eta, aseguru eta berraseguru pribatuen ikuskapen-esparruan eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoek modu estuagoan jardun beharko dute elkarren artean eta Estatuko Administrazio Orokorrekin.

IV

Legearen II. tituluak administrazio-baimena lortzeko baldintzak arautzen ditu, aseguru-edo berraseguru-jardueran sartu ahal izateko alde aurretiko baldintza gisa, haren aurretiko legediaren antzeko eran.

Era berean, aseguru-mutuen, aseguru-kooperatiben eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen araubide juridikoa arautzen du. Dena den, entitate horien kasuan, urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako aseguru pribatuen antolamenduari eta ikuskapenari buruzko Legearen testu bategineko araubidea mantendu da indarrean, mutuei eta, bereziki, horien desegite, eraldatze, bat-egite, bereizketa eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalari buruzko araudi bat gauzatzen den bitartean.

Jarduketarekin lotutako baldintzei dagokienez, lege honek entitateek gobernu-sistema eraginkor bat izateko betebeharra arautzen du III. tituluan. Hori da, hain zuzen, II. Kaudimen

Zuzentarauak txertatzen duen berritasunetako bat; hala, bertan behar bezala aitortzen da arrisku jakin batzuk entitateen gobernu-esparruko zenbait eskakizunen bitartez bakarrik har daitezkeela kontuan, eta ez betekizun kuantitatiboen bitartez. Gobernu-sistemak arriskuaren kudeaketari, betetzeari, barne-ikuskaritzari eta aktuarialari dagozkion funtzioak gaineratzen ditu. Funtzioen zerrenda hori eta haien arauketa gorabehera –xehetasun gehiagorekin garatuko da erregelamendu bidez–, entitate bakoitzak modu askean erabaki ahal izango du horiek antolatzeke modua edo funtzio gehigarriak artikulatzea.

Norbere arriskuaren kudeaketan, aseguru- eta berraseguru-entitate guztiek beren kaudimen-premia globalen barne-ebaluazioa eta periodikoa gauzatu beharko dute ohiko jarduera gisa, hura beren negozio-estrategiara txertatuz eta beren arrisku-profil zehatza kontuan hartuta. Era berean, eta gardentasun-helburuekin, aseguru- eta berraseguru-entitateek beren finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko funtsezko informazioa jakinarazi beharko dute urtean behin, gutxienez, hura publikoaren eskura jarritz.

V

Aseguru- eta berraseguru-entitateen finantza-egoeraren ebaluazioak printzipio ekonomiko sendoetan oinarritu behar du, eta prozesu horretan, finantza-merkatuek helarazitako informazioa gaineratu behar da, baita bereganatutako arriskuaren inguruan eskura dituzten datuak ere. Ikuspegi horrekin bat etorritik, kapital-baldintzak funts propioekin estali behar dira, eta horiek kalitatean, segurtasunean eta eskuragarritasunean oinarritutako irizpideen arabera sailkatu behar dira.

Nahitaezko kaudimen-kapitala behar bezala kalibratu beharko da, hala, aseguru- edo berraseguru-enpresa batek bereganatu ditzakeen arrisku kuantifikagarri guztiak kontuan hartzen direla bermatu dadin; horrez gain, momentuan bertan gauzatzen diren jarduerak nahiz hurrengo hamabi hilabeteetan egitea aurreikusten diren jarduera guztiak estali beharko ditu. Gaur egungo jarduerari dagokionez, aurreikusi ez diren galerak berariaz estali beharko dira. Nahitaezko kaudimen-kapitala aseguru- edo berraseguru-enpresa batek dituen funts propioen arrisku-balioaren berdina izango da, eta konfiantza-maila % 99,5ekoa izango da urtebeteko denbora-horizontean.

II. Kaudimenaren esparruan, kaudimen-kapitalaren baldintzek bi eskakizun-maila izan beharko dituzte. Batetik, nahitaezko kaudimen-kapitala, hura aldatu egin baitaiteke entitateak bereganatutako arriskuaren arabera, eta kalkulu prospektibo batean oinarrituko da; eta bestetik, nahitaezko gutxieneko kapitala, gutxieneko segurtasun-maila gisa konfiguraturua, eta beraz, finantza-baliabideek maila horretatik gora egon beharko lukete beti. Bi kapital-baldintza horiei esker, ikuskatzailearen mailakako esku-hartzea mugatu egin daiteke, hala, hartzaileak, aseguratuak eta onuradunak babesteko maila uniforme bat lortzeko. Entitateak funts propioekin nahitaezko kaudimen-kapital hori lortzen duenean lortzen da normaltasun-egoera. Nahitaezko gutxieneko kapitala lortzen ez bada, entitatea merkatutik kanpo geratuko da. Nahitaezko kaudimen-kapital nahikoa ez duten entitateen kasuan, Legeak ikuskapen-agintaritzak esku hartzeko eskala egokia zehazten du, pixkanaka areagotzen dena.

Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko, ikuspegi modular bat hartzen duen formula estandar bat ezarri da. Bertan, entitate bakoitzak arrisku-kategoria bakoitzera duen esposizioa ebaluatzen da lehenik eta behin, eta gero, ondoriozko balioak gaineratzen dira, hala badagokio, arrisku-moduluen artean dauden korrelazioen eragina kontuan hartuta eta hura kalkulatzeko metodo sinplifikatuak aurreikusiz. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko formula estandarren bitartez, aseguru- eta berraseguru-enpresa gehienek arrisku-profila islatu nahi da. Edonola ere, ikuspegi normalizatuak enpresa baten arrisku-profil zehatza behar bezala ez islatzea ere gerta liteke. Kasu horietan, barne-eredu totalak edo partzialak erabiltzeko aukera aurreikusten da, administrazio-baimena jaso ostean.

Horrez gain, araudiak administrazio-baimena lortu behar den beste egoera batzuk aurreikusten ditu, hala nola, parametro espezifikoen erabileran, funts propio gehigarrietan eta ezkontzagatiko doikuntzetan, hornidura teknikoa kalkulatzeko. Horretarako, sendotu egin behar dira ikuskapen-agintaritzak nazionalak, hau da, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eskura dituen baliabideak.

Gainera, kaudimen-araubide berezi bat aurreikusten da erregelamendu bidez arautzen diren atalaseak gainditzen ez dituzten entitateentzat. Entitate horiek II. Kaudimenaren araubide orokorretik kanpo geratzen dira. Horrenbestez, horiei berezitasun jakin batzuk aplikatzen zaizkie, kaudimen-baldintzei, gobernu-sistemari eta ikuskatzaileari igorri beharreko informazio-baldintzei dagokienez; horiek guztiak erregelamendu bidez garatuko dira. Araubide orokorra bete behar duten entitateek ez bezala, kaudimen-araubide berezia bete behar duten entitateek lurralde nazionalen bakarrik jardun dezakete. Edonola ere, entitate horiek araubide orokorrera atxikitzea eskatu ahal izango dute beren borondatez. Kaudimen-araubide berezi horren pean jarri ahal izango dira, halaber, oso ezaugarri zehatzak dituzten beste aseguru-entitate batzuk.

Jarduteko baldintzen artean, aseguru-entitateek errespetatu behar dituzten merkatuko jarduerekin lotutako zenbait xedapen jasotzen dira. Horien artean, prima-tarifak, oinarri teknikoak eta bezeroei arreta eskaintzeko zerbitzuak edo departamentuak arautzen dituztenak. Aseguruen merkatu bakarraren testuinguruan, lege honek behar bezala bermatzen du beste estatu kide batzuetako entitateek eskaintako aseguruak Espainian merkaturatzeko aukera, betiere interes orokorreko lege-xedapenak betetzen badira.

Lege hau aplikatzeko orduan, proportzionaltasun-printzipioa hartuko da kontuan. Hark baldintzen ezarpena graduatuko du, baita horien konplexutasuna ere, entitateen arrisku-profila eta, bereziki, entitateen aseguru- edo berraseguru-eragiketen izaera, eskala eta konplexutasuna kontuan hartuta, baita horien negozio-ereduari atxikitako arriskuak ere.

VI

Hartzaileak, aseguratuak eta onuradunak babestearen azken helburua modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko, aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduketari buruzko legezko aurreikuspenak ikuskapen eraginkor batekin osatu behar dira. Horrela, aseguruen Espainiako ikuskapen-agintaritzak jarduera modu antolatuan gauzatzen dela bermatzeko beharrezko ahalmenak eta gaitasunak arautzen dira IV. tituluan, nazioartera zabalduetako funtzioak edo jarduerak barne. Berezi, ikuskapen bidez gainbegiratzea arautzen da.

Ikuskapenaren eraginkortasuna bermatzeko helburuarekin, hartutako neurriek proportzionalak izan behar dute aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduerari atxikitako arriskuen izaerarekin, konplexutasunarekin eta tamainarekin.

Banaka hartutako aseguru- eta berraseguru-entitateek ikuskapenaren funtsezko elementua osatzen dute. Baina aurreko legediak ez bezala, lege honek funtsezko izaera eskaintzen die, ikuskatutako subjektuak diren heinean, V. tituluan arautzen diren aseguru- eta berraseguru-entitateen taldeei.

Zentzu horretan, berritasun garrantzitsu bat txertatu da, kapital-loturarik gabeko taldeak sortu ahal izango baitira, aseguru-mutuen taldeak batez ere.

Taldearen ikuskapena egitean, haren kaudimena ebaluatuko da, baita arrisku-kontzentrazioak eta taldearen barneko eragiketak ere. Talde bati dagozkion aseguru- eta berraseguru-entitate guztiak gobernu-sistema eraginkor bat izan beharko dute, eta hura ere ikuskapenaren xede izan daiteke.

Legeak argi eta garbi zehazten du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak noiz jardungo duen nazioarteko talde baten ikuskatzaile gisa, baita kasu horretan izango dituen koordinaziorako eta erabakitze gaitasunak ere. Era berean, lankidetzarako, informazio-trukaketarako eta ikuskapen-agintarien artean kontsultak egiteko mekanismoak dituzten ikuskatzaileen kolegioak arautzen dira.

Edonola ere, banakako entitateak nahiz entitate-taldeak ikuskatzeko orduan, legeak Europako ikuskapen-jardueraren konbergentzia bereganatzen du, printzipio zuzendari gisa, ikuskapeneko erremintetan eta praktketan. Hala, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari zeregin garrantzitsua esleitzen dio haren artikulazioari dagokienez.

VII

Legearen VI. tituluaren, ikuskapen-agintaritzak entitateen finantza-narriadurako egoerei aurre egiteko dituen mekanismoak jasotzen ditu, kontrol bereziko neurriak barne. Bestalde, VII. tituluak ezeztatzeko, desegiteko eta likidatzeko prozedurak gaineratzen ditu, eta VIII. tituluak, berriz, arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Aseguru-entitateen likidazioari dagokionez, arauak aginduzkoak direla argitzen da, pribilegio berezia duen aseguru-kontratu bidezko hartzekodunaren kontzeptua zehazten da, eta mutualistei eta kooperatibistei kapital-sozietateetako bazkideen eskubide berdinak aitortzen zaizkie, likidaziotik eratorritako ondarean parte hartzeko eta haren inguruko informazioa jasotzeko eskubideari dagokionez batez ere.

Era berean, legeak kontrol bereziko neurrien eta konkurtso-prozeduren artean gerta daitekeen bat-egitea ebazten du, eta horretarako, lehenengoei atxikitako entitateek ezin izango dute konkurtsoarako deklarazio judizialik eskatu. Gainera, konkurtsoa onartu aurretik, epaileak aseguru-entitatearen egoerari buruzko txostena eskatu behar dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

Aseguruen Kontentsazio Kontsorzioak egindako likidazioetan aldaketa batzuk txertatu dira haren baliabideen kargurako kredituak erosteko orduan, aurreratu ditzakeen laneko kredituei dagokionez batez ere; era berean, horien konkurtso-prozeduretan duten partaidetza arautzen da.

Arau-hausteen eta zehapenen araubideari dagokionez, arau-hausteen tasak jardueran sartu eta jarduteko eskakizun berrietara egokitu dira, isun formako zehapenen mugak zehaztasun handiagorekin finkatu dira eta zehapen-prozedurari buruzko zehaztapenak txertatu dira.

VIII

Xedapen gehigarrien bitartez, nahitaezko aseguruak lege-mailako arau baten bidez finkatu beharko direla zehazten da, beste gai batzuen artean. Era berean, zeregin berezia duten entitateek beren jarduerak Espainian gauzatu ahal izateko administrazio-baimena eskatzeko aukera jasotzen da. Kontu-auditoreek aseguru- eta berraseguru-entitateei dagokionez dituzten betebeharrak finkatu dira. Aseguru-jarduerarekin zerikusia duten lanbideekin lotutako arauak gaineratzen dira, hala nola, aseguru-aktuarioei eta aseguru-perituei, matxura-komisarioei eta matxura-likidatzaileei dagozkienak. Kauzio-aseguruaren Administrazio Publikoaren aurrean berme gisa onargarria izateko baldintzak zehaztu dira. Era berean, suteen eta elementu naturalen arloan jarduten duten aseguru-entitateek informazio jakin bat emateko duten betebeharra zehazten da, suteei aurrea hartu eta horiek itzaltzeko zerbitzua mantentzeko tasak eta suteak itzaltzeko zerbitzuak ezarri edo zabaltzeko zerga bereziak errazago likidatu eta biltzeko helburuarekin. Ehorzketa-aseguruei aplikatu beharreko araubide sinplifikatua erregelamendu bidez arautuko da horien oinarri teknikoari, hornidurei eta nahitaezko kaudimen-kapitalari dagokionez. Aseguru-entitateek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari ikuskatzailearen onospena behar duten alderdi batzuei buruzko eskaerak zer egunetatik aurrera aurkeztu ahal izango dizkioten zehazten da, baita Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari entitate-taldeen ikuskapenari dagokionez esleitu zaizkion eskumenak ere. Aseguruen Kontentsazio Kontsorzioari informazio-izaerako beste bi funtzio esleitu zaizkio: batetik, nahitaezko aseguru-erregistro berriaren kudeaketa; eta bestetik, suteen arloko estaldurari buruzko informazioa bildu eta hornitzea, suteak itzaltzeko zerbitzuari dagozkion tasak eta suteak itzaltzeko zerbitzua ezarri edo zabaltzeko zerga bereziak hobeto likidatu eta biltzeko helburuarekin. Azkenik, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarekin bitarteko elektronikoak erabiliz mantendu beharreko komunikazioa zirkular bidez egin ahal izango dela zehazten da.

Azken xedapenei dagokionez, Aseguru-kontratuari buruzko Legeari eragiten dioten aldaketak egin dira, besteak beste. Hala, aseguru pertsonalen kasuan, aseguratuak edo hartzaileak ez du jakinarazi beharko aseguratuaren osasun-egoerari buruzko egoerak aldatu egin direla, eta egoera horiek ez dira, inola ere, arriskuaren areagotzetzat hartuko.

Arau honetan, ehorzketa- eta mendekotasun-aseguruak arautzen dira lehen aldiz, eta zerbitzu-emaileak ehorzketa, osasun-laguntza eta mendekotasun arloetako aseguruetan modu askean aukeratzeko duen aukera sendotzen da.

Neurri fiskal, administratibo eta sozialak arautzen dituen abenduaren 30eko 13/1996 Legea eta azaroaren 28ko 35/2006 Legea aldatu dira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoa eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren gaineko legeen partezko aldaketari buruzkoa, eta horiek guztiak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2014ko abenduaren 11ko Epaiari (C-678/11 gaia) zehaztutakoaren arabera egokitu dira. Haren arabera, Espainiako legediari atxikitako enpleguko pentsio-planak Espainian garatzen dituzten eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratuta dauden pentsio-funtsek zerga-ondorioetarako Espainian ordezkari bat izendatu beharra Europako araudiaren aurkako betebeharra da, baita Espainian zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz jarduten duten beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-entitateen kasuan ere.

Eraikuntza antolatzeko legean, arrisku bera estaltzea ahalbidetuko duen finantza-berme bat lortu beharra txertatu da, nahitaez aseguru bat sinatu beharraren ordeiz. Gainera, etxebizitzaren erosleari sustatzaileari baino segurtasun juridiko handiagoa ematen zaio eta, beste alderdi batzuen artean, polizen sistema bikoitzean (poliza kolektiboak eta kausio-aseguruen banakako ziurtagiriak) oinarritutako araubidea ezabatu da. Era berean, Eraikuntza antolatzeko Legea egiten den bitartean prezioaren kontura jasotako kantitateen inguruko aldaketak txertatu dira.

Pentsio-planak eta -funtzak arautzeko Legearen testu bategina aldatu da, eta hala, pentsio-funts irekien arauketa hobetu da; horrela, horien jarduteko aukerak areagotu dira, eskalako ekonomiak eta inbertsio-politiken eta inbertsioen kudeaketaren dibertsifikazioa errazteko helburuarekin. Enpleguko funts irekiaren kontrolerako batzordea arautzeari ekin zaio eta, azkenik, norbere konturako langileen edo autonomoen gizarte-segurantzako araubide berezian alta emateko sistema gisa jarduten duten Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateetan funtzio horretarako erabilitako aseguruaren edo produktuen eskubide ekonomikoak eraginkor egin ahal izango ez direla zehazten da, aurreikusitako likidezia-kasuetan.

Aseguruaren Konpentsazio Kontsorzioari dagokionez, lehenik eta behin haren lege-estatutuari eragiten dioten aldaketak txertatu dira. Ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko nahitaezko aseguruaren ezohiko arriskuak barne hartzen dituen aseguruaren errekargua handitu egin dela nabarmentzen da, eta horrek dagokion estaldura eragingo du. Era berean, Kontsorzioak Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-entitateen likidazio-prozesuen berri eman ahal izango diete aurrerantzean aseguru-kontratuen hartzekodunei, horiek Espainian egin dituzten aseguru-kontratuei eragiten dietenean. Aseguruaren Konpentsazio Kontsorzioaren aldetik egindako aseguru-entitateen likidazioari dagokionez, funtsezko neurriekin eta prozedurazko neurriekin lotutako zenbait aldaketa txertatu dira administrazio-likidazioaren mekanismoak sendotzeko helburuarekin, aseguru-kontratu bidezko hartzekodunen mesedetan. Azkenik, Kontsorzioak konkurtso-prozeduretan duen jarduteko moduaren arauketa eguneratu da, eta hura Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legean jasotako aldaketak kontuan hartuta egokitu da. Ibilgailu motordunen zirkulazioaren inguruko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez araututako kalte-ordain zuzenei buruzko hitzarmenetara atxiki beharra zehaztu da. Trafiko-istripuetan lesionatu direnei xedaturiko laguntza arintzeko, aseguru-entitateek trafiko-istripuetako lesionatuentzako osasun-laguntzarekin lotutako sektore-hitzarmenak egin ahal izango dituzte, baita kalte pertsonalen kalte-ordain zuzenekin lotutako hitzarmenak ere.

Aseguru eta berraseguru pribatuetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legea aldatu da. Laguntzaile aholkularien erregistroa ezabatu da. Laguntzailearen terminologia bateratu da, eta hark «kolaboratzaile» izena izango du aurrerantzean. Hala, bada, aholkulari laguntzailearen eta kanpo-laguntzailearen arteko desberdintasunak ezabatu dira, eta kolaboratzailearen funtzioak bitartekariaren eta haren kolaboratzailearen

arteko kontratuan zehaztuko dira, baita aholkularitza eskainiko duen ala ez ere. Bestalde, artekariak eragiketa bakoitzarekin bat etorriko den kontratu-kopuru egokia aurkeztu beharko du analisi objektibo bat egin ahal izateko.

Azkenik, Merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialen apirilaren 1eko oinarritzko 4/2014 Legea aldatu da, eta hala, finantza arloko desoreken eraginez, ganberen ohiko funtzionamendua galarazten duten egoerak modu zabalagoan arautuko dira.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Xedea eta aplikazio-eremua

1. artikulua. *Legearen xedea eta helburua.*

Lege honen helburua da aseguru- eta berraseguru-jarduera pribatua arautu eta ikuskatzea, bertan sartu eta jarduteko baldintzak eta aseguru- eta berraseguru-entitateen kaudimenari, saneamenduari eta likidazioari dagokien araubidea barne, hartzaileen, aseguratuaren eta onuradunen eskubideak babesteko, eta aseguru-jardueraren gardentasuna eta garapen egokia sustatzeko helburu nagusiarekin.

2. artikulua. *Aplikazio-eremu subjektiboa.*

Lege honen xedapenak bete beharko dituzte:

- a) Egoitza soziala Espainian duten aseguru- eta berraseguru-entitateek, eta hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateek Espainian dituzten sukurtsalek.
- b) Aseguru- eta berraseguru-entitateen taldeek.
- c) Edozein tituluren pean, aseguru- eta berraseguru-entitateetako administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek.
- d) Lege honetan edo hura garatzen duten xedapen gehigarrietan aurreikusten diren funtzioak betetzen dituzten profesionalak eta entitateek.
- e) Aseguru- eta berraseguru-entitateetako likidatzaileek.
- f) Aseguru- edo berraseguru-entitateei aseguru- edo berraseguru-jarduerarekin lotutako zerbitzu komunak eskaintzeko edo arriskuen estaldura banatzeko helburuarekin kokatutako erakundeek, zernahi dutelarik ere izaera eta forma juridikoa.
- g) Lege honetan debeku edo aginduren bat ezartzen zaien gainerako pertsonak.

3. artikulua. *Aplikazio-eremu objektiboa.*

1. Lege honen xedapenak bete beharko dituzte:

- a) Bizitza-aseguru zuzeneko eta bizitza-aseguru ez den beste aseguru zuzeneko jarduerak.
- b) Berraseguru-jarduerak.
- c) Aseguru- eta berraseguru-entitateek gauzatzen dituzten aseguru-jarduketak prestatzeko edo osatzeko eragiketek.
- d) Aseguru-jarduerarekin lotutako kalteei aurrea hartzeko jarduerak.
- e) Lege-mailako arauetan berariaz zehazten diren gainerako jarduera guztiek.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera lege honetan xedatutakoaren araberakoa izango da:

- a) 2. artikuluan aurreikusitako entitate, talde eta pertsonak gauzatzen dutenean.
- b) Europar Batasuneko beste estatu kide batean (aurrerantzean, estatu kide) helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateek jarduera Espainian gauzatzen dutenean.

4. artikulua. *Salbuetsitako jarduerak.*

1. Nahitaezko Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten araubide orokorra eta araubide bereziak lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira.

2. Honako eragiketa eta jarduera hauek ere ez dute lege hau bete beharko:

a) Estatuaren bermearekin edo kontura egindako esportazioen kreditu-asegururako eragiketek, edo Estatuak aseguratzaile gisa egindako jarduketek.

b) Estatu kide bateko gobernuak guztiz bermatzen edo gauzatzen dituen berraseguru-jarduerak, interes publikoko arrazoiak direla-eta, hark azken errekurtsoko berraseguratzailerik gisa jarduten duenean, baita jarduketa hori merkatuko egoera jakin batek eragiten duenean ere, bertan estaldura egokia lortzea ezinezkoa denean.

c) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako pentsio-funtsak eta -planak arautzeko Legearen testu bateginak arautzen dituen pentsio-funtsen kudeaketarako eragiketek; pentsio-funtsen entitate kudeatzaileek gauzatuko dituzte eragiketa horiek.

d) Beren bazkideen elkarrekiko bermea xedetzat duten nortasun juridikorik gabeko erakundeek gauzatutako jarduerak, primen ordainketari edo hornidura teknikoaren osakerari bidea eman beharrik izan gabe.

e) Eskura dituzten baliabideen arabeko prestazioak eskaintzen dituzten eta beren parte-hartzaileei oroharreko prezioan ekarpen bat egitea eskatzen dieten hornidura- eta laguntza-erakundeek egindako eragiketek.

f) Aseguru-entitateak ez diren beste erakunde batzuek gauzatzen dituzten eragiketek, horien helburua enpresa batean edo enpresa-talde batean nahiz sektore profesional edo lanbidearteko sektore batean lan egiten duten besteren konturako nahiz norbere konturako langileei prestazio jakin batzuk hornitzea, heriotza kasuan, bizitza kasuan edo jarduerak murriztu edo lagatzen diren kasuan, eragiketa horietatik eratorritako konpromisoak guztiz estalita egon ala ez, eta betiere hornikuntza matematikoen bitartez.

3. Aseguru- eta berraseguru-entitateek ez dituzte I. titulutik V. titulura jasotzen diren betebeharrak bete beharko Aseguruen Kontentsazio Kontsultorioari horien likidazioa agintzen zaionean.

5. artikulua. *Aseguru-entitateei debekatutako eragiketak.*

1. Aseguru-entitateek ezin izango dituzte honako eragiketa hauek gauzatu:

a) Oinarri tekniko aktuarialik ez duten eragiketak.

b) Bestelako merkataritza-jarduerak eta aseguru-jarduerari dagozkionak ez diren beste berme batzuk eskaintzea. Debeku horretan ez da sartuko entitate ez aseguratzaileekin izandako lankidetzak, horiek ekoiztutako zerbitzuak banatzeko helburuarekin.

c) Dagokion araudi zehatzean zehaztutako aseguruaren bitartekaritza-jarduerak.

2. Aseguru-entitate batek artikulua honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzen baditu, haren erabateko deuseztasuna zehaztuko da.

II. KAPITULUA

Definizioak

6. artikulua. *Entitateak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehazten denaren ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

1. Aseguru-entitatea: Lege honetan edo beste estatu kide bateko legedian xedatutakoari jarraikiz, bizitza-aseguru zuzeneko edo bizitza-asegurua ez den beste aseguru zuzen batzuetako jarduerak egiteko baimena duen entitatea.

2. Aseguru-entitate gatibua: Entitate ez-finantzario batena edo aseguru- edo berraseguru-entitate bat ez den finantza-entitate batena den, edo aseguru- edo berraseguru-entitateen talde bat osatzen duen aseguru-entitatea. Hura 131.1.f) artikuluan definitzen da eta aseguru-estaldura eskaintzea du helburu, hari dagokion entitatearen edo entitateen edo osatzen duen taldeko entitate baten edo gehiagoren arriskuen kasuan.

3. Hirugarren herrialde batean helbideratutako aseguru-entitatea: Egoitza soziala estatu kideren batean izango balu, aseguru-jarduera gauzatzeko baimena lortu beharko lukeen aseguru-entitatea, Estatu horretako xedapenei jarraikiz.

4. Berraseguru-entitatea: Lege honetan xedatutakoari jarraikiz, edo beste estatu kide bateko legediari jarraikiz, berraseguru-jarduerak egiteko baimena lortu duen entitatea.

5. Berraseguru-entitate gatibua: Entitate ez-finantzario batena edo aseguru- edo berraseguru-entitate bat ez den finantza-entitate batena den, edo aseguru- edo berraseguru-entitateen talde bat osatzen duen aseguru-entitatea. Hura 131.1.f) artikuluan definitzen da eta berraseguru-estaldura eskaintzea du helburu, hari dagokion entitatearen edo entitateen edo osatzen duen taldeko entitate baten edo gehiagoren arriskuen kasuan.

6. Hirugarren herrialde batean helbideratutako berraseguru-entitatea: Egoitza soziala estatu kideren batean izango balu, berraseguru-jarduera gauzatzeko baimena lortu beharko lukeen entitatea, Estatu horretako xedapenei jarraikiz.

7. Berrasegurua: Aseguru-entitate batek edo berraseguru-entitate batek lagatutako arriskuak onartzean datzan jarduerak, hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden aseguru- edo berraseguru-entitateak barne.

8. Berraseguru mugatua: Harpidetza-arrisku esanguratsu batetik edo aldi baterako arrisku bat eskualdatzetik eratorritako berariazko gehienezko galera-potentzialak – eskualdatutakoa gehieneko arrisku ekonomikoaren terminoetan– kontratua indarrean den bitartean prima gainditzen duen berrasegurua, gainditzen duen zenbatekoa mugatua baina esanguratsua denean eta, gutxienez, honako ezaugarri hauetako bat gehitzen denean:

a) Diruaren aldi baterako balioaren kontsiderazio materiala eta berariazkoa egiten denean.

b) Denboran, alderdien arteko esperientzia ekonomikoaren oreka moderatua duten kontratu-xedapenak daudenean, aurreikusitako arriskua eskualdatzeko helburuarekin.

9. Finantza-erakundea, honako hauetako edozein:

a) Kreditu-erakunde bat, finantza-enpresa bat edo banku-zerbitzu osagarrien enpresa bat, kreditu-erakundearen araudian arautzen diren moduan.

b) Aseguru-entitate bat, berraseguru-entitate bat edo 131.1.i) artikuluan definitzen diren aseguru-zorroen sozietate bat.

c) Inbertsio-zerbitzuen enpresa bat edo finantza-sozietate bat, inbertsio-zerbitzuen araudian arautzen diren moduan.

d) Zorroa duen finantza-sozietate misto bat, Finantza-multzoen ikuskaritzari buruzko eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituen apirilaren 22ko 5/2005 Legearen 2.7 artikuluari jarraikiz.

10. Zeregin berezia duen entitatea: Lehendik dauden aseguru- eta berraseguru-entitateengandik desberdina den nortasun juridikodun edo nortasun juridikorik gabeko entitatea, hark aseguru- eta berraseguru-entitateen arriskuak bereganatzen dituen eta arrisku horiekiko esposizioa guztiz finantzatzen duenean, zorra jaulkiz edo beste finantziario-mekanismo batzuen bitartez, baldin eta zor edo beste finantziario-mekanismoaren hornitzaileek dituzten errenboltso-eskubideak entitate horren berraseguru-betebeharren eraginpean badaude.

11. Baimendutako kontrako alderdi zentrala: Kokatuta dagoen estatu kideko agintaritzak eskudunak baimendu duen kontrako alderdi zentrala edo, hirugarren herrialde batean kokatuta dagoenean, Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzak aitortu duenean.

12. Kanpoko kreditu-kalifikazioko agentzia: Hala aitortutako, ziurtatutako eta erregistratutako kreditu-kalifikazioko agentzia bat edo kreditu-kalifikazioak igortzen dituen banku zentral bat.

13. Bulego nazionala: Nazio Batuen Erakundeko Europarako Batzorde Ekonomikoko barne-garraioen batzordeko errepide bidezko garraioen azpibatzerdeak 1949ko urtarrilaren 25ean onartutako 5. gomendioari jarraikiz eratutako erakunde profesionala. Hark lurreko ibilgailu automobiletan erantzukizun zibilaren esparruan jarduteko Estatu baten baimena jaso duten aseguru-entitateak hartzen ditu barne.

Espanian, Automobilen Aseguratzailen Espainiako Bulegoa (OFESAUTO) da bulego nazionala.

14. Berme-funts nazionala: Estatu kide bakoitzak norbere lege, erregelamendu eta administrazio mailako xedapenei jarraikiz sortutako erakunde. Haren eginkizuna da identifikatu gabe dagoen ibilgailu batek edo aseguru-betebeharra bete ez duen ibilgailu batek eragin dituen kalte materialak edo gorputzekoak konpontzea, gutxienez aseguruaren betebeharrari dagozkion mugetaraino.

Espanian, Aseguruaren Konpentsazio Kontsortzioa da berme-funts nazionala.

7. artikulua. *Ikuskapen-agintaritza nazionala.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehazten denaren ondorioetarako, eta dagokion Estatuko legediari jarraikiz, aseguru- edo berraseguru-entitateak berrikusteko eskumena duen agintaritza nazionala izango da ikuskapen-agintaritza.

Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusia da aseguru- eta berraseguru-entitateak ikuskatzeko eskumena duen ikuskapen-agintaritza nazionala –lege honetan jasotzen diren terminoekin bat etorritik–, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari zuzenean esleitzen zaizkion eskumenei eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoek dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

8. artikulua. *Jatorrizko estatu kidea, estatu kide hartzailea, eta zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideko jarduerak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehazten denaren ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

1. Jatorrizko estatu kidea:

a) Bizitza-asegurua ez den beste aseguruetan, arriskua estaltzen duen aseguru-entitatearen egoitza soziala kokatuta dagoen estatu kidea, eta bizitza-aseguruaren kasuan, konpromisoa bereganatzen duen aseguru-entitatea kokatuta dagoen estatu kidea.

b) Berraseguruaren kasuan, berraseguru-entitatearen egoitza soziala kokatuta dagoen estatu kidea.

2. Estatu kide hartzailea:

a) Arriskua estaltzen duen edo konpromisoa bereganatu duen sukurtsala kokatuta dagoen eta jatorrizkoa ez den estatu kidea.

b) Aseguru- edo berraseguru-entitateak zerbitzuak eskaintzen dituen eta jatorrizkoa ez den estatu kidea; bizitza-aseguruaren kasuan, konpromisoa bereganatu duen estatu kidea izango da zerbitzuak eskaintzen diren estatu kidea, eta bizitza-asegurua ez den beste aseguruaren kasuan, arriskua kokatuta dagoen estatu kidea.

3. Arriskua kokatzen den estatu kidea:

a) Ondasunak dauden estatu kidea, aseguruaren ondasun higiezinena eta horien edukiarena denean, edukia aseguru-poliza berak babesten baldin badu.

Asegurua higiezin batean dauden ondasun higigarrien ingurukoa denean, eta legez eskatzen diren tributu eta errekaraguen ondorioetarako, higiezin kokatuta dagoen estatu kidea, baita hura eta haren edukia aseguru-poliza berak estaltzen ez baditu ere, merkataritzako igarobidean dauden ondasunen kasuan salbu.

b) Matrikulazioaren estatu kidea, aseguru mota guztietako ibilgailuei dagokienean.

c) Aseguru-hartzaileak kontratua sinatu duen estatu kidea, haren iraupena lau hilabetekoa edo txikiagoa bada, eta bidaia batean zehar edo aseguru-hartzailearen ohiko bizilekutik kanpo gertatzen diren arriskuei dagokienez, eragindako arloa zernahi dela ere.

d) Aurreko letretan berariaz jasotzen ez diren kasuetan, aseguru-hartzaileak ohiko bizilekua duen edo, pertsona juridikoa bada, kontratuan adierazten den sukurtsala edo egoitza soziala dagoen estatu kidea.

4. Konpromisoari dagokion estatu kidea: Pertsona fisikoaren kasuan, aseguru-hartzaileak ohiko bizilekua duen estatu kidea, edo egoitza soziala edo sukurtsala duen estatu kidea, kontratua azken horri dagokionean, hura pertsona juridikoa denean.

5. Establezimendua: Entitate baten egoitza soziala edo sukurtsala.

6. Sukurtsala: Jatorrizkoa ez den beste estatu kide baten lurraldean kokatuta dagoen aseguru- edo berraseguru-entitate baten establezimendua.

Sukurtsalen baliokidetzat hartuko da beste estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate baten etengabeko presentzia, presentzia horrek sukurtsal itxura ez izan arren eta administratutako bulego baten bidez gauzatu arren, haren langileen edo pertsona independente baten bitartez; dena den, aseguru-entitatearen kontura etengabe jarduteko ahalmenak izango ditu, sukurtsal batek bezala.

7. Hirugarren herrialdeetako aseguru- eta berraseguru-entitateen sukurtsalak: Europar Batasunetik kanpo helbideratuta dagoen aseguru- edo berraseguru-entitate batek estatu kide baten lurraldean duen etengabeko presentzia, estatu kide horretan jarduteko baimena duenean eta aseguru- edo berraseguru-eragiketarako gauzatzen dituen.

8. Kokatzeko eskubideari dagokion araubidea: Beste estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru- edo berraseguru-entitate baten sukurtsal batek estatu kide batean garatzen duen jardura.

9. Zerbitzuak modu askean eskaintzeari buruzko askatasunaren araubidea: Estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru- edo berraseguru-entitate batek bere egoitza sozialetik edo hark beste estatu kide batean duen sukurtsal batetik garatzen duen jardura, hala, arrisku bat estaliz, konpromiso bat bereganatuz edo beste estatu kide batean berraseguru-jarduerak gauzatuz.

9. artikulua. *Entitateen arteko kontrol- edo partaidetza-harremanak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskeraren eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehaztutakoaren ondorioetarako, eta 131.1 artikuluan zehazten denari kalterik egin gabe, honela ulertuko dira termino hauek:

1. Entitate matrizea: Zuzenean edo zeharka, beste entitate baten edo batzuen kontrola duen edo eduki dezakeen entitatea.

2. Eskumendeko entitatea: Zuzenean edo zeharka, entitate matrize batek kontrolatzen duen edo kontrolatu dezakeen entitatea.

3. Kontrola: Entitate matrize baten eta eskumendeko entitate baten arteko harremana, edo edozein pertsona fisiko edo juridikoren eta enpresa baten arteko izaera bereko harremana, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan eta hura garatzen duten xedapenetan aurreikusten diren egoeretan.

4. Partaidetza: Zuzenean nahiz kontrol-lotura baten bitartez, enpresa baten kapital- edo boto-eskubideen 100eko 20eko edo hortik gorako jabetza.

5. Aseguru- edo berraseguru-entitate bateko partaidetza esanguratsua: Zuzenean edo zeharka, aseguru- edo berraseguru-entitate batean kapitalaren edo boto-eskubideen gutxienez 100eko 10eko jabetza izatea edo entitatearen kudeaketan eragin esanguratsua izateko bestelako aukeraren bat izatea.

6. Lotura estuak: Bi pertsona fisikoren edo juridikoren edo gehiagoren arteko harremana, horiek partaidetza baten bidez edo kontrol-lotura baten bidez lotuta daudenean. Era berean, bi pertsona fisiko edo juridiko edo gehiago –horietako bat aseguru- edo berraseguru-entitatea izango da– kontrol-lotura baten bidez pertsona fisiko edo juridiko berarekin lotuta daudenean.

7. Partaidetzak finantza- eta kreditu-erakundeetan:

a) Aseguru- eta berraseguru-enpresek honako hauetan dituzten partaidetzak:

1. Kreditu-erakunde eta finantza-erakundeetan, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 1. artikulua ikapaturako ondorioetarako;

2. Inbertsio-zerbitzuen enpresetan, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 62. artikuluan jasotzen diren ondorioetarako.

b) Kreditu-erakunde eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzko 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamenduko 4. kapituluko I. tituluko bigarren zatian jasotzen diren aseguru- eta berraseguru-enpresen mendeko kredituak eta erremintak, horiek partaidetzak dituzten a) letran definitutako entitateen aurrean.

10. artikulua. *Merkatu arautuak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehaztutakoaren ondorioetarako, merkatu arautu gisa hartuko dira:

1. Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 31. artikuluan zehazten diren Espainiako bigarren mailako merkatu ofizialak eta beste estatu kide bateko legedian araututako merkatuak.

2. Hirugarren lurralde batean kokatuta dauden merkatuen kasuan, aurreko zenbakian adierazitako merkatu arautuekin alderatu daitezkeen eskakizunak betetzen dituztenak, negoziatutako finantza-erremintek Europar Batasunean kokatutako merkatu arautuetan negoziatutako erreminten antzeko kalitatea dutenean.

11. artikulua. *Arrisku handiak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehaztutakoaren ondorioetarako, honako hauek izango dira arrisku handien aseguru-kontratuak:

a) Trenbide-ibilgailuei, aireko ibilgailuei, itsas ibilgailuei, aintzira-ibilgailuei eta ibai-ibilgailuei, garraiatutako salgaiei (ekipajeak eta garraiatutako gainerako ondasunak barne), aireko ibilgailuen erantzukizun zibilari (garraiolariaren erantzukizuna barne), eta itsas, aintzira- eta ibai-ibilgailuen erantzukizun zibilari (garraiolariaren erantzukizun zibila barne) dagozkienak.

b) Kredituari eta kauzioari dagozkienak, hartzailleak eta aseguratuak titulu profesionalaren pean jarduera industrial, komertzial edo liberal bat gauzatzen dutenean, eta arriskua jarduera horrekin lotuta dagoenean.

c) Lurreko ibilgailuei (trenbide-ibilgailuak kanpo), sute eta elementu naturalei, ondasunei eragindako beste kalte batzuei, lurreko ibilgailu automobiletako erantzukizun zibilari (garraiolariaren erantzukizuna barne), erantzukizun zibil orokorrari eta hainbat diru-kalteri dagozkienak, betiere hartzailleak hiru irizpide hauetatik, gutxienez biren mugak gainditzen baditu:

Balantzearen aktiboa, guztira: 6.200.000 euro.

Negozio-bolumenaren zenbateko garbia: 12.800.000 euro.

Ekitaldian zehar dauden langileen batez besteko kopurua: 250 langile.

Aseguru-hartzailea sozietate-talde baten barnean badago eta haren kontu bateratuak Merkataritzako Kodearen 42. artikulutik 49. artikulura xedatutakoarekin bat badatoz, arestian aipatutako irizpideak kontu bateratuen oinarriari dagokionez aplikatuko dira.

12. artikulua. *Komunitatearen koasegurua.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehaztutakoaren ondorioetarako, honako baldintza hauek betetzen dituztenak izango dira komunitatearen koaseguru-eragiketak:

1. Arrisku handi gisa kalifikatu daitezkeen arrisku bat edo gehiago estali behar dituzte.
2. Arriskuaren estalduran zenbait aseguru-entitatek parte hartu behar dute; horietako bat aseguru-entitate irekitzailea izango da, modu ez solidarioan eta koaseguratzaile gisa, kontratu bakar baten bitartez, prima global baten bitartez eta iraupen bererako.
3. Europar Batasunean kokatutako arriskuak estaltzea.
4. Arriskuaren estaldura-ondorioetarako, aseguru-entitate irekitzaileak arrisku osoa estaltzeko gaitasuna izan behar du.
5. Koaseguru-entitate batek, gutxienez, kontratuan parte hartu behar du, haren egoitza sozialaren edo aseguru-entitate irekitzailearen estatu kidea ez den beste estatu kide batean kokatuta dagoen sukurtsal baten bitartez.
6. Aseguru-entitate irekitzaileak koaseguruan dagozkion funtzio guztiak bereganatu behar ditu eta, bereziki, aseguru- eta tarifikazio-baldintzak zehaztu behar ditu.

13. artikulua. *Funtzioak gobernatu eta kanporatzeko sistema.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena arautzen duten gainerako xedapenetan zehaztutakoaren ondorioetarako, honela ulertuko dira:

1. Funtzioa: Gobernu-sistema batean, aseguru- edo berraseguru-entitate batek entitatearen gobernuari dagozkion eginkizun jakin batzuk gauzatzeko duen gaitasuna.
2. Entitatearen gobernu-sistema: Antolakuntza-egitura gardena eta egokia, funtzioen bereizketa egokia eta banaketa argia dituen; informazioa helarazten dela bermatzeko sistema eraginkor bat izango da, eta jardueraren kudeaketa osasuntsua eta zuhurra, eta aseguru- edo berraseguru-entitate baten barne-kontrolako mekanismo eraginkorrak bermatuko ditu, honako funtsezko funtzio hauek barne hartuz: arriskuen kudeaketa-funtzioa, horiek betetzen direla egiaztatzeko funtzioa, barne-ikuskaritzari dagokion funtzioa eta funtzio aktuariala.
3. Zerbitzuak kanpora ateratzea: Aseguru- edo berraseguru-entitate baten eta hirugarren entitate baten artean egindako edozein motatako akordio, hura ikuskapenari atxikitako entitate bat izan ala ez; haren bitartez, zuzenean edo azpikontratazio bidez, hark aseguru- edo berraseguru-entitateak berak egingo lukeen funtzio edo jarduera bat gauzatu du.

14. artikulua. *Arriskuak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehazten denaren ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

1. Harpidetza-arriskua: Aseguru-jardueratik eratorritako konpromisoek duten balioaren kontrako aldaketa- edo galera-arriskua, tarifikazio-hipotesiaren eta hornidura-eraketaren egokitasunik eza dela eta.
2. Merkatuko arriskua: Zuzenean nahiz zeharka, aktibo, pasibo eta finantza-erreminten merkatuko prezioen aldakortasunean eta mailan gertatu diren gorabeherak eragindako finantza-egoeraren kontrako aldaketa- edo galera-arriskua.
3. Kreditu-arriskua: Balio-igorleen, kontrako alderdien eta aseguru- nahiz berraseguru-entitateen eraginpean dauden zordun guztien kaudimenean gertatzen diren

gorabeheretatik eratorritako finantza-egoeraren kontrako aldaketa- edo galera-arriskua, kontrako alderdiaren ez betetze arrisku, diferentzial-arrisku edo merkatuko arriskuaren kontzentrazio gisa.

4. Eragiketa-arriskua: Langile edo sistemek eragindako barne-prozesuen nahiz kanpoko gertakarien disfuntzio edo egokitasunik ezak eragindako galera-arriskua.

5. Likidezia-arriskua: Aseguru- eta berraseguru-entitateek inbertsioak eta bestelako aktiboak ez egin ahal izateko arriskua, iraungitzean beren finantza-betebeharrei aurre egin ahal izateko.

6. Kontzentrazio-arriskua: Aseguru- eta berraseguru-entitateen finantza-egoera edo kaudimena arriskuan jartzeko moduko galera potentziala eragiten duen arriskuakiko esposizioa.

7. Arriskua murrizteko teknikak: Aseguru- eta berraseguru-entitateei beren arriskuen zati bat edo arrisku guztia hirugarrenei transferitzea ahalbidetzen dizkieten teknika guztiak.

8. Dibertsifikazio-ondorioak: Aseguru- eta berraseguru-entitateen eta horien taldeen arriskuarekiko esposizioa murriztea, horien jarduerak dibertsifikatu egiten direnean eta arrisku baten emaitza negatiboa beste arrisku baten emaitza onuragarriagoarekin konpentsatu daitekeenean, arrisku horien artean korrelazio osorik ez dagoenean.

9. Probabilitatea banatzeko aurreikuspena: Funtzio matematiko bat da, eta betetzeko probabilitate jakin bat esleitzen dio elkarrekiko baztertzailak diren etorkizuneko gertakarien multzo bati.

10. Arrisku-neurria: Probabilitate-banaketaren aurreikuspen jakin bati moneta-balio bat esleitzen dion eta probabilitate-banaketaren aurreikuspen horri atxikitako arriskuaren esposizio-mailarekin modu monotonoan hazten den funtzio matematikoa.

15. artikulua. *Saneamendu-neurriak eta likidazio-prozedurak.*

Lege honetan eta aseguru pribatuen ikuskapena eta kontratazioa arautzen duten gainerako xedapenetan zehazten denaren ondorioetarako, honela ulertuko dira termino hauek:

1. Agintari eskudunak: Likidazio-prozeduren edo saneamendu-neurrien esparruan eskumena duten estatu kideetako administrazio-agintari edo agintari judizialak.

2. Saneamendu-neurriak: Agintari eskudunen jarduketa eragiten duten eta aseguru- edo berraseguru-entitatearen finantza-egoera mantentzera edo leheneratzera xedaturik dauden neurriak, horiek entitateetik kanpoko hirugarrenen aurretiazko eskubideei eragiten dietenean.

3. Kontrol bereziko neurriak: Agintari eskudunen jarduketa eragiten duten eta entitatearen finantza-narriadura edo kudeaketa egoera kontrolatzeko edo leheneratzeko helburua duten neurriak, aseguru- edo berraseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak eta haren kaudimenean edo bideragarritasunean eragin dezaketen entitatearen beste interes batzuk mantentzeko beharrezkoak direnean.

4. Likidazio-prozedura: Aktiboen likidaziorako eta likidazioaren emaitza hartzekodun, akziodun edo bazkideen artean –dagokion moduan– banatzeko prozedura kolektiboa, administrazio-agintaritzaren edo agintaritza judizialaren jarduketa-motaren bat eragiten duenean, hura kaudimen-gabezia oinarrituta egon ala ez, eta borondatezko nahiz nahitaezko izaera izan.

5. Behin-behineko administratzailea: Estatu kide bateko agintari eskudunek saneamendu-neurriak administratzeko izendatzen duten pertsona edo organo oro.

6. Likidatzailea: Aseguru-entitateko organo sozialek edo agintari eskudunek likidazio-prozedurak kudeatzeko izendatzen duten pertsona edo organo oro.

7. Aseguru-kontratu bidezko konpromisoa: Aseguru-entitate batek aseguratuarekin, aseguru-hartzaileekin, onuradunekin edo aseguru-entitatearen kontrako akzio zuzeneko eskubidea duten hirugarren kaltetuekin duen konpromisoa. Hark aseguru-kontratu batean edo Lege honetako 2., 3. edo 4. zenbakietako a) letrako B) eranskinean aurreikusitako edozein eragiketatan izan behar du jatorria, aseguru zuzenaren esparruan, baita zorraren elementu jakin batzuk ezagutzen ez direnean ere.

I. TITULUA

Ikuskapen-organoak eta eskumenak

I. KAPITULUA

Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenak

16. artikulua. *Estatuko Administrazio Orokorraren ikuskapen-eskumenak.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrak aseguru- eta berraseguru-entitateak ikuskatzeko orduan eta aseguru- eta berraseguru-merkatuen garapen antolatua gauzatzeko orduan dituen eskumenak Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez gauzatzeko dira, lege honetan eta haren garapenerako arauetan zehazten den moduan, eta autonomia-erkidegoei beren eskumenen esparruan dagozkien funtzioei kalterik egin gabe.

2. Aseguru pribatuak arautu eta ikuskatzeari dagokionez, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagokio:

- a) Aseguru- eta berraseguru-jarduera baimentzea edo ezeztatzea.
- b) Nahitaezko kaudimen-kapitala barne-eredu bat erabiliz kalkulatu dadila baimentzea.
- c) Mutua-taldeak sortu, aldatu eta desegin daitezela baimentzea.
- d) Aseguruen arloan, merkatuaren gardentasunari eta erabiltzaileek dituzten eskubideen babesari buruzko arauak onartzea.
- e) Aseguru- eta berraseguru-entitateen desegite administratiboa adostea eta, hala badagokio, Aseguruen Kontentsazio Kontsultazioari haren likidazioa agintzea.
- f) Arau-hauste oso astunak egin izanagatik zehapenak jartzea, VIII. tituluaren adierazitako moduan.
- g) Lehiakortasunaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legean eta Erkidegoko xedapen aplikagarrietan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, III. titulu VI. kapituluaren arautzen diren Aseguru- eta berraseguru-entitateen aldi baterako batasunak eta taldeak, egiturazko aldaketak eta aseguru-zorroaren lagapenak baimentzea, kontzentrazio ekonomikoen kontrolari dagokionez.
- h) Lege honek eta gainerako antolamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eskubideak gauzatzeko.

17. artikulua. *Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, Espainiako agintaritza ikuskatzailea den heinean, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritza osatuko du, Ikuskapenerako Europako Agintaritza osatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 1094/2010 Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz.

Lege honek eta haren garapenerako arauak agindutako ikuskapen-funtzioak betetzean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzaren zuzentarauak eta gomendioak aztertu eta hartuko ditu kontuan. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak zuzentarau edo gomendio horiek alde batera uzten dituztenean, arrazoietan oinarritutako ebazpen bidez egingo du.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak xedapenak agindu ahal izango ditu Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren aginduetan edo errege-dekretuetan jasotako aseguru-arauen garapenean, arau horiek horretarako berariazko eskumena ematen diotenean eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordearen txostena jaso ostean.

Xedapen horiek zirkular izena hartuko dute eta Gobernuaren azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 24. artikuluan araututako prozedura bidez bideratuko dira. Horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta Kode Zibilaren 2. artikuluko lehen zenbakian xedatutakoaren arabera jarriko dira indarrean.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, bere egoitza elektronikoaren bitartez, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia hedatu dadila sustatuko du lege honetan zehaztutako helburuak lortzen direla bermatzeko; era berean, bide elektroniko bidez dagozkion prozedurak bideratuko ditu.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak urteko txosten bat egin eta haren publikitatea egingo du. Bertan, haren jarduera ikuskatzailea islatuko da, baita aseguru-merkatuen eta pentsio-funtsen egoera orokorra ere.

5. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak lege honetan jasotzen diren administrazio-ahalmenak gauzatzean ematen dituen ebazpenak Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren aurrean apelatzeko modukoak izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoari jarraikiz.

18. artikulua. *Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordea.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordea Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kide anitzeko administrazio-organoa izango da aseguru pribatuen, berraseguruen, pentsio-funts eta planen, eta aseguru eta berraseguruetako bitartekaritzaren arauketari eta ikuskapenari dagokionez.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeari dagokio:

a) Aseguru pribatuekin, berraseguruekin, pentsio-funts eta -planekin, eta aseguru- eta berraseguru-bitartekaritzarekin zuzenean lotutako gaien buruzko izaera orokorreko xedapen-proiektuen berri ematea, xedapen horien lanketa-prozeduran eragindako sektoreen entzute-printzipioa eraginkor egiteko helburuarekin. Igorritako txostena ez da loteslea izango.

b) Lehendakariak eskatutako azterlanak eta txostenak egitea.

c) Nahitaezko aseguru- eta a) letran adierazitako gaien dagokienez gomendio orokorrak eta partikularrak egitea.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeko burua Aseguruen eta Pentsio Funtsen zuzendari nagusia izango da, eta honako hauek parte hartuko dute, batzordekide gisa: Estatuko Administrazio Orokorreko ordezkariak, aseguratu eta erabiltzaileak, pentsio-planetako parte-hartzaileak, aseguru-entitateak, pentsio-funtsen entitate kudeatzaileak, aseguru-bitartekariak, sindikatu- eta enpresa-erakundeak, aseguru pribatuarekin lotutako korporazio prestigiodunek, aktuarioek, aseguru-perituek eta matxura-komisarioek, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta osaera kontuan hartuta.

Gainera, lehendakariak beste pertsona edo entitate batzuk bertaratuta daitezela eskatu ahal izango du, horiek ere adituak diren heinean, jorratuko diren gaien izaeraren arabera.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeak legeak aurreikusten duen kasuetan eta lehendakariak hala erabakitzen duenean jasoko du bilera-deia.

5. Lege honetan eta hura garatzen duen erregelamenduan jasotzen diren arauen, eta haren araubidea eta funtzionamendua osatzeko zehaztu daitezkeen gainerako arauen ezean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeak behar bezala bete beharko ditu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko arauak eta mota horretako organoei aplikatu beharreko administrazio-zuzenbide erkidearen gainerako xedapenak.

II. KAPITULUA

Autonomia-erkidegoen eskumenak

19. artikulua. *Eskumen-banaketa.*

1. Beren autonomia-estatutuei jarraituz aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu-eskumenak bere egin dituzten autonomia-erkidegoek entitate horien gaineko

eskumena ere izango dute, autonomia-erkidego horren lurraldera mugatzen badira haien egoitza soziala, jardute-eremua edo aseguratzen duten arriskuaren kokapena, bizitza-aseguruak ez badira, eta konpromisoak bere egitea, bizitza-aseguruak badira. Irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Arau-eskumenei dagokienez, lege honetako eta hura osatzen duten oinarritzko erregelamendu-xedapenetako aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu eta ikuskapeneko oinarrien lege-garapena dagokie. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei eta aseguru-kooperatibei dagokienez, horiek berariazko eskumena izango dute beren antolakuntza eta funtzionamendua arautzeko orduan.

b) Exekuzio-eskumenen esparruan, lege honetan Estatuko Administrazio Orokorrari esleitzen zaizkion aseguru- eta berraseguru-entitateen antolakuntzari eta ikuskapenari lotutakoak dagozkio, aseguru-jarduera gauzatzeko administrazioaren baimena emateko eta hura ezeztatze eskumenak salbu, horiek Estatuak bakarrik izango baititu, eta hark dagokion autonomia-erkidegoari egingo dio jakinarazpena, hala badagokio. Lege honetan egiten diren Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari buruzko erreferentziak organo autonomiko eskudunari dagozkiola ulertuko da, Europar Batasunaren esparruan jarduten duten Espainiako entitateei edo Espainian jarduten duten Europako entitateei buruzkoak salbu.

Autonomia-erkidegoei dagokie, halaber, aseguru-kooperatibei eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei aseguru-jarduera erabili ahal izateko baimena ematea eta ezeztatzea; bi kasuetan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aurretiko txostena beharko da. Baimena eman edo ezeztatze prozedura ebazteko legezko gehieneko epea eten egingo da txostena eskatzen denetik hura jaso arte. Etenaldi hori ez da hiru hilabetekoa baino luzeagoa izango. Autonomia-erkidegoak emandako eta ezeztatutako baimen bakoitzaren berri emango dio Zuzendaritza Nagusiari.

2. Beren autonomia-estatutuei jarraikiz aseguru-entitateen antolamenduari eta ikuskapenari buruzko eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoek eskumenak izango dituzte, halaber, horien kontura jarduten duten harpidetza-agentziei dagokienez.

3. Ondorio horietarako, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek lege honen 80. eta 114. artikuluetan eta haren erregelamendu bidezko garapenean adierazten diren entitate bakoitzaren informazioa eta dokumentazioa igorri beharko dute, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hala eskatzen duenean eta, edozein kasutan, urtez urte. Era berean, autonomia-erkidegoek aseguru- eta berraseguru-entitateen administrazio-erregistroei buruzko informaziora sartzeko bitarteko elektronikoak helaraziko dizkiote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek beharrezko lankidetzak mantenduko dute, informazio dokumentala homogeneizatu eta horien ikuskapen-jarduerak koordinatzeko helburuarekin.

II. TITULUA

Aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduerara sartzea

I. KAPITULUA

Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduerara sartzea

1. atala. Jarduerara sartzeko baldintzak

20. artikulua. Administrazio-baimena.

1. Espainian helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateek 3.1 artikuluan zehaztutako jarduerak gauzatu ahal izango dituzte, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren administrazio-baimena lortu ostean.

2. Era berean, administrazio-baimena beharko da honako kasu hauetan:
 - a) Aseguru-entitate baten jarduera baimendutakoak ez diren beste adar batzuetara hedatzeko.
 - b) Adar batean gaineratutako arriskuen zati bat bakarrik barne hartzen duen aseguru-entitate baten baimena areagotzeko.
 - c) Aseguru-entitate bati bere jarduera hasiera batean baimendutakoa baino lurralde-eremu zabalagoan gauzatzeko baimena emateko.
 - d) Berraseguru-entitate batek garatutako jardueraren edo jarduketaren lurralde-eremua handitzeko.
3. Baimen-eskaera Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusian aurkeztuko da, eta harekin batera, lege honen 22. artikuluan eta haren garapen-erregelamenduan zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira. Baimentze-prozedura ebatzi eta ebazpenaren berri emateko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.
4. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak emandako baimena Europar Batasun osoan izango da baliagarria, 21.1 artikuluan zehaztutakoari kalterik egin gabe.
5. Baimenak 40. artikuluan araututako administrazio-erregistroaren inskripzioa zehaztuko du.
6. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- edo berraseguru-entitate bati emandako lurralde nazional osoan jarduteko baimenaren berri emango dio Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari, agintaritza horrek haren izendapen soziala baimendutako aseguru- eta berraseguru-entitateen zerrenda publikoan txertatu eta zerrenda hori eguneratuta mantendu dezan.

21. artikulua. *Agintaritzaren irismena.*

1. Aseguru-entitateei adarka emango zaie baimena, lege honen eranskinean zehaztutako sailkapenari jarraikiz. Hark adar osoa eta hari dagozkion arrisku gehigarri edo osagarrien estaldura hartuko ditu barne, dagokion moduan.

Baimen horri esker, aseguru-entitateak zerbitzuak kokatzearen araubideari edo zerbitzuak modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen arabera gauzatu ahal izango ditu jarduerak Europar Batasunean, eskatzaileak baimendutako adarrari dagozkion arriskuen zati bat bakarrik estali nahi duenean, bere jarduera lurralde nazionala baino txikiagoa den lurralde-eremu batean gauzatu nahi duenean edo 46.2 artikuluan jasotako eragiketak bete nahi dituen salbu.

Hala baimendutako aseguru-entitateek berraseguru-eragiketak onartu ahal izango dituzte, baimenak barne hartzen dituen adarretan.

2. Berraseguru-entitateei bizitza-berrasegururako jarduerak, bizitza-berrasegurua ez den beste berraseguru-jarduera batzuk edo mota guztietako berraseguru-jarduerak gauzatzeko baimena emango zaie; hala, berraseguru-entitateak Europar Batasun osoan jardun ahal izango du, zerbitzuak kokatzeko araubideari edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz.

Berraseguru-jarduera guztiz bereiziko da aseguru-hartzaile eta aseguratuengandik.

2. atala. *Baimena lortzeko baldintzak*

22. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateen baimena lortzeko baldintza orokorrak.*

Espanian helbideratutako aseguru- eta berraseguru-entitateek administrazio-baimena lortu eta mantentzeko, horiek nahitaez bete beharko dituzte honako baldintza hauek:

1. Lege honetan aurreikusitako forma juridiko bat bereganatzea.
2. Helburu soziala aseguru- eta berraseguru-jarduerara mugatzea.
3. Jarduera-programa bat aurkeztu eta haren arabera jardutea.

4. Gutxieneko kapital soziala edo mutua-funtsa eta nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko absolutua estaltzeko oinarrizko funts propio onargarriak izatea.

5. Nahitaezko gutxieneko kapitala uneoro estaltzeko oinarrizko funts propio onargarriak eta nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarriak izatea.

6. Bazkide guztiek kapital sozialean edo mutua-funtsean egiten dituzten ekarpenak eta partaidetzak adieraztea. Berariaz adierazi beharko da zein bazkidek gauzatzen duen kontrola eta zen bazkidek duen aseguru-entitatearen, kreditu-erakundearen edo inbertsio-zerbitzuen enpresaren izaera, baita bazkideek aseguru-entitate, kreditu-erakunde edo inbertsio-zerbitzuen enpresa batean dituzten partaidetzak ere, zenbatekoa dena dela.

7. Beste pertsona edo entitate batzuekin dituzten lotura estuen berri ematea.

8. Entitatearen zuzendaritza eraginkorra gauzatzen duten edo haren gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituzten pertsonak –horien titulua dena dela– zintzotasun-eskakizunak eta 38. artikuluan adierazten diren kualifikazio eta esperientzia profesionalen beharrezko baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan daitezela.

9. 65. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen gobernu-sistema eraginkor bat izatea.

23. artikulua. *Baimena ukatzea.*

1. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak baimena ukatuko du aseguru- edo berraseguru-entitateak 22. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez duenean.

2. Baimena ministroaren agindu bidez ukatuko da. Hura entitate interesdunari jakinaraziko zaio, eta hala, administrazio-bideari amaiera emango zaio.

24. artikulua. *Administrazio-baimenik gabe egindako eragiketak.*

1. Baimenik gabeko entitateek egindako aseguru-kontratuak eta lege honen eraginpeko gainerako eragiketa guztiak erabat deusezak izango dira horien administrazio-baimena baliogabetu egin denean edo emandako administrazio-baimenaren mugak gainditzen direnean.

2. Harekin kontratatu duenak ez du prima ordaintzeko bere betebeharra bete beharko eta ordaindutako prima jasotzeko eskubidea izango du, aurretiaz ezbeharren bat gertatu den kasuan salbu. Prima hori itzuli aurretik ezbeharren bat gertatzen bada, eta kontratua baliagarria izanez gero hark babesten badu, kontratua egin duen entitateak kalte-ordain bat ordaindu beharko du. Haren zenbatekoa prestazioaren ordainketa arautzen duten araei jarraikiz finkatuko da, aseguru-kontratuaren arabera, sortu ahal izan dituen gainerako kalte-ordainak ordaindu beharri kalterik egin gabe.

Betebehar hori solidarioa izango da entitatearen eta, bertan administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzen dituztelarik, kontratu edo eragiketa horiek egiteko baimena eman dutenen artean, betiere entitateak nahiz aipatutako administratzaile edo zuzendari horiek egin ahal izan duten administrazio arloko arau-hausteari kalterik egin gabe.

3. Nahitaezko baimena lortu gabe edo haren mugak gaindituz, lege honen eraginpeko eragiketak gauzatzen dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei jarduera hori berehala eten dezatela eskatuko die Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta beharrezkotzat jotzen duen publizitatea adostu ahal izango du publikoari behar bezala jakinarazteko.

25. artikulua. *Elkarteak eta taldeak.*

1. Ez dute aurretiazko administrazio-baimenik beharko aseguru-entitateen artean arriskuen estaldura banatzeko edo beren jarduerarekin lotutako zerbitzu komunak eskaintzeko helburua duten erakunde iraunkorrek, horiek nortasun juridikoa izan ala ez, ezta 93. artikuluan aipatzen diren aseguru-entitateen taldeek ere; dena den, horiek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi behar diote, elkarrearen edo taldearen jarduera abiarazi baino hilabete bat lehenago.

2. Zuzendaritza Nagusiak artikuluko honetan aipatzen diren jarduerak eten edo aldaketak eskatu ahal izango ditu, lege honetako xedapenetan adierazitakoarekin bat ez datozela hautematen bada.

26. artikulua. *Ikuskapen-agintarien alde aurretiko kontsulta.*

Aseguru- edo berraseguru-entitate bati baimena eman aurretik, dagokion estatu kideko erakunde ikuskatzaile eskudunari kontsulta egin beharko zaio, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

1. Entitate berria beste estatu kide batean baimendutako aseguru- edo berraseguru-entitate, kreditu-erakunde, inbertsio-zerbitzuen enpresa edo inbertsio kolektiboko edo pentsio-funtsak kudeatzen dituen sozietate batek kontrolatzen duenean.

2. Hura beste estatu kide batean baimendutako aseguru- edo berraseguru-entitate, kreditu-erakunde, inbertsio-zerbitzuen enpresa edo inbertsio kolektiboko edo pentsio-funtsak kudeatzen dituen sozietate baten enpresa dominatzaile batek kontrolatzen duenean.

3. Hura kontrolatuko duten pertsonak beste estatu kide batean baimendutako aseguru- edo berraseguru-entitate, kreditu-erakunde, inbertsio-zerbitzuen enpresa edo inbertsio kolektiboko edo pentsio-funtsak kudeatzen dituen sozietate bat kontrolatzen duten pertsona fisiko edo juridiko berdinak direnean.

Kontsulta horrek bazkideen egokitasuna ebaluatuko du batik bat, baita zuzendaritza eraginkorra edozein titulupean gauzatzen dutenen eta entitate berriaren edo entitate dominatzailearen gobernu-sistemako funtzioak betetzen dituztenen zintzotasuna, kualifikazioa eta esperientzia ere; hura behin eta berriz egin ahal izango da Espainiako aseguru-entitateek baldintza horiek betetzen dituztela etengabe ebaluatzeko.

27. artikulua. *Aseguru eta berraseguru-entitateen izaera, forma eta izena.*

1. Aseguru-jarduera honako forma hauetakoren bat duten entitate pribatuek bakarrik gauzatu ahal izango dute:

- a) sozietate anonimoa,
- b) sozietate anonimo europarra,
- c) aseguru mutua,
- d) kooperatiba-sozietatea,
- e) kooperatiba-sozietate europarra,
- f) gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea.

Aseguru-mutuek, kooperatiba-sozietateek eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek prima finko bidez bakarrik jardun ahal izango dute.

2. Berraseguru-entitateek sozietate anonimoaren edo sozietate anonimo europarraren forma juridikoa hartu beharko dute.

3. Aseguru- eta berraseguru-jarduera gauzatu ahal izango dute, halaber, zuzenbide publikoko edozein forma hartzen duten entitateek, betiere aseguru- edo berraseguru-eragiketarako gauzatzeko helburua dutenean, aseguru- edo berraseguru-entitate pribatuen baldintza baliokideetan.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren entitateek lege honetan xedatutakoa bete beharko dute horien araudi espezifikoa jasotako arau berezirik izan ezean, eta beren aseguru-jarduera gauzatzean, aseguru-kontratuari buruzko legedia eta ordena zibileko auzitegien eskumena bete beharko dute.

28. artikulua. *Eraketa.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateak eskritura publiko bidez eratuko dira, eta hura Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da. Inskribapen horrekin, sozietate anonimoek, aseguru-mutuek eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek nortasun juridikoa

bereganatuko dute. Aseguru-kooperatibek beren araudi espezifikoaren arabera bereganatuko dute nortasun juridikoa.

29. artikulua. *Izena.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateen izen sozialean «aseguru» edo «berraseguru» hitzak gaineratuko dira, edo biak, horien helburu sozialaren arabera, izen horiek entitate horientzat gordetzen baitira. «Aseguru-mutua», «aseguru-kooperatiba» eta «gizarte-aurreikuspeneko mutualitate» adierazpenak ere gordeta geratuko dira, eta izaera horretako entitateek beren izenetan gaineratu beharko dituzte horiek.

30. artikulua. *Egoitza soziala.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateen egoitza soziala Espainiako lurraldean kokatuko da, haren administrazio- eta zuzendaritza-zentroa edo haren establezimendu edo esplotazio nagusia Espainian dagoenean.

2. Espainian helbideratuta dagoen aseguru- edo berraseguru-entitate baten egoitza soziala atzerrira lekualdatu ahal izateko, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak dagokion baimena eman beharko du egoitza soziala lekualdatzeko akordioa argitaratu ostean eta, hala badagokio, hartzekodunek Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari lekualdaketa-erkin ados ez egoteko izan ditzaketen arrazoiak jakinarazteko azken iragarkia argitaratzen denetik hilabete igaro ostean. Dena den, legez eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik baimena emateari uko egiten zaionean, ez da informazio publiko hori eman beharko.

3. Aseguru-entitate baten egoitza soziala atzerrira lekualdatzeko, aseguruaren hartzaileei banakako jakinarazpena egin beharko zaie. Banakako jakinarazpen horretan, egoitza soziala lekualdatu ostean aseguru-entitateak izango duen agintaritza ikuskatzaileari buruzko informazioa eman beharko da, baita hartzaileek aseguru-kontratuak ebazteko duten eskubideari buruzko informazioa ere.

4. Erregelamendu bidez, aurreko zenbakietan aurreikusitako lekualdaketa-prozedura arautuko da.

5. Atzerrian helbideratuta dagoen aseguru- edo berraseguru-entitate baten egoitza soziala Espainiara lekualdatzen bada, 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

31. artikulua. *Helburu soziala.*

1. Aseguru-entitateen helburu soziala aseguru-eragiketak eta 3. artikuluan definitutako gainerako jarduerak gauzatzea izango da.

2. Bizitza arloko edozein modalitatetan jardun nahi duten aseguru-entitateen helburu soziala adar horretako eragiketak bakarrik gauzatzea eta bizitza arloko arrisku osagarriak estaltzea izango da. Gainera, dagokion administrazio-baimena lortu ostean, lege honetako A).a) eranskinean jasotzen diren 1. arloko (istripuak) eta 2. arloko (gaixotasuna) eragiketak gauzatu ahal izango dituzte, arrisku gehigarriak estaltzeko eskatzen diren mugak eta baldintzak bete beharrik izan gabe.

3. Bizitza arloa ez den aseguru zuzeneko beste arlo batzuetan jardun nahi duten aseguru-entitateen helburu sozialak ezin izango du bizitza arloaren barnean sartzen diren jarduerarik barne hartu. Dena den, lege honetako A).a) eranskinean jasotzen diren 1. arloko (istripuak) eta 2. arloko (gaixotasuna) arrisku-eragiketarako baimena bakarrik badute, bizitza arloan jardun ahal izango dute, dagokion administrazio-baimena lortzen badute.

4. Berraseguru-entitateen helburu soziala berraseguru-jarduerak eta horiekin lotutako eragiketak gauzatzea izango da. Lotutako eragiketa gisa hartuko dira azterketa estatistikoak edo aktuarialak, arriskuen analisiak edo bezeroentzako ikerketak, baita berraseguru-jarduerarekin lotutako edo eragindako bestelako jarduerak ere. Era berean, berraseguru-entitateen helburu sozialean gaineratuko dira aseguru-zorroa duten sozietateen funtzioak eta finantza-sektorearekin lotutako jarduerak.

32. artikulua. *Jarduera-programa.*

Jarduera-programa enpresa-proiektuaren plan estrategikoa jasotzen duen dokumentua da, eta hark erregelamendu bidez zehazten diren betekizun, aurreikuspen, balioespen eta baldintza edo politika guztiekin lotutako adierazpen edo justifikazio osoak eta egokiak jaso beharko ditu.

33. artikulua. *Kapital soziala.*

1. Aseguru-kooperatibek eta sozietate anonimoek gutxieneko kapital sozial hauek izan beharko dituzte jarraian adierazten diren arloetan jardun nahi dutenean:

a) 9.015.000 euro, bizitza, kauzio eta kreditu arloetan, erantzukizun zibileko arriskua estaltzen dutenean eta berraseguru-jardueran.

b) 2.103.000 euro, istripu, gaixotasun, defentsa juridiko, asistentzia eta ehorzketa arloetan.

Gaixotasun-aseguru gauzatzeko orduan osasun-laguntzarako prestazioak eskaintzen dituzten eta beren jarduera bi milioi biztanle baino gutxiagoko lurralde-eremu batera mugatzen duten aseguru-entitateen kasuan, aurreko lerrokadan aurreikusitako mutua-funtsaren edo kapitalaren erdia baino ez da beharko.

c) 3.005.000 euro, gainerako kasuetan.

2. Sozietate anonimoen gutxieneko kapital soziala ehuneko berrogeita hamarreen harpidetuta eta ordainduta egongo da gutxienez. Gutxieneko horretatik gorako kapital-ordainketak merkataritza-legedia orokorrera egokituko dira.

Edonola ere, kapitala titulu izendun edo kontu izenduneko anotazio bidez ordezkatu da.

3. Beren jarduera bizitza alorrekoa ez den aseguru zuzeneko beste arlo batzuetan gauzatzen duten entitateek zenbateko gehiago eskatzen den arloari dagokion kapital soziala izan beharko dute.

31.artikuluaren 2. edo 3. zenbakiei jarraikiz, bizitza arloan ere jarduten badute, kapital soziala bizitza arlorako eta arlo hori ez den beste adarretarako eskatzen diren zenbatekoen arteko batura izango da.

34. artikulua. *Mutua-funtsa.*

1. Aseguru-mutuek beren mutualistek helarazitako edo ekitaldi sozialen soberakinetatik sortutako etengabeko mutua-funtsak frogatu beharko dituzte; horien gutxieneko zenbatekoak sozietate anonimoetatik ordaindutako kapital sozial gisa adierazitakoak izango dira, jardun nahi duten arloen arabera.

Nolanahi ere, derrama pasiboko araubidea duten mutuek zenbateko horren hiru laurdenak beharko dituzte.

2. Arloka jarduteko administrazio-baimena lortu duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek mutua-funts bat dutela frogatu beharko dute, eta haren gutxieneko zenbatekoa 33.1 artikuluan sozietate anonimoen aldetik ordaindutako kapital sozial gisa adierazitakoaren artean dagokiona izango da, betiere arloka jarduten duten mutualitateen kasuan 45.2.c) artikuluan xedatutakoari jarraikiz eta 44.1 artikuluko aseguru-jarduketak betetzen jarraitzen badute.

3. Gainerako gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek 30.050,61 euroko mutua-funtsa dutela frogatu beharko dute. Era berean, beren ondarearekin maniobra-funts bat osatuko dute, derramak kobratu gabe, ezbeharrak ordaindu ditzaten.

4. Arloka jarduten duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek eta aseguru-mutuek hainbat aseguru arlotan jarduten dutenean, 33.3 artikuluan adierazitakoa aplikatuko zaie, eta kapital sozialaren erreferentziak mutua-funtsari egiten zaizkiola ulertuko da.

5. Mutua-funtsak behar bezala harpidetuta eta ordainduta egon behar du beti.

35. artikulua. *Dibidenduak, derramak edo kapital sozialarekin lotutako bestelako ordainsariak banatzeko mugak.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateek ezin izango dute ordaindutako kapital sozialarekin, jaulkipen-primarekin, ordaindutako mutua-funtsarekin edo mutua edo mutualitateentzako oinarritzko funts propioen kapital baliokidearen beste elementu batzuekin lotutako dibidendurik, derramarik edo ordainsaririk banatu, honako egoera hauetan:

- a) nahitaezko kaudimen-kapitala edo nahitaezko gutxieneko kapitala lortzen ez bada edo,
- b) kapital-elementu horiekin lotutako dibidendu, derrama edo ordainsari horien banaketak nahitaezko kaudimen-kapitala edo nahitaezko gutxieneko kapitala ez betetzea eragin badezake.

36. artikulua. *Bazkideak.*

Partaidetza esanguratsu batekin, aseguru- edo berraseguru-entitatean zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsona fisikoek edo juridikoek haren kudeaketa osasuntsua eta zuhurra egiteko egokiak izan behar dute, erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritz.

37. artikulua. *Lotura estuak.*

Aseguru- edo berraseguru-entitatearen eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen arteko lotura estuek ez dute entitatearen ikuskapen egokia oztopatuko.

Aseguru- edo berraseguru-entitateak lotura estuak mantentzen dituen pertsona bat edo gehiago arautzen duten Europar Batasunetik kanpoko hirugarren herrialde baten xedapenek edo xedapen horien aplikazioak ere ez du entitatearen ikuskapen egokia oztopatuko.

38. artikulua. *Zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenen edo entitatearen gobernu-sistemako funtzioak betetzen dituzten pertsonen zintzotasuna eta gaitasuna.*

1. Aseguru eta berraseguru-entitateek eta aseguru-entitateen taldeetako entitate dominatzaileek behar bezala bermatuko dute zuzendaritza eraginkorra gauzatzen duten pertsonak –edozein titulupean– eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituzten pertsonak honako baldintza hauek betetzen dituztela:

- a) Zintzotasun komertzial eta profesional aitortuko pertsonak izatea.
- b) Entitatearen kudeaketa osasuntsua eta zuhurra egiteko moduko ezagutzak eta esperientzia izatea.

2. Administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituzten pertsonak aseguru- edo berraseguru-entitate baten zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutela ulertuko da; honako hauek hartuko dira halakotzat:

a) Administrazio-ko kide anitzeko organoetako kideak edo administratzaileak. Pertsona juridikoek administrazio-karguak gauzatu ahal izango dituzte, baina, kasu horretan, arestian aipatutako baldintzak betetzen dituen pertsona fisiko bat izendatu beharko dute ordezkari gisa.

b) Zuzendari orokorrak eta parekatuak; entitatean goi-zuzendaritza gauzatzen duten pertsonak hartuko dira halakotzat, horiek beren administrazio-organoren, batzorde betearazleen edo horien kontseilari delegatuen mendekotasun zuzena dutenean.

3. Aseguru- eta berraseguru-entitateek, eta aseguru-entitate taldeetako entitate dominatzaileek entitatearen edo taldearen zuzendaritza eraginkorra edozein titulupean gauzatzen duten pertsonen izenak eta horien identitatean egindako aldaketak jakinaraziko dizkiote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, baita entitatearen gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituzten pertsonen dagokienez ere;

horrez gain, izendatu diren pertsonen zintzotasun- eta gaitasun-eskakizunak betetzen dituztela ebaluatzeko beharrezko informazioa helarazi beharko diote. Era berean, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio aurreko zenbakietan jasotako pertsonaren bat ordezkatzeko denean, zintzotasun- eta gaitasun-eskakizunak ez betetzeagatik. Jakinarazpen horiek hamabost egun balioduneko epean egingo dira gehienez, izendapena egin den momentutik kontatzen hasita.

4. Erregelamendu bidez, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenen edo entitateen gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituzten zintzotasun- eta gaitasun-baldintzak betetzen diren egoerak zehaztuko dira, baita Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari horiek betetzen direla ebaluatzeko helarazi beharko zaizkion informazio-baldintzak ere.

39. artikulua. *Aseguru- edo berraseguru-entitateetako administrazio- edo zuzendaritza-organoen erantzukizuna eta betebeharrak.*

1. Aseguru- edo berraseguru-entitatearen administrazio-organok lege honetan eta aseguru pribatuen gainerako arauetan jasotzen diren xedapenak betetzeko erantzukizuna bereganatuko du.

2. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bategineko VI. tituluko III. kapituluaren administrazio-erantzukizunaren zereginei dagokien xedatutako aplikatuko zaie aseguru-entitateetako administrazio-organoko kide guztiei, zernahi dutelarik forma juridikoa.

3. Zuzendaritza-karguek administrazio-organok eskuordetutako funtzioetatik eta entitatearen erakunde-egiturarekin bat etorritik esleitu zaizkien funtzioetatik eratorritako erantzukizuna bereganatuko dute.

40. artikulua. *Administrazio-erregistroa.*

1. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak administrazio-erregistro bat izango du, eta bertan, honako entitate eta pertsona hauek inskribatuko dira:

a) Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateak, eta aseguru- edo berraseguru-entitatean partaidetza esanguratsua duten bazkideak.

b) Edozein tituluren pean, aseguru- eta berraseguru-entitateetako, aseguru-zorroa duten sozietateetako, zorroa duten finantza-sozietate mistoetako, aseguru-zorroa duten sozietate mistoetako eta aseguru-talde baten buru diren mutua-taldeko sozietateetako zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenak. Administrazio-organoko kide gisa pertsona juridiko bat izendatuz gero, hura ordeztuko duen pertsona fisikoa ere inskribatuko da.

c) Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ikuskatzen dituen taldeak eta azpitaldeak, lege honetako V. tituluaren aurreikusitakoari jarraikiz.

d) Espainian zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen pean jarduten duten aseguru-entitateak eta horien ahaldun edo ordezkariak, baita beren borondatez eskatzen duten Europar Batasuneko berraseguru-entitateetako sukurtsal eta sukurtsal horietako zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenak ere.

e) Espainian baimenduta dauden hirugarren herrialdeetako aseguru- edo berraseguru-entitateen sukurtsalak, eta horietako ahaldun edo ordezkariak eta sukurtsal horietako zuzendaritza eraginkorra gauzatzen duten pertsonak.

f) Aseguru-entitateen arteko arriskuen estaldura banatzeko edo jarduerarekin lotutako zerbitzu komunak eskaintzeko erakundeak, eta horien goi-karguak.

2. Erregelamendu bidez, inskribatzeko moduko egintzak eta inskribatzeko araubidea zehaztuko dira.

3. Administrazio-erregistroa publikoa izango da, eta beraz, horien sarbidea bitarteko elektronikoen bitartez bermatuko da. Interesatuak inskribatutako datuetara sartu ahal izango dira, gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean (Izaera pertsonaleko datuen erabilera gardentasunari, informazio publiko eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoari jarraikiz.

4. 19.1 artikuluari jarraikiz antolamendu- eta ikuskapen-eskumenak dituzten autonomia-erkidegoek dagokion administrazio-erregistroa izango dute. Erregistro horretan egindako inskribapen guztiak modu telematikoan jakinaraziko zaizkio Aseguru en eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

3. atala. Aseguru-mutuak, aseguru-kooperatibak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak

41. artikulua. Aseguru-mutuak.

1. Aseguru-mutuak irabazi-asmorik gabeko merkataritza-sozietateak dira, eta horien helburua bazkideei arrisku-eparearen hasieran ordaindutako prima finko baten bidez aseguraturako arriskuak estaltzea da.

2. Mutuek mutua-taldea osatu ahal izango dituzte, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

3. Mutua desegiten den kasuetan, eta eraldatze, fusio eta bereizketa kasuetan, eraldaketaren edo fusioaren ondorio den edo bereizketaren onuradun den entitatea sozietate anonimo bat denean, eta aktibo eta pasiboaren lagapen globalaren kasuetan, momentuko mutualistek eta azken bost urteetan mutualista izan direnek mutuaren ondare-balioaren erdia jasoko dute, gutxienez.

42. artikulua. Aseguru-kooperatibak.

Aseguru-kooperatibek arrisku-eparearen hasieran ordaindutako prima finko bidez aseguraturako arriskuak estali behar dizkiete beren bazkideei. Horiek honako xedapen hauek bete beharko dituzte:

a) Bazkide kooperatibistaren baldintza bereizezina izango da aseguru-hartzailearen edo aseguratuaren baldintzarengandik, azken hori primaren azken ordaintzailea denean.

b) Estatutu sozialen kontra xedatzen den kasuetan salbu, kooperatibistek ez diete sozietatearen zorrei erantzungo. Estatutu sozialei jarraikiz, kooperatibistek sozietatearen zorrei erantzungo baliote, horien erantzukizuna horietako bakoitzari dagokion urteko primaz-enbatekoaren berdina izango da, gehienez. Bazkide kooperatibistek zor sozialei dagokienez duten erantzukizunari buruzko estatutuko klausula behar bezala agertuko da aseguru-polizetan, modu egokian ikusteko moduan.

c) Merkataritza Erregistroan eta kooperatiba-sozietateen erregistroan 20. artikuluan araututako administrazio-baimenaren aurretik inskribatu beharko da.

d) Gainerako kasuetan, lege honetako eta haren garapen-erregelamenduko xedapenen eta Kapitaleko Sozietateen Legearen testu bategineko aginduen arabera arautuko dira, baita hura garatzen duten erregelamendu-xedapenen eta, gehigarri gisa, kooperatiba-legediaren arabera ere.

Aseguru esparruko eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoetako antolamendura eta ikuskapenera atxikitako kooperatibek horiek agindutako xedapenak eta lege honetan jasotzen diren eta hura garatzen duten arauetako xedapenak bete beharko dituzte, baita Kapitaleko Sozietateen Legearen testu bategineko xedapenak ere.

43. artikulua. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak.

1. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak nahitaezko Gizarte Segurantzaren sistemarekiko izaera gehigarria duen borondatezko aseguru-modalitate bat gauzatzen duten aseguru-entitateak dira; mutualistek –persona fisikoak nahiz juridikoak– edo beste entitate edo pertsona babesle batzuek ekarpenak egiten dituzte horretarako. Aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian Gizarte Segurantzaren aukera gisa aitortzen diren gizarte-segurantzako mutualitateek norbere konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako araubide bereziko altaren beste aukera bat eskaintzen dute.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batean mutualista guztiak enplegatuak direnean, eta haren bazkide babesleak edo sustatzaileak beren zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak, erakundeak edo banakako enpresariak direnean, eta emandako prestazioak horien arteko aurreikuspen-hitzarmenen ondorio baino ez direnean, mutualitateak enpresaren gizarte-aurreikuspeneko erreminta gisa jarduten duela ulertuko da.

2. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Aseguru-mutuentzat 41. artikuluan xedatutakoa.
- b) Bazkide mutualistaren baldintza bereizezina izango da aseguru-hartzailearengandik edo aseguratuarengandik, azken hori primaren azken ordaintzailea denean.
- c) Mutualista guztientzat betebeharrak eta eskubide berak ezarri beharko dituzte; dena den, ekarpenek eta prestazioek kasuan kasuko egoeretan zehaztutako estatutu-harremana izan dezakete.
- d) Estatutu sozialetan kontrako xedapena agertzen denean salbu, mutualistek ez diete mutualitatearen zorrei erantzungo. Estatutu sozialetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, mutualistek zor horiei erantzuten badiete, horien erantzukizuna azken hiru ekitaldietan ordaindu dituzten kuoten baturaren herena baino txikiagoa izango da, edozein delarik ere abian den ekitaldia. Mutualistak zor sozialei dagokienez duen erantzukizun pertsonalari buruzko estatutuko klausula behar bezala agertuko da aseguru-polizan eta prestazioen erregelamenduetan, modu egokian ikusteko moduan.
- e) Mutualistak beren borondatez txertatuko dira gizarte-aurreikuspeneko mutualitatean, eta horretarako, eskatzailearen banakako aitortzea eskatuko da; izaera orokorrekoa ere izan daiteke, kooperatiba baten edo kolegio profesional baten organo ordezkatzaileek hartutako akordioetatik eratorria, mutualistak aurkakoa adierazten duenean salbu. Gainera, ez da gizarte-aurreikuspeneko mutualitatean sartzeko mugarik jarriko, behar bezala frogatutako arrazoietan, estatutuaren aurreikusten diren gain.
- f) Mutualistak gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak berak zuzenean edo aseguruetako bitartekaritza-jardueraren bitartez txertatu ahal izango dira, betiere eska daitezkeen mutua-funtsen eta finantza-bermeen baldintzak betetzen badituzte. Dena den, mutualistek bazkide berrien eta kuoten kobrantzari dagokion kudeaketan parte hartu ahal izango dute; kasu horretan, estatutuaren zehaztutako konpentsazio ekonomiko egokia jaso ahal izango dute.
- g) 44. artikuluan zerrendatutako prestazio sozialak eman eta aseguru-eragiketak bakarrik egitea, 45. artikuluan arloka jarduteko baimena duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateentzat xedatzen denari kalterik egin gabe.
- h) Beren mutualistek bermatutako arriskuak zuzenean bereganatzea, koaseguru-eragiketarik egin edo berrasegururik onartu gabe; dena den, lagapen-eragiketak egin ahal izango dituzte berraseguruetan, Espainian jarduteko baimena duten entitateekin. Halere, aseguru arloka jarduteko baimena duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek koaseguru-eragiketak egin eta berraseguru-eragiketak onartzeko aukera izango dute.
- i) Administrazioaileek joan-etorriengatik, ostatuagatik eta mantenuagatik jasotako ordainketak eta gainerako diru-sarrerak, mutualitatearen egindako kudeaketagatik jasotzen dituenak, administrazio-gastuen barnean sartuko dira, eta ez dituzte, inola ere, dagokion araudian finkatutako mugak gaindituko. Dena den, arloka jarduteko baimena duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek ez dute mugarik izango beren administrazio-gastuetan.
- j) Mutualitate batek beste entitate batzuen kontrol handiena gauzatzen badu eta azken horietako administrazioaileei zenbateko bat ordaintzen badie aurreko zenbakian finkatutako gastuen kontzeptuan, horiek mutualitatearen administrazio-gastu gisa hartuko dira.

3. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek mutua-taldeak osatu ahal izango dituzte, mutua-taldeentzat erregelamendu bidez zehaztutako baldintza berdinetan.

4. Erregelamendu bidez, aseguru-mutuen araubide juridikoko arau aplikagarriak arautuko dira gizarte-aurreikuspeneko mutualitateentzat.

44. artikulua. *Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen estaldura-eremua eta prestazioak.*

1. Pertsonen gaineko arriskuen aurreikuspenean, heriotza, alarguntza, zurztasun, erretiro eta mendekotasunak eragindako kontingentziak estali ahal izango ditu, eta kapital edo errenta gisako prestazio ekonomikoak bermatuko dituzte. Era berean, ezkontza, amatasun, seme-alaba eta heriotzagatiko prestazioak eman ahal izango dituzte. Gainera, istripu-aseguru eta baliaezintasuneko eragiketak egin ahal izango dituzte, lan, gaixotasun, defentsa juridiko eta laguntza arloetan, eta familientzako laguntzak eman ahal izango dituzte aldi batez lanbidea gauzatzea oztopatzen duten egintza juridikoen eragindako premiak diruz laguntzeko.

Bermatutako prestazio ekonomikoek ez dute 30.000 euroko zenbatekoa gaindituko urteko errenta gisa, ezta kapitalaren ordainketa bakar gisa egindako haren baliokide aktuariala ere; hura errenta hori kalkulatzeko zehaztu den oinarri teknikoa aintzat hartuta kalkulatu da, eta 300.000 euroko muga izango du.

Aurreko lerrokan aurreikusitako mugak eguneratu egin ahal izango dira Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren agindu bidez, betiere eguneratutako prestazioei erantzuteko finantza-bermeen nahikotasuna kontuan hartuta.

Dena den, lege honen 159.1 eta 172. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean murgilduta dauden mutualitateen kasuan, bermatuko diren prestazio ekonomiko berriek ezin izango dute 18.000 euroko zenbatekoa gainditu urteko errenta gisa, ezta 78.000 euroko zenbatekoa ere, kapitalaren ordainketa bakar gisa.

2. Gauzen gaineko arriskuaren aurreikuspenari dagokionez, jarraian aipatzen direnak bakarrik bermatu ahal izango dira, ondasun horien zenbateko kuantitatiboaren barnean:

a) Babes ofizialeko etxebizitzak eta interes sozialeko etxebizitzak, mutualista bera eta haren familia bertan bizi direnean.

b) Ekintzaileak eta enpresari txikiak diren mutualisten makinak, ondasunak eta lan-tresnak. Ondorio horietarako, enpresari txikitat hartuko dira norbere kontura lan egiten duten langile autonomoak eta bost langile baino gehiago enplegatzen ez dituzten profesionalak eta enpresariak, nekazariak barne.

c) Nekazariak edo haren familiak zuzenean eta pertsonalki landutako lursailtako uztak, nekazaritzako aseguru konbinatuen urteko planean gaineratzen ez badira, eta familiaren esplotazio-unitatean txertatzen diren animaliak hazteko haztegiak, arrain-haztegiak, erlauntzak, uztak eta basoak.

3. Mutualitate bakoitzak aurreko bi zenbakietan adierazitako prestazio guztiak edo zati bat eman ahal izango ditu.

4. Lehen eta bigarren zenbakietan aurreikusitakoaz gain, mutua-funtsaren eta finantza-bermeen baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek aseguru-eragiketa horiekin lotutako gizarte-aurreikuspenak eman ahal izango dituzte, honako hauek kontuan hartuta:

a) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren edo autonomia-erkidego eskuduneko erakundearen berriazko baimena beharko dute.

b) Prestazio sozialak ematean, aseguru-eragiketetik bereizketa ekonomiko-finantzarioa eta kontablea egingo da.

c) Gizarte-aurreikuspeneko jarduerarako baliabideak libre xedatzekoak izango dira.

5. 45. artikuluan aipatzen den administrazio-baimena lortu ez duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei 65. artikuluan jasotako proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko zaie, kasu guztietan.

45. artikulua. *Aseguru-arloka jarduteko baimena duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak.*

1. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek aseguru-arloka jardun ahal izango dute eta ez dute 44. artikuluan ezarritako mugarik bete beharko, aldez aurretik administrazio-baimena lortzen badute.

Baimena bizitza arlorako edo lege honen A).a) eranskinean jasotzen diren beste arlo hauetarako eman ahal izango da: 1. arloa (istripuak), 2. arloa (gaixotasuna), 16. arloa (diruzko galera anitzak), 17. arloa (defentsa juridikoa), 18. arloa (laguntza) eta 19. arloa (heriotzak), betiere 31. artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuta.

2. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek arloka jarduteko administrazio-baimena lortu eta mantentzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte nahitaez:

a) Aseguru-jarduera egiteko administrazio-baimena lortu denetik gutxienez bost urteko epea igarotzea.

b) Kontrol bereziko neurrien eraginpean ez egotea, eta baimen-eskaera aurkeztu aurreko bi urteetan administrazio-baimena ezeztatu edo desegiteko administrazio-prozedurarik ez abiarazi izana.

c) Gutxieneko mutua-funtsa, nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko absolutua estaltzeko oinarrizko funts propio onargarriak eta nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarriak izatea, baita hornidura teknikoak eratuta izatea ere, hori guztia lege honetan aseguru-mutuentzat zehazten den moduan.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batek bizitza arloan jarduteko administrazio-baimena lortzen duenean eta hark bizi arlokoak ez diren beste aseguru batzuetako eragiketak gauzatzen jarraitzen duenean, gutxieneko mutua-funts bat izan beharko du; funts hori bizitza arloan jarduten duten aseguru-mutuei eskatzen zaien funtsaren eta 34.3 artikuluan aurreikusitako gutxienekoaren arteko batura izango da.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batek bizitza arloari ez dagokion beste aseguru arlo batean edo gehiagotan jarduteko administrazio-baimena lortzen duenean eta hark bizitza arloko eragiketak gauzatzen jarraitzen duenean, gutxieneko mutua-funts bat izan beharko du; funts hori aseguru-mutuei zenbateko gehien eskatzen zaien baimendutako arlorako zenbatekoaren eta 34.3 artikuluan aurreikusitako gutxienekoaren arteko batura izango da.

d) Primetan oinarritutako diru-sarrera gordin batzuk eta 101. artikuluan aipatzen den kaudimen-araubide berezirako erregelamendu bidez ezartzen diren muga gainteko hornidura teknikoen zenbateko gordina izatea.

e) 32. artikulua araberako jarduera-programa bat aurkeztu eta hura oinarritzat hartzea, baimena eskatu duen aseguru arloen kasuan.

3. Arloka jarduteko baimenaren eskaera Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez bideratuko da edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo eskudunaren bitartez; harekin batera, 2. zenbakian eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira. Baimena arloka emango da, eta arlo osoa eta hari dagozkion arrisku gehigarri edo osagarrien estaldura hartuko ditu barne, dagokion moduan.

Gainerako guztietan, administrazio-prozedurak eta -ebazpenak 20. artikulutik 22. artikulura xedatutakoa bete beharko dute.

4. Administrazio-baimena bizitza arloan lortzen bada, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak istripu, gaixotasun eta heriotzengatik aseguru-eragiketak egiten jarraitu ahal izango du, hala badagokio. Administrazio-baimenak bizitza arloa ez den beste arlo batzuetarako balio badu, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, baimendutako arloari dagozkion aseguru-eragiketez gain, 44.1. artikuluan adierazten direnak gauzatzen jarraitu ahal izango du. Bi kasuetan, horiek ez dituzte 43.2 artikuluko g) eta h) letretan ezarritako mugak bete beharko, administrazio-baimena lortu duten aseguru arloetan bakarrik.

5. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batek artikulua honen arabera arloka jarduteko administrazio-baimena behar duten jarduerak gauzatzen baditu, eta hura aurretiaz lortu ez

bada, hura debekatutako eragiketa gisa hartuko da eta 5. artikuluan aurreikusitako administrazioaren erantzukizun eta ondorioekin lotuta egongo da, baita VI. tituluko kontrol bereziko neurriei buruzko araudiarekin eta VIII. tituluko arau-hauste eta zigorren erregimenarekin ere.

6. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek arloka jarduteko baimenari uko egin eta 44. artikuluan arautzen den estaldura eta prestazioen araubidera itzuli ahal izango dute, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

4. atala. Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera, Europar Batasunean zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubideari jarraikiz

46. artikulua. *Europar Batasunean jardun dezaketen Espainiako entitateak.*

1. 20. artikuluari jarraikiz, Europar Batasun osorako baliagarria den baimena lortu duten Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateek Europar Batasuneko lurralde osoan zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubideari jarraikiz jardun ahal izango dute, emandako baimenean jasotako moduan.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

a) Aseguru-eragiketetan, arriskuak Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak estaltzen dituenetan.

b) Lege honetako III. tituluko VIII. kapituluaren arautzen den kaudimen-araubide berezia bete behar duten aseguru-entitateetan.

c) Bizitza-aseguruari ez dagozkion honako aseguru-eragiketa hauetan:

1. Beste mutua batekin aseguru-kontratuen berraseguru osoari buruzko akordioak hitzartu dituzten aseguru-mutuek egindakoak, edo mutua lagatzailea kontratu horietatik eratorritako konpromisoak gauzatzeko mutua lagatzailearekin ordezkatea.

2. Lege honetako A).a) eranskinean arautzen direnen 19. arlokoak (heriotzak).

3. Espainiako aseguru-entitateek Europar Batasunean zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen arabera gauzatzen duten jarduera 40. artikuluan araututako erregistroan inskribatuko da, eta bertan, hurrengo artikuluetan eta garapenerako erregelamendu-xedapenetan adierazten diren datuak jasoko dira.

47. artikulua. *Sukurtsalak jartzeko baldintzak.*

1. Beste estatu kide bateko lurraldean sukurtsal bat ezarri nahi duten Espainiako aseguru-entitate guztiek Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko diote, eta erregelamendu bidez zehaztutako informazioa gehitu beharko dute.

2. Aurreko zenbakian adierazten den jakinarazpena jaso eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ikuspegi horren berri emango dio sukurtsalaren estatu kideko agintaritza ikuskatzaileari. Horrez gain, ziurtagiri bat helaraziko dio, eta bertan, aseguru-entitateak nahitaezko kaudimen-kapitala eta nahitaezko gutxieneko kapitala dituela adieraziko du; hura lege honetan eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu da. Aseguru-entitateari hura igorri izana jakinaraziko zaio.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazio hori igortzeari uko egin ahal izango dio, aseguru-entitateak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, haren gobernu-sistemari, finantza-egoerari edo ahaldun nagusiaren gaitasunari eta zintotasunari buruzko zalantzak izateko arrazoiak baditu, betiere 38. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Sukurtsalaren estatu kideari informazioa bidaltzen ez bazaio, aseguru-entitateari dagokion jakinarazpena egin beharko zaio, eta hark errekursoa jarri ahal izango du haren aurka. Hiru hilabeteko epea igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, informazio-komunikazioa ukatuzat emango da.

4. Sukurtsalaren estatu kideko agintaritza ikuskatzaileak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari sukurtsaleko estatu kide horretan jarduerak zer

baldintzatan gauzatu behar diren adieraziko balio, interes orokorreko arrazoiak direla-eta, Zuzendaritza Orokorrek aseguru-entitate interesdunari jakinaraziko dio.

5. Aseguru-entitateak sukurtsala kokatu eta bere jarduera abiarazi ahal izango du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak sukurtsalaren estatu kideko agintaritza ikuskatzailearen adostasuna edo hark adierazitako jarduteko baldintzak jakinarazten dizkion momentutik aurrera. Era berean, jarduera abiarazi ahal izango du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 2. zenbakian adierazten den jakinarazpena egiten duenetik bi hilabeteko epea igaro ostean.

6. 1. zenbakian xedatutakoaren arabera jakinarazitako datu batzuen edukia aldatuz gero, hura artikuluko honetan araututako prozedurara egokituko da. Gainera, aseguru-entitateak behar bezala jakinaraziko dio sukurtsala kokatuko den edo kokatuta dagoen estatu kideko ikuskapen-agintaritzari, eta hark eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hilabete bateko epea izango dute artikuluko honetan esleitzen zaizkien funtzioak betetzeko.

7. Sukurtsalak dokumentuak eskatu eta eman diezazkieketen sukurtsalari dagokion estatu kideko zuzendaritzan mantenduko du bere dokumentazioa.

48. artikulua. *Zerbitzuak modu askean eskaini ahal izateko jakinarazpena.*

1. Zerbitzuak modu askean eskaintzeari buruzko araubideko jarduerak estatuko kide batean edo gehiagotan lehen aldiz gauzatu nahi dituzten Espainiako aseguru-entitate guztiek beren proiektuaren berri eman beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, eta estaliko dituen arriskuen eta konpromisoen berri eman beharko dute.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hilabeteko epea izango du, aurreko zenbakian zehaztutakoaren arabera jasotako informazioa aseguru-entitateak zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz garatuko dituen jarduerak kokatuko diren lurraldeko estatu kideari edo estatu kideei jakinarazteko. Epea informazioa jasotzen den egunean hasiko da. Jakinarazpen horren edukia erregelamendu bidez arautuko da.

3. Aseguru-entitateak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 2. zenbakian adierazitako jakinarazpena egin dela adierazi ostean abiarazi ahal izango du bere jarduera.

4. Aseguru-entitateak zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz estali nahi dituen arriskuekin edo konpromisoekin lotutako aldaketa oro aurreko zenbakietan zehaztutako prozedurari eta baldintzei jarraikiz gauzatuko da.

49. artikulua. *Espainiako aseguru-entitateen mugaz haraindiko jardueri buruzko informazio estatistikoa.*

Zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubideari jarraikiz jarduten duten Espainiako aseguru-entitateek erregelamendu bidez ezarritako informazio estatistikoa helarazi beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Gero, hura hala eskatzen duten estatu kide interesdunetako ikuskapen-agintaritzei igorri ahal izango zaie, zentzuzko epean.

5. atala. *Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateek hirugarren herrialdeetan gauzatzen duten jarduera*

50. artikulua. *Hirugarren herrialdeetan entitateak sortu eta beste eragiketa batzuk gauzatzea.*

1. Espainiako aseguru- edo berraseguru-entitateek atzerriko menpeko sozietateak sortzen dituztenean, atzerriko sozietateetan dominatzaile-baldintza bereganatzen dutenean, sukurtsalak finkatzen dituztenean eta, hala badagokio, Europar Batasuneko estatu kideak ez diren beste estatu batzuetan zerbitzuak modu askean eskaintzeko

araubidearen pean jarduten dutenean, egoera hilabete bat lehenago jakinarazi beharko zaio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

Aipatutako jarduera horiek entitatearen finantza- eta kaudimen-egoeran eragiten dutenean, Zuzendaritza Nagusiak jarduera horiek debekatu edo horiek gauzatzeko baldintzak ezarri ahal izango ditu hilabete bateko epean.

2. Epe hori igaro ostean oposizioirik egin ez bada, eragiketaren berri eman beharko zaio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hura gauzatu ostean.

II. KAPITULUA

Europar Batasuneko beste estatu batzuetako aseguru- eta berraseguru-entitateek Espainian gauzaten dituzten jardueretara sarbidea izatea

1. atala. Aseguru- eta berraseguru-entitateentzako xedapen orokorrak

51. artikulua. *Espainian jardun dezaketen beste estatu kide batzuetako aseguru- eta berraseguru-entitateak.*

1. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden eta beren jatorrizko estatuan jarduteko baimena lortu duten aseguru-entitateek beren jarduerak gauzatu ahal izango dituzte Espainian, kokatzeko eskubidearen araubidea edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidea kontuan hartuta.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa ez zaie aplikatu ahal izango bizitza-aseguruari, aseguru- eta berraseguru-jardueran jarduteari eta hura burutzeari buruzko 2009ko azaroaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/138/EE Zuzentarauaren (II. Kaudimena) aplikazio-eremutik kanpo geratzen diren aseguru-entitateei, haren 4. eta 7. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ezta Zuzentarau horretako 8. eta 10. artikuluetan zerrendatutako zuzenbide publikoko erakundeei ere.

2. 1. zenbakiko lehen lerrokadan aipatzen diren aseguru-entitateek interes orokorreko arrazoiengatik emandako xedapenak eta aplikagarriak zaizkien merkatuko jokabideei buruzko III. tituluko VII. kapituluko xedapenak errespetatu beharko dituzte. Espainiako aseguru-entitateen termino beretan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskatzen dizkien dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte, Espainian aplikagarriak zaizkien Espainiako xedapen guztiak errespetatzen dituzten ala ez egiaztatzeko helburuarekin.

3. Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden eta beren jatorrizko estatuan jarduteko baimena lortu duten berraseguru-entitateek kokatzeko eskubidearen araubideari edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz bete ahal izango dituzte beren funtzioak. Horretarako, ez dute administrazio-baimenik edo alde zuzeneko jakinarazpenik beharko, baina interes orokorreko arrazoiengatik emandako xedapenak eta aplikagarriak zaizkien kasuan kasuko ikuskapen-xedapenak errespetatu beharko dituzte. Espainiako berraseguru-entitateen termino beretan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskatzen dizkien dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte, Espainian aplikagarriak zaizkien Espainiako xedapen guztiak errespetatzen dituzten ala ez egiaztatzeko helburuarekin.

4. Kontratuzko dokumentazioa gaztelaniaz aurkeztuko da, baita Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eska dezakeen edo Espainian jarduten duten beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-entitateek (kokatzeko eskubidearen edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidearen bitartez) igorri beharreko informazioa ere.

52. artikulua. *Zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubideari jarraikiz Espainian jarduten duten aseguru- eta berraseguru-entitateen aldetik legezko xedapenak betetzea.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kokatzeko eskubideari edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz Espainian jarduten duen

aseguru- edo berraseguru-entitate batek Espainiako xedapen aplikagarriak betetzen ez dituela egiaztatzen badu, haren jarduketara Espainiako antolamendu juridikora egokitu dezala eskatuko dio. Entitateak egokitzapen hori gauzatzen ez badu, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak haren berri emango dio jatorrizko estatu kidearen agintaritza ikuskatzaileari, hark beharrezko neurriak hartu eta aseguru- edo berraseguru-entitateak bere egoera irregularrari amaiera eman diezaion, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi diezazkion.

2. Beharrezko neurriak ez hartzeagatik edo hartutako neurriak egokiak ez izateagatik, Espainiako antolamendu juridikoko arau-hausteak bere horretan jarraitzen badu, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, jatorrizko estatu kideko agintaritza ikuskatzaileei jakinarazi ostean, 120. artikuluan araututako polizak eta tarifak debekatzeko neurriak eta bi kasuetan aplikagarriak zaizkien VI. tituluko II. kapituluko kontrol bereziko neurriak hartu ahal izango ditu.

Gainera, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo jatorrizko estatu kideko agintaritza ikuskatzaileak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari gaia helarazi eta haren laguntza eskatu ahal izango du.

3. Premiazko kasuetan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aurreko zenbakian aipatzen diren neurriak hartu ahal izango ditu, 1. zenbakian eskatzen diren baldintzak eta informazioa bete beharrik izan gabe.

53. artikulua. *Tributuak eta errekarquak.*

Kokatzeko eskubidearen araubidea edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidea aintzat hartuta egin diren aseguru-kontratuek arrisku kokatuak estaltzen dituztenean edo Espainian konpromisoak bereganatzen dituztenean, horiek Aseguruen Kontentsazio Kontsultazioaren aldeko errekarquak izango dituzte. Horrela, hark Espainian gertatutako ezohiko gertakarietatik, berme-funts nazionaletik (ibilgailu automobilen zirkulaziotik eratorritako erantzukizun zibileko aseguruan) eta aseguru-entitateen funtzio likidatzailetik sortutako galerak konpentsatu ahal izango ditu. Horrez gain, legez eskatzen diren gainerako errekarquak eta tributuak izango ditu, Espainiako aseguru-entitateekin sinatutako kontratuen baldintza beretan.

54. artikulua. *Erantzukizun zibileko aseguruaren lurreko ibilgailu automobiletan.*

Lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko aseguruari dagokionez kokatzeko araubideari edo zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz Espainian jarduten duten aseguru-entitateek, garraiolariaren erantzukizuna salbu, Automobilen Aseguratzailen Espainiako Bulegoan (OFESAUTO) txertatu beharko dute.

2. atala. *Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera kokatzeko eskubidearen araubidean*

55. artikulua. *Jarduteko baldintzak, kokatzeko eskubidearen araubideari jarraikiz.*

1. Beste estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate baten sukurtsal bat Espainian jarri eta hark bere jarduera kokatzeko eskubidearen araubideari jarraikiz abiarazi aurretik, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Espainiako jarduera gauzatzeko baldintzak adierazi ahal izango dizkio jatorrizko estatu kideko agintaritza ikuskatzaileari, interes orokorreko arrazoiak direla eta.

Zuzendaritza Orokorrak bi hilabeteko epea izango du horretarako, jatorrizko estatu kideko agintaritza ikuskatzaileak 47.2 artikuluan aipatzen den jakinarazpena jasotzen duenetik kontaktzen hasita.

Sukurtsalak jatorrizko estatu kideko agintaritza eskudunak bere adostasuna edo Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak adierazitako baldintzak jakinarazten dituen momentutik aurrera abiarazi ahal izango du bere jarduera. Era berean, jarduera abiarazi ahal izango du, bi hilabeteko epe hori igaro ostean, jakinarazpenik jaso ez badu.

2. Sukurtsalean 47.1 artikuluan aipatutako alderdiren bat aldatzen bada, hark prozedura bera bete beharko du, baina epea hilabete batekoa izango da.

56. artikulua. *Espainiako sukurtsalen ikuskapena jatorrizko estatuko agintarien aldetik.*

Beste estatu kide batean baimendutako aseguru- edo berraseguru-entitate batek bere jarduera sukurtsal bidez Espainian gauzatzen duenean, jatorrizko estatu kideko agintari ikuskatzaileek, beren aldetik edo xede horrekin izendatutako pertsonen bitartez, beharrezko informazioa egiaztatu ahal izango dute, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aldeztatik jakinarazi ostean, entitatearen finantza-ikuskapena egin ahal izateko.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egiaztatze horretan parte hartuko du, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak esku hartzen duten gainerako ikuskatzaileekin batera egindako egiaztapenetan parte hartu ahal izango du.

3. atala. *Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera-zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidean*

57. artikulua. *Zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidean gauzatutako jardueretara sartzeko baldintzak.*

Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-entitateek Espainian gauzatzen duten zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidearen arabera beren jarduera abiarazi edo, hala badagokio, aldatu ahal izango dute jatorrizko estatu kideko agintaritzak ikuskatzaileak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari 48.2 artikuluan adierazitako jakinarazpena igorri diola jakin bezain laster.

58. artikulua. *Lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko asegururako baldintza zehatzak.*

1. Espainian zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz jardun nahi duten eta lurreko ibilgailu automobiletan erantzukizun zibileko arriskuak estaltzen dituzten Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta dauden aseguru-entitateek, garraiolariaren erantzukizuna kanpo, honako baldintza hauek bete beharko dituzte beren jarduera Espainian abiarazi aurretik:

a) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari ohiko bizilekua Espainian izango duen pertsona fisiko ordezkari baten edo bertan kokatuta egongo den pertsona juridiko baten izena eta helbidea jakinarazi beharko dizkio; hark honako eskumen hauek izango ditu:

1. Hirugarren kaltetuek aurkeztutako erreklamazioei erantzungo die. Horretarako, aseguru-entitatea ordezkari nahikoa ahalmen izan beharko du, baita kalte-ordainak ordaintzeko eta Espainiako administrazio-agintarien eta auzitegien aurrean defendatzeko ere.

2. Aseguru-entitatea ordezkari du Espainiako agintaritzak judizialen eta administratiboen aurrean, lurreko ibilgailu automobilen zirkulaziotik eratorritako erantzukizun zibileko aseguru-polizen existentzia eta baliozkotasuna kontrolatzeari dagokionez.

b) Aseguru-entitatea Automobilen Espainiako Aseguruen Bulegoan (OFESAUTO) txertatu dela eta Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren alde legez eska daitezkeen errekarguak aplikatuko direla adierazten duen berriazko aitortze arduratsua formulatuko da Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean.

2. Aseguru-entitateak 1.a) zenbakian aipatzen den ordezkaria izendatuko ez balu, Espainian izendatu den beste estatu kide bateko gertakariak bideratu eta likidatzeko ordezkariak bereganatuko ditu haren funtzioak, kaltetuak egoitza Espainian duenean.

59. artikulua. *Zerga-betebeharrak.*

Zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubidearen arabera Espainian jardun nahi duten Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako aseguru-entitateek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute, eta zenbatekoa Altxorrean txertatu beharko dute; era berean, Zerga Administrazioari Espainian egindako eragiketen berri eman beharko diote, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak, sozietateen gaineko zergak eta ez-egoiliarren gaineko zergak arautzen dituen araudian aurreikusitako moduan.

60. artikulua. *Harpidetza-agentziak.*

1. Erakunde aseguratzailerik ahalordea emateko kontratuak egin ahalko dituzte Espainiako pertsona juridikoekin, haien izenean eta kontura arriskuak kontratatuzko.

2. Espainian, harpidetza-agentziek beren jardueri ekin ahal izateko, aurrez Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren administrazio-baimena lortu behar dute. Erregelamendu bidez, administrazio-baimena lortu eta mantentzeko baldintzak eta prozedura arautuko dira.

3. Administrazio-baimena beharrezkoa izango da, halaber, harpidetza-agentzia batek baimendutakoak ez diren beste aseguru-entitate batzuentzat jardun eta hasiera batean eskatutakoak ez diren eta baimena duen entitate jakin batekin baimenduta dauden beste arrisku batzuetan negozioa gauzatu ahal izateko. Erregelamendu bidez, administrazio-baimena areagotu dadila lortzeko baldintzak eta prozedura arautuko dira.

4. Harpidetza-agentzietan 85. artikulutik 88. artikulura jasotzen diren partaidetza esanguratsuei buruzko arauak aplikatuko zaizkie. Bertan egiten diren aseguru-entitateei buruzko aipamenak harpidetza-agentzietan buruzkoak direla ulertuko da, eskualdatzailea edo eroslea aseguru-entitate bat edo aseguru-bitartekaria, berraseguru-artekaria edo beste harpidetza-agentzia bat denean.

5. «Harpidetza-agentzia» izena artikulua honetan zehazten diren sozietateentzat gordeta geratuko da. Harpidetza-agentziek oro har edo bitarteko telematikoen bitartez egiten duten publizitate eta aseguru harpidetzarako merkataritza arloko dokumentazioan, horiek harpidetza-agentzia gisa duten izaera aipatu beharko dute, baita ahalduz kontratuak egin dituzten aseguru-entitateak ere.

6. Aseguru-entitateetako bezeroarentzako arreta-zerbitzuek eta departamentuek harpidetza-agentzien jarduketari dagokionez aurkeztutako kexak eta erreklamazioak jaso eta ebatziko dituzte, finantza-zerbitzuen bezeroak babesteko araudian zehazten den moduan.

7. Aseguru-entitateen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak harpidetza-agentzietan emandako administrazio-baimena baliogabetuko du, 169. artikuluko 3. zenbakiko a) eta b) letretan, 4. zenbakiko a), b), d), e) eta f) letretan, eta 6 eta 7. zenbakietan jasotako moduan, bertan jasotzen diren aseguru-entitateei buruzko erreferentziak harpidetza-agentzietan dagozkiela ulertzen baita.

Lege honetako jarduerarik ezak eragindako administrazio-baimena baliogabetu izanaren eraginez, harpidetza-agentzietan emandako botere guztiak baliogabetuko dira.

8. Harpidetza-agentzietan 160. artikuluan jasotako kontrol bereziko neurriak aplikatuko zaizkie, aplikagarriak zaizkien heinean.

9. Arau-hauste eta zigorren araubidea lege honetako VIII. tituluaren zehaztutakoa izango da.

III. KAPITULUA

Hirugarren herrialdeetako aseguru- eta berraseguru-entitateek Espainiako jarduerara sarbidea izatea

1. atala. Hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateak

61. artikulua. *Hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateen sukurtsalak irekitzeko baimena.*

1. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak Espainian sukurtsalak kokatzeko baimena eman ahal izango die Europar Batasuneko kide ez diren hirugarren herrialdeetan helbideratutako aseguru-entitateei, horiek erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.

2. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

3. Administrazio-baimena eman ostean, sukurtsala, haren ahaldun nagusia eta zuzendaritza eraginkorra gauzaten duten pertsonak 40. artikulua arautzen duen administrazio-erregistroan inskribatuko dira.

4. Bizitza-aseguruak ez diren beste aseguru-entitateen esparruan, nazionalitate suitzarra duten aseguru-entitateen Espainiako sukurtsalei ez zaizkie eskatuko erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak.

62. artikulua. *Espainian hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateen jarduera gauzatzeko mugak.*

Espainian guztiz debekatuta dago Europar Batasunekoak ez diren hirugarren herrialdeetako aseguru-entitateekin aseguru zuzeneko eragiketak ituntzea edo beren jarduera horientzat betetzen duten aseguru pribatuetako bitartekarien bidez egitea. Dena den, Espainian legez kokatutako sukurtsalen bitartez kontratatzen duten aseguru-entitateak salbuespen gisa hartuko dira.

2. atala. Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateak

63. artikulua. *Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen sukurtsalak.*

1. Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateek Espainian sukurtsalak kokatu ahal izateko, horiek Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren aurretiazko administrazio-baimena lortu beharko dute. Horretarako, 61. artikuluan bizitza-berrasegururako jardueretarako, bizitza-berraseguruak ez den beste berraseguru-jarduera batzuetarako, edo mota guztietako berraseguru-jardueretarako aurreikusten dena bete beharko dute.

2. Sukurtsalen baimenak 40. artikuluan aurreikusitako administrazio-erregistroaren inskribapena zehaztuko du.

64. artikulua. *Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen Espainiako jarduera jatorrizko herrialdetik.*

Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateek Espainian jardun ahal izango dute beren egoitza soziala duten herrialdetik, baina ez Espainiatik kanpo kokatuta dauden sukurtsaletatik, baita horiek Europar Batasunean kokatuta badaude ere.

III. TITULUA

Jarduera gauzatzea

I. KAPITULUA

Aseguru- eta berraseguru-entitateen gobernu-sistema

65. artikulua. *Gobernu-sistemak bete beharreko baldintza orokorrak.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitate guztiek gobernu-sistema eraginkor bat izango dute jardueraren kudeaketa osasuntsua eta zuhurra bermatzeko; hura eragiketen konplexutasunaren, bolumenaren eta izaeraren arabera izango da.

2. Gobernu-sistemak gobernu kooperatiboko idatzizko politikak barne hartuko ditu, hala nola, antolakuntza-egitura gardena eta egokia, funtzioen banaketa eta bereizketa egokia eta argia, informazioa helarazten dela bermatzeko mekanismo eraginkorrak, eta entitateen ezaugarriekin bat datozen ordainketa-politikak eta -praktikak.

3. Entitatearen gobernu-sistemak honako funtzio hauek hartuko ditu barne: arriskuen kudeaketa, betetzen dela egiaztatzea, barne-ikuskapena eta ikuskapen aktuariala.

Gobernu-sistemak mekanismo eraginkorrak ezarriko ditu honako eskakizun hauek betetzen direla bermatzeko: batetik, entitatea modu eraginkorrean zuzentzen duten edo bertan funtsezko funtzioak betetzen dituzten pertsonen 38. artikuluan aurreikusten diren gaitasun- eta zintzotasun-eskakizunak; bestetik, lege honetan eta haren garapen-araudian zehazten diren betekizunak, arriskuen kudeaketari, arriskuen barne-ebaluazio prospektiboari, barne-kontrolari eta betetzeari, barne-ikuskapenari, funtzio aktuarialari, eta funtzio edo jarduerak kanporatzeari dagozkienak.

4. Gobernu-sistemaren azken erantzulea aseguru- eta berraseguru-entitateetako administrazio-organoa izango da.

5. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- eta berraseguru-entitateen gobernu-sistema egiaztatuko du, eta entitate horiek identifikatu dituzten eta horien finantza-finkotasunean eragin dezaketen arriskuak ebaluatuko ditu; era berean, beren gobernu-sistema hobetu eta sendotzeko beharrezko neurriak har ditzatela eskatu ahal izango diete.

66. artikulua. *Arriskuen kudeaketa-sistema, arriskuen barne-ebaluazioa eta kaudimena, barne-kontrolerako sistema eta gobernu-sistemaren funtzioak.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek arriskuak kudeatzeko sistema eraginkor bat ezarri beharko dute, eta sistema horrek barnean hartuko ditu erakunde horientzat banaka nahiz modu erantsian arriskutsuak diren edo izan daitezkeen elementuak etengabe identifikatu, neurtu, zaindu, kudeatu eta jakinarazteko beharrezko estrategiak, prozesuak eta informazio-prozedurak, baita horien interdependentziak ere.

Arriskuen kudeaketa-sistema hori eraginkorra izango da eta behar bezala txertatuta egongo da entitatearen erabakiak hartzeko prozesuan eta antolakuntza-egituran; gainera, modu eraginkorrean zuzentzen duten edo gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituzten pertsonak kontuan izango ditu.

Aseguru- eta berraseguru-entitateek arriskuen kudeaketa-funtzio bat ezarriko dute arriskuen kudeaketa-sistema errazago aplikatzeko.

2. Arriskuen kudeaketa-sistemaren barnean, aseguru- eta berraseguru-entitateek arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioa egingo dute aldi behin eta, edozein kasutan, arrisku-profilean aldaketa esanguratsuren bat egin eta berehala.

Arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioa negozio-estrategiaren barnean sartuko da, eta etengabe hartuko da kontuan entitatearen erabaki estrategikoetan.

Aseguru- eta berraseguru-entitateek arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluaziotik ateratako emaitzak jakinaraziko dizkiote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

Arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioak ez du baliorik izango nahitaezko kapitala kalkulatu edo doitzeko.

3. Aseguru- eta berraseguru-entitateek beren antolakuntzarekin bat etorriko den barne-kontrolerako sistema bat ezarri, dokumentatu eta mantendu beharko dute uneoro.

Sistema horrek honako hauek izango ditu, gutxienez: administrazio- eta kontabilitate-prozedurak, egitura egokia, entitateko maila guztietan informazioa emateko mekanismo egokiak eta dena betetzen dela egiaztatzeko funtzio bat.

Dena betetzen dela egiaztatzeko funtzio horretan, entitateari eragiten dioten lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak betetzen direla jakinaraziko zaio administrazio-organoari, baita haren barne-araudia betetzen dela ere. Era berean, entitateak gauzatzen dituen eragiketetan egiten den lege-esparruko aldaketa guztien inpaktuaren ebaluazioa, eta betetze-arriskuari dagokion zehaztapena eta ebaluazioa gaineratuko dira.

4. Aseguru- eta berraseguru-entitateek barne-ikuskapena egiteko funtzio eraginkor bat izango dute, eta haren barnean, barne-kontrolerako sistemaren egokitasuna eta eraginkortasuna eta entitatearen gobernu-sistemako beste elementu batzuk egiaztatuko dira; hura aseguru- eta berraseguru-entitateen eta kontuen kontu-ikuskapenerako jardueraren antolamendua, ikuskapena eta kaudimena arautzen dituen araudian zehaztutakoari jarraikiz garatuko da.

Barne-ikuskapenari dagokion funtzioa objektiboa eta independentea izango da funtzio operatiboei dagokienez.

Barne-ikuskapenetik eratorritako ondorioak eta gomendioak administrazio-organoari jakinaraziko zaizkio, eta hark horietako bakoitzari dagokionez hartu beharreko ekintzak zehaztu eta ekintza horiek gauzatzen direla bermatuko du.

5. Aseguru- eta berraseguru-entitateek funtzio aktuarial eraginkorra izango dute.

Funtzio aktuariala matematika aktuarial eta finantzarioari buruzko ezagutza nahikoak dituzten pertsonak beteko dute, aseguru- edo berraseguru-entitatearen jarduerarekin lotuta dauden arriskuen izaerarekin, bolumenarekin eta konplexutasunarekin bat etorri; horiek dagokion esperientzia egiaztatu beharko dute arau profesionalei eta aplikagarriak diren bestelako arauari dagokienez.

6. Erregelamendu bidez, arriskuen kudeaketa-sistemak gaineratu beharko dituen arriskuak zehaztuko dira, baita barne-ebaluazioaren eta funtzio aktuarialaren irismena ere.

67. artikulua. *Zerbitzuak kanpora ateratzea.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek kanpora bidali ahal izango dituzte beren funtzio edo jarduera eragile kritikoak edo garrantzitsuak, honako egoera hauetan salbu:

a) Gobernu-sistemaren kalitatea zertxobait kaltetzen denean.

b) Eragiketen arriskua behar ez bezala handitzen denean, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak entitatearen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen diren gaitasuna kaltetzen denean, edo aseguru-hartzaileen etengabeko zerbitzu egokiari eragiten dionean.

2. Ondorio negatibo horiek saihesteko helburuarekin, entitatearen barnean kanporatutako funtzioaz edo jardueraz arduratuko den pertsona bat izendatu beharko da. Hark zerbitzu-hornitzaileen jarduketa egiaztatzen moduko esperientzia eta ezagutzak izan beharko ditu.

3. Aseguru- eta berraseguru-entitateek funtzio edo jarduera kritikoak edo garrantzitsuak kanporatuko direla jakinarazi beharko diote, aurretiaz, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, baita funtzio edo jarduera horiekin lotuta egiten diren aldaketa esanguratsuak ere. Zuzendaritza Nagusiak horiei uko egin ahal izango die, jakinarazpena jasotzen duenetik hilabete bateko epean, 1. zenbakian zehazten den egoeraren bat gertatzen denean.

Esanguratsuzat hartuko dira funtzioaren arduradunari, zerbitzuaren hornitzaileari edo kanporatutako jardueren irismenari dagokionez egindako aldaketak.

4. Edonola ere, beren funtzioen zati bat kanporatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateek jarraitu beharko dute bermatzen lege honetan eta hura garatzen duten arauetan zehaztutako betebeharrak guztiak betetzen direla.

II. KAPITULUA

Aktibo eta pasibo, finantza-berme eta inbertsioen balorazioa

1. atala. Aktiboen eta pasiboen balorazioa, eta hornidura teknikoei buruzko arauak

68. artikulua. Aktiboen eta pasiboen balorazioa.

Aseguru- eta berraseguru-entitateek honako arau hauei jarraikiz baloratuko dituzte aktiboak eta pasiboak:

1. Aktiboak baloratzeko orduan, elkarrekiko independentzia-baldintzetan transakzio bat egiten duten behar bezala informatutako alderdi interesdunen artean horiek trukatuak liratekeen balioa hartuko da kontuan.

2. Pasiboak baloratzeko orduan, kontuan hartuko da pasiboak zenbatean transferitu edo likidatu litezkeen elkarrekiko independentzia-baldintzetan transakzio bat egiten duten eta behar bezala informatuta dauden alderdi interesdunen artean.

3. Pasiboak 2. zenbakiari jarraikiz baloratzeko orduan ez da inolako doikuntzarik egingo aseguru- edo berraseguru-entitatearen kaudimena kontuan hartzeko.

69. artikulua. Hornidura teknikoak.

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek beren zorren artean zenbatuko dituzte aseguru- eta berraseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak guztiak islatzeko beharrezko hornidura teknikoak.

2. Hornidura teknikoen balioa bat etorriko da aseguru- eta berraseguru-entitateek gaur egun beren aseguru- eta berraseguru-betebeharrak berehala beste aseguru- edo berraseguru-entitate bati transferitu beharko balizkiote ordaindu beharko luketen zenbatekoarekin.

3. Hornidura teknikoak kalkulatu ahal izateko, finantza-merkatuek helarazitako informazioa eta eskura dituzten harpidetza-arriskuei buruzko datuak erabiliko dira; informazio horrek koherentea izan behar du kalkulu horrekin.

4. Hornidura teknikoak zuhurtziaz baloratuko dira, modu fidagarrian eta objektiboan.

5. Erregelamendu bidez, zenbatu beharreko hornidura teknikoak eta horiek kalkulatzeko teknikak, metodoak eta hipotesiak zehaztuko dira, baita arriskurik gabeko interes-tasen behin-behineko egiturarekin ezkontzeko doikuntzaren eta arriskurik gabeko interes-tasen behin-behineko egituraren lurrunkortasun-doikuntzaren aplikazio-baldintzak ere.

6. Aseguru- edo berraseguru-entitateak aurreko zenbakian aipatzen den ezkontzagatiko doikuntza aplikatu nahi duenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aurretiazko baimena lortu beharko du, Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudian zehazten diren moduan eta baldintzetan.

Gehienez ere sei hilabetekoa izango da alde aurretiko baimentze-prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea. Epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

70. artikulua. Hornidura teknikoen zenbatekoa eskatu eta handitzea.

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskatuta, aseguru- eta berraseguru-entitateek beren hornidura teknikoen mailaren egokitasuna eta erabilitako metodoen aplikagarritasuna eta egokitasuna frogatu beharko dituzte, baita erabilitako oinarriko estatistika-datuaren egokitasuna ere.

2. Hornidura teknikoen zenbatekoa eta kalkulua xedapen aplikagarrietan aurreikusitakoarekin bat ez badatoz, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hornidura teknikoen zenbatekoa handitu dezatela eskatu ahal izango die entitate horiei, haiek eskatutako mailan kokatu arte.

Errekerimendu horiek ez dute VI. tituluko II. kapituluan arautzen diren kontrol bereziko neurri bat osatuko. Kontrol bereziko neurrien prozedura baten barneko hornidura teknikoekin lotutako ikuskapen-eskumenak aplikagarriak izango dira, aurreko lerrokadan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. atala. *Funts propioak*

71. artikulua. *Funts propioen zehaztapena.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateen funts propioak oinarrizko funts propioen eta funts propio gehigarrien arteko batura izango dira. Erregelamendu bidez, horietako bakoitza osatzen duten elementuak zehaztuko dira.

Entitateak funts propioen artean gehitu nahi dituen funts propio gehigarrietako elementu bakoitzaren zenbatekoak, kaudimen-ondorioetarako, galerak xurgatzeko duen gaitasuna islatuko du eta hipotesi zuhur eta errealistetan oinarrituko da. Gainera, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren alde aurretiko baimena beharko du, Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudian jasotzen diren moduan eta baldintzetan.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren alde aurretiko baimenaren bidez funts propio gehigarrietako elementu bakoitzaren moneta-zenbatekoa edo zenbateko hori kalkulatzeko metodoa onartuko da. Azken kasu horretan, metodo horri jarraikiz zehaztutako zenbatekoari ere aplikatuko zaio baimena; hark kasuan kasuko baliozkotasun-epaia zehaztu beharko du.

Aldez aurretiko baimenari dagokion prozesua ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, salbuespenezko kasuetan salbu, kasu horietan epea sei hilabetekoa izango baita. Epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

2. Erregelamendu bidez, aseguru- eta berraseguru-entitateen hartzaileei eta onuradunei banatu ez zaizkien pilatutako abantailek osaturiko soberazko funtsen kasuak eta baldintzak zehaztu ahal izango dira. Horiek bertan zehaztutako irizpideak bete beharko dituzte, 72. artikuluari jarraikiz, 1. mailako funts propio gisa sailkatu ahal izateko, eta ez dira aseguru- edo berraseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak gisa hartuko.

72. artikulua. *Funts propioen mailakako sailkapena.*

1. Funts propioetako elementuak hiru mailatan sailkatzen dira: 1. maila, 2. maila eta 3. maila. Maila horien sailkapen-irizpideak Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudian zehaztuko dira.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek aipatutako irizpide horiei jarraikiz sailkatuko dituzte beren funts propioak. Horretarako, Europar Batasuneko aplikazio zuzeneko araudian arautzen diren funts propioetako elementuen zerrendara joko dute.

3. Erregelamendu bidez, 1., 2. eta 3. maila aplikatu beharreko mugak zehaztuko dira, baita aseguru-entitateek funts-sailkapenei dagokienez dituzten betebeharrak eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aurreko zenbakian txertatu ez diren elementuak txertatzeko gauzatu behar duen baimentze-prozedura ere, Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudiari kalterik egin gabe.

73. artikulua. *Funts propioen onargarritasuna.*

1. Oinarrizko funts propioak konputagarriak izango dira nahitaezko kaudimen-kapitala eta nahitaezko gutxieneko kapitala estaltzeko.

2. Funts propio gehigarriak nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko bakarrik izango dira konputagarriak. Funts propio gehigarriak ez dira onartuko nahitaezko gutxieneko kapitala estaltzeko.

3. atala. Nahitaezko kaudimen-kapitala

74. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko.

1. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko, entitatearen negozioaren jarraitutasun-printzipioa hartuko da kontuan; hura aseguru- edo berraseguru-entitate baten oinarritzko funts propioen arrisku-balioaren berdina izango da, eta ehuneko 99,50eko konfiantza-maila eta urtebeteko denbora-horizontea izango ditu.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek urtero kalkulatuko dute, gutxienez, nahitaezko kaudimen-kapitala, eta kalkulu horren emaitzak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko dizkiote.

3. Aseguru- eta berraseguru-entitateek onargarriak diren oinarritzko funts propioekin edo funts propio gehigarriekin estali beharko dute, uneoro, nahitaezko kaudimen-kapitala.

Nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propioen zenbateko onargarria 1. mailako zenbatekoaren, 2. mailako zenbateko onargarriaren eta 3. mailako zenbateko onargarriaren arteko batura izango da.

4. Nahitaezko kaudimen-kapitalaren kalkulua erregelamendu bidez arautuko da.

5. Gainera, aseguru- edo berraseguru-entitateak nahitaez igorri beharko du informazio hori, aldaketak hauteman direnetik hilabete bateko epean, haren arrisku-profila edo haren funts propioak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari helarazitako azken informazioak oinarritzat duen hipotesiarengandik modu esanguratsuan aldatu ahal izan badira.

Betebehar horri kalterik egin gabe, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kalkuluak berriz egin eta horiek berriz aurkeztu ditzala eskatu ahal izango dio aseguru- edo berraseguru-entitateari, hark bidali behar duen informazioari dagokionez, entitatearen arrisku-profila aurkeztutako azken informazioaren erreferentziatzko datatik modu esanguratsuan aldatu bada.

75. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko metodoak.

1. Nahitaezko kaudimen-kapitala honako metodo hauei jarraikiz kalkulatu ahal izango da:

a) Formula estandarren bitartez; hala badagokio, sinplifikazio eta parametro zehatzak aplikatu ahal izango dira.

b) Barne-eredu oso edo partzialen bitartez.

2. Barne-ereduak edo parametro zehatzak erabili ahal izateko, administrazioak alde zuzeneko onespina eman beharko du, entitateak hala eskatuta. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

3. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko metodoak, baimentze- eta aplikazio-prozedurak, eta horiek ez betetzearen ondorioak erregelamendu bidez eta Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudi bidez garatuko dira.

76. artikulua. Nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatzea.

Ikuskapen-jarduketan ostean, eta salbuespen gisa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kapital gehigarria eskatu ahal izango dio aseguru- edo berraseguru-entitateari, behar bezala arrazoitutako ebazpen bidez. Kapital gehigarria eskatzen den kasuetan, aplikatu beharreko prozedura eta berrikuspen-epeak erregelamendu bidez eta Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudi bidez garatuko dira.

77. artikulua. *Administrazio-organoak barne-ereduei dagokienez duen erantzukizuna.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateen administrazio-organoek beren berariazko adostasuna eman beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bideratutako barne-ereduaren baimen-eskaerari, baita eredu horren ondorengo aldaketen baimentze-eskaerari dagokionez ere.

2. Entitateetako administrazio-organoen erantzukizuna izango da barne-ereduaren etengabeko funtzionamendu egokia bermatuko duten beharrezko sistemak finkatzea.

Bereziki, barne-ereduaren diseinua eta funtzionamendua eraginkorrak izan daitezela bermatu beharko dute, eredu horrek entitatearen arrisku-profila behar bezala islatzen jarraitu dezan.

4. atala. *Nahitaezko gutxieneko kapitala*

78. artikulua. *Nahitaezko gutxieneko kapitala.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek oinarrizko funts propio onargarriak izan beharko dituzte nahitaezko gutxieneko kapitala estaltzeko, hau da, oinarrizko funts propio onargarrien zenbatekoa estaltzeko; izan ere, hartzaileak eta onuradunak arrisku-maila onartezin batean egongo liriteke zenbateko horietatik behera, entitateek jardunean jarraituz gero.

Nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko oinarrizko funts propioen zenbateko onargarria 1. mailako zenbatekoaren eta 2. mailan sailkatutako oinarrizko funts propioetako elementuen zenbateko onargarriaren arteko batura izango da.

2. Nahitaezko gutxieneko kapitala berraseguru-aldagai garbi hauen multzo edo azpimultzo baten funtzio lineal gisa kalkulatu da: hornidura teknikoak, sortutako primak, arrisku-kapitalak, geroratutako zergak eta entitatearen administrazio-gastuak. Funtzio lineala aseguru- edo berraseguru-entitate baten oinarrizko funts propioen arrisku-balioaren arabera kalibratu da; hark ehuneko 85eko konfiantza-maila eta urtebeteko denbora-horizontea izango ditu.

3. Nahitaezko gutxieneko kapitala ez da entitatearen nahitaezko kaudimen-kapitalaren ehuneko 25 baino txikiagoa eta ehuneko 45 baino handiagoa izango, eskatzen den nahitaezko beste edozein kaudimen-kapital gehigarri barne.

Edonola ere, gutxieneko zenbateko absolutu hauek izango ditu:

a) 2.500.000 euro, bizitza-asegurua ez den beste aseguru arlo batzuetan jarduten duten aseguru-entitateak direnean, aseguru-entitate gatibuak barne, erantzukizun zibil, kreditu eta kauzio arloko arrisku guztiak edo batzuk estalita daudenean salbu [lege honetako A).a) eranskineko 10. artetik 15. artora]; kasu horretan, ez da 3.700.000 euro baino txikiagoa izango;

b) 3.700.000 euro, bizitza-aseguruan jarduten duten aseguru-entitateen kasuan, gatibu dauden aseguru-entitateak barne;

c) 3.600.000 euro, berraseguru-entitateen kasuan, gatibu dauden berraseguru-entitateen kasuan salbu; azken horien kasuan, nahitaezko gutxieneko kapitala ez da 1.200.000 euro baino txikiagoa izango;

d) Aipatutako a) eta b) letretan zehaztutako zenbatekoen batura, bizitza-aseguruko eta beste aseguru batzuetako jarduerak gauzatzen dituzten aseguru-entitateen kasuan.

4. Derrama pasiboko araubidea duten mutuen eta kooperatiben kasuan, nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko zenbatekoa gainerako entitateei eskatutakoaren hiru laurdena izango da.

Aipatutako entitateek erantzukizun zibil, kreditu edo kauzio arloetan jarduten ez dutenean eta berraseguru-jarduerarik gauzatzen ez dutenean, eta primen edo kuoten urteko zenbatekoak hiru urtez jarraian bost milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez duenean, nahitaezko gutxieneko kapitala ez da 800.000 euro baino txikiagoa izango horiek bizitza-aseguruen arloan jarduten badute, 200.000 euro baino txikiagoa ondasunei eragindako beste kalte batzuen, defentsa juridikoaren edo heriotza arloan jarduten badute,

eta 300.000 euro baino txikiagoa izango gainerako arloetan jarduten badute. Entitateak hiru urtez jarraian bost milioi euroko zenbatekoa gainditzen badu (laugarren urtetik aurrera izango ditu ondorioak), aurreko lerrokadan aurreikusitako gutxieneko zenbatekoa aplikatuko da.

Dena den, araubide horri atxikita dauden mutuek ez dute nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko zenbateko absolutu hori bete beharko horiek bizitzaren, erantzukizun zibilaren, kredituaren edo kauzioaren arloan jarduten ez dutenean edo berraseguru-jarduerarik gauzatzen ez dutenean eta horien prima edo kuoten urteko zenbatekoa 750.000 eurotik gorakoa ez denean.

5. Arloka jarduteko administrazio-baimena lortu ez duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen kasuan, nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko zenbateko absolutua aurreko zenbakiko lehen lerrokadan eskatutakoaren hiru laurdenekoa izango da.

Dena den, beren estatutuetan kuota-derramak egiteko edo prestazioak murrizteko aukera aurreikusten duten eta ondoz ondoko hiru ekitalditan bost milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez duten kuoten urteko zenbatekoa duten mutualitateen kasuan, nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko zenbateko absolutua aurreko zenbakiko bigarren lerrokadan aurreikusitakoa izango da. Ondoz ondoko hiru urtetan entitateak bost milioi euroko zenbatekoa gainditzen badu, laugarren urtetik aurrera gutxieneko zenbatekoak aurreko zenbakian zehaztutakoak izango dira.

Irakaskuntzako edo hezkuntzako diru-laguntzak edo prestazioak emateko xedea duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek ez dute nahitaezko gutxieneko kapitalaren gutxieneko zenbateko absolutu hori bete beharko, ezta arloka jarduten ez duten eta beren estatutuetan kuota-derramak egiteko edo prestazioak murrizteko aukera aurreikusten duten mutualitateek ere, horiek bizitza-aseguruko arriskuak estaltzen ez dituztenean eta horien kuota-zenbatekoa 750.000 euro baino handiagoa ez denean.

Zenbaki honetan adierazitakoaren ondorioetarako, gizarte-aurreikuspeneko mutualitate horiek aseguru arloetan estalitako arriskuak asimilatuko dira, erregelamendu bidez nahitaezko kaudimen-kapitalerako aurreikusten den moduan.

6. Aseguru- eta berraseguru-entitateek gutxienez hiruhilero kalkulatu dute nahitaezko kaudimen-kapitala, eta kalkulu horren emaitzak Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko diote. Nolanahi ere, nahitaezko kaudimen-kapitala ez da hiruhilero kalkulatu beharko, 3. zenbakiko lehen lerrokadan aurreikusitako mugak aplikatzeko.

5. atala. Inbertsioak

79. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateen inbertsioei buruzko arauak.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek zuhurtzia-printzipioari jarraikiz inbertitu beharko dituzte beren bitartekoak. Behar bezala zehaztu, neurtu, zaindu, kudeatu eta kontrolatu ditzaketen arriskuak dituzten aktiboetan eta erremintetan bakarrik inbertituko dute, eta Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari horien berri eman beharko diote. Arrisku horiek kontuan hartu beharko dira kaudimen-premia globalak ebaluatzean, arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioan.

2. Erregelamendu bidez, eta Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudiaren bitartez, inbertsioei buruzko arauak garatuko dira.

III. KAPITULUA

Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko informazio publikoa

80. artikulua. *Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek beren finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txosten bat argitaratu beharko dute urtero. Erregelamendu bidez, txostena argitaratzeko edukia, forma eta epeak zehaztuko dira.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek sistema eta egitura egokiak izango dituzte finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostenaren informazio- eta argitalpen-betebeharrekin lotutako baldintzak betetzeko, eta argitaratutako informazio guztia etengabe egokitzen dela bermatzeko idatzizko politika bat izango dute.

Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txosten publikoa entitatearen administrazio-organoak onartuko du hura argitaratu aurretik.

81. artikulua. *Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostenean informazioa hedatzeko dispentsa.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak informazioa ez hedatzeko baimena eman ahal izango die aseguru- eta berraseguru-entitateei, argitalpen horren eraginez, entitatearen lehiakideek abantaila esanguratsua izan dezaketenean edo aseguru-hartzaileekin edo kontrako alderdi batzuekin bereganatutako konpromisoen eraginez entitateak sekretua edo konfidentzialtasuna gorde behar duenean.

Kasu horretan, entitateek adierazpen bat egingo dute finantza- eta kaudimen-txostenean, eta kasuan kasuko arrazoiak aipatuko dituzte bertan.

2. Aurreko zenbakian adierazitakoa ez da aplikagarria izango erregelamendu bidez garatuko den edukia duen kapital-kudeaketari buruzko informazioaren kasuan.

82. artikulua. *Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostenaren eguneraketak eta borondatezko informazio gehigarria.*

1. Egoera garrantzitsuren batek modu esanguratsuan eragiten badu finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostenean argitaratutako informazioan, aseguru- eta berraseguru-entitateek haren izaeraren eta ondorioen inguruko informazioa argitaratuko dute. Erregelamendu bidez, egoera garrantzitsutzat jotzen dena zehaztuko da, baita Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kasu horietan hartu ahal izango dituen neurriak ere.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek, beren borondatez, beren finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko edozein informazio edo azalpen eman ahal izango dute, baita horiek argitaratzea beharrezkoa ez denean ere, lege honen 80. eta 81. artikuluetan eta hura garatzen duen erregelamenduan nahiz artikulua honetako 1. zenbakian adierazten denari jarraikiz.

IV. KAPITULUA

Kontabilitatezko betebeharrak

83. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateen kontabilitatea.*

1. Berezko arau espezifikoek arautuko dute aseguru- eta berraseguru-entitateen kontabilitatea. Era horretako araurik ez badago, ondoko agiri hauetan ezarritakoa beteko da: Merkataritzako Kodean; Kontabilitateari buruzko Plan Orokorrean; eta merkataritzako legeetatik kontabilitateari buruzko beste xedapen guztietan ezarritakoak.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitate guztien ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da.

Erregelamendu bidez, aurreko zenbakian aipatzen diren kontabilitate-arau zehatzak zehaztuko dira, baita aseguru-entitateen kontabilitate-betebeharrak, derrigorrez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipioak, urteko kontuen formulazioari buruzko arauak, horiek osatzen dituzten elementuen balorazio-irizpideak, eta kontu horiek onartu, egiaztatu, jalki eta argitaratzeko araubidea ere.

3. Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeak txostena egin ostean, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak 1. zenbakian aipatzen diren kontabilitate-arau zehatzak eman ahal izango ditu, aseguru-entitateen kontabilitate-planari dagokionez bereziki, baina baita haren aldaketa eta arau osagarriei dagokienez ere.

Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak aseguru- eta berraseguru-entitateen kontabilitate-arau zehatzak garatu ditzala eskatu ahal izango dio Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, baita aplikagarriak diren finantza-informazioko nazioarteko arauetara egokitu ditzala ere, Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordearen txostena jaso ostean.

84. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen kontu bateratuen formulazioa.*

1. Artikulu honetako 3. zenbakian zehaztutako aseguru- eta berraseguru-entitateen taldeei Merkataritzako Kodearen 43 bis artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Nolanahi ere, eta artikulu horretan xedatutakoarekin bat etorritz, Europar Batasuneko erregelamenduetan jasotzen diren finantza-informaziorako nazioarteko arauak aplikatzen ez direnean, aseguru- eta berraseguru-entitateek osaturiko taldeen kontu kontsolidatuak egiteko orduan horien arau espezifikoak hartuko dira kontuan, eta hala badagokio, Merkataritzako Kodean eta haren garapenerako xedapenetan zehazten direnak.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek osaturiko taldeen kontu kontsolidatuak egiteko orduan kontuan izan behar diren arau zehatzak 83.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz zehaztuko dira. Horretarako, sozietate-taldeen kontuak aurkezteko orduan Merkataritzako Kodeko 1. Liburuan eta hura garatzeko xedapenetan jasotzen diren printzipioak errespetatuko dira; dena den, aseguru- eta berraseguru-entitateen taldeentzat beharrezkoak izan daitezkeen nahitaez bete beharreko egokitzapenak txertatu ahal izango dira.

3. Artikulu honen ondorioetarako, aseguru- eta berraseguru-entitateen talde gisa hartuko da honako egoera hauetakoren batean dagoen taldea:

- a) Sozietate nagusia aseguru- edo berraseguru-entitate bat denean.
- b) Sozietate nagusia jarduera nagusizat aseguru- edo berraseguru-entitateetan partaidetzak izatea duen entitate bat denean.
- c) Aseguru- eta berraseguru-entitateez edo beste mota bateko entitateez osaturik dagoenean, eta lehenengo horien jarduera taldeko garrantzitsuena denean.

Artikulu honetan aurreikusten den kontu kontsolidatuak egiteko aurreikusitako taldearen kontzeptua independentea izango da lege honetako V. tituluko taldeen berrikuspenerako aurreikusten den kontzeptuarekiko.

V. KAPITULUA

Aseguru- eta berraseguru-entitateetako partaidetzen arubidea

85. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateetan partaidetzak eskuratzeko betebeharrak.*

1. Zuzenean nahiz zeharka, aseguru- edo berraseguru-entitate batean partaidetzaren bat bereganatu duten, eta beraz, ehuneko bosteko kapital-ehunekoa edo boto-eskubideak edo gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, beren kabuz nahiz beste batzuekin adostuta, 2. zenbakia aplikagarria ez bazaie, Aseguru eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeari dagokion jakinarazpena egin beharko diote, idatzizko eskurapena jaso dutenetik hamar egun balioduneko epean, baita entitate partaidetuari ere, eta lortutako partaidetza adierazi beharko dute bertan.

2. Zuzenean nahiz zeharka, norbere kabuz nahiz beste pertsona batzuekin batera, aseguru- edo berraseguru-entitate batean bere partaidetza esanguratsua bereganatu edo areagotu nahi izan duen –baita kapitala, fusioak eta bereizketak handitu edo murriztu diren egoeretan ere–, eta beraz, bere boto-eskubideen edo kapital-partaidetzaren proportzioa ehuneko hogeikoa, hogeita hamarrekoa edo berrogeita hamarrekoa edo handiagoa den pertsona fisiko edo juridiko orok, eskuratzeko horren ondorioz aseguru- edo berraseguru-entitatea kontrolatu dezaketenean, dagokion jakinarazpena egin beharko dio, idatziz, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari; bertan, partaidetza horren

zenbatekoa adierazi beharko du, baita eskurapenaren terminoak eta baldintzak, eta jarduera egitea aurreikusten den gehieneko epea ere, eta erregelamendu bidez zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Betebehar hori bete beharko du, halaber, aipatutako partaidetza esanguratsu hori bereganatu edo handitzeko erabili den aseguru- edo berraseguru-entitateak.

Aseguru eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeak partaidetza bereganatu edo areagotzea proposatu duenaren egokitasuna ebaluatuko du, baita proposatutako bereganatze edo areagotze horren finantza-sendotasuna ere, erregelamendu bidez zehaztutako irizpideekin eta prozedurarekin bat etorriz. Helarazitako informazioak ebaluaziorako aproposa izan beharko du, eta partaidetza bereganatu edo areagotzea proposatu duenaren eta proposatutako eskuratzearen arabera izan beharko du. Aseguru eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeak eskurapenarenari aurka egin edo haren aurkako oztopoak jarri ahal izango ditu.

3. Aseguru- edo berraseguru-entitate batean partaidetza esanguratsua duen ala ez zehazteko, ez dira aintzat hartuko jaulkipen bat aseguratzearen, finantza-tresnak jartzearen edo konpromiso sendoan oinarrituta finantza-tresnak jartzearen ondorioz sortutako boto-eskubideak edo kapitalaren ehunekoak, baldin eta eskubide horiek egikaritzen ez badira jaulkitzailearen administrazioan esku hartzeko eta eskuratu ondorengo urtebetean uzten badira. Erregelamendu bidez, partaidetza baten zenbaketan txertatu beharreko akzioak, ekarpenak eta boto-eskubideak arautuko dira.

Edonola ere, aseguru-entitatearen administrazio-organoko kideren bat izendatu edo kargugabetzeko aukera eragin esanguratsutzat hartuko da.

4. Artikulu honetan aseguru- eta berraseguru-entitateentzat xedatzen dena bere horretan ulertuko da, Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legean eta haren garapen-arauetan jasotzen diren partaidetza esanguratsuei buruzko eskurapen- eta informazio-eskaintza publikoei buruzko arauen aplikazioari kalterik egin gabe, eta Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean jasotzen diren kontzentrazio ekonomikoen kontrolerako arauen aplikazioari kalterik egin gabe.

86. artikulua. *Betebeharrak ez betetzearen ondorioak.*

1. 85. artikuluan araututako eskurapen edo gehikuntzaren bat egin bada eta aurretiaz Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi ez bazaio, edo jakinarazpena eginda ere, erregelamenduan aurreikusitako epea igaro ez bada, edo Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak haren aurka egin badu, honako ondorio hauek gertatuko dira:

a) Irregularki eskuratutako partaidetzei dagozkien eskubide politikoak ezingo dira egikaritu. Horiek egikaritutako balira, dagozkion botoak baliogabeak eta akordioak aurkarazteko modukoak izango dira, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategineko V. tituluko IX. kapituluan aurreikusitakoari jarraikiz, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak horretarako legitimitatea izango du.

b) Beharrezkoa izanez gero, aseguru- edo berraseguru-entitateari dagokionez 160. artikulutik 163. artikulura aurreikusten den kontrol bereziko neurriren bat edo batzuk hartuko dira.

c) Gainera, dagozkion administrazio-zehapenak ezarriko dira, VIII. tituluko II. kapituluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Partaidetza esanguratsu baten titularrek aseguru- edo berraseguru-entitate baten kudeaketa osasuntsu eta zuhurrarekiko ondorio kaltegarria gauzatzen dutela, eta horiek haren finantza-egoera modu larrian kaltetzen dutela edo egokiak izateari utzi diotela frogatzen denean, aurreko zenbakian aurreikusitako neurriren bat edo batzuk hartu ahal izango dira, baina boto-eskubideak hiru urtez eten ahal izango dira gehienez ere. Salbuespen gisa, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak baimena ezeztatu ahal izango du, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hala proposatuta.

87. artikulua. *Aseguru- edo berraseguru-entitate batean duen partaidetza esanguratsua murrizteko betebeharrak.*

1. Zuzenean nahiz zeharka, aseguru- edo berraseguru-entitate batean partaidetza esanguratsua izateari uzteko erabakia hartu duen pertsona fisiko edo juridiko orok alde zuzeneko idatzizko jakinarazpena egin beharko dio Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, eta bere partaidetza-murrizketaren aurreikusitako zenbatekoa jakinaraziko du. Gainera, pertsona horrek partaidetza handia murriztea erabaki badu, eta boto-eskubidea edo kapitala bada % 20, % 30 edo % 50etik beherakoa, edo aseguru- edo berraseguru-entitatearen kontrola galdu badezake, Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio.

Aipatutako partaidetza esanguratsu hori bereganatu edo handitu duen aseguru- edo berraseguru-entitateari ere badagokio betebeharrak.

2. Informazio-eginbehar hori ez betetzeak zehapena izango du, VIII. tituluko II. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera.

88. artikulua. *Informazio-betebeharrak.*

Beren informazio periodikoa aurkezten dutenean, eta Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hala eskatzen duenean, aseguru-entitateek partaidetza esanguratsua dituzten akziodunen edo bazkideen identitatea jakinarazi beharko dute, baita partaidetza horien zenbatekoa eta akzioetan sortzen diren aldaketak ere. Partaidetza esanguratsuari buruzko datuak akziodun edo bazkideen urteko batzar orokorretik edo Balore Merkaturerik buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legetik eratorritako betebeharrak jarraikiz lortutako informaziotik eskuratuko dira.

VI. KAPITULUA

Sozietate-eragiketak

1. atala. *Aseguru-zorroa lagatzea*

89. artikulua. *Aseguru-entitateen artean aseguru-zorroa lagatzea.*

1. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagokio aseguru-entitateen artean aseguru-zorroa lagatzeko eragiketa baimentzea.

2. Baimen-eskaerari buruzko erabakia sei hilabeteko epean hartu beharko da, Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusian jasotzen den egunetik hasita, edo beharrezko agiri guztiak eskuratzen diren unean, betiere, jaso eta hamabi hilabeteko epean. Epe horretan eskabideari erantzun ez bazaio, ezezkoa eman zaiola ulertuko da. Erregelamendu bidez, baimentze-prozedura eta aseguru-zorroa lagatzeak eragin dituen ondorioak zehaztuko dira.

3. Aseguru-entitateen artean aseguru-zorroa lagatzeko eragiketa honelakoa izan daiteke:

a) Partziala, arlo batean edo gehiagotan poliza-multzo bat dagoenean eta horiek irizpide objektibo bati jarraikiz multzokatzen direnean. Irizpide objektibo hori argi eta garbi zehaztu beharko da lagapen-hitzarmenean, erregelamendu bidez ezarritako diren baldintzetan.

b) Totala, arlo bati edo gehiagori dagozkion poliza guztiak barne hartzen dituztenean. Kasu horretan, aseguru-zorroa lagatzeko baimenarekin batera, lagatutako arloan edo arloetan jarduteko administrazio-baimena ezeztatuko zaio entitate lagatzaileari.

2. atala. Egiturazko aldaketak

90. artikulua. Egiturazko aldaketak.

1. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagokio eraldaketak, fusioak, aktiboen eta pasiboen lagapen globalak edo zatiketak aseguru-entitate batek esku hartuta eginez gero, edota aurrekoen antzeko ondorio ekonomiko edo juridikoak dituen edonolako akordioa baimentzea. Ondorio horietarako, baimena eman aurretik, txostena eskatuko zaio Espainiako Bankuari, Kapitalen Zuritzea eta Arau-hauste Monetarioak Prebenitzeko Batzordeko Zerbitzu Exekutiboari eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, haien eskumeneko alderdiei dagokienez.

2. Baimen-eskaerari buruzko erabakia sei hilabeteko epean hartu beharko da, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusian jasotzen den egunetik hasita, edo beharrezko agiri guztiak eskuratzen diren unean, betiere, jaso eta hamabi hilabeteko epean. Epe horretan eskabideari erantzun ez bazaio, ezezkoa eman zaiola ulertuko da. Baimentzeko prozeduraren gainerako xehetasunak erregelamendu bidez ezarriko dira.

3. Lege honetan eta haren garapen-erregelamenduan berariaz arautzen ez den guztirako, eta haren aurkakoa ez den neurrian, aseguru-entitateen eraldaketari, fusioari, aktibo eta pasiboaren lagapen globalari eta zatiketari merkataritza-araudia aplikatuko zaio, eta bereziki, Merkataritza-sozietateen egiturazko aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legean xedatutakoa, eta aplikagarria den kasuetan, kooperatiben legedia.

4. Lege honetan berariaz arautzen ez den guztirako, eta haren aurkakoa ez den neurrian, aseguru-entitateen fusioari, aktibo eta pasiboaren lagapen globalari eta zatiketari merkataritza-araudia aplikatuko zaio, eta bereziki, Merkataritza-sozietateen egiturazko aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legean xedatutakoa.

91. artikulua. Egiturazko aldaketen salbuespeneko egoerak.

Salbuespen gisa, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak aseguru-entitateen eraldaketa, fusioa, aktibo eta pasiboaren lagapena eta zatiketa baimendu ahal izango du erregelamendu bidez aurreikusten ez diren beste egoera batzuetan, eskaera egiten duen aseguru-entitatearen egoera bereziak kontuan hartuta, eragindako aseguru-entitatearen jardueraren garapen egokiagoa lortzen denean, betiere horrek finantza-bermeetan, aseguratuaren eskubideetan eta gardentasunean eragiten ez badu aseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak bereganatzean.

3. atala. Estatutuetako aldaketak

92. artikulua. Estatutuetako aldaketak.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari estatutuetako aldaketak jakinarazi beharko zaizkio, horiek administrazio-erregistro berezian jaso behar direnean.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari estatutuetako aldaketak egiteko akordioa hartu eta hamar egun balioduneko epean egin beharko zaio jakinarazpena.

4. atala. Aseguru- edo berraseguru-entitateen elkarreak eta aldi baterako batasunak

93. artikulua. Interes ekonomikoko elkarreak eta aseguru- edo berraseguru-entitateen aldi baterako batasunak.

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek interes ekonomikoko taldeak eta enpresen aldi baterako batasunak sortu ahal izango dituzte. Azken kasu horretan, elkarren artean egin ahal izango dituzte batasunak, horiek arautzen dituen legedia orokorrarekin bat etorriz eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren kontrolpean, legedia horretan aurreikusten denaz gain.

2. Salbuespen gisa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- eta berraseguru-entitateak eta beste batzuk barne hartuko dituzten enpresen aldi baterako batasunak baimendu ahal izango ditu, aldi baterako batasuna eskatu duen aseguru- edo berraseguru-entitatearen egoerak kontuan hartuta, entitatearen jardueraren garapen egokiagoa lortzen denean, betiere horrek finantza-bermeetan, aseguratuaren eskubideetan eta gardentasunean eragiten ez badu aseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak bereganatzean.

VII. KAPITULUA

Merkatuaren jokabideak

1. atala. Polizak eta tarifak

94. artikulua. *Prima-tarifak eta oinarri teknikoak.*

1. Prima-tarifak lege honetan eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoari jarraikiz egindako informazio estatistikoan eta oinarri teknikoetan oinarrituko dira. Arrazoizko hipotesi aktuarialen arabera, horiek aseguru-entitatearen aseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrei erantzuteko eta, bereziki, hornidura tekniko egokiak sortzeko modukoak izan beharko dute.

Tarifak kalkulatzeko orduan, ondasunak eta zerbitzuak eta horien horniketa eskuratzerakoan gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzen duen Kontseiluaren 2004/113/EE Zuzentarauaren aplikazio-esparruaren barnean, pertsona aseguratuaren prima eta prestazioetan ezin izango dira emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezarri, sexua kalkulurako faktore gisa hartzen dutenean. Nolanahi ere, haurdunaldiarekin eta erditzearekin zerikusia duten kostuek desberdintasunak eragingo dituzte gizabanakoen prima nahiz prestazioetan.

Aurreko lerrokadan esandakoa ez da aplikagarria izango lan-harreman bati atxikitako aseguru-kontratuetan, horietan desberdintasunak baimenduko baitira prima eta prestazioetan, faktore aktuarialek hala justifikatzen dutenean.

Era berean, berdintasun-, zatiezintasun- eta aldaezintasun-printzipioak errespetatu beharko dituzte.

2. Prima-tarifek lehia askeko erregimenari erantzungo diote aseguruen merkatuan eta, ondorio horietarako, estatistika komun erabilerak ez du lehiaren izaera mugatzailea izango aseguru- eta berraseguru-entitateen aldetik, horiek beren arrisku-primen tarifak prestatu ditzaten, betiere estatistika horiek Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 101.3 artikulua aplikaziorako agindutako Europar Batasunaren erregelamenduei jarraikiz prestatzen badira.

95. artikulua. *Jardueraren polizak, tarifak eta dokumentazio teknikoaren kontrolatzea.*

1. Kontratuko baldintzek eta poliza-ereduek, prima-tarifek eta oinarri teknikoek ez dute administrazio-baimenik beharko eta ez dira sistematikoki Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusira bidali beharko.

Dena den, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru-entitateen kontratuko baldintzak, poliza-ereduak, prima-tarifak eta oinarri teknikoak aurkeztu daitezela eskatu ahal izango du egokitzen jotzen duen guztietan, baita berraseguru-jarduerarekin lotutako kontratu-ereduak, primak eta bestelako dokumentuak ere, hala, horiek printzipio aktuarialak, lege honetan eta hura garatzen duten arauetan jasotzen diren xedapenak, eta aseguru-kontratuaren arautzen duten xedapenak errespetatzen dituztela kontrolatzeko.

Aurreko lerrokadan jasotzen den eskakizuna ez da haren jarduera gauzatu aurretiko baldintza izango aseguru- edo berraseguru-entitatearentzat.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateek artikulua honetan adierazten den dokumentazioa izango dute Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eskura, beren egoitza sozialean.

*2. atala. Informazioa eman beharra**96. artikulua. Aseguru-hartzaileari informazioa eman behar orokorra.*

1. Aseguru-kontratu bat egin aurretik, aseguru-entitateak haren jarduera kontrolatuko duten agintaritzaren eta estatu kidearen berri eman beharko dio hartzaileari, eta hori behar bezala adierazi beharko da polizan eta aseguru-kontratua gauzatu den gainerako dokumentu guztietan. Era berean, hartzaileari legea garatzen duen erregelamenduan zehazten den informazio guztia helarazi beharko zaio.

2. Bizitza-asegurua ez den beste aseguru-kontratu bat egin aurretik, hartzailea pertsona fisiko bat bada, edo edozein bizitza-asegururen kontratu bat egin aurretik, aseguru-entitateak idatziz jakinarazi beharko dio hartzaileari kontratuari aplikatuko zaion legedia, baita egin daitezkeen erreklamazioei buruzko xedapenak eta erregelamendu bidez zehazten diren gainerako alderdiak ere.

3. Hartzaileek inbertsioaren arriskua beren gain hartzen duten bizitza-aseguruetan modu argi eta zehatzean jakinaraziko da jaso beharreko zenbatekoa finantza-merkatuen gorabeheren mende dagoela, eta gorabehera horiek aseguratzailaren kontrol-eremutik kanpo daudela eta orain arteko emaitza-joera ez dela etorkizuneko emaitzen adierazle.

Hartzaileek inbertsioaren arriskua beren gain hartzen ez duten bizitza-aseguruetan, eragiketari zer errentagarritasun aurreikusten zaion jakinaraziko da, kostu guztiak aintzat hartuta. Zer modalitateri aplikatu dakioken eta aurreikusitako errentagarritasuna kalkulatzeko metodologia arau bidez zehaztuko dira.

4. Heriotzagatik aseguru bat edo gaixotasun-aseguru bat kontratatu aurretik –horien estaldura-modalitateak denak direla–, aseguru-entitateak idatziz jakinarazi beharko dizkio aseguruaren hartzaileari primak jarraian eguneratzeko eta poliza berritzeko aplikatu behar diren irizpideak, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

5. Bizitza arloko aseguru-kontratuaren indarraldi osoan zehar, aseguru-entitateak hasieran emandako informazioari buruzko aldaketak jakinarazi beharko dizkio hartzaileari, baita haren mozkinetako partaidetza ere, erregelamendu bidez zehaztutako terminoak eta epeak aintzat hartuta.

6. Informazio hori eskura egongo da, eta minusbaliotasuna duten pertsonen premietara egokitutako formatu eta kanalen bitartez helaraziko da, pertsona guztiek informazio hori diskriminaziorik gabe eta baldintza-berdintasunean eskuratu ahal izan dezaten.

*3. atala. Gatazkak konpontzeko mekanismoak. Beste xedapen batzuk**97. artikulua. Gatazkak konpontzeko mekanismoak.*

1. Aseguru-hartzaileen, aseguratuena, onuradunen, hirugarren kaltetuen edo eskubidedunen eta aseguru-entitateen artean sor daitezkeen gatazkak epaile eta auzitegi eskudunek ebartziko dituzte.

2. Era berean, beren desadostasunak egoera arbitralera eraman ahal izango dituzte, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bateginaren 57 eta 58. artikuluetan xedatutako moduan; testu bategin hori azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen.

3. Era berean, desadostasunak bitartekari baten eskura jarri ahal izango dituzte, Auzi zibil eta merkataritzazkoen uztailaren 6ko 5/2012 Legean aurreikusitako moduan.

4. Edonola ere, eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko legediak hori egitea galarazten duen kasuetan salbu, erabilera askeko esparruan sortzen diren edo sor daitezkeen gai eztabaidagarriak ere arbitraje pean jarri ahal izango dira, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legeak xedatzen duen moduan.

5. Finantza-sistemaren erreforma-neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legean jasotzen den finantza-zerbitzuen bezeroak babesteko araudian eta hura garatzen duten arauetan aurreikustakoari jarraikiz, aseguru-entitateek nahitaez artatu eta ebatzi beharko dituzte hartzaileek, aseguratuak, onuradunek, hirugarren kaltetuek edo eskubidedunek

egindako kexak eta erreklamazioak, horiek beren interesekin eta legez aitortutako eskubideekin lotuta daudenean. Ondorio horietarako, entitateek bezeroari arreta eskaintzeko departamentu edo zerbitzu bat izan beharko dute horien kexak eta erreklamazioak jaso eta ebazteko.

98. artikulua. *Publizitatea.*

1. Aseguru-entitateek beren zerbitzuen publizitatea egin ahal izango dute komunikabide guztien bitartez, betiere Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege orokorrean eta hura garatzen duten xedapenetan jasotzen denari jarraikiz, eta lege honetako garapen-erregelamenduan jasotzen diren aseguru-entitateetara egokitzeko beharrezko araei jarraikiz.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak lege honetan jasotzen diren jardueren publizitate-esparruko arau bereziak onartu ahal izango ditu zirkularren bitartez, betiere 17.2 artikuluan jasotzen denari jarraikiz.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egokitzen dituen ekintzak gauzatuko ditu aurreko zenbakietan adierazten diren xedapenekin bat ez datorren publizitatea eten edo zuzentzeko helburuarekin, VIII. tituluko II. kapituluarekin bat etorritik aplikatu behar diren zehapenei kalterik egin gabe.

99. artikulua. *Datu pertsonalak babestea.*

1. Aseguru-entitateek hartzaile, aseguratu, onuradun edo hirugarren kaltetuen datuak erabili ahal izango dituzte, baita horien eskubidedunen datuak ere, eta horretarako ez dute horien baimena beharko aseguru-kontratuaren garapen osoa bermatzeko eta lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan zehaztutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Arestian aipatutako pertsonen datuak aurreko lerrokadan zehazten ez diren beste xede batzuetarako erabiltzen badira, kasu horretan interesdunen berariazko baimena jaso beharko da.

2. Aseguru-entitateek interesdunaren baimenik gabe erabili ahal izango dituzte haren osasunarekin lotutako datuak, honako testuinguru hauetan:

a) Kaltetuari helarazi beharko litzaiokeen osasun-laguntza zehazteko, eta kasu bakoitzean dagokion kalte-ordaina zehazteko, horiek entitateak berak ordaindu behar dituztenean.

b) Osasun-hornitzaileei behar bezala ordaintzeko edo aseguratuari edo onuraduneri osasun-laguntzako aseguru-kontratu baten esparruan egin ahal izan diren osasun-laguntzako gastuak itzultzeko.

Datuak kalte-ordainaren edo aseguru-kontratutik eratorritako prestazioaren ordainketarako ezinbestekoak diren kasuetan bakarrik erabili dira. Datuak ezin izango dira beste xede batzuekin erabili, lege honetan zehaztutako informazio-betebeharrei kalterik egin gabe.

Aseguru-entitateek behar bezala jakinarazi beharko diote trataera hori aseguratuari, onuradunari edo hirugarren kaltetuari eta, hala badagokio, baita osasun-datuen lagapena ere, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusitako moduan, aseguru kolektiboaren kasuan, betebehar hori hartzaileak bereganatzen duen kasuetan salbu.

3. V. tituluaren aurrekusten diren ondorioetarako, talde bat osatzen duten aseguru-entitateek beharrezko datu pertsonalak partekatu ahal izango dituzte, interesdunaren baimenik gabe, lege honetan zehazten diren ikuskapen-betebeharrak betetzeko. Datuak ez dira beste helburu batzuetarako erabili interesdunaren berariazko baimenik gabe.

4. Aseguru-entitateek edo, hala badagokio, berraseguru-entitateek berraseguru-kontratu Aseguru-kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 77. artikuluan aurreikusitakoaren arabera gauzatzeko behar diren datuak jakinarazi ahal izango dizkiete beren berraseguru-entitateei, aseguru-hartzailearen, aseguratuaren, onuradunaren edo hirugarren kaltetuaren baimenik gabe; era berean, lotutako eragiketak egin ahal izango

dituzte, hau da, azterketa estatistikoak edo aktuarialak, arriskuen azterketak edo bezeroentzako ikerketak, baita berraseguru-jarduerarekin lotutako edo harengandik eratorritako bestelako jarduerak ere.

Datu horiek aurreko lerrokadan aipatzen ez den beste helburu batzuetarako laga nahi badira, interesdunari baimena eskatu beharko zaio.

5. Aseguru-entitateen kontura nazioartera zabaltzeko jarduerak gauzatzen dituzten entitateek horien trataeraz arduratu beharko dute, eta beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzen duen araudian aurreikusten den araubideari atxikita egon beharko dute.

6. Lege honetan aurreikusten den aseguru-zorroa lagatzeko kasuetan eta aseguru-entitateen eraldaketa, fusio edo zatiketa kasuetan ez da daturik lagako, baina arduradunak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

7. Aseguru-entitateek datu pertsonalak dituzten fitxategi komunak ezarri ahal izango dituzte ezbeharraren likidazioa eta lankidetzatza estatistiko aktuariala egiteko, hala, arriskuen hautaketa eta tarifakzioa nahiz aseguru-teknikako azterlanak egin daitezela ahalbidetzeko. Datu horiek lagatzeko ez da eragindako pertsonaren alde aurretiko baimenik beharko, baina hari behar bezala jakinarazi beharko zaio bere datu pertsonalak fitxategi komunetara laga ahal izango direla arestian aipatutako helburuetarako; era berean, arduraduna adierazi beharko da, lege honetan aurreikusten diren sarbide-, zuzenketa-, balio gabetze- eta oposizio-eskubideak gauzatu ahal izan ditzan.

Gainera, fitxategi komunak ezarri ahal izango dira aseguruan iruzurra saihesteko, eta horretarako ez da eragindako pertsonaren baimenik behar izango. Dena den, kasu horietan eragindako pertsonari behar bezala jakinarazi beharko zaio, bere datuak lehenengoz txertatzen direnean, fitxategiaren arduraduna nor den eta sarbide-, zuzenketa-, balio gabetze- eta oposizio-eskubideak nola gauzatu ahal izango dituen.

Edonola ere, osasunari buruzko datuak eragindako pertsonaren berariazko baimena izanez gero bakarrik erabili ahal izango dira.

8. Aseguru-hartzaileari 96. artikuluari jarraikiz helarazi beharko zaion informazioan abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan zehazten den informazioa txertatu beharko da datu pertsonalen trataerari dagokionez.

9. Hamar eguneko epean, aseguru-entitateek kontratu bat egin aurretik helarazi zaizkien datuak balio gabetu beharko dituzte, azkenean, kontratu hori gauzatu ez bada, interesdunaren berariazko baimena duten kasuetan salbu, baina baimen horrek berariazkoa izan beharko du osasunarekin lotutako datuak gaineratzen badira.

100. artikulua. *Aseguru-etako iruzurraren aurkako borroka.*

Aseguru-entitateek neurri eraginkorrak hartu beharko dituzte aseguruarekin lotutako iruzurrezko jarrerak aurreikusi, galarazi, identifikatu, hauteman, jakinarazi eta konpondu ahal izateko, banaka nahiz 99.7 artikuluan aipatzen diren fitxategi komunetan parte hartuz.

Era berean, aseguru-entitateek lankidetzatza-hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte Barne Arazoetako Ministerioarekin eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoarekin, baita antzeko funtzioak betetzen dituzten autonomia-erkidegoetako kontseilaritza eta poliziaekin ere, bakoitzak bere eskumenen esparruan, aseguru-etako iruzurrak aurreikusteko eta ikertzeko helburuarekin. Edonola ere, hitzarmen horien babespean egindako informazio-trukaketak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan zehaztutakoa errespetatu beharko du.

VIII. KAPITULUA

Kaudimen-araubide berezia

101. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Beste estatu kide batzuetan edo hirugarren herrialdeetan zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko araubidera atxikitako jarduerarik egiten ez duten eta Espainian helbideratuta dauden aseguru-entitateek kaudimen-araubide berezi honen

babespean egon ahal izango dute, eskaera egin aurretiko hiru urteetan zehar, erregelamendu bidez eskatzen diren baldintza guztiak bete dituztela frogatzen badute eta hurrengo bost urteetan aurreikusitako zenbatekoak gainditzea aurreikusten ez badute.

Araubide berezi honi atxikitako aseguru-entitateek ondoz ondoko hiru ekitalditan zehar erregelamenduz zehaztutako zenbateko horietakoren bat gainditzen badute, horiek araubide orokorraren pean geratuko dira, automatikoki, laugarren ekitalditik aurrera.

2. Gainera, Espainian helbideratuta dauden aseguru-entitateek kaudimen-araubide berezia bete ahal izango dute, erregelamendu bidez zehaztutako moduan, beste estatu kide batzuetan edo hirugarren herrialdeetan zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko araubidean jasotako jarduerarik egiten ez badute, eta honako egoera hauetakoren batean badaude:

a) Arloka jarduteko baimenik lortu ez duten eta beren kotizazio eta prestazioen erregelamenduan sistema finantzario-aktuarial bat duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek; sistema haren bitartez, mutualistak jaso beharreko prestazioak harreman zuzena izango du modu eraginkorrean egindako eta inputatutako kotizazioekin, eta ekitaldia ixtean lortutako emaitza positiboak edo negatiboak mutualista aktiboen hornidurretara bidaliko dira legezko betebeharrak eta entitatearen kaudimena estali ostean.

b) Heriotza-kasuetarako prestazioak bermatzen dituztenean, prestazio horien zenbatekoa heriotzagatiko hileta-gastuen batez besteko balioa baino handiagoa ez denean edo prestazioak gauzatan ematen direnean.

3. Talde bati dagozkion aseguru-entitateek taldeko aseguru guztiek araubide horri atxikitzeko beharrezko baldintzak betetzen badituzte bakarrik egon ahal izango dute kaudimen-araubide bereziaren pean.

4. Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenak behar bezala adieraziko du entitateak noiztik aurrera egon ahal izango duen kaudimen-araubide bereziaren babespean.

5. Jarduera gauzatzeko administrazio-baimena eskatzen duten entitateek ezin izango dute araubide berezi honen babespean egon aseguru-jarduera gauzatzeko hasierako baimena jasotzen dutenean.

102. artikulua. *Araubide bereziaren eraginpean dauden entitateek jarduteko baldintzak.*

Kapitulu honetan adierazten diren entitateek aplikagarriak zaizkien lege honetako xedapenen eta hura garatzen duten arauen arabera beteko dute beren jarduera, honako berezitasun hauek kontuan hartuta:

a) Administrazio-baimenak ez ditu barne hartuko Europar Batasuneko zerbitzuak emateko askatasunari edo kokatzeko eskubideari dagokion araubideko jarduerak.

b) Kapital soziala 33. eta 34. artikuluetan eskatzen dena izango da.

c) Nahitaezko gutxieneko kapitala 78. artikuluan eskatzen denera egokituko da.

d) Nahitaezko kaudimen-kapitalaren, funts propioen, inbertsioen eta hornidura teknikoen balorazioari aplikatu beharreko araubidea eta baldintzak erregelamendu bidez zehaztutako prozedurara egokituko dira.

e) Erregelamendu bidez, mota honetako entitateen gobernu-sistemaren baldintzak zehaztuko dira.

f) Entitate horien kaudimen- eta finantza-egoerari buruzko informazio publikorako baldintzak lege honetako III. tituluko III. kapituluan eta hura garatzen duen erregelamenduan zehazten direnak izango dira, aplikagarriak diren neurrian.

IX. KAPITULUA

Komunitatearen koasegurua. Berrasegurua mugatua

103. artikulua. *Komunitatearen koaseguruari dagokion araubidea.*

1. Espainian komunitatearen koasegurua-eragiketa batean irekitzaile gisa parte hartzen duten aseguru-entitateek eta koasegurua-entitate gisa gauzatzen dituzten jarduerak arrisku handien aseguru-kontratuei aplikagarriak zaizkien xedapenak bete beharko dituzte.

2. Aseguru-kontratu bat komunitatearen koasegurua gisa kalifikatu daitekeenean, zerbitzuak emateko askatasunaren araubideari jarraikiz jarduten duten aseguru-entitateei ezartzen zaizkien 57. artikulutik 59. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera betebeharrak eragiketa ireki duen entitateari bakarrik aplikatuko zaizkio.

3. Komunitatearen koasegurua-eragiketetan parte hartzen duten Espainiako entitateek estatu kide bakoitzean parte hartzen duten eragiketari buruzko beharrezko estatistika-datuak izan beharko dituzte.

104. artikulua. *Komunitatearen koaseguruari dagozkion hornidura teknikoak.*

Espainiako aseguru-entitate batek komunitatearen koasegurua-eragiketa batean parte hartzen badu, eragiketa horretan duen partaidetzari dagozkion hornidura teknikoak kalkulatu dituzte, lege honetan eta hura garatzen duten arauetan jasotzen diren xedapenak kontuan hartuta; dena den, hornidura tekniko horien zenbatekoa eragiketa ireki duen entitateak bete beharreko arauen arabera kalkulatu behar den zenbatekoaren berdina izango da gutxienez.

105. artikulua. *Berrasegurua mugatua.*

Kontratuak egiten dituzten edo berrasegurua mugatuko jarduerak egiten dituzten aseguru- edo berrasegurua-entitateek kontratu edo jarduerari horietatik eratorritako arriskuak modu egokian identifikatu, neurtu, zaindu, kudeatu, kontrolatu eta jakinarazteko beharrezko baliabideak izango dituzte. Erregelamendu bidez xedapen zehatzak hartu ahal izango dira berrasegurua mugatuko jarduerak gauzatzeko baldintzen inguruan.

X. KAPITULUA

Hirugarren herrialdeetako aseguru- eta berrasegurua-entitateen sukurtsalek eta filialek gauzatuak jarduerari dagozkion baldintzak

106. artikulua. *Hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden aseguru- eta berrasegurua-entitateen sukurtsalen finantza-bermeak.*

1. Hirugarren herrialdeetan helbideratutako aseguru- eta berrasegurua-entitateen sukurtsalek lege honetan eta hura garatzen duten arauetan Espainian helbideratutako entitateentzat jasotzen diren xedapenei jarraikiz beteko dute beren jarduerari, zerbitzuak Europar Batasunean kokatzeko eskubideari eta zerbitzuak emateko eskubideari buruzko araubideko jarduerari dagokionez salbu, horiei ez baitzaizkie aplikagarriak izango; horrenbestez, horien arriskuak behar bezala lokalizatuta egon beharko dute eta horien konpromisoak Espainian hartu beharko dira.

2. Aurreko zenbakian adierazitakoari kalterik egin gabe, eta Europar Batasunak hirugarren herrialdeekin egindako akordioei jarraikiz, erregelamendu bidez zehaztutako arauak hartuko dira kontuan.

107. artikulua. *Hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden eta zenbait estatu kidetan baimenduta dauden entitateen sukurtsalei dagokien araubidea.*

1. 106. artikuluan xedatzen denari kalterik egin gabe, eta Europar Batasunak hirugarren herrialdeekin egindako akordioei jarraikiz, hirugarren herrialdeetan

helbideratutako entitateak dituzten eta beste estatu kide batzuetan sukurtsalak dituzten Espainiako sukurtsalei erregelamendu bidez zehazten den erregelamendua aplikatu ahal izango zaie.

2. Araubide hori aplikatzeko, entitateak kasuan kasuko eskaera egin beharko die Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eta sukurtsalak dituen beste estatu kideetako ikuskapen-agintariei; eskaera horretan, atxiki nahi duen ikuskapen-agintaritza proposatu beharko du, eta hura Europar Batasunean baimendutako eragiketa guztietarako sukurtsalen kaudimena egiaztatzeaz arduratuko da.

Eskaera hori onartzeko, eragindako ikuskapen-agintari guztiek beren adostasuna eman beharko dute, eta araubidea aukeratutako ikuskapen-agintariak, Espainiako ez den kasuetan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari Europar Batasunean kokatutako eragiketa guztietarako sukurtsalen kaudimena egiaztatzeko bere konpromisoa jakinarazten dion egunetik aurrera aplikatu ahal izango da.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Espainian kokatutako sukurtsalaren inguruko beharrezko informazioa eman beharko dio kaudimena kontrolatzeaz arduratzen den ikuskapen-agintaritzari, hark kaudimen osoa egiaztatu ahal izan dezan.

4. Araubide horren aplikazioa eten egin ahal izango da. Horretarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo nahastutako gainerako ikuskapen-agintariren batek hala erabaki behar du. Araubidearen aplikazioa eteteak Europar Batasunean baimendutako sukursal guztiengan izango du eragina. Ondorio horietarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bere erabakia jakinaraziko die nahastutako gainerako ikuskapen-agintari guztiei, eta erabakia nahastutako beste ikuskapen-agintariren batek hartu badu, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erabakia hartu duen ikuskapen-agintariaren jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera etengo da araubidearen aplikazioa.

5. 156., 157. eta 160.1.a) artikuluen aplikaziorako, kaudimen globala egiaztatzeaz arduratzen den ikuskapen-agintaritzak Europar Batasunean helbideratutako entitateen ikuskapen-agintaritzen eskumenak izango ditu, sukursal guztiei dagokienez.

6. Espainian kokatutako sukurtsalari emandako baimena baliogabetuz gero, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak horren berri emango die gainerako estatu kideetako ikuskapen-agintariei.

Beste estatu kide batean kokatutako sukursal bati emandako baimena baliogabetu dela jakinarazi ostean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak dagozkion neurriak hartuko ditu, eta baliogabetze hori kaudimen globala nahikoa ez delako gertatu bada, Espainiako sukurtsalari emandako baimena baliogabetuko du.

108. artikulua. *Hirugarren herrialdeetako berraseguru-entitateen kaudimen-araubidearen baliokidetasuna.*

1. Hirugarren herrialde batek hirugarren herrialde horretan egoitza soziala duten aseguru-berraseguruen jardueri aplikatzen dien kaudimen-araubidea Europar Batasunean aplikatzen denaren baliokidea den ala ez ebaluatu beharko da, honako zenbaki hauei jarraikiz:

a) Baliokidetasun hori Europako Batzordeak zehaztuko du, hark ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin.

Zentzuzko araubide baliokideen zerrenda bere web-orrian argitaratuko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta eguneratuta mantenduko da. Batzordearen erabakiak aldi behin berrikusiko dira horiek eguneratuta mantentzeko helburuarekin, betiere Europar Batasuneko ikuskapen-araubidearen eta hirugarren herrialdeko ikuskapen-araubidearen funtsezko aldaketa guztiak berrikusteko helburuarekin.

b) Aurreko zenbakian zehaztutako irizpide guztiak betetzen ez direnean, Europako Batzordeak aldi baterako izaeraz ezarri ahal izango du baliokidetasuna; Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jasoko du, erregelamendu bidez ezarritako irizpideei jarraikiz.

Aldi baterako izaeraz baliokidea izango den kaudimen-araubide jakin bat zehaztu zaien hirugarren herrialdeen zerranda bere web-orrian argitaratuko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta eguneratuta mantenduko du. Batzordearen erabakiak aldi behin berrikusiko dira, hirugarren herrialdeak egindako aurrerapen-txostenekin eguneratuta mantentzeko helburuarekin; horiek urtero aurkeztuko zaizkio Batzordeari, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, hark behar bezala ebaluatu ditzan.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, aldi baterako baliokidetasun-araubidea bost urtekoa izango da, edo, a) zenbakiarekin bat etorritz, hirugarren herrialde horretako zentzuzko araubidea baliokidetzat jotzen den datan amaituko da, azken data hori aurrekoa bada. Epe hori urtebete luzatu ahal izango da, gehienez ere, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eta Batzordeak a) zenbakiaren ondorioetarako baliokidetasun-ebaluazioa gauzatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen denean.

2. Hirugarren herrialde bateko kaudimen-araubidea baliokidetzat jotzen denean, egoitza soziala hirugarren herrialde horretan duten berraseguru-entitateekin egindako berraseguru-kontratuak lege honetan xedatutakoari jarraikiz baimendutako berraseguru-entitate batekin egindako berraseguru-kontratuak bezala hartuko dira.

IV. TITULUA

Aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapena

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

109. artikulua. *Ikuskapenaren eremu subjektiboa eta objektiboa.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Espainian jarduteko baimena duten aseguru- eta berraseguru-entitateen gaineko ikuskapen-funtzioak gauzatuko ditu, sukurtsalen bitartez eta zerbitzuak emateko askatasun-araubideari jarraikiz betetzen diren jarduerak barne. Funtzio berak egingo ditu 2. artikuluan aurreikusten diren subjektu eta entitateekiko.

2. Berrikuspena egitean, aseguru- edo berraseguru-entitatearen jarduera modu egokian gauzatzen dela egiaztatuko da, baita aseguru- edo berraseguru-entitateek ikuskapen-araubidea, merkatuko jarrerak eta finantza-egoera betetzen ditzutela ere.

110. artikulua. *Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren jarduketaren proportzionaltasuna.*

1. Lege honen xede nagusiari kalterik egin gabe –1. artikuluan zehazten da–, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bere erabakiek finantza-sistemaren egonkortasunean izan ditzaketen ondorioak ebaluatuko ditu, larrialdi-egoeretan batez ere, betiere dagokion momentuan eskura duen informazioa kontuan hartuta. Ezegonkortasun handiko aldietan, erabakiek izan ditzaketen ondorio proziklikoak ere hartuko dira kontuan.

2. Ikuskapen-jarduketak aseguru- eta berraseguru-entitateen izaera, konplexutasuna eta arriskuen munta aintzat hartuta gauzatuko dira, proportzionalki.

111. artikulua. *Ikuskapen-jarduketaren gardentasuna.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak gardentasunez eta isilpeko informazioa behar bezala babesten dela bermatuz gauzatuko du aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapena.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak prestatu ahal izango ditu gainbegiratutako erakundeei zuzendutako gida teknikoak, ikuskapen-araudia betetzeko egoki irizitako irizpideak, praktika, metodologia edo prozedurak adierazita. Gida horiek

argitara eman beharko dira, eta bertan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratze-jardueretan jarraituko dituen irizpideak jaso ahal izango dira.

Horretarako, aseguruak edo pentsio-planak arautzeko edo ikuskatzeko ardura duten nazioarteko erakunde edo batzorde aktiboek onetsitako jarraibideak, ikuskatzen dituzten subjektuei begira, bere egin ahal izango ditu Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta hala helarazi eta garatu, bai eta osatu eta egokitu ere.

112. artikulua. *Ikuskapen-praktiken konbergentzia.*

Finantza arloko egonkortasun eta integrazioarako komunitateko politiken esparruan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapenaren dimentsio europarra hartuko du kontuan, ikuskapenerako praktikekin eta erremintekin bat etorritik.

Ondorio horietarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Europako Agintaritzaren jardueretan parte hartuko du.

113. artikulua. *Ikuskapenerako gaitasun orokorrak.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapen-funtzioak gauzatzean, eta lege honetan eta aseguru pribatuak arautzen dituzten gainerako arauetan jasotzen den moduan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak honako eskumen hauek izango ditu:

a) Beharrezkotzat jotzen den informazioa eskatuko du ikuskapen-, estatistika- eta kontabilitate-ondorioetarako, 114. artikuluekin bat etorritik.

b) Dokumentu guztietara izango du sarbidea, eta horien kopia izateko eskubidea izango du.

c) Informazioa bidal dezala eskatu ahal izango dio edozein pertsonari, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak modu arrazoituan finkatutako epean, eta beharrezkoa izanez gero, pertsona bat zitatu eta hari aitortpena hartu ahal izango dio, informazioa lortzeko helburuarekin.

d) Beharrezko ikuskapenak eta egiaztapenak egin ahal izango ditu.

e) Eskura dituzten datuen trafiko- eta telefono-erregistroak eskatu ahal izango ditu.

f) Aritu independenteen, barne-kontrolerako organoetako kontu-ikuskarien txostenak edo araudia betetzen dela egiaztatzeko txostenak eskatu ahal izango dizkie aseguru- eta berraseguru-entitateei eta horien administrazio- edo zuzendaritza-organoei, edo horiek kontrolatzen dituzten pertsonari.

g) Nahitaezko kaudimen-kapitalaren izaera osagarri gisa eta egokitze jotzen denean, ikuskapen-prozesuaren esparruan beharrezkotzat jotzen diren erreminta kuantitatiboak garatu ahal izango ditu, aseguru- eta berraseguru-entitateek gerta daitezkeen gertakariak edo finantza-egoera globalean negatiboki eragin dezaketen baldintza ekonomikoetan gertatu daitezkeen aldaketak ebaluatzeko helburuarekin. Era berean, entitateek dagozkien probak gauzatu ditzatela eskatu ahal izango du.

h) Beharrezko prebentzio-neurriak eta zuzentzaileak hartu ahal izango ditu aseguru- eta berraseguru-entitateek bete behar dituzten eta jarduera arautzen duten arauak betetzen dituztela bermatzeko helburuarekin.

i) Arau aplikagarriak ez aplikatzearen ondorioz hartu diren neurriak publiko egin ahal izango ditu, horien hedapenak aseguru-merkatua arrisku larrian jar dezakeen kasuetan edo eragindako pertsonari proportzioz kanpoko kalteren bat eragin dakiekeen kasuetan salbu.

j) Finantza-ikuskapena, merkatuko jarreraren ikuskapena eta entitateen eta taldeen esparruko ikuskapena egiteko beharrezkotzat jotzen diren gainerako funtzio guztiak.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateen kanpora ateratako jardueri dagokienez ere gauzatu ahal izango dira eskumen horiek, erregelamendu bidez eta Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudiaren bidez zehazten denari jarraikiz.

3. Ikuskapen-jarduketak Estatuko Aseguru Ikuskatzaileen Goi Mailako Kidegoan lan egiten duten funtzionarioek garatuko dituzte, Estatuko Administrazio Orokorreko gorputz teknikoek dagozkien funtzionarioen eta funtzionario informatiko adituen laguntzarekin.

4. Aurreko zenbakietan zerrendatutako ikuskapen-eskumenei kalterik egin gabe, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ikuskapen bidezko gainbegiratze-prozedura abiarazi ahal izango du, titulu honetako IV. kapituluaren zehaztutako moduan.

5. Prozedurari dagozkion arau berezirik izan ezean, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, ezarriko da.

114. artikulua. *Ikuskapen-, estatistika- eta kontabilitate-ondorioetarako helarazi beharko den informazioa.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitateek ikuskapen-funtzioa betetzeko beharrezkoa izan daitekeen dokumentazioa eta informazioa helaraziko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Dokumentazio eta informazio horren barnean, 117.2 artikuluan aurreikusitako ikuskapen-prozesuaren esparruko jarduketetarako beharrezkotzat jotzen dena sartuko da.

Gainera, aseguru- eta berraseguru-entitateek estatistika- eta kontabilitate-ondorioetarako dokumentazioa eta informazioa igorriko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 1. zenbakian adierazitako informazioaren izaera, irismena eta formatua zehaztu ahal izango ditu, informazio hori aldiaren behin, aurretiaz zehaztutako egoeretan nahiz banaka egindako eskaeretan edo ikuskapen-jarduketetan zehar eskatzen denean.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bitartekarien eskura dauden kontratuei edo hirugarrenekin egindako kontratuei buruzko edonolako informazioa eskatu ahal izango du. Era berean, informazioa eskatu ahal izango die kontu-ikuskatzaileei, kontu, aktuario eta entitateen kanpoko beste aditu batzuen ikuskapen-jarduera arautzen duen araudian xedatutakoari jarraikiz.

3. Aurreko bi zenbakietan aipatzen den informazioaren barnean, datu kualitatiboak edo kuantitatiboak gaineratuko dira, hau da, datu historikoak, gaur egungoak nahiz aurreikusitakoak, horiek barneko nahiz kanpoko iturrietatik etorri, edo horien edozein konbinazio egoki, eta erregelamendu bidez zehaztutako printzipioetara egokituko da.

4. Aseguru- eta berraseguru-entitateek sistema eta egitura egokiak izan beharko dituzte artikulua honetan zehaztutako baldintzak betetzeko; era berean, entitatearen administrazio-organoak onartutako politika zorrotza izan beharko dute, aurkeztutako informazioaren etengabeko egokitasuna bermatzeko.

115. artikulua. *Zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideari jarraikiz Espainian jarduten duten Europar Batasuneko aseguru- eta berraseguru-entitateen ikuskapena.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Espainian zerbitzuak emateko askatasun-araubideari edo kokatzeko eskubide-araubideari jarraikiz jarduten duten beste estatu kide batzuetako aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera ikuskatuko du interes orokorraren eraginez aplikagarriak zaizkien xedapenei eta III. tituluko VII. kapituluko xedapenei jarraikiz. Ondorio horietarako, titulu honetako IV. kapituluko ikuskapen-prozedura bete beharko dute.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak uste badu sukurtsal bidez edo zerbitzuak emateko eskubide bidez Espainian jarduten duen aseguru- edo berraseguru-entitate baten jarduketek haren finantza-sendotasunean eragin dezaketela, horren berri emango die jatorrizko estatu kideko ikuskapen-agintariei.

3. Beste estatu kide batean baimendutako aseguru- edo berraseguru-entitate batek bere jarduera Espainian sukurtsal bidez gauzatzen duenean, jatorrizko estatu kideko ikuskapen-agintaritzak, bere aldetik edo xede horrekin izendatutako pertsonen bitartez,

beharrezko informazioa in situ egiaztatu ahal izango du, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aldez aurretik jakinarazi ostean, entitatearen finantza-ikuskapena egin ahal izateko.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egiaztapen horretan parte hartu ahal izango du.

116. artikulua. *Beste estatu kide batean kokatuta dauden Espainiako sukurtsalen ikuskapena.*

1. Espainian baimendutako aseguru- edo berraseguru-entitate batek bere jarduera beste estatu kide batean sukurtsal bidez gauzatzen duenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordeak, bere aldetik edo xede horrekin izendatutako pertsonen bitartez, beharrezko informazioa in situ egiaztatu ahal izango du, estatu kide hartzaileko agintaritza-estatuari aldez aurretik jakinarazi ostean, entitatearen finantza-ikuskapena egin ahal izateko.

Harrera egin duen estatu kide interesduneko agintariek egiaztapen horretan parte hartu ahal izango dute.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak estatu kide hartzaileko ikuskapen-agintariei ikuskapena egiteko asmoa duela jakinarazten dienean –artikulu honi jarraikiz–, eta praktikan, ikuskapen hori egiteko eskubidea debekatzen zaionean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari gaia igorri eta haren laguntza eskatu ahal izango du. Agintaritza horrek ikuskapenetan parte hartzeko eskubidea izango du, horiek bi ikuskapen-agintariren edo gehiagoren artean egiten direnean.

2. Beste estatu kide bateko ikuskapen-agintaritzak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazten badio estatu horretan sukurtsal baten bidez edo zerbitzuak emateko askatasunaren bitartez jarduten duen Espainiako aseguru- edo berraseguru-entitate batek bere finantza-sendotasunean eragin dezaketen jarduketak gauzatzen dituela, hark behar bezala egiaztatuko du entitateak eskatzen zaizkion zuhurtziazko printzipioak betetzen dituela.

II. KAPITULUA

Finantza-ikuskapena

117. artikulua. *Finantza-ikuskapenaren edukia.*

1. Finantza-ikuskapen hori egiteko, honako alderdi hauek egiaztatuko dira ikuskatuko den entitatearen jarduerari dagokienez: gobernu-sistema, kaudimena, hornidura teknikoaren eraketa, aktiboak eta funts propio onargarriak, aplikagarriak diren arauak eta lege honetan eta hura garatzen duten arauetan ezartzen diren gainerako betebeharrei jarraikiz.

Gainera, zerbitzu bat eskaintzen dela bermatzen duten aseguru-entitateen kasuan, ikuskapen hori gauzatuko zaie, halaber, entitateek hitzeman duten eragiketak gauzatzeko horiek erabiltzen dituzten baliabide teknikoak.

Finantza-egoeraren ikuskapena egiteko, arriskura bideratutako planteamendu prospektibo bat egingo da.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- eta berraseguru-entitateek zehaztutako informazio-estrategiak eta -prozesuak ikuskatu eta ebaluatuko ditu, lege honetan eta aseguru pribatuak arautzen dituzten gainerako arauetan jasotzen diren xedapenak betetzeko helburuarekin.

Ikuskapen eta ebaluazio horren barnean, entitatearen egoera legala, tekniko eta ekonomiko-finantzarioa aztertuko da eta, bereziki, lege honen garapen-erregelamenduan zehazten diren kaudimenari, hornidura teknikoak, kapitalari, inbertsio-arauak, funts propioak eta barne-ereduei (erabiltzen direnean) buruzko baldintzak betetzen direla aztertuko da.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak behar bezala ebaluatuko du gerta daitezkeen gertaerak edo kasuan kasuko entitatearen finantza-egoeran negatiboki eragin dezaketen baldintza ekonomikoaren etorkizuneko aldaketak zehaztera xedaturiko

aseguru- eta berraseguru-entitateen ereduak eta praktikak egokiak direla. Era berean, entitateek baldintza ekonomikoen etorkizuneko aldaketa edo gertakari horiei aurre egiteko duten gaitasuna ebaluatuko du.

4. Aseguru- eta berraseguru-entitateek ikuskapenaren garapenean hautemandako gabezia edo hutsune horiek konpondu beharko dituzte.

5. Berrikuspenak eta ebaluazioak erregulartasunez egingo dira. Erregelamendu bidez, berrikuspen eta ebaluazio horien gutxieneko irismena zehaztuko da, kasuan kasuko aseguru- edo berraseguru-entitateak gauzatzen dituen jardueren izaera, tamaina eta konplexutasuna kontuan hartuta.

III. KAPITULUA

Merkatuko jokaeren ikuskapena

118. artikulua. *Merkatuko jokaeren ikuskapenari dagokion edukia.*

Merkatuko jokaerak ikuskatzean, aseguru-merkatuaren gardentasuna eta garapen antolatua, hartzailleek nahi duten aseguruarekin eta berraseguruarekin kontratua egiteko duten askatasuna, eta oro har, hartzaille, aseguratu eta onuradunen babesa bermatuko dira. Helburu horiek lortzen direla bermatzeko, beharrezko informazioa hedatzen dela sustatuko da, lege honetan eta hura garatzen duten arauetan xedatzen denari jarraikiz.

Zernahi dela ere Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren jokaera, eskumena duten agintariek eskumenaren jarduera mugatu gisa kalifikatu ahal izango dituzte praktika horiek, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1., 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

119. artikulua. *Administrazioaren babesa.*

1. Aseguru pribatuen esparruko erabiltzaileak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez babestuko dira, lege honetan, finantza-sistemaren erreforma-neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legean eta hura garatzen duten arauetan aurreikusten den moduan.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ebatzi beharko ditu legez aitortutako bere interesekin eta eskubideekin lotuta dauden hartzaille, aseguratu, onuradun, hirugarren kaltetu eta erakundeek aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baldin eta bezeroak babestu eta gardentasuna bermatzeko arauditik edo aseguru-merkatuko praktika egokiaren eraginez erreklamaturako entitateen ez-betetzeen ondorioz sortu badira.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak txosten arrazoitu bidez ebatziko ditu aurkeztutako kexak eta erreklamazioak, eta horiek ez dute, inola ere, apelatzeko administrazio-egintzen izaera izango.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egindako Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erreklamazio-zerbitzuak igorritako txostenetatik eratorritako errekerimenduak kontuan hartzen ez badira, VIII. tituluaren tipifikatutako arau-hausteei dagozkien administrazio-zigorrek edo 120. artikuluan araututako debekua ezarriko dira, kasuan kasu.

4. Aseguru-entitate batek bezeroak babestu eta gardentasuna bermatzeko arauak edo aseguru-merkatuan praktika egokiak bermatzeko arauak modu larrian edo behin eta berriz betetzen ez dituela hautematen bada, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak dagozkion neurriak hartuko ditu ikuskapen-prozeduraren esparruan.

120. artikulua. *Polizak eta tarifak debekatzea.*

Ebazpen bidez, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 94. eta 95. artikuluetan xedatutakoa betetzen ez duten prima-tarifen eta polizen erabilera debekatu ahal izango du. Ondorio horietarako, dagokion administrazio-prozedura bideratu ahal izango da, eta haren bidez, prima-tarifa eta polizen erabilera eten ahal izango da behin-behineko neurri gisa.

Debeku hori adosten den administrazio-prozedura abiarazi aurretik, Zuzendaritza Nagusiak bere prima-tarifak edo polizak artikuluko horietan xedatutakora egokitu ditzala eskatu ahal izango dio aseguru-entitateari.

IV. KAPITULUA

Ikuskapen bidez gainbegiratzea

121. artikulua. *Ikuskatzeko jarduerak.*

1. Esleitu zaizkion ikuskatze-funtzioak modu egokian betetzeko, Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak kapitulu honetan aurreikusitako moduan gauzatu ahal izango du ikuskapen-eskumena. Ikuskapena ikuskatze-prozeduraren bitartez garatu ahal izango da.

2. Ikuskapen hori merkatuko praktikei, egoera legalari, teknikoari, ekonomiko-finantzarioari eta kaudimenari nahiz merkataritza-praktikak eta jarduera gauzatzeko baldintzei buruzkoa izan daiteke, horrela, Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak esleitu zaizkion gaitasunak modu egokian gauzatu ditzan. Alderdi zehatzei dagokienez edo modu orokorrean egin ahal izango da.

122. artikulua. *Ikuskapen-jardueraren subjektuak.*

Honako entitate eta pertsona hauek izan daitezke ikuskapenaren xede:

- a) Espainian jarduteko baimena duten aseguru- eta berraseguru-entitateak, sukurtsal baten bidez eta zerbitzuak modu askean eskaintzeko araubideari jarraikiz egiten dituzten jarduerak barne.
- b) 2. artikuluan aurreikusitako gainerako subjektuak eta entitateak.
- c) Aseguru-entitate talde bat osatzen duten entitateak.
- d) Printzipioz, aseguru gisa kalifikatu daitezkeen eragiketak egiten dituztenak, jarduera aurretiazko administrazio-baimenik gabe egiten duten ala ez egiaztatzeko.
- e) Aseguru- eta berraseguru-entitateek kanpora igorritako funtzioak gauzatzen dituztenak.

123. artikulua. *Ikuskatzaileak.*

1. Ikuskapen-jarduketak Estatuko Aseguru Ikuskatzaileen Goi Mailako Kidegoan lan egiten duten funtzionarioek gauzatuko dituzte. Beren funtzioak betetzean, horiek agintari publiko gisa hartuko dira.

2. Estatuko Administrazio Orokorreko gorputz teknikoei dagozkien funtzionarioek eta funtzionario informatiko adituek lege honen garapen-erregelamenduan zehazten den moduan bakarrik jardun ahal izango dute ikuskapen-jarduketetan.

124. artikulua. *Ikuskapen-gaitasunak.*

1. Beren funtzioak modu egokian betetzeko, ikuskatzaileek entitateen eragiketekin lotutako liburuak, erregistroak eta dokumentuak aztertu ahal izango dituzte, edozein dutelarik euskarria, baita programa informatikoak eta artxibo magnetikoak, optikoak edo bestelakoak ere, erregelamendu bidez garatzen den moduan.

2. Era berean, kopia bat aurkeztu edo entregatzeko eskatu ahal izango dute hura dagokion ikuskapen-aktan txertatu dadin; aseguru-entitateak nahitaez bete beharko du betebeharrak hori, eta ahalik eta erraztasun gehien eman beharko dizkiete horiek beren eginkizuna modu egokian bete ditzaten. Ikuskatutako pertsonak edo entitateak arrazoi sendoak baditu, dokumentazioaren kopia helarazteari uko egin ahal izango dio, eta bere arrazoiak idatziz jakinarazi beharko ditu horiek ikuskapen-aktan txertatu daitezzen.

3. Ikuskapen-jarduketak ikuskatutako subjektuaren egoitza sozialean, haren sukurtsaletan, bere jarduera guztiz nahiz zati batean gauzatzen duen lekuan, aseguru- eta

berraseguru-jarduerak, funtzioak edo zerbitzuak eskaintzen dituen lokaletan (horiek kanpora hedatzen direnean), eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan egin ahal izango dira, ikuskapenaren xede diren elementuak horietan ikuskatu daitezkeenean.

Estatuko Aseguruen Ikuspenaz arduratzen diren funtzionarioek ikuskatutako pertsonak, entitateak edo talde bat osatzen duten entitateek bere jarduerak garatzen dituzten sukurtsal, lokal eta bulegoetara nahiz egoitza sozialera sartu ahal izango dute. Konstituzionalki babestuta dagoen helbidea izanik, eta aurka eginez gero, horiek dagokion baimen judiziala beharko dute, eta beste mendekotasun batzuen kasuan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarena.

4. Merkatuko praktiken ikuskapena egiteko ez da aurretiazko jakinarazpenik edo jardungo duten funtzionarioen identifikaziorik behar izango, eta horiek eskaintako produktuen edo zerbitzuen erabiltzaile edo interesdun gisa jardungo dute, praktika horien benetako baldintzak ahalik eta modu leialenean ezagutzeko asmoz; hori behar bezala adierazi beharko da dagokion txostenean.

125. artikulua. *Ikuskapen-jarduketak dokumentatzea.*

1. Ikuskapen-jarduketak ikuskapen-aktetan dokumentatuko dira, eta horiek behin betikoak edo aldeztuak izan daitezke.

Aurretiazko ikuskapen-aktak egingo dira jarduketa ikuskatzaileak ikuskapen bidez gainbegiratzeko prozedura bideratzeko elementu nahikoak direnean, behin betiko aktaren formulazioa egiten den bitartean igarotako denborak aseguratuaren interesen babesa arriskuan jartzen denean, edo ikuskatutako entitatearen edo pertsonaren jarrerak edo ikuskapenean gaineratzen diren beste egoera batzuek hala gomendatzen dutenean.

2. Zernahi direla ere erregelamendu bidez zehazten diren edukia eta modua, ikuskapen-aktetan honako hauek islatuko dira, hala badagokio:

a) Ikuskatzaile jarduleak egiaztatu dituen eta ikuskatutako jardueraren edo jarreraren kalifikazio juridikoaren ondorioetarako garrantzitsuak diren egintzak.

b) Ikuskapen bidez egindako jarduketetatik eratorritako egoera legala, teknikoa, ekonomiko-finantzarioa eta kaudimenari dagokiona.

c) Baimena ezeztatzea, desegite administratiboa, kontrol bereziko neurriak hartzea, epe motzeko finantziario-plan bat edo berreskuratze-plan bat hartzea, hornidura teknikoaren zenbatekoa handitzea, nahitaezko kapital gehigarria eskatzea eta administrazio-zehapenak ezartzea eragin dezaketen arrazoiak.

d) Baimena ezeztatze, aseguru-entitatearen desegite administratiboaren, kontrol bereziko neurriak hartzeko, epe motzeko finantziario- edo berreskuratze-plan baten (finantza-narriaduraren kasuetan), edo hornidura teknikoaren zenbatekoa handitzeko edo nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatzeko proposamena.

3. Ondorio guztietarako, ikuskatzaileak egiaztatze-jarduera gauzatzen duen bitartean egin dituen eranskinek eta diligenzietatik ikuskapen-akta osatuko dute.

4. Ikuskapen-aktek dokumentu publikoaren izaera izango dute, eta bertan kontsignatutako eta ikuskatzaile jarduleak egiaztatutako egintzak frogatuko dituzte, aurkakoa frogatzen den kasuetan salbu.

126. artikulua. *Ikuskapen bidez gainbegiratzeko prozedura.*

1. Ikuskapen bidez gainbegiratzeko administrazio-prozedura honako izapide hauek osatuko da:

a) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erabaki baten bidez abiaraziko da, eta bertan, ikuskapenaren xede izango diren alderdi guztiak zehaztuko dira.

b) Akta egin aurretiko ikuskapen-jarduketek ikuskapen-aginduan jasotako agindua betetzeko behar besteko iraupena izango dute, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ikuskapena egiteko erabakia hartzen duen egunetik hasita.

c) Ikuskapen-akta pertsona interesdunari jakinaraziko zaio, eta hark hamabost eguneko epea izango du, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean duen eskubidearen defentsan, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu eta frogak proposatzeko. Frogak proposatu eta horiek onartuko balira, horiek hamar eguneko epean egin beharko dira gehienez.

d) Entitate interesdunak alegazioak aurkeztu ostean eta, hala badagokio, froga gauzatu ostean, ikuskapen bidez gainbegiratzeko administrazio-prozeduraren instrukzio-jarduketa berriak egingo balira, horiek akta osagarri batean jaso eta hura berriz bideratuko da, zortzi eguneko epean.

e) Egindakoaren arabera, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak prozedurari amaiera emango dion ebazpena aginduko du.

f) Ikuskapen-aktak hornidura teknikoek zenbatekoa handitzeko, nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatzeko, kontrol bereziko neurriak hartzeko, epe motzerako finantziario- edo berreskuratze-plan bat egiteko (finantza-narriadura gertatzen den kasuetan), baimena ezeztatzeko edo aseguru- edo berraseguru-entitatearen desegite administratiborako proposamena barne hartzen duen kasuan, ebazpenaren bidez dagozkion gehikuntza edo kontrol bereziko neurriak eta epe motzerako finantziario- edo berreskuratze-plana hartuko dira, aseguru- edo berraseguru-entitatearen desegite administratiboaren prozedura abiaraziko da, edo administrazio-baimena ezeztatuko da.

2. Ebazpena emateko epea sei hilabetekoa izango da, aktaren jakinarazpena egin den une hasita. 1. zenbakiko d) letran aurreikusitako kasuan, epe hori akta osagarriaren jakinarazpena egiten den unean hasiko da.

V. KAPITULUA

Sekretu profesionala eta informazio konfidentzialaren erabilera

127. artikulua. *Sekretu profesionala mantendu beharra.*

1. 40. artikuluan aipatzen den administrazio-erregistroan inskribatu daitezkeen datuen kasuan salbu, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bere eskura dituen datuak, dokumentuak eta informazioak isilpekoak izango dira, lege honek esleitzen dizkion funtzioetarako.

2. Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu- eta ikuskapen-jardueraren bat gauzatzen duten edo gauzatu duten pertsona guztiek eta entitate horiei dagokienez funtzioen bat agindu zaien pertsonak sekretu profesionala gorde beharko dute, funtzio hori gauzatzen duten bitartean, profesional gisa jasotzen duten isilpeko informazioari dagokienez. Eginbehar hori ez betetzeak erantzukizun penalak eta legeetan aurreikusitako gainerako erantzukizunak eragingo ditu. Pertsona horiek ezingo dute datu edo dokumentu erreserbatuei buruz deklaratu, aitortu, argitaratu, jakinarazi edo erakutsi, ezta zerbitzua utzi ondoren ere, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak berriazko baimena ematen duen kasuetan salbu, baina hura ez da izaera pertsonaleko datuei buruzkoa izango. Baimen hori ematen ez badu, eraginpeko pertsonak sekretuari eutsiko dio, eta horrek ez dio erantzukizunik sortuko.

3. Aurreko zenbakian zehaztutako sekretua gorde beharra ez da nahitaezkoa izango honako kasu hauetan:

a) Interesatuak berriaz onartzen badu datuak zabaltzea, argitaratzea edo jakinaraztea.

b) Estatistika-helburuei erantsitako datuak edo era laburtuan nahiz erantsian egindako komunikazioak, betiere banako erakundeak ezin badira identifikatu, ez eta zeharka ere.

c) Prozesu penal batean agintari judicial eskudunek eskatutako informazioak.

d) Aseguru- edo berraseguru-entitate baten lehiaketa-prozeduren esparruan agintari judizialek eskatzen dituzten informazioak, betiere entitatearen birgaitzean tarteko diren hirugarrenei buruzkoak ez badira.

e) Aseguru- eta berraseguru-entitateen jarduera ikuskatzeko eskumenak gauzatzean emandako administrazio-ebazpenak inpugnatzen diren administrazio-errekurtsoen edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoen esparruan, administrazio-agintariek eta agintari judizial eskudunek eska ditzaketen informazioak.

f) Parlamentuko ikerketa-batzordeek eskatutako informazioak, Parlamentuaren erregelamendu bidez ezarritako moduan. Horretarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak arrazoituta eskatu ahal izango die Ganberako organo eskudunei saio sekretua egiteko, edo gai sailkatuetarako ezarritako prozedura aplikatzeko.

Isilpeko informazioa jasotzen duten Legebiltzarreko Ikerketa Batzordeko kideek eta agintari judizialek nahitaez hartu beharko dituzte hura isilpean mantentzen dela bermatzeko neurri egokiak.

4. Artikulu honetan xedatutakoak ez die kalterik egingo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 226. artikuluan Europako Parlamentuari ematen dizkion ikerketa-eskumenei.

128. artikulua. *Informazio konfidentziala trukatzea.*

1. Aurreko artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, isilpeko informazioa eman ahal izango zaie jarraian zerrendatzen diren pertsoneri eta entitateei, horiek beren funtzioak errazago bete ditzaten. Horiek sekretu profesionala gorde beharko dute artikulu horretan xedatutakoari dagokionez:

a) Aseguru-entitateen ikuskapenez arduratzen diren entitateei eta gainerako estatu kideetan dauden finantza-erakundeei.

b) Espainiako Bankuari, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, eta finantza-erakundeen kaudimena eta kontuak ikuskatzeaz arduratzen diren gainerako erakundeei.

c) Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioari, berme-funtsaren eta aseguru-entitateen likidatzaile gisa dituen funtzioak gauzatzen dituenean, eta urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren Estatutu Legalaren testu bateginaren 18. artikuluan aurreikusitako errekarquak egiaztatze beharrezkoa den informazioari dagokionez.

d) Kapitalak zurtzearen aurka borroka egiteaz arduratzen diren agintariei.

e) Aseguru- eta berraseguru-entitateen eta horien taldeen kontu-ikuskariei, eta Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuari.

2. Zerga Administrazioari ere helarazi ahal izango zaio isilpeko informazioa, betiere Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 93. eta 94. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz eta Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren baimena jaso ostean.

3. Era berean, aurreko 1. zenbakian aipatzen diren pertsonen eta entitateen aldetik ere jaso ahal izango da isilpeko informazioa. Horrela jasotako isilpeko informazioa eta beste estatu kide batzuetan kokatuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateen sukurtsalen ikuskapenetik lortutako informazioa ez da zenbaki horretan aipatzen den komunikazioaren xede izango, informazioa jakinarazi duen agintaritza eskudunaren edo sukurtsala dagoen estatu kideko agintaritza eskudunaren berriazko baimena dutenean salbu.

129. artikulua. *Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzarekin mantendu beharreko lankidetzak.*

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak berandutu gabe helarazi beharko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Europako Agintaritzari hark bere betebeharrak betetzeko behar duen informazio guztia.

130. artikulua. *Lankidetzeta-hitzarmenak hirugarren herrialdeekin.*

1. Aseguru-entitateen, berraseguru-entitateen eta gainerako finantza-erakundeen ikuskapen-eskumena duten hirugarren herrialdeetako agintaritzekin edo hirugarren herrialdeetako agintari, organo, pertsona fisiko edo juridikoekin informazioa trukatzea aurreikusten den lankidetzeta-hitzarmenetan behar-beharrezkoa izango da hornitutako informazioa sekretu profesionaleko bermeen bidez babestuta egotea. Horiek 127. artikuluan aurreikusitako baliokideak izan beharko dute, elkarrekotasuna izan beharko dute, eta informazio-trukaketak agintari, organo, pertsona fisiko edo juridiko horien ikuskapen-jarduketak betetzen direla bermatzea izan behar du helburu.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak datu pertsonalak igorri ahal izango ditu hirugarren herrialdeetara, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren V. tituluan jasotzen denari jarraikiz.

3. Informazioak jatorria beste estatu kide batean duenean, hura isilpekoa izango da hura eman duten agintari eskudunen berariazko adostasunik ez badute, eta hala badagokio, agintari horiek beren adostasuna ematen dutenean bakarrik.

4. Aurreko zenbakietan xedatutakoari kalterik egin gabe, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hirugarren herrialdeetako agintariei informazioa ez ematea erabaki ahal izango du informazio hori hornitzean subiranotasuna, segurtasuna edo ordena publikoa kaltetu badaiteke, edo agintari espainiarren aurrean prozedura judizialak abiarazi badira edo agintari horiek prozedura horietan egintza horien aurkako epaia eman badute.

V. TITULUA

Aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen ikuskapena

I. KAPITULUA

Taldeei buruzko xedapen orokorrak

131. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen ikuskapenari buruzko arauak eta definizioak.*

1. Titulu honetan xedatutakoetarako, hona hemen nola ulertu behar diren termino hauek:

a) Entitate matrizea: 9. artikuluan definitzen dena eta, ikuskapen-agintarien ustez, beste entitate batean eragin menderatzailea gauzatzen duen beste edozein entitate.

b) Eskumendeko entitatea: 9. artikuluan definitzen dena eta, ikuskapen-agintarien arabera, entitate matrize batek eragin menderatzailea gauzatzen duen edozein entitate.

c) Parte-hartzea: 9. artikuluan definitzen dena eta, entitate batean boto- edo kapital-eskubideak zuzenean nahiz zeharka izatea, ikuskapen-agintarien ustez, eragin nabarmena gauzatzen denean.

d) Entitate parte-hartzailea: Partaidetza duen entitate matrize bat edo beste entitate bat, edo beste batekin lotuta dagoen entitate bat, zuzendaritza bakar bat dutelako edo horien administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoak pertsona berdinek osatzen dituztelako.

e) Lotutako entitatea: Eskumendekoa den edo partaidetza bat duen entitate bat, edo beste batekin lotuta dagoen entitate bat, zuzendaritza bakar bat dutelako edo administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoak pertsona berdinekin osatuta daudelako.

f) Taldea: Honako baldintza hauek betetzen dituzten entitate-multzoak:

1. Entitate parte-hartzaile batek, haren filialek edo entitate parte-hartzaileak edo haren filialek partaidetza bat duten entitateek osatutako multzoa, baita beste batzuekin lotuta dauden entitateek ere, zuzendaritza bakar bat dutelako edo administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoak hein handi batean pertsona berdinekin osatuta daudelako; edo

2. Entitate horien artean finantza-lotura sendo eta jasangarriko aitorten bat egongo da, kontratuzkoa edo bestelakoa, eta mutuak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak hartu ahal izango ditu barne, honako baldintza hauek betetzen badira:

i. Entitate horietako batek –entitate matrize gisa hartuko da–, koordinazio zentralizatu bidez, eragin nagusia izango du taldea osatzen duten entitate guztien erabakiak hartzeko orduan, finantza arloko erabakiak barne, eta horiek eskumendeko entitate gisa hartuko dira;

ii. Harreman hori ezarri eta desegiteko orduan, taldeko ikuskatzailearen baimena eskuratu beharko dute, titulu honen ondorioetarako; eta

iii. Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek edo mutuek osatutako taldeen kasuan, erregelamendu bidez zehaztutakoa bete beharko dute.

g) Taldearen ikuskatzailea: Taldearen ikuskapenaz arduratzen den agintari ikuskatzailea, 134. artikuluan xedatutakoari jarraikiz zehaztua.

h) Ikuskatzaileen elkargoa: Lankidetzeta eta koordinaziorako egitura iraunkorra eta malgua, talde baten ikuskapenari buruzko erabakiak errazago hartzeko.

i) Aseguru-zorroaren sozietatea: Aseguru- edo berraseguru-entitateak diren filialetan partaidetzak bereganatu eta izateko jarduera nagusia duen entitate matrizea, hirugarren herrialdeetan helbideratutako entitateak barne, filial horietako bat gutxienez Europar Batasunean helbideratuta dagoenean, eta hura aseguru-zorroa duen finantza-sozietate misto bat ez denean.

j) Aseguru-zorroa duen sozietate mistoa: Aseguru-entitate bat, hirugarren herrialde bateko aseguru-entitate bat, berraseguru-entitate bat, hirugarren herrialde bateko berraseguru-entitate bat, aseguru-zorroa duen sozietate bat edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto bat ez den entitate matrize bat, haren filialen artean gutxienez aseguru- edo berraseguru-entitate bat dagoenean.

k) Aseguru-zorroa duen finantza-sozietate mistoa: Finantza multzoen ikuskaritzari buruzko eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituen apirilaren 22ko 5/2005 Legearen 2.7 artikuluan definitzen dena.

l) Taldearen barneko eragiketak: aseguru-entitate bat talde bereko beste entitate batzuekin edo talde horretako entitateekin hertsiki loturik dagoen edozein pertsona fisiko edo juridikorekin zuzenean nahiz zeharka lotuta dauden eragiketa guztiak, kontratuzkoa den nahiz ez den betebeharrak bat betetzeko helburuarekin, hark ordainketa bat xedetu ala ez.

m) Entitate arautuak: Finantza multzoen ikuskaritzari buruzko eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituen apirilaren 22ko 5/2005 Legearen 2.3 artikuluan definitzen direnak.

2. Lege honetan jasotzen diren aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen ikuskapenari buruzko xedapenak behar bezala aplikatuko dira, entitateei banaka aplikatu beharreko ikuskapen-arauetatik eratorritako betebeharrei kalterik egin gabe.

132. artikulua. *Ikuskapenari atxikita dauden taldeak.*

1. Honako hauek osatzen dituzten taldeek egin beharko dute ikuskapena:

a) Gutxienez aseguru- edo berraseguru-entitate batean parte hartzen duten aseguru- edo berraseguru-entitateek, baita hirugarren herrialde bateko aseguru- edo berraseguru-entitate batean parte hartzen badute ere;

b) Entitate matrizea aseguru-zorroa duen sozietate bat edo aseguru-zorroa duen finantza-sozietate misto bat denean eta egoitza soziala Europar Batasunean duenean;

c) Entitate matrizea aseguru-zorroa duen sozietate bat edo aseguru-zorroa duen finantza-sozietate misto bat denean eta egoitza soziala Europar Batasunetik kanpo duenean, edo hirugarren herrialde bateko aseguru- edo berraseguru-entitate bat;

d) Entitate matrizea aseguru-zorroa duen sozietate misto bat duten aseguru- edo berraseguru-entitateek.

2. Aseguru-zorria duen finantza-erakunde misto bat xedapen baliokideei atxikita dagoenean –lege honekin eta finantza-multzoen ikuskaritzari buruzko apirilaren 22ko 5/2005 Legearekin bat etorriz; haren bitartez, finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dira, batez ere arriskuen araberako ikuskapen-baldintzei dagokienez–, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea denean eta eragindako gainerako ikuskapen-agintariei kontsulta egin ostean, aseguru-zorria duen finantza-erakunde misto horri 5/2005 Legearen xedapenak bakarrik aplikatzea erabaki ahal izango du.

3. Aseguru-zorria duen finantza-erakunde misto bat xedapen baliokideei atxikita dagoenean –lege honekin eta Kreditu-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearekin edo Balio-merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearekin eta horiek garatzen dituzten xedapenekin bat etorriz, arriskuen araberako ikuskapen-baldintzei dagokienez batez ere–, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea denean eta aseguru-zorria duen finantza-erakunde mistoaren filialen ikuskapenaz arduratzen diren gainerako agintariekin hitz egin ostean, sozietate horri Kreditu-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legean edo Balio-merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean jasotzen diren xedapenak bakarrik aplikatzea eskatu ahal izango du.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea denean, 2. eta 3. zenbakiei jarraikiz hartutako erabakiak jakinaraziko dizkie Ikuskapenerako Banku Agintaritzari eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

133. artikulua. *Taldearen ikuskapenari dagokion aplikazio-eremua.*

1. Taldearen ikuskapena egitean ez dira nahitaez bete behar izango hirugarren herrialde bateko aseguru- edo berraseguru-entitateen ikuskapen-funtzioak, ezta aseguru-zorria duten finantza-sozietate mistoen eta aseguru-zorria duten sozietateei dagokienez ere, erregelamenduan jasotzen denari kalterik egin gabe; gauza bera gertatuko da aseguru-zorria duten sozietate mistoei dagokienez, horiek guztiak banaka hartzen direnean.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia talde baten ikuskatzailea bada, entitate bat taldeko ikuskapenean sar ez dadila erabaki ahal izango du, hura honako egoera hauetakoren batean dagoenean:

a) Entitatea hirugarren herrialde batean helbideratuta dagoenean eta bertan beharrezko informazioa igortzeko legezko eragozpenak daudenean, erregelamendu bidez zehazten denari kalterik egin gabe;

b) Entitateak taldearen ikuskapen-helburuei dagokienez interes gutxi erakusten duenean; edo

c) Entitatearen txertaketa egokia ez dela uste bada edo taldearen ikuskapen-helburuei dagokienez akatsak sor ditzakeenean.

Dena den, eta banaka hartu arren, talde bereko hainbat entitate kanpoan geratu ahal izango dira b) letran aurreikusitakoaren babespean, eta entitate horiek txertatu egin behar dira elkarrekin interes esanguratsua badute taldearen ikuskapen-helburuei dagokienez.

b) eta c) letren kasuan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, entitatea taldearen ikuskapen-esparruan ez txertatzea erabaki aurretik, eragindako gainerako ikuskapen-agintariei egingo die kontsulta.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egoitza soziala beste estatu kide batean duen aseguru- edo berraseguru-entitate bat taldeko ikuskapenean ez txertatzea erabakitzen duenean, b) edo c) letren kasuetan, txertatu ez den entitatea helbideratuta dagoen estatu kideko ikuskapen-agintariek kasuan kasuko aseguru- edo berraseguru-entitatearen inguruko informazio guztia eskatu ahal izango diote taldearen buru dagoen Espainiako entitateari.

3. Taldearen ikuskatzailea den beste estatu kide bateko ikuskapen-agintaritzak Espainiako aseguru- edo berraseguru-entitate bat taldeko ikuskapenean ez txertatzea erabakitzen duenean aurreko zenbakiko b) edo c) letretan aurreikusitako egoeretan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskapenean txertatu ez den Espainiako aseguru- edo berraseguru-entitatearen ikuskapena erraztu dezakeen informazio guztia eskatu ahal izango dio taldearen buru den entitateari.

II. KAPITULUA

Taldeen ikuskapena gauzatzea

1. atala. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile gisa dituen funtzioak eta eskumenak

134. artikulua. *Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskapen-funtzioak gauzatzea.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile-funtzioak beteko ditu taldeko entitate guztiek egoitza soziala Espainian dutenean.

2. Taldeko entitate guztiek egoitza soziala Espainian ez badute, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak honako egoera hauetan beteko ditu taldearen ikuskatzaile-funtzioak:

a) Taldearen buru dagoen aseguru- edo berraseguru-entitateak bere egoitza soziala Espainian duenean.

b) Taldearen buru dagoen entitatea aseguru-zorria duen sozietate bat edo finantza-erakunde misto bat denean, aseguru-zorria duen sozietatearen aseguru- edo berraseguru-entitate filial guztiek egoitza soziala Espainian dutenean.

c) Taldearen buru dagoen entitatea egoitza soziala Espainian duen aseguru-zorria duen sozietate bat edo finantza-erakunde misto bat denean, aseguru-zorria duen sozietatearen edo finantza-erakundearen aseguru- edo berraseguru-entitate filial horietako batek ere egoitza soziala Espainian duenean.

d) Taldearen buru dauden entitateak egoitza soziala Espainian eta beste estatu kide batzuetan duten aseguru-zorria duten sozietateak edo finantza-erakunde mistoak direnean, egoitza soziala Europar Batasunean duten aseguru- eta berraseguru-entitate guztien artean balantzerik handiena duen aseguru- edo berraseguru-entitateak egoitza soziala Espainian duenean.

e) Egoitza soziala zenbait estatu kideetan duten hainbat aseguru- edo berraseguru-entitateren entitate matrizea aseguru-zorria duen sozietate edo aseguru-zorria duen finantza-erakunde misto bat denean eta hark egoitza soziala Espainian edo filial bat dagoen beste estatu kide batean ez duenean, balantzerik handiena duen aseguru- edo berraseguru-entitateak egoitza soziala Espainian duenean.

f) Taldeak entitate matrizerik ez duenean edo, a) letratik e) letrara aurreikusten ez diren egoeretan, balantzerik handiena duen aseguru- edo berraseguru-entitateak egoitza soziala Espainian duenean.

3. Erregelamendu bidez, 2. zenbakian adierazitako egoerak ez gertatu arren, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile-funtzioak bete beharko dituen kasuak zehaztuko dira, baita egoera horiek gertatu arren, Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile-funtzioak beteko ez dituen kasuak ere.

135. artikulua. *Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskatzaile gisa dituen eskumenak. Ikuskatzaileen elkargoa.*

1. Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiak honako eskumen hauek izango ditu taldearen ikuskatzailea denean:

a) Egoera arruntetarako eta larrialdi-egoeretarako beharrezkoa izan daitekeen informazioa bildu eta hedatzeko koordinazioa, baita ikuskapen-agintarien funtzioa betetzeko garrantzitsua izan daitekeen informazioaren hedapena ere.

- b) Taldearen ikuskapena eta finantza-egoeraren ebaluazioa egitea.
- c) Taldeak kaudimenari eta arrisku-kontzentrazioari buruzko xedapenak eta taldearen barneko eragiketei buruzko xedapenak betetzen dituela egiaztatzea.
- d) Taldearen gobernu-sistema aztertzea, eta entitate parte-hartzailearen administrazio- edo zuzendaritza-organoko kideek 38. artikuluan eta erregelamendu bidez zehazten diren gainerako baldintzak betetzen dituztela aztertzea.
- e) Urtero egindako bileren edo beste baliabide egoki batzuen bitartez, testuinguru arruntetan eta larrialdi-egoeretan ikuskapen-jarduerak planifikatzea eta koordinatzea, eragindako ikuskapen-agintariekin lankidetzan eta taldea osatzen duten entitate guztien jarduerarekin lotuta dauden arriskuen izaera, neurria eta konplexutasuna kontuan hartuta.
- f) Taldean erabilitako barne-ereduen baliozkotze-prozesua bideratzea, 147. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta arriskuen kudeaketa zentralizatua duten taldeen araubidea aplikatu dadila baimentzeko prozesua bideratzea.
- g) Lege honetan eta aplikagarriak diren gainerako arauetan taldeko ikuskatzaileari ezarritako gainerako funtzioak, neurriak eta erabakiak.

2. Taldeen ikuskapena egiterakoan, IV. tituluko I., IV. eta V. kapituluetan xedatutakoa aplikatuko da, aseguru- edo berraseguru-entitateen ikuskapenari dagokionez.

3. Taldearen ikuskapen-eginkizunak egin daitezela errazteko, ikuskatzaileen elkargo bat osatuko da. Erregelamendu bidez, ikuskatzaileen elkargoei dagokien funtzionamendua eta kideei buruzko alderdiak garatuko dira, baita Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eta beste ikuskapen-agintari batzuen artean egindako lankidetzahitzarmenen edukia ere.

136. artikulua. *Informaziora sartu eta hura egiaztatzea.*

1. Taldearen ikuskapen-esparruan gaineratutako pertsona fisikoek eta juridikoek, eta horiei atxikitako entitateek eta entitate parte-hartzaileek taldearen ikuskapena egiteko beharrezkoa izan daitekeen informazio guztia eman beharko diote elkarri.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia taldearen ikuskatzailea denean, hark taldearen ikuskapena egiteko beharrezkoa izan daitekeen informazio guztia eskuratu ahal izango du, eragindako entitatearen izaera dena dela, entitate indibidualen ikuskapenari dagokionez 113. eta 114. artikuluetan zehazten denari jarraikiz.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskapenari atxikita dagoen aseguru- edo berraseguru-entitatea ez den beste taldeko beste entitateei informazioa eskatzeko bakarrik jardun ahal izango du zuzenean, hari informazioa eskatu eta informazioa dagokion epean helarazi ez bada.

3. Aseguru- edo berraseguru-entitate batek beste entitate batzuekin dituen ekonomia, finantza edo kudeaketa arloko harremanetan oinarrituz, lege honetan xedatutakoari jarraikiz ikuskatu den aseguru-entitateen talde bat dagoela uste bada, eta entitateek taldearen nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatu ez badute, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak entitate horiei informazioa eskatu edo horiek ikuskatu ahal izango ditu, kalkulu horren jatorria zehazteko.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eskatutako informazioa egiaztatu ahal izango du artikuluko 2. zenbakiari jarraikiz; hori taldearen ikuskapenaren xede den aseguru- edo berraseguru-entitatearen lokaletan egingo da, baita horiei atxikitako entitateen, entitate matrizearen, entitate matrizearekin atxikitako beste entitate batzuen eta taldea osatzen duten entitateen lokaletan ere.

5. Erregelamendu bidez, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak talde bat osatzen duten eta beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden entitateen informazioa egiaztatzeko prozedura arautuko da, baita talde bat osatzen duten eta Espainian helbideratuta dauden entitateen informazioa egiaztatzeko prozedura ere, beste estatu kide bateko ikuskapen-agintaritzaren bitartez.

2. atala. Beste ikuskapen-agintari batzuekin mantendu beharreko lankidetzak

137. artikulua. Deialdia eta ikuskapen-agintarien arteko kontsulta.

1. Taldearen ikuskatzailea izan ala ez, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak taldearen ikuskapenean parte hartzen duten ikuskapen-agintari guztiei dei egingo die, gutxienez, honako egoera hauetakoren bat gertatu dela dakienean:

- a) Aseguru- edo berraseguru-entitate indibidual baten nahitaezko gutxieneko kapitalari edo nahitaezko kaudimen-kapitalari dagokionez ez-betetze bat gertatu denean.
- b) Datu-base kontsolidatuak oinarritzat hartuta kalkulatu den taldearen nahitaezko kaudimen-kapitalaren edo taldearen nahitaezko kaudimen-kapitalaren inguruko ez-betetze garrantzitsu bat gertatu denean, erabilitako kalkulurako metodoa dena dela.
- c) Salbuespenezko beste egoera batzuk.

2. 135. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, eta erabaki bat beste ikuskapen-agintari batzuen ikuskapen-eginkizunerako garrantzitsua izan daitekeenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eraginpean egon daitezkeen ikuskatzaileen elkargoko beste ikuskapen-agintariekin kontsultatuko du honako gai hauekin lotutako erabaki bat hartu aurretik:

- a) Talde bateko aseguru- eta berraseguru-entitateen akzio-, antolakuntza- edo zuzendaritza-egituraren aldaketa, horretarako ikuskatzailearen alde aurretiko baimena behar denean.
- b) Berreskuratze-aldia luzatzeko erabakia, 156. artikuluari jarraikiz.
- c) Hartutako ezohiko neurriak edo zehapen garrantzitsuak, hala nola, nahitaezko kaudimen-kapitalera kapital gehigarria eransteke eskaera, nahitaezko kaudimen-kapitalaren kalkulurako barne-eredu bat erabiltzeko mugen ezarpena, eta bestelako ezohiko neurriak.

b) eta c) letretan zehaztutakoarekin lotuta, uneoro kontsulta egin beharko zaio taldearen ikuskatzaileari.

Gainera, erabaki bat beste ikuskapen-agintarien aldetik jasotako informazioan oinarritzen bada, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eragindako ikuskapen-agintariekin kontsultatu beharko du erabaki hori hartu aurretik.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kontsulta hori ez egitea erabaki dezake larrialdi-kasuetan edo kontsulta horrek erabakiaren eraginkortasuna arriskuan jar dezakeela uste badu. Egoera horretan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eragindako gainerako ikuskapen-agintariei jakinaraziko die.

138. artikulua. Beste ikuskapen-agintari batzuei eskatutako informazioa.

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea denean, entitate matrizeak egoitza soziala duen estatu kideko ikuskapen-agintariei beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango die hark taldearen ikuskapenari dagozkion koordinazio-betebeharrak eta eskubideak behar bezala gauzatu ditzan, eta informazio hori helarazteko helburuarekin.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea den heinean, beste ikuskapen-agintari batzuei helarazi zaien informazioa behar duenean, lehenik eta behin horiei eskatuko die kasuan kasuko informazioa.

139. artikulua. Kreditu-erakundeetako eta inbertsio-zerbitzuen enpresetako ikuskapen-agintariekin mantendu beharreko lankidetzak.

Aseguru- edo berraseguru-entitate bat eta kreditu-erakunde bat, inbertsio-zerbitzuen enpresa bat edo biak zuzenean nahiz zeharka lotuta daudenean edo entitate parte-hartzaile komun bat dutenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak azken horien ikuskapen-agintariekin jardungo du elkarlanean, eta horiei bere eginkizuna erraztu dezakeen informazioa eman eta eskatuko die, dagozkion eskumenei kalterik egin gabe.

3. atala. Ikuskapen-mailak

140. artikulua. *Europar Batasuneko azken erakunde matrizea.*

1. Aseguru- edo berraseguru-entitate parte-hartzaile batek edo aseguru-zorroa duen sozietate batek edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto batek egoitza soziala Espainian duenean eta egoitza soziala beste estatu kide batean duen beste aseguru- edo berraseguru-entitate baten edo aseguru-zorroa duen beste sozietate baten edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto matrize baten filiala denean, taldearen ikuskapena egoitza soziala beste estatu kide batean duen aseguru- edo berraseguru-entitate matrizearen edo aseguru-zorroa duen sozietatearen edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde mistoaren kasuan bakarrik egingo da.

2. Egoitza soziala Espainian duten aseguru- edo berraseguru-entitate matrize baten edo aseguru-zorroa duen sozietate baten edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto baten taldeko ikuskapenak taldea osatzen duten entitate guztiak hartuko ditu barne azken hori entitate matrizea denean.

141. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateen azpitalde nazionala.*

1. Egoitza soziala Espainian duen aseguru- edo berraseguru-entitate parte-hartzaile batek, aseguru-zorroa duen sozietate batek edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto batek talde batean parte hartzen duenean eta talde horretako entitate matrizeak egoitza soziala beste estatu kide batean duenean, egoitza soziala Espainian duen aseguru- edo berraseguru-entitate matrizea, aseguru-zorroa duen sozietatea edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde mistoa taldeko ikuskapenaren xede izan dadila erabaki ahal izango du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta hura aseguru- edo berraseguru-entitateen azpitalde nazionalako matrize gisa hartuko da.

Azpitalde nazionalaren ikuskapena egiteko, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren arazoietan oinarritutako ebazpena beharko da, Europar Batasuneko azken entitate matrizeari eta taldeko ikuskatzaileari kontsulta egin ostean.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hartutako erabakia justifikatuko du taldeko ikuskatzailearen aurrean eta aseguru- edo berraseguru-entitate matrizearen, aseguru-zorroa duen sozietatearen edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde mistoaren aurrean. Taldeko ikuskatzaileak horren guztiaren berri emango dio ikuskatzaileen elkargoari.

Azpitalde nazionalaren ikuskapena ezin izango da adostu edo mantendu taldeko ikuskatzaileak Europar Batasuneko azken entitate matrizeari dagokion baimena ematen dionean, eta beraz, egoitza soziala Espainian duen filialak arriskuen kudeaketa zentralizatua duten taldeen kaudimen-ikuskapenaren araubidea bete dezakeenean.

2. Azpitalde nazionalaren ikuskapenak taldearen ikuskapenerako xedatutakoa bete beharko du, honako berezitasun hauek aintzat hartuta:

a) Azpitalde nazionalaren ikuskapena taldearen xede diren eremu guztietara edo horietako bakar batera hedatu ahal izango da, ikuskapena kaudimenari, arrisku-kontzentrazioari eta taldearen barneko eragiketeei, eta arriskuen kudeaketari eta barne-kontrolari buruzkoa denean.

b) Azpitalde nazionalaren kaudimena ikuskatzeko orduan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Azpitaldearen kaudimena ikuskatzeko metodoa taldearen ikuskatzaileak Europar Batasuneko azken entitate matrizearen kaudimena aztertzeke hautatu duena izango da.

2. Europar Batasuneko azken entitate matrizeak taldeko ikuskatzailearen baimena lortu badu taldearen eta barne-eredu bati jarraikiz taldea osatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateen nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko, metodo hori erabiliko da azpitalde nazionalaren eta hura osatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateen nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko.

3. Nazioko azken entitate matrizearen arrisku-profila Europar Batasunean onartutako barne-ereduarengandik dezente urruntzen bada, eta kasuan kasuko entitateak zentzu horretan egiten diren eskakizunei behar bezala erantzuten ez badie, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, arrazoitutako ebazpen bidez, eredu horren aplikaziotik eratorritako azpitalde nazionalaren nahitaezko kaudimen-kapitalaren kapital gehigarria eskatu ahal izango du, eta eskakizun hori egokitzen jotzen den ezohiko egoeretan, azpitalde nazionalaren nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko eskatu ahal izango dio entitateari, formula estandarri jarraikiz. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aurreko ebazpenaren berri emango die entitateari eta taldearen ikuskatzaileari. Taldeko ikuskatzaileak horren guztiaren berri emango dio ikuskatzaileen elkargoari.

4. Nazioko azken entitate matrizeak ezin izango du baimenik eskatu bere filialak arriskuen kudeaketa zentralizatua duten taldeen kaudimen-ikuskapenari dagokion araubidearen pean jartzeko.

142. artikulua. *Zenbait estatu kideetako azpitalde nazionalak barne hartzen dituen entitateen azpitaldea.*

1. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, 141. artikuluari jarraikiz, azpitalde nazional bati taldearen ikuskapena egitea erabakitzen duenean, akordio bat egin ahal izango du erkidegoan azken entitate matrizearekin lotuta dauden beste entitate batzuk kokatuta dauden estatu kideetako ikuskapen-agintariekin, horiek estatu horietan azpitalde nazional baten azken matrizea direnean; ikuskapena hainbat azpitalde nazional barne hartzen dituen azpitalde nagusiari dagokionez gauzatuko da. Kasu horretan, azpitaldearen ikuskapena akordioan izendatutako ikuskatzaileak bakarrik egin ahal izango du.

Akordioan nahastutako ikuskapen-agintari nazionalak hartutako erabakia justifikatuko dute taldeko ikuskatzailearen aurrean eta aseguru- edo berraseguru-entitate matrizearen, edo Europar Batasunean aseguru-zorroa duen sozietatearen edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde mistoaren aurrean. Taldeko ikuskatzaileak horren guztiaren berri emango dio ikuskatzaileen elkargoari.

Zenbait estatu kide barne hartzen dituen azpitaldearen ikuskapenean ezin izango dira sartu akordio hori egin den ikuskapen-agintariei dagozkien estatu kideak ez diren beste batzuetako azpitalde nazional bateko azken entitate matrizeak.

2. Zenbait estatu kide barne hartzen dituen azpitaldearen ikuskapena egiten denean, azpitalde nazional baten ikuskapenerako aurreikusten diren arauak aplikatuko dira.

III. KAPITULUA

Taldearen finantza-egoera

1. atala. Taldearen kaudimena

143. artikulua. *Taldeak duen kaudimenaren ikuskapena.*

1. Aseguru- edo berraseguru-entitate parte-hartzaileek behar bezala bermatu beharko dute taldeak uneoro funts propio onargarriak dituela kontuan, eta horien zenbatekoa taldearen nahitaezko kaudimen-kapitalaren berdina izango da gutxienez. Zenbateko hori lege honetan eta gainerako arau aplikagarrietan aurreikusitakoari jarraikiz kalkulatu da.

Taldeko entitate matrizea aseguru-zorroa duen sozietate bat edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto bat denean, taldea osatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateek bermatu beharko dute aurreko lerrokadan xedatutako betebeharra betetzen dutela.

2. Lehendabiziko zenbakian aipatzen diren entitateek behar bezala bermatu beharko dute taldeak uneoro haren nahitaezko gutxieneko kapitala estaltzeko moduko oinarritzko funts propio onargarriak dituela; hura arau aplikagarrien arabera zehaztuko da, hura eskatu daitekeenean.

144. artikulua. *Taldearen finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitate parte-hartzaileek, aseguru-zorria duten sozietateek edo aseguru-zorria duten finantza-erakunde mistoek taldearen kaudimen- eta finantza-egoerari buruzko txosten bat argitaratuko dute urtero. Ondorio horietarako, 80. artikulutik 82. artikulura xedatutakoa aplikatuko da entitate indibidualen kaudimen- eta finantza-egoerari buruzko txostenerako.

2. 1. zenbakian aipatzen diren entitateek, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna jaso ostean (taldearen ikuskatzailea hura denean), kaudimen- eta finantza-egoerari buruzko txosten bakar bat prestatu ahal izango dute. Bertan, publiko egin behar den taldearen informazioa eta banaka identifikatu behar den eta 80. artikulutik 82. artikulura aurreikusitakoari jarraikiz publiko egin behar den taldea osatzen duten filialen inguruko informazioa gaineratuko da.

145. artikulua. *Entitate parte-hartzaileen taldeak duen kaudimenaren kalkulua.*

Aseguru- edo berraseguru-entitate parte-hartzaileen taldeko kaudimena kalkulatzeko, kontsolidazio kontablean oinarritutako metodoa erabiliko da.

Dena den, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea denean, kenkarien eta gehigarrien metodoa aplikatzea adostu ahal izango du eragindako gainerako ikuskapen-agintariei eta taldeari berari jakinarazpena egin ostean; era berean, bi metodoen konbinazio bat aplikatu ahal izango du kontsolidazio kontablean oinarritutako metodoa bakarrik aplikatzea egokia ez denean.

146. artikulua. *Talde kontsolidatuaren kaudimena kalkulatzeko: kontabilitate-kontsolidazioan oinarritutako metodoa.*

1. Taldearen kaudimena kalkulatzeko, kontu bateratuak hartuko dira oinarri gisa.

2. Talde kontsolidatuaren nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko orduan, formula estandarra edo barne-eredu bat erabiliko da; azken horrek banaka bete beharreko printzipio eta baldintzekin modu koherentean onartuta egon beharko du. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berriazko ebazpenik jakinarazi, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

3. Erregelamendu bidez, metodo hori kalkulatzeko sistema garatuko da.

147. artikulua. *Talde kontsolidatuaren eta taldeko aseguru- eta berraseguru-entitateen barne-eredua.*

1. Aseguru- eta berraseguru-entitate parte-hartzaileek eta horiei atxikitako entitateek, edo aseguru-zorria duten sozietate bati edo aseguru-zorria duen finantza-erakunde misto bati atxikitako entitateek baimenaren eskaera aurkeztu ahal izango diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hura taldearen ikuskatzailea denean, talde kontsolidatuaren nahitaezko kaudimen-kapitala eta taldeko aseguru- eta berraseguru-entitateen nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko orduan barne-eredu bat erabili ahal izan dezaten.

2. Taldeko aseguru- edo berraseguru-entitateak Espainia ez den beste estatu kideetan kokatuta ez daudenean, talde kontsolidatuaren eta taldeko aseguru- eta berraseguru-entitateen barne-eredua horiek banaka bete beharreko printzipioekin eta baldintzekin bat etorri onartuko da. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berriazko ebazpenik jakinarazi, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

3. Erregelamendu bidez, talde kontsolidatuaren eta taldeko aseguru- eta berraseguru-entitateen barne-eredu bat baimentzeko prozedura garatuko da taldeko entitate bat Espainia ez den beste estatu kide batean kokatuta badago. Edonola ere, prozedura ebazteko eta jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berriazko ebazpenik jakinarazi, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

4. Aseguru- edo berraseguru-entitate baten arrisku-profila taldeari dagokionez baimendu den barne-ereduan oinarritutako hipotesitik nabarmen urruntzen bada, hartu beharreko neurriak erregelamendu bidez jasoko dira.

148. artikulua. *Talde kontsolidatuaren nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatzea.*

Taldearen arrisku-profila behar bezala islatzen ez bada, talde kontsolidatuaren nahitaezko kaudimen-kapitalaz gain kapital gehigarria eskatu ahal izango da.

149. artikulua. *Kentzeko eta gehitzeko metodoa.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, 145. artikuluari jarraikiz, kentzeko eta gehitzeko metodoa erabil dadila baimendu ahal izango du, taldearen ikuskatzailea denean, Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudian hala zehazten denean.

2. Erregelamendu bidez, metodo hori kalkulatzeko sistema garatuko da.

150. artikulua. *Arriskuen kudeaketa zentralizatua duten taldeen araubidea.*

Entitate matrizeek baimentze-eskaera bat aurkeztu ahal izango dute beren filialak arriskuen kudeaketa zentralizatua duten taldeen araubidean oinarritu ahal izan daitezen.

Erregelamendu bidez, araubide horren pean egon ahal izateko baldintzak zehaztuko dira, baita hura baimentzeko prozedura bera ere.

2. atala. Arriskuaren kontzentrazioa eta taldearen barneko eragiketak

151. artikulua. *Arriskuaren kontzentrazioa eta taldearen barneko eragiketak ikuskatzea.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateek, aseguru-zorria duten sozietateek eta aseguru-zorria duten finantza-erakunde mistoek nahitaez jakinarazi beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hura taldearen ikuskatzailea denean eta erregelamendu bidez zehaztutako aldizkakotasunarekin, urtean behin gutxienez, taldean izan daitekeen arrisku-kontzentrazio oro eta taldearen barnean egindako eragiketa esanguratsu guztiak, taldeko edozein entitaterekin lotura estu bidez lotutako pertsona fisikoek egindako eragiketak barne.

3. atala. Arriskuen kudeaketa eta barne-kontrola

152. artikulua. *Taldearen gobernu-sistemaren ikuskapena.*

1. Arriskuen kudeaketa eta barne-kontrolerako sistemak eta informazio-prozedurak modu koherentean ezarriko dira talde bat osatzen duten entitate guztietan; horrenbestez, informazio-prozedura eta sistema horiek talde-mailako ikuskapenen xede izan daitezke.

Banaka hartutako aseguru- eta berraseguru-entitateen gobernu-sistemarekin lotutako lege honetako xedapenak taldean aplikatu beharrekoak izango dira.

2. Aseguru- edo berraseguru-entitate parte-hartzaileak, aseguru-zorria duen sozietateak edo aseguru-zorria duen finantza-erakunde mistoak taldean egingo dute 66. artikuluan aipatzen den kaudimenaren eta arriskuen barne-ebaluazioa. Taldearen kaudimen eta arriskuen barne-ebaluazio hori Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ikuskatuko du, hura taldearen ikuskatzailea denean.

3. Aseguru- edo berraseguru-entitate parte-hartzaileak edo aseguru-zorria duen sozietateak taldearen finantza-egoeraren narriadura hautemateko prozedurak ezarriko ditu, eta hamar eguneko epean, gertatu den narriaduraren berri emango diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, hura taldearen ikuskatzailea denean.

4. atala. Talde mailako kaudimena ez betetzea

153. artikulua. *Ez-betetzeei aurre egiteko neurriak.*

1. Talde bateko aseguru- edo berraseguru-entitateek titulu honetako III. kapituluan zehatutako barne-kontrolaren eta arriskuen kudeaketari, taldearen barneko eragiketegi eta arrisku-pilaketari, eta taldearen kaudimenari buruzko eskakizunak betetzen ez badituzte, edo eskakizun horiek beteta ere, horien kaudimena arriskuan badago edo taldearen barneko eragiketegi eta arrisku-pilaketegi aseguru- edo berraseguru-entitatearen finantza-egoera arriskuan jartzen badute, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, taldearen ikuskatzailea denean, egoerari aurre egiteko beharrezko neurriak har ditzatela eskatuko die entitate horiei. Aseguru- edo berraseguru-entitateak bere egoitza soziala beste estatu kide batean duenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erabaki horren berri emango dio entitateak egoitza duen estatu kideko agintaritza ikuskatzaileari, hark beharrezko neurriak har ditzan.

Era berean, eta taldearen ikuskatzailea den heinean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak neurri zuzentzaileak har ditzala eskatu ahal izango dio aseguru-zorroa duen sozietate edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto matrize bati. Aseguru-zorroa duen sozietate edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto matrizeak bere egoitza soziala beste estatu kide batean duenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak haren berri emango dio aseguru-zorroa duen sozietateak egoitza duen estatu kideko agintaritza ikuskatzaileari, hark beharrezko neurriak har ditzan.

2. Titulu honi jarraikiz hartutako lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenak betetzen ez dituzten aseguru-zorroa duten finantza-erakunde mistoek edo aseguru-zorroa duten sozietateek, eta sozietate horiek modu eraginkorrean zuzentzen dituzten pertsonak lege honetako VIII. tituluaren zehatutako arau-hauste eta zehapenen araubidea bete beharko dute.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eragindako gainerako ikuskapen-agintariekin lankidetzan jardungo du ezar daitezkeen zehapenak eraginkorrak direla bermatzeko helburuarekin, batez ere administrazio zentrala edo aseguru-zorroa duen sozietate baten establezimendu nagusia haren egoitza sozialarekin bat ez datozenean.

IV. KAPITULUA

Entitate matrizeak Europar Batasunetik kanpo dituzten taldeak

154. artikulua. *Baliokidetasuna egiaztatzea.*

1. Talde bateko entitate matrizea aseguru- edo berraseguru-entitate bat, aseguru-zorroa duen sozietate bat edo aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto bat bada, eta hark egoitza soziala hirugarren herrialde batean badu, eragindako ikuskapen-agintariekin behar bezala egiaztatuko dute hirugarren herrialde horretako taldeen ikuskapena egiteko zuhurtziazko araubidea titulu honetan aurreikusitakoaren baliokidea dela, honako arau hauei jarraikiz:

a) Baliokidetasun hori Europako Batzordeak zehatutako du, hark ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin.

Zentzuzko araubide baliokideen zerrenda bere web-orrian argitaratuko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta eguneratuta mantenduko da. Batzordearen erabakiak aldi behin berrikusiko dira horiek eguneratuta mantentzeko helburuarekin, Europar Batasuneko ikuskapen-araubidearen eta hirugarren herrialdeko ikuskapen-araubidearen funtsezko aldaketa guztiak berrikusteko helburuarekin.

b) Aurreko zenbakian zehatutako irizpide guztiak betetzen ez direnean, Europako Batzordeak aldi baterako izaeraz ezarri ahal izango du baliokidetasuna; Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ere laguntza eskainiko du, erregelamendu bidez ezarritako irizpideei jarraikiz.

Kaudimen-araubide baliokidea duten hirugarren herrialdeen zerrenda bere web-orrian argitaratuko du Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, eta eguneratuta

mantenduko da. Batzordearen erabakiak aldi behin berrikusiko dira, hirugarren herrialdeak egindako aurrerapen-txostenekin eguneratuta mantentzeko helburuarekin; horiek urtero aurkeztuko zaizkio Batzordeari, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, hark behar bezala ebaluatu ditzan.

Aldi baterako baliokidetasun-araubidea bost urtekoa izango da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, edo a) zenbakiarekin bat etorritik, hirugarren herrialde horretako zentzuzko araubidea baliokidetzat jotzen den datan amaituko da, azken data hori aurrekoa bada. Epe hori urtebete luzatu ahal izango da, gehienez ere, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak eta Batzordeak a) zenbakiaren ondorioetarako baliokidetasun-ebaluazioa gauzatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen denean.

Aldi baterako baliokidetasuna ez da aplikagarria izango aseguru- edo berraseguru-entitate bat kokatuta dagoen estatu kidearen balantze totala hirugarren herrialde batean kokatuta dagoen enpresa matrizearen balantze osoa baino handiagoa bada. Kasu horretan, taldearen ikuskatzaile-funtzioa taldearen ikuskatzaileak gauzatu du, 134.2 artikuluan aurreikusitako irizpideei jarraikiz.

c) Aurreko a) eta b) letrei jarraikiz erabakirik hartu ez bada, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaio, 134.2 artikuluan aurreikusitako irizpideei jarraikiz hura taldearen ikuskatzailea denean, ofizios edo entitate matrizeak edo Europar Batasunean baimendutako taldeko aseguru- edo berraseguru-entitate batek eskatuta, hirugarren herrialdeko taldeen ikuskapena egiteko zuhurtziazko araubidearen baliokidetasuna frogatzea. Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak taldearen ikuskatzaileari lagunduko dio.

Egiaztapen hori egiteko orduan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzaren laguntzarekin, eragindako gainerako ikuskapen-agintariei kontsulta egingo die baliokidetasunaren inguruko erabaki bat hartu aurretik. Erabaki hori hartzeko orduan, Europako Batzordeak a) letrari jarraikiz hartutako irizpideak hartu beharko dira kontuan, baita hirugarren herrialde horri dagokionez bi alderdien artean aurretiaz hartu diren erabakiak ere, Espainiako ikuskapen-araubidean edo hirugarren herrialde horretako ikuskapen-araubidean txertatu diren funtsezko aldaketak aintzat hartu behar diren kasuetan salbu.

Hartutako baliokidetasun-erabakiari dagokionez ikuskapen-agintarien artean desadostasunik badago, gaia Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusira bidali eta haren laguntza eskatu ahal izango da, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erabakia jakinarazten duen unetik hiru hilabeteko epean, hark taldearen ikuskatzaile gisa jarduten duenean.

2. Hirugarren herrialdeko taldeko ikuskapena baliokidea dela uste denean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hirugarren herrialdeko agintari ikuskatzaileek gauzatuako ikuskapen baliokidera joko du, eta titulu honetako II. kapituluko 1 eta 2. ataletan, 144. eta 148. artikuluetan, eta erregelamendu bidez zehaztutakoa aplikatuko zaio, mutatis mutandis, hirugarren herrialdeko ikuskapen-agintariekin batera egindako lankidetzari.

3. Erregelamendu bidez arau aplikagarriak zehaztuko dira, hirugarren herrialdeetan dauden taldeen ikuskapena baliokidetzat jotzen ez denean.

VI. TITULUA

Finantza-narriaduraren egoerak. Kontrol bereziko neurriak

I. KAPITULUA

Finantza-narriaduraren egoerak

155. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateen finantza-narriadura.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateek prozedurak ezarriko dituzte beren finantza-egoeraren narriadura hautemateko eta, hamar eguneko epean, narriadura horren, nahitaezko

kaudimen-kapitalaren urritasunaren edo nahitaezko gutxieneko kapitalaren urritasunaren berri emango diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari; gauza bera egingo du, hurrengo hiru hilabeteetan urritasun hori gertatu daitekeela uste badu.

156. artikulua. *Nahitaezko kaudimen-kapitala ez betetzea.*

1. Aseguru- edo berraseguru-entitateak nahitaezko kaudimen-kapitala betetzen ez dela edo hurrengo hiru hilabeteetan gertatu daitekeen arriskua ikusten duenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak berreskuratze-plan bat onartu beharko du, ez-betetzea edo arriskua hauteman den egunetik bi hilabete epean.

2. Ez-betetzea edo arriskua hauteman den momentutik sei hilabete epean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak nahitaezko kaudimen-kapitalaren estaldurari dagozkion funts propio onargarriak ezartzeko edo arrisku-profila murrizteko neurriak hartu eta exekutatu ditzala eskatuko dio entitateari, hark nahitaezko kaudimen-kapitala estal dezan. Epe hori hiru hilabete luzatu ahal izango da.

3. Erregelamendu bidez, neurriak hartu eta egoerak arautuko dira ezohiko egoeraren batek eragiten badie eragindako arloen edo merkatuaren kuota esanguratsua irudikatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateei.

157. artikulua. *Nahitaezko gutxieneko kapitala ez betetzea.*

Aseguru- edo berraseguru-entitateak nahitaezko gutxieneko kapitala betetzen ez dela edo hurrengo hiru hilabeteetan hori gerta daitekeela ikusten badu, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak epe motzerako finantziazio-plan bat onartu beharko du, hilabete epean, ez-betetzea edo arriskua hauteman den unetik hiru hilabete epean, oinarritzko funts propio onargarriak nahitaezko gutxieneko kapitalera berreskuratze edo arrisku-profila murrizteko helburuarekin, hala, nahitaezko gutxieneko kapitala bete dadin.

158. artikulua. *Planaren edukia.*

Kapitulu honetan aurreikusten diren epe motzerako finantziazio-neurrien eta berreskuratze-planaren edukia erregelamendu bidez arautuko da.

II. KAPITULUA

Kontrol berezirako neurriak

159. artikulua. *Kontrol bereziko neurriak hartzea eragiten duten egoerak.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kontrol bereziko neurriak hartu ahal izango ditu aseguru- edo berraseguru-entitateak honako egoera hauetakoren batean daudenean:

a) Funts propio onargarriak nahitaezko gutxieneko kapitala estaltzeko nahikoak ez direnean.

b) Funts propio onargarriak nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko nahikoak ez direnean.

c) Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko, defizita ehuneko 20tik gorakoa denean.

d) Aktiboen eta pasiboen balorazioari buruzko arauak betetzen ez direnean, hornidura teknikoak barne, eta horren eraginez, nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarrien kalkuluan ehuneko 20tik gorako desbideratzea gertatzen denean. Baita hornidura teknikoak dagokienez ez-betetzerekin bat gertatzen denean ere, entitateari 70.2 artikuluko terminoetan jasotzen den gehikuntza eskatu ostean eskatutako maila lortzen ez duenean.

e) Ordainketetan berandutze edo ez-betetzerekin bat eragin duten finantza- edo likidezia-zailtasunak.

f) Gobernu-sisteman edo barne-kontrolerako sisteman urritasunak gertatzen direnean, eta horien eraginez, jardueraren kudeaketa egitea ezinezkoa denean, bereziki, arriskuen kudeaketari, betebeharrak betetzeari, barne-ikuskaritzari eta ikuskaritza aktuarialari dagozkion betebeharrak edo funtzioak edo jarduerak kanpora ateratzen direnean.

g) Xede soziala betetzeko zailtasunak izatea edo gizarte-organoak etetea, haren funtzionamendua zailduz.

h) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egindako egiaztapenetatik eratorritako egoerak, horien eraginez, entitatearen kaudimena, aseguratuen interesak edo hartutako betebeharren betetzea arriskuan jartzen direnean, eta kontabilitatea aseguru-entitateen kontabilitate-planera ez egokitzea, edo kontabilitatearen edo administrazioaren irregularitasuna, entitatearen benetako ondarea ezagutzea zailtzen duten terminoetan.

2. Kontrol bereziko neurriak hartu ahal izango dira aseguru- eta berraseguru-entitateen taldeak nagusitzen dituzten entitateei dagokienez eta taldea osatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateei dagokienez, hura 1. zenbakian deskribatutako egoera batean dagoenean.

160. artikulua. *Har daitezkeen kontrol bereziko neurriak.*

1. Zernahi direlarik ezartzen diren administrazio-zehapenak, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kontrol bereziko neurri hauek hartu ahal izango ditu:

- a) Epe motzerako finantziario-plan bat eskatu ahal izango dio aseguru-entitateari.
- b) Bere finantza-egoera leheneratzeko berreskuratze-plan bat eskatu ahal izango dio aseguru-entitateari.
- c) Entitatearen eta filialen ondasunen erabilgarritasuna debekatu ahal izango du, ikuskapenaren pean jarritako finantza-erakundeak direnean salbu. Neurri hori honako hauekin osatu ahal izango da:

1. Ondasun higiezin administrazioa edo ondasun higigarrien eta baloreen depositua Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak onartutako pertsona bakoitzeko.

2. Dirua edo baloreak jarri dituzten kreditu-erakundeei neurriaren berri ematea.

3. Dagozkion erregistro publikoetan izateko debekuaren prebentziozko jakinarazpena; horretarako nahikoa izango da Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena, bertan aipatutako debekuaren erreferentzia egiten baita. Prebentziozko oharraren indarraldian zehar, erregistro publikoetan ezin izango da berme-eskubide errealik inskribatu eta epailearen agindurik edo administrazioaren enbargu-erabakirik jaso; gainera, kreditu-erakundeek ezin izango dute epailearen agindu edo premiamendu bidezko ordainketarik edo kargarik egin, ezta beste kontzeptu batzuegatik ere, aurretiaz Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren berariazko baimenik ez badute.

d) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren alde aurretiko baimenik ez duten entitateei eta filialeei zehaztutako kudeaketa-ekintzak egitea, zor berriak bereganatzea, dibidenduak, derrama aktiboak eta itzulkinak banatzea, aseguru berriak kontratatzea edo bazkide berriak onartzea debekatzea, horiek ikuskapenaren pean dauden finantza-erakundeak direnean salbu.

2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, bere kontura eta entitatearen kargura, erregistro publikoei egin beharreko jakinarazpenak egingo ditu, hartutako kontrol bereziko neurrien eraginez.

161. artikulua. *Kontrol bereziko neurri gehigarriak.*

Nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarrien defizita ehuneko hogeitau baina handiagoa balitz, urritasunak nahitaezko gutxieneko kapitalari eta 159.1

artikuluko c) letratik h) letrara deskribatutako gainerako egoerei eragiten dienean, eta aseguratuen interesak babesteko helburuarekin, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak honako neurri hauek hartu ahal izango ditu, banaka nahiz beste batzuekin batera:

- a) Ondasunak xedatu daitezela debekatzea.
- b) 160.1.d) artikuluan zerrendatutako ekintzak debekatzea.
- c) Aseguru berrien kontratazioa edo berraseguruen onespina etetea.
- d) Aseguru-entitateek arlo batean edo guztietan egindako aseguru-kontratuak luzatu daitezela debekatzea. Ondorio horietarako, aseguru-entitateak idatziz jakinarazi beharko die aseguratuei kontratua luzatzeko debekua, kontrol bereziko neurri horren jakinarazpena jaso eta hamabost egun naturaleko epean; kasu horretan, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 22. artikuluko bigarren lerrokadan aurreikusitako epea hamabost egun naturaletara murriztuko da. Aseguratuei egin beharreko idatzizko jakinarazpen horretaz gain, neurri hori hartzeko ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- e) Aseguru- edo berraseguru-jarduera atzerrian gauzatzeko aukera debekatzea.
- f) Aseguru- edo berraseguru-entitateari antolakuntza eta finantza arloko neurriak edo egokitzen jotzen dituen bestelako neurriak proposatu ditzala, bere emaitzen aurreikuspena egin eta hura gauzatzeko epeak finkatu ditzala eskatzea, eskakizun hori eragin duen egoera gainditzeko helburuarekin. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak neurri horiek guztiak onartu beharko ditu.
- g) Kontseilari delegatuari edo administrazioko antzeko kargu bati gainerako administrazio-organo guztiei eta filialetako administrazio-organoei hartutako administrazio-ebazpena jakinarazi diezaiela agintzea, eta hala badagokio, baita Aseguruen Ikuskapen Akta ere.
- h) Aseguru- edo berraseguru-entitatearen batzar orokorra edo administrazio-organoak deitzea, eta bileraren buru izango den eta egoeraren berri emango duen pertsona izendatzea.
- i) Behin-behinean, entitateko administrazio-organoak ordeztea.
- j) Entitateko kontu-ikuskariaren edo beste kontu-ikuskari baten aldetik alderdi zehatzen berrikuspina egitea, horiei dagozkien independentzia-araubideari kalterik egin gabe eta kontu-ikuskaritzaren jarduera arautzen duen araudiari jarraikiz.

162. artikulua. *Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren lankidetzaren hartutako kontrol bereziko neurriak gauzatzeko orduan.*

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren lankidetzaren eskatu ahal izango du, hartutako kontrol bereziko neurriak dagokienez, hark erregelamendu bidez zehazten diren funtzioak bete ditzan.

163. artikulua. *Aseguru-entitatearen esku-hartzea.*

1. 160. eta 161. artikuluetan aurreikusitako kontrol bereziko neurri osagarri gisa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru- edo berraseguru-entitateak esku hartu dezala adostu ahal izango du hura modu egokian betetzen dela bermatzeko.

2. Administrazioaren esku-hartzea adosten duen ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera hartzen diren aseguru- edo berraseguru-entitatearen organoen ekintzak eta akordioak ez dira baliagarriak izango eta ez dira gauzatu ahal izango izendatutako esku-hartzaileen berriazko onespenerik gabe, horiek arestian aipatutako kontrol bereziko neurriekin lotuta daudenean. Onspen horren beharrik ez dute izango esku hartutako entitateak ikuskapenaren administrazio-ekintzen aurka edo esku-hartzaileen jardura direla-eta gauzatzeko ekintzak edo jarritako errekurtsioak.

3. Izendatutako esku-hartzaileek ahalmena izango dute aseguru- edo berraseguru-entitatearen administrazio-organoak edo ahaldunek erabakia argitaratu aurretik emandako

botere edo eskuordetze guztiak baliogabetzeko. Neurri hori hartu ostean, esku-hartzaileek eskatuko dute botereak adierazita dauden dokumentuak itzultzeko, eta dagozkion erregistro publikoetan baliogabetzea inskribatzea sustatuko dute.

4. Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Aseguru-entitatearen Kontsultazioaren laguntza eskatu ahal izango du esku-hartzaileek esleitu zaizkien funtzioak bete ahal izan ditzaten.

164. artikulua. *Kontrol bereziko neurriak hartzeko prozedura.*

Kontrol bereziko neurriak administrazio-prozedura baten bitartez hartuko dira; hura ikuskapen bidezko gainbegiratze-prozeduraren arau- eta jarraikiz bideratuko da, erregelamendu bidez zehaztutako ezaugarriak kontuan hartuta.

165. artikulua. *Administrazio-organoen behin-behineko ordezkapena.*

Aseguru- edo berraseguru-entitatearen administrazio-organoen behin-behineko ordezkapena honako arau hauek erregulatuko dira:

1. Berehala exekutatu beharreko administrazio-ebazpenaren bidez, behin-behineko administratzaile gisa jardun behar duten pertsonak izendatuko dira, eta horiek denon artean edo modu solidarioan egin beharko duten adieraziko da.

Izendapena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatuko da; hala badagokio, gainerako estatu kideetan dauden ere gaineratuko dira, eta argitalpen horren bidez, hirugarrenen aurrean duen eraginkortasuna zehaztuko da. Behin-behineko administratzaileen ordezkapenerako ere baldintza eta ondorio berdinak bete beharko dira.

2. Behin-behineko administratzaileek 38. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

3. Gainera, behin-behineko administratzaileek esku-hartzaileen izaera izango dute, eta aseguru- edo berraseguru-entitatearen batzar orokorraren ekintza eta akordio- inguruko 163. artikuluan adierazitako eskumenak izango dituzte.

4. Aseguru- edo berraseguru-entitatearen urteko kontuak egin eta horiek onartu beharra eta horien gizarte-kudeaketa egin beharra eten egin ahal izango dira, gehienez ere urtebetez, ondorio horietarako zehaztutako legezko epea amaitzen denetik kontatzen hasita, betiere Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, behin-behineko administratzaileek eskatuta, horretarako datu edo dokumentu fidagarriak eta osorik ez dagoela uste badu. Kasu horretan, akziodun edo mutualisten horiek onartzeko batzar orokorrak ere eten egin ahal izango dira.

5. Aseguru- eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak entitatearen administrazio-organoen behin-behineko ordezkapen-neurria etetea erabakitzen duenean, behin-behineko administratzaileek aseguru- edo berraseguru-entitatearen batzar orokorra deituko dute berehala; bertan, administrazio-organo berria izendatuko da. Organo berri horrek jabetza hartu arte, behin-behineko administratzaileek beren funtzioak betetzen jarraituko dute.

6. Behin-behineko administratzaileek estatu kide guztien lurraldean garatu ahal izango dute beren jarduketara, eta horietan, Espainian gauzatzen dituzten funtzio eta ahalmen berdinak gauzatu ahal izango dituzte. Ondorio horietarako, administratzailearen baldintza egiaztatuzko, haren izendapena jasotzen duen ebazpenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ordezkapen-ahalmenak eman edo laguntza eskatu ahal izango dute, beste estatu kide batzuetako lurraldean neurriak gauzatzeko beharrezkoa denean, eta batez ere, bertan bizi diren hartzekodunak aurkitzeko zailtasunak ebazteko beharrezkoa denean.

Lagundu edo ordeztu duten pertsonen ohorea aitortu eta kualifikazio edo esperientzia profesionaleko beharrezko baldintzak bete beharko dituzte beren funtzioak bete ahal izateko, betiere 38. artikuluko terminoei jarraikiz.

166. artikulua. *Kontrol bereziko neurriek beste estatu kide batzuetan dituzten ondorioak.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru-entitate bati dagokionez 160.1.a), b), c) eta d), 161.d), e), f) eta i) eta 163. artikuluetan jasotzen den neurriren bat hartzen duenean, hark estatu kide guztietan izango ditu ondorioak, legedian aurreikusitakoari jarraikiz. Ondorio horietarako, eta hurrengo zenbakian aurreikusitakoari kalterik egin gabe, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak behar bezala jakinaraziko die gainerako estatu kideetako ikuskapen-agintariei neurria hartzeko erabili den akordioa eta hark hamar eguneko epean izango dituen ondorioak, hura onartzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Gainera, kokatzeko eskubidearen edo zerbitzuak emateko askatasunaren araubidean oinarrituz beste estatu kide batzuetan jarduten duen Espainiako aseguru-entitate baten ondasunak izatea debekatzen duen kontrol bereziko neurria hartzen bada, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak zera eskatuko die kasuan kasuko agintari ikuskatzaileei, bere lurraldean kokatuta dauden ondasunei dagokienez Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hartu dituen neurri berak har ditzatela.

Neurri horiek lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

167. artikulua. *Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru-entitateei dagokienez hartutako neurriak.*

1. Estatu kide horretako ikuskapen-agintaritzak beste estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate bati dagokionez debeku horren kontrol bereziko neurria hartzen badu eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari Espainiako lurraldean kokatuta dauden entitateko ondasunei neurri bera aplikatzeko eskatzen bazaio –haren xede izango direnak adierazi beharko dira–, Zuzendaritza Nagusiak neurri hori ezarriko du.

2. Beste estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate bati dagokionez –Espainiako edo beste estatu kide batzuetako sukurtsalak barne– saneamendu-neurriren bat edo likidazio-prozedura bat hartu bada, neurri edo prozedura horrek Espainian ondorioak izango ditu, neurria hartu edo prozedura abiarazi den estatu kidean ondorioak eragiten dituen momentutik aurrera.

3. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari neurria hartu edo prozedura abiarazi dela jakinarazi ostean, hark Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko du neurriak edo prozedurak eragindako akordioaren edo ebazpenaren laburpen bat; bertan, neurria edo prozedura hartu duen estatu kideko agintaritza eskuduna adieraziko da, baita legedia aplikagarria eta, hala badagokio, izendatutako likidatzailearen edo likidatzaileen izendapena ere.

4. Beste estatu kide bateko agintaritza eskudunak izendatutako behin-behineko administratzaileek eta likidatzaileek beren funtzioa bete ahal izango dute Espainian; ondorio horietarako, beren baldintza egiaztatzeko, horiek izendatzeko akordioaren legeztatutako kopia edo ebazpenaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, gaztelaniara itzulita.

5. Beste estatu batzuek hartutako neurriek eta prozedurek neurria hartu duen estatu kideko legedia bete beharko dute; dena den, jarraian aipatzen diren egoeretan beharagoko arau hauek aplikatu beharko dira, nazioarteko tratatuetan aurreikusi daitekeena salbuespen gisa hartuta:

a) Espainiako legediaren pean dauden lan-kontratuetako neurri eta prozedura horien ondorioak honako honek arautuko ditu.

b) Espainiako erregistro publiko batean inskribatu behar diren higiezin, ontzi edo aireontzien kasuan aseguru-entitateek bereganatzen dituzten eskubideak Espainiako legediak arautuko ditu.

c) 1. zenbakian zehaztutakoari kalterik egin gabe, hartutako saneamendu-neurriek edo abiarazitako likidazio-prozedurak ez du inolako eraginik izango hartzekodunek edo hirugarrenek aktibo material edo immaterialei dagokienez dituzten benetako eskubideetan

–higigarriak nahiz higiezinak, aktibo espezifikoak nahiz aktibo zehaztugabeen multzoak–, horiek aldaketaren xede direnean eta, neurri horiek hartu diren edo prozedura hori abiarazi den unean, Espainian kokatuta zeuden aseguru-entitateari dagozkionean; era berean, ez du eraginik izango kreditu bat kobratzeko berariazko eskubidearengan, bereziki, kreditua xedetzat duen prenda batek bermatutako eskubidea denean edo kreditu horrek berme gisa lagapena egiten duenean, berme horiek Espainiako legeak arautzen dituen.

d) Ondasun bat erosi duen aseguru-entitate bati dagokionez likidazio-prozedura bat abiarazten denean edo saneamendu-neurriak hartzen direnean, horrek ez du eraginik izango domeinu-erreserban oinarritutako saltzailearen eskubideengan, neurria hartu den edo prozedura abiarazi den unean, ondasun hori Espainiako lurraldean badago.

Ondasuna saltzen duen aseguru-entitate bati dagokion likidazio-prozedura abiarazi denean edo saneamendu-neurriak hartu direnean –hura entregatu ostean– ez da salmenta desegin edo ebatziko, eta erosleak saldutako ondasunaren jabetza bereganatu ahal izango du, prozedura abiarazi den edo neurriak hartu diren momentuan, hura Espainiako lurraldean badago.

e) Saneamendu-neurriak hartu edo likidazio-prozedura bat abiarazten denean ez da hartzekodunak bere kreditua aseguru-entitatearen kredituarekin konpentsatu dadila eskatzeko duen eskubidea kaltetuko, likidazioa arautzen duen Legeak konpentsazio hori ahalbidetzen duenean.

f) Likidazio-prozedura batek edo saneamendu-neurri batek Espainiako merkatu arautu batean parte hartzen dutenen eskubide eta betebeharretan eragiten dituen ondorioak Espainiako legeak arautuko ditu.

g) Hartzekodun guztientzat kaltegarriak diren egintza juridikoen deuseztasuna, deuseztatzea edo aurkajarezintasuna jatorrizko estatu kidearen legedia bidez arautuko da, hartzekodunentzat kaltegarria den egintzaren onuradun izan den pertsonak egintza hori Espainiako legediari atxikita dagoela eta legedia horrek haren aurkaratzea ahalbidetzen ez duela frogatzen duenean salbu.

h) Espainiako erregistro publiko batean inskribatuta egon behar duen eta Espainian kokatuta dagoen higiezin baten, ontzi baten edo aireontzi baten likidazio-prozedura abiarazi edo saneamendu-neurri bat hartu ostean egindako aseguru-entitatearen kostu bidezko transmisioaren, negoziatu daitezkeen balioen edo erregistro batean edo Espainiako legedian aurreikusitako kontu batean edo Espainiako legediak araututako gordailu-sistema zentral batean inskribatu behar diren gainerako transferentzien balioa Espainiako legediak arautuko du.

i) Aseguru-entitateari kendu zaion ondasun bati edo eskubide bati dagokionez, Espainian egin den kausa batean likidazio-prozedurak edo saneamendu-neurriak eragindako ondorioak Espainiako legedia bidez arautuko dira.

168. artikulua. *Konkurtsu-prozedurak.*

1. Kontrol bereziko neurrien prozedura bati atxikitako aseguru-entitateek ezin izango dute konkurtsu-aitorpenik judizialki eskatu edo Konkurtsuari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 5. bis artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatu ahal izango.

2. Konkurtsu-eskaera egiten bada, haren aitortpena egin aurretik, epaileak entitatearen egoerari eta hartutako neurriei buruzko txostena eskatuko dio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari edo, hala badagokio, autonomia-erkidego eskuduneko erakunde ikuskatzaileari. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunak entitateak kontrol bereziko neurriren bat bete behar duela jakinarazten badu, hark ez du onartuko konkurtsu-eskaera edo konkurtsu-bitartekariaren eskaera.

3. Aseguru-entitate bat konkurtsu-egoeran dagoela aitortzean, epaileak ebazpenaren berri eman beharko dio, berehala, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunari. Lurralde nazional osoan jarduteko baimena duten entitateen kasuan, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak prozeduraren eta haren ondorioen berri emango die, hurrengo hamar egunetan, gainerako estatu kideetako

agintari ikuskatzaileei. Era berean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ebazpen horren laburpen bat argitaratuko du Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, eta bertan, eskumena duen organo jurisdikzionala eta Espainiako legediko prozeduraren aplikazioa adieraziko dira.

4. Aseguru-entitate bat konkurtso-egoeran dagoela aitortzeak ez du esan nahi kontrol bereziko neurriak hartu edo aldatu behar ez direnik, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunak 169. artikulutik 174. artikulura aurreikusitako baliogabetze eta desegiteko eskumen guztiak mantenduko ditu. Konkurtso-egoeran dagoen entitate bat desegiteko akordioak likidazio-fasea irekitzen dela esan nahi du, eta hori legedia konkurtsalaren arabera arautuko da.

Aipatutako neurri horiek hartzean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunak berehala jakinarazi beharko dio konkurtsoaren epaileari.

Hitzarmen-proposamena jaso eta hura konkurtso-administrazioa igorri aurretik, epaileak txostena eskatuko dio Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunari; hala, hark aseguru-jardueraren jarraitutasunari buruzko bideragarritasunaren inguruko bere iritzia emango du, baita legez eskatzen diren aseguru-entitatearen kaudimen- eta betetze-bermeei dagokienez ere.

Txosten hori jaso edo emandako epea igaro ostean, epaileak dagokion jakinarazpena egingo dio konkurtso-administrazioari, baita hitzarmen-proposamena ere, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 107. eta 115. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako.

Horiek izateko debekuaren neurri atxikitako aktiboak besterendu ahal izateko, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunaren berariazko baimena jaso beharko da, zernahi delarik besterentzea gertatu den konkurtso-prozeduraren fasea.

5. Egoitza beste estatu kide batean duten hartzekodun ezagunen kasuan, hartzekodun horiek beren kredituen aitortpena eskatzeko moduari buruzko informazioa jaso beharko dute, eta erregelamendu bidez zehazten den moduan aurkeztu ahal izango dituzte ohartarazpen edo kredituen erreklamazioari dagozkion idazkiak.

6. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko erakunde ikuskatzaile eskudunak aseguru-entitateei eragiten dieten konkurtso-prozedura guztietan parte hartuko du.

VII TITULUA

Baliogabetzea, desegitea eta likidatzea

I. KAPITULUA

Administrazioen baimena ezeztatzea

169. artikulua. *Baliogabetu izanaren arrazoiak eta ondorioak.*

1. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagokio aseguru- eta berraseguru-entitateei emandako administrazio-baimena baliogabetzea, betiere 19.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Aseguru-entitate baten administrazio-baimena partzialki baliogabetu ahal izango da hark arlo bati edo gehiagori eragiten dienean; guztiz ere baliogabetu ahal izango da, entitateak baimena duen arlo guztiei eragiten dienean.

Berraseguru-entitate baten administrazio-baimena ere partziala –birtza-berraseguruaren jarduerari edo beste berraseguru-jarduera bati eragiten dienean– edo totala –bi jarduera horietara hedatzen denean– izan daiteke.

3. Arlo baten edo gehiagoren edo jarduera baten baimena honako kasu hauetan baliogabetu ahal izango da:

- a) Entitateak hari berariaz uko egiten dionean.
- b) Urtebeteko epean jarduera abiarazi ez duenean edo jarduera sei hilabetetik gorako aldi batez utzi duenean. Jarduerarik eza aseguru-entitatearen arloko edo arloetako jarduerarik eza izango da, erregelamendu bidez zehaztutako moduan. Berraseguru-entitateentzat, jarduera ez abiarazteak edo jarduera eteteak eragindako jarduerarik eza bizitza-berraseguru edo bizitza-asegurua ez den beste berraseguru bateko jarduerarik ezaren baliokide izango da.
- c) Aseguru-entitateari dagokion aseguru-zorroaren erabateko lagapena arlo batean edo gehiagotan gertatzen denean, edo berraseguru-entitateari dagokion aseguru-zorroaren erabateko lagapena jarduera batean gertatzen denean.

4. Administrazio-baimena honako kasu hauetan baliogabetuko da:

- a) 3. zenbakian adierazitako kasuetan, aseguru-entitatea baimenduta dagoen arlo guztietan edo berraseguru-entitatearen jarduera osoan eragiten dutenean.
- b) Entitateak lege honetan zehazten diren administrazio-baimena emateko baldintzaren bat betetzeari uzten dionean edo baimena aitorten faltsu edo ez zehatzei esker lortu duenean.
- c) Entitateak nahitaezko gutxieneko kapital-eskakizunak betetzen ez dituztenean eta aurkeztutako finantziario-plana egokia ez denean, edo nahitaezko gutxieneko kapitalari dagokionez, nahikotasunik eza hauteman den unetik eta hiru hilabeteko epean onartu den plana aplikatu ez duenean edo hura betetzerik izan ez duenean.
- d) Hura desegitea erabaki denean.
- e) Entitateari baimena baliogabetzeko administrazio-zehapena jarri zaionean.
- f) Partaidetza esanguratsua duten titularrek aseguru- edo berraseguru-entitatearen kudeaketa osasuntsua eta zuhurra kaltetu dezakeen moduan eragiten dutela egiaztatzen denean, horien finantza-egoera modu larrian kaltetzen denean edo horiek egokiak izateari uzten diotenean.

5. Gobernuak guztiz baliogabetu ahal izango du atzerrian partaidetza esanguratsua duten Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateei emandako baimena, elkarrekikotasun-printzipioa aplikatuz edo interes nazionalako ezohiko egoerek hala egitea gomendatzen dutenean. Baliogabetze-arrazoi hori ez zaie inola ere aplikagarria izango atzerriko partaidetza esanguratsua hori Europar Batasuneko herrialdeetatik datorren Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen kasuan.

6. Aurreko 3.b) edo 4. zenbakiko b) eta c) letretan aurreikusitako baliogabetze-arrazoiaren bat gertatzen denean, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, administrazio-baimena baliogabetu aurretik, gehienez ere sei hilabeteko epea eman ahal izango du eskaera egin duen entitateak kasuan kasuko egoera konpontzeko aukera izan dezan.

7. Administrazio-baimena baliogabetzeko ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi behar da; epe hori eten egingo da entitateari baliogabetze-arrazoiak gainditzeko denbora ematen zaion denbora-tartean zehar.

8. Administrazio-baimena baliogabetzen bada, entitateari aseguru- edo berraseguru-kontratu berriak sinatzeko debekua ezarriko zaio berehala; era berean, ezin izango du baliogabetzeak eragindako arloetako aseguru-eragiketen likidaziorik egin, titulu honetako II. kapituluko 2. zenbakian xedatutakoari jarraikiz.

Baimena guztiz baliogabetuz gero, aseguru- edo berraseguru-entitatearen administrazio arloko desegitea gauzatuko da; ez da 173. eta 174.1 artikuluetan xedatutakoa bete beharrik izango, 172.1 eta 2 artikuluetan aipatzen diren kasuetan salbu.

9. Lurralde nazional osoan jarduteko baimena duen aseguru- edo berraseguru-entitate baten baimena baliogabetzen bada, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak haren berri emango die gainerako estatu kideetako ikuskapen-agintariei, horiek dagozkien neurriak hartu eta aseguru- edo berraseguru-entitateak lurralde horretan eragiketa berriak abiarazi ez ditzan.

Horrez gain, eta aipatutako agintarien laguntzarekin, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egokitzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu aseguratuen interesak babesteko, eta bereziki, aseguru-entitatearen aktiboen xedapen askea debekatu ahal izango du.

10. Lurralde nazionalean jarduteko baimena duen aseguru- edo berraseguru-entitate baten baimena baliogabetzen denean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari haren berri emango zaio, agintaritza horrek 20.6 artikuluan aipatzen den aseguru-entitate baimenduen zerrenda publikoa eguneratuta mantendu dezan.

Era berean, baliogabetze hori hartzeko ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

170. artikulua. *Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru-entitateei administrazio-agintaritza baliogabetzea.*

Beste estatu kide batean helbideratuta dagoen eta Espainian zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen arabera jarduten duen aseguru-entitate baten ikuskapen-agintaritzak administrazio-baimena baliogabetzen duenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bi araubide horiei atxikita dauden aseguru berriak kontratatzeke debekua ezarriko dio kasuan kasuko aseguru-entitateari.

Kasu horretan, eta aseguratuen interesak babesteko helburuarekin, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 160. eta 161. artikuluetan araututako kontrol bereziko neurriak hartu ahal izango ditu, arestian aipatutako agintaritzarekin lankidetzan.

171. artikulua. *Hirugarren herrialdeetan helbideratuta dauden entitateen sukurtsalen administrazio-baimena baliogabetzea.*

1. Europar Batasuneko kidea ez den herrialde batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate baten sukurtsalari emandako administrazio-baimena baliogabetu egin ahal izango da, 169. artikuluko 3 eta 4. zenbakietan zerrendatutako arrazoiez gain, sukurtsal horretan desegiteko arrazoia ematen duten bestelako egoerak gertatzen direnean. Gainera, Gobernuak sukurtsal horien baimena baliogabetu ahal izango du interes nazionaleko ezohiko egoerek hala egitea gomendatzen dutenean.

Europar Batasuneko kidea ez den herrialde batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate batek Espainian eta beste estatu kide batzuetan sukurtsalak dituenean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak haren berri emango die eragindako gainerako ikuskapen-agintariei, eta jarduketak horiekin koordinatuko ditu.

2. Aseguratu, onuradun, kaltetu edo beste aseguru-entitate batzuen interesak babestu beharra –lege honen bidez eskatzen da, aseguru-entitate baten likidazioko esku-hartzea adosteko– Europar Batasuneko estatu kideak ez diren beste estatu batzuetan helbideratutako entitate atzerritarren sukurtsalei eragiten dieten likidazioan gauzatuko da, haren egoitza zentralak desegin egin direnean.

II. KAPITULUA

Aseguru- eta berraseguru-entitateak desegin eta likidatzea

1. atala. Desegitea

172. artikulua. *Desegiteko arrazoiak.*

Aseguru- eta berraseguru-entitateak desegiteko arrazoiak izango dira:

1. Entitateak jarduten duen jarduera edo arlo guztiei eragiten dien administrazio-baimena baliogabetzea. Dena den, baliogabetze hori ez da entitatea desegiteko arrazoia izango entitateak berak administrazio-baimenari uko egiten dionean eta uko hori helburu sozialaren aldaketak eragin duenean, 3.1 artikuluan zerrendatzen ez den beste jarduera bat garatu nahi duenean.

2. Aseguru-kontratuen aseguru-zorroaren erabateko lagapena, entitateak jarduten duen arlo guztiei eragiten dienean. Dena den, aseguru-zorroaren edo jardueraren lagapen horiek ez dira entitatea desegiteko kausa izango, lagapenaren eskritura publikoan, lagatzaileak bere xede soziala aldatu duela adierazten badu 3.1 artikuluan zerrendatzen ez den beste jarduera bat garatzeko helburuarekin, baita aseguru-jarduera ez den beste jarduera bat garatzeko helburuarekin kapital-sozietate bihurtu diren gizarte-aurreikuspeneko aseguru-mutua eta mutualitateen kasuan ere.

3. Aseguru-mutuen, aseguru-kooperatiben eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen kasuan, bazkide-kopurua erregelamendu bidez zehaztutakoa baino txikiagoa izatea.

4. Derrama pasiborik ez egitea.

5. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 363. artikuluan zerrendatutako desegite-arrazoiak daudenean, honako hauek kontuan hartuta:

a) Aseguru-mutuen eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen kasuan, arau horretan egiten diren kapital sozialaren inguruko erreferentziak mutua-funtsari ere egiten zaizkiola ulertuko da.

b) Merkataritza Kodearen 36.1.c) artikuluan zehaztutakoa hartuko da ondare garbi gisa.

6. Aseguru-kooperatiben kasuan, horien legedia zehatzean jasotzen diren desegite-arrazoiak.

173. artikulua. *Desegiteko hitzarmena.*

1. Estatuetan finkatutako terminoa betetzen den kasuan salbu, entitatea desegiteko ezinbestekoa izango da batzar orokorraren adostasuna. Ondorio horietarako, administratzaileek batzar orokorra deitu beharko dute hura bi hilabeteko epean egin dadin, entitatea desegiteko arrazoiak gertatu denetik kontatzen hasita. Edozein bazkidek hura egin dadila eskatu ahal izango die administratzaileei, bere ustez, entitatea desegiteko arrazoiak daudenean.

2. Desegiteko hitzarmenean behar bezala gehitu beharko da inbertsioen erregistroko hornidura teknikoari esleitutako aktiboak ordezkatzeko dituzten eta aseguru-entitatearen nahitaezko kapital-eskakizunei erantzuten dieten ondasun eta eskubideen zerranda.

174. artikulua. *Administrazioa desegitea.*

1. Desegiteko arrazoi legalak badaude eta batzar orokorra deitzen ez bada, edo deituta ere egiten ez bada, hitzarmenik lortzen ez bada edo hura entitatea desegitearen aurkakoa bada, administratzaileek entitatearen administrazioa desegin dadila eskatu beharko dute hamar egun naturaleko epean, 173. artikuluari jarraikiz, batzarra deitu beharko litzatekeen egunetik kontatzen hasita, haren deialdia egin ez den kasuan; edo hura egiteko aurreikusi den egunetik kontatzen hasita, hura osatu ez denean; edo batzarra egin den egunetik kontatzen hasita, entitatea desegiteko hitzarmena lortu ez bada edo hura entitatea desegitearen aurkakoa izan bada.

2. Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak entitatea desegiteko arrazoiaren bat gertatu dela jakiten badu, eta organo sozialek aurreko zenbakian jasotakoa betetzen ez dutela jakiten badu, entitatearen administrazioa desegin egingo da.

2. atala. *Likidazioa*

175. artikulua. *Likidazio-arau orokorrak.*

1. Sozietate anonimo, aseguru-mutua edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen forma duten Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen likidazioa lege honetan eta hura garatzen duen araudian jasotzen denaren arabera arautuko da, eta horietan xedatzen ez den kasuetan, kapital-sozietateei aplikatu beharreko arauen arabera.

Aseguru-kooperatiben likidazioa kooperatiben legedia aplikagarrian xedatutakoaren arabera arautuko da lege honetan eta hura garatzen duen araudian xedatzen ez den guztietan.

2. Likidazioak kapital-sozietateetako bazkideek dituzten eskubide berberak bermatuko dizkiete mutualista eta kooperatibistei, eta bereziki, likidaziotik eratorritako ondarean parte hartzeko eskubidea eta informazioa izateko eskubidea.

3. Likidazio-aldian zehar ezin izango dira 3.1 artikuluan definitutako eragiketak gauzatu, baina entitatea desegitean indarrean ziren aseguru-kontratuak beren eraginkortasuna mantenduko dute abian den aseguru-aldia amaitu arte; momentu horretan, luzatzeko aukerarik gabe iraungiko dira, behar baino lehenago iraungitzearen aitopenei kalterik egin gabe.

4. Espainiako entitate bat desegiten denean, haren sukurtsal guztiak ere desegin egingo dira.

Kokatzeo eskubideari eta zerbitzuak modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideari jarraikiz egindako kontratuetatik eratorritako betebeharrak likidatzen ari den entitatearen gainerako aseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharren trataera bera izango dute, hartzekodunek aseguru-kontratu bidez duten nazionalitatea dena dela.

Espainiako berraseguru-entitate bat likidatzen denean, kokatzeko eskubideari eta zerbitzuak modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideari jarraikiz egindako berraseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharrak likidatzen ari den entitatearen gainerako berraseguru-kontratuetatik eratorritako betebeharren trataera bera izango dute.

176. artikulua. *Espainiako entitateen likidazioak beste estatu kide batzuetan eragindako ondorioak.*

1. Likidazioa eragin duen administrazioaren ebazpena edo hitzarmena gainerako estatu kideen lurraldean ere aitortuko da, haren legedian aurreikusitakoari jarraikiz, eta horietan ere izango du eragina, Espainian ondorioak eragin bezain laster.

Ondorio horietarako, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak prozeduraren eta hark eragindako ondorioen berri emango die gainerako estatu kideetako ikuskapen-agintariei, ebazpena eman edo hitzarmenaren berri izan eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamar eguneko epean.

Era berean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ebazpen edo hitzarmen horren laburpen bat argitaratuko du. Bertan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak prozedurari dagokionez duen eskumena adieraziko da, baita likidazio-prozedura horri aplikatu beharreko legedia lege honetan eta hura garatzen duten arauetan jasotakoa izango dela, eta izendatutako likidatzailearen edo likidatzaileen identifikazioa ere.

2. Likidatzaileek estatu kide guztien lurraldean garatu ahal izango dute beren jarduketa, eta Espainian gauzatzen dituzten funtzio eta ahalmen guztiak gauzatu ahal izango dituzte horietan. Ondorio horietarako, likidatzailearen baldintza egiaztatzeo, haren izendapena jasotzen duen ebazpenaren ziurtagiria edo hitzarmenaren legeko kopia bat aurkeztu beharko da.

Era berean, ordezte-ahalmenak eman edo laguntza eskatu ahal izango dute, beste estatu kide batzuetako lurraldean likidazio-prozesua gauzatzeko, eta batez ere, bertan bizi diren hartzekodunek izan ditzaketen zailtasunak ebazteko beharrezkoa denean.

Hari lagundu edo hura ordezten duten pertsonak ohorea aitortu eta beharrezko kualifikazio edo esperientzia profesionala dutela frogatu beharko dute beren funtzioak likidatzaileek bezala gauzatu ahal izateko.

177. artikulua. *Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden eta Espainian zerbitzuak kokatzeari eta modu askean eskaintzeari buruzko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten aseguru-entitateen likidazioak Espainian eragiten dituen ondorioak.*

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak agintaritzaren horien ikuskapenaren pean dauden eta Espainian kokatzeko eskubideari edo zerbitzuak emateko

askatasunaren araubideari jarraikiz jarduten duten entitateei dagokienez egiten diren likidazio-prozeduren garapenari eta egoerari buruzko informazioa eskatu ahal izango diete beste estatu kide batzuetako ikuskapen-agintariei; era berean, publizitatea egingo dio hari.

Aseguru- edo berraseguru-entitate baten likidazio-prozedura abiarazteari buruzko erabaki oro –beste estatu kide batzuetan dituzten sukurtsalei dagozkienak barne– izapide gehiago egin beharrik gabe onartuko da eta Espainian prozedura abiarazi den estatu kidean eragina duen egun beretik aurrera izango da eraginkorra; erabaki hori jatorrizko estatu kideko legediari jarraikiz hartu beharko da eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokion jakinarazpena egin beharko zaio.

178. artikulua. *Likidazioa ikuskatzea.*

1. Likidazio-egoeran dauden entitateek ikuskapenaren xede izan beharko dute administrazio-erregistroan inskribapena baliogabetu arte.

2. Likidazioak ez dio eragingo funtzio ikuskatzailea gauzatzean hartu diren neurrien indarraldiari, eta gainera, honako hauek hartu ahal izango dira:

a) Likidazioaren esku hartzea; likidatzaileen jarduketak kontuan hartu beharko dira, artikulua honetan, 163. artikuluan eta hura garatzeko erregelamendu-xedapenetan zehaztutako moduan.

b) Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioari likidazioa agindu, likidatzaileen izendapena edo bereizketa eskatu ahal izango zaio, urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren Estatutu legalaren 14. artikuluan zehaztutako egoeretan.

c) Ofizios edo likidatzaileek hala eskatuta, entitatearen aseguru-kontratuak aseguru-zorroa lagatzea, likidazioa errazteko helburuarekin.

d) Likidazio-egoeran dagoen entitatearen aseguru-zorroa osatzen duten aseguru-kontratuen iraupen-epearen alde aurretiko iraungipen-data zehaztea, hartzekodunei aseguru-kontratu bidezko kalterik ez eragiteko. Ebazpen horrek eragindako kontratuak prestazioen oreka ekonomikoa errespetatuko du eta beharrezko publizitatea izan beharko du, ondorioak izan baino hamabost egun natural lehenago eta iraungipen-data atzeratzea gomendatzen duten ezohiko egoerak gertatzen ez diren kasuetan; era berean, likidatzaileek erregelamendu bidez zehaztutako informazioa eman beharra bete beharko dute.

e) Likidatzaileei likidazioaren egoerari buruzko informazioa eskatzea.

179. artikulua. *Aseguru-kontratu bidezko kredituen babesa.*

1. Likidazio-prozesuetan, aseguru-kontratu bidezko kreditu gisa hartuko dira honako hauek:

a) Aseguru-kontratuen onuradun, aseguratu eta hartzaileen kredituak, baita Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 73. artikuluan aipatzen diren hirugarren kaltetuen kredituak ere. Haren barne sartzen dira ezbeharra jasan duen ondasuna konpondu edo birjartzeko prestaziotik edo laguntzatik eratorritako kredituak, edo aseguru-kontratuan aseguru-entitateari eskatzen zaion espeziatutako prestazioa.

b) Aseguru-entitateekin administrazio-baimenik gabe egindako eragiketentzako 24. artikuluan xedatzen denak eragindako kontratuak egin dituztenen kredituak, edo aseguru berrien kontratazioa eteteko edo berrasegurua onartu eta egindako aseguru-kontratuen luzapena debekatzeko kontrol bereziko neurriak bete gabe egindakoak; horiek 161. artikuluko c) eta d) letretan aurreikusten dira.

c) Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak kitatutako kredituak, urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako erantzukizun zibilari eta motordun ibilgailuen zirkulazio aseguruari buruzko Legearen testu bateginaren 11.e) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

2. Aseguru-kontratu bidezko kredituak pribilegio berezia duten kreditu gisa hartuko dira ondasun eta eskubide hauei dagokienez:

a) Likidazio ondorioetarako aktiboen erregistro berezian hornidura teknikoetarako izendatutako aktiboak eta aseguru-entitatearen nahitaezko kapital-eskakizunei esleitutako aktiboak. Hala hartuko dira, halaber, araudi aplikagarria ez bete arren, erregistroan behar bezala esleituta agertzen ez diren aseguru-entitateko mota horretako aktiboak.

b) Horiek izateko debekuaren kontrol bereziko neurria hartu den ondasunak, neurri hori erregistro-inskribapenaren xede ez izan arren.

3. Likidazioa egiteko, entitateek araudi aplikagarrian aurreikusitakoarekin bat etorritu eta kalkulaturako hornidura teknikoak irudikatzen dituzten aktiboen erregistro berezi bat mantenduko dute eguneratuta. Erregelamendu bidez, aktiboen erregistro berezi horren baldintzak arautuko dira.

4. Aseguru-kontratu bidezko kredituak eragindako ondasun eta eskubideen kargura ordainduko dira, eta horiek proratan kitatuko dira, beste edozein kredituren aurretik.

2. zenbakian aipatzen den lehentasun hori ez duten aseguru-entitatearen aurkako kredituei dagokienez, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legeak ezarritako lehentasun-sistema aplikatuko da.

180. artikulua. *Likidatzaileen araubide juridikoa.*

1. Likidatzaileen ohorea, kualifikazioa eta esperientzia profesionala 38. artikuluan aurreikusitako irizpideen arabera izango dira, administratzaileen kasuan.

2. Likidatzaileek aseguru-entitate bateko administratzaileek bete behar duten administrazioaren erantzukizun-araubide bera bete beharko dute.

181. artikulua. *Likidazio-prozesua.*

1. Likidatzaileek, administratzaileek bezala, inbentario bat sinatu beharko dute, bai eta desegin den unean bazkideak edo mutualistak ziren pertsonen zerrenda eta entitatearen balantzea ere, eta, izendatuak direnetik hilabete bateko epean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren onspena jaso beharko dute, edo likidazioan esku hartu den kasuan, esku-hartzailearena.

2. Likidatzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak hartuko dituzte likidazioa ahalik eta epe laburrenean amaitzeko, eta entitatearen aseguru-kontratuetakoa aseguru-zorroa laga ahal izango dute modu partzalean edo globalean, betiere dagokion baimena lortu ostean; era berean, aseguru-kontratuen erreskatea edo ebazpena itundu ahal izango dute.

3. Higiezinak enkante publikorik gabe besterendu ahal izango dira likidazioan esku hartzen denean edo, Espainiako Bankuaren Erregistroan inskribaturako eta baimendutako tasazio-sozietateek ondorio horietarako tasatu dituztenean, besterentze-prezioa tasazioarena baino txikiagoa ez denean. Dena den, Aseguruen eta Pentsio Fondon Zuzendaritza Nagusiaren alde aurretiko baimena jaso beharko da.

4. Aktibo bat egiteko balioa likidazioaren ondorioetarako aktiboen erregistro berezian balioetsitako balioa baino txikiagoa denean, likidatzaileek egoera hori frogatu beharko dute Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean.

5. Kreditu guztiak ordaindu ostean, likidatzaileek hartzeko geratu den likidazioa banatuko dute bazkideen artean edo, hala badagokio, mutualisten artean, betiere lege honetan aurreikusitako moduan. Aseguru-kooperatiben kasuan, hartzeko likidazioa kooperatiben legedia aplikagarriaren arabera banatuko da.

6. Likidazio-eragiketak amaitzean eta, hala badagokio, likidaziotik eratorritako ondarea banatu ostean, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak amaitutzat emango du likidazio-egoeran zegoen entitatea; hala, administrazio-erregistroko eserlekuak balio gabetzeari ekingo zaio, eta ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Administrazio-erregistroan balio gabetu ostean, eta entitatearen iraungipena aitortzen den kasuetan, Merkataritza Erregistroan eta Sozietate Kooperatiben Erregistroan ere balio gabetu egin beharko da, forma juridikoa hura denean.

Salbuespen gisa, administrazio-erregistro horretan entitatearen iraungipen-aitorpenik gabe baliogabetu ahal izango dira eserlekuak, eta momentu horretan, jarduera abiarazi ahal izango da aldatutako helburu sozialari jarraikiz, aseguru-zorroaren lagapen orokorra edo baimenaren baliogabetzea egiten denean; bi kasu horietan, entitatearen xede soziala aldatu beharko da hura desegin gabe, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aurretiaz egiaztatu beharko du aseguru-zorroaren lagapena gauzatu dela edo aseguru-eragiketak likidatu direla.

7. Likidazio-aldian, entitateak desegite-arrazoia enkaitzea aurkeztu ahal izango dio Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari; era berean, baliogabetutako administrazio-baimena birgaitu dezala eskatu ahal izango dio. Baimena entitateak funtzionamendu arruntan bete beharreko eskakizun guztiak betetzen baditu eta aseguratuena eta hartzekodunen eskubide guztiak bermatzen baditu bakarrik birgaitu ahal izango da, baita likidazio-aldian amaitutzat eman diren aseguru-kontratuei dagozkienak ere. Baliogabetutako administrazio-baimena birgaitzea erabakitzen bada, desegite-arrazoia guztiz baztertutaz joko da, Merkataritza Erregistroan egindako inskribapena baliogabetuko da, eta birgaitze-hitzarmenari xedapen horrek desegite-hitzarmenaren kasuan ezartzen duen publizitate bera egingo zaio.

182. artikulua. *Likidatzen ari diren berraseguru-entitateetan akzioei eragindako ondorioak.*

1. Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak bereganatutako edo esku hartutako likidazio-kasuetan, eta 160.1.c) artikuluko xedapenetako debekatze-neurria hartu den ondasunei dagokienez, erregistro publikoetan ezin izango da benetako berme-eskubiderik inskribatu edo agindu judizialik edo administrazio-premiamendurik inskribatu Estatuko Aldizkari Ofizialean desegiteari buruzko ministerio-agindua argitaratzen den egunetik, inskribapen edo ohartarazpen horiekin bermatu nahi ziren kredituen eraginkortasunari kalterik egin gabe.

Erregistroen arduradunek entitatea desegin dela eta aurreko lerrokadan aipatzen den egintzen erregistro-folioia itxi dela adierazi beharko dute orri-bazterreko ohar bidez. Baliogabetutako administrazio-baimena birgaitzea erabakitzen bada, orri-bazterreko ohar hori baliogabetu egingo da.

2. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak esku hartu duen likidazio-egoeretan, hartzekodunek likidazioa abiarazi aurretik edo bitartean gauzatutako ekintza indibidualek epai irmoa eman arte iraun ahal izango dute; dena den, horien exekuzioa eten egingo da eta, hala badagokio, epai horrek bere alde aitortutako kreditua gainerako hartzekodunenarekin batera likidatuko da. Dena den, epai irmoa egin eta urtebete igaro ostean, hura automatikoki etengo da, aitorpen edo ebazpenik egin beharrik izan gabe, likidazioaren egoera dena dela.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Espainiako lurraldetik kanpo kokatuta dauden ondasunen benetako eskubideak gauzatzean eragindako akzioei –kasu horietan legedia zehatza aplikatuko da–, ezta Espainiakoa ez den beste lege batek arautzen duen benetako berme-eskubidea gauzatzean eragindako akzioei ere.

3. atala. *Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren likidazioa*

183. artikulua. *Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren jarduketa aseguru- eta berraseguru-entitateak likidatzeko orduan.*

Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioak –aurrerantzean, Kontsortzioa– Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen likidatzaile-izaera hartuko du bere gain, zernahi duelarik forma edo izaera juridikoa, lege honetan eta urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioari buruzko Lege Estatutuko testu bateginean aurreikusitako egoeretan.

184. artikulua. *Funtsezko arau orokorrak.*

1. Kontsortzioak entitateko organo sozial guztiak ordezkatuko ditu, horien likidazioa agindu zaion kasuetan. Horrenbestez, ez da entitateko akziodun, mutualista edo kooperatibisten ohiko edo ezohiko batzarririk egingo.

Nolanahi ere, aseguru- edo berraseguru-entitateak Kontsortzioak likidazioa bereganatu aurretik Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren ikuskeraren egintzen aurka jarritako administrazio-errekurtso eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoek aurrera egin ahal izango dute administrazioaren bitartez, Kontsortzioaren likidazio-agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete bateko epean, hura administrazio-organoren edo organo jurisdikzionalaren aurrean agertzen bada.

2. Organo likidatzailea den heinean, Kontsortzioak, hartzekodunen ordezkari gisa eta horiek dituzten eskubideen defentsan, mota guztietako erantzukizunak eskatu ahal izango dizkiete, zibilak nahiz penalak, eta inolako fidantzarik eskatu beharrik izan gabe, likidazio-egoeran dagoen entitateko zuzendaritza- edo administrazio-karguak gauzatzen dituztenei.

Ekintza horien ondorioz, auzitegiek entitatearen alde kalte-ordainak edo bestelako konpentsazio ekonomikoak ezartzen badituzte, eta hala, haren likidazio-egoera amaitutzat ematen bada, Kontsortzioak, Hartzekodunen Batzarrak onartutako likidazio-planean hala adosten bada, lortutako zenbatekoa banatuko du beren kreditu guztiak berreskuratu ez dituzten hartzekodunen artean, arestian aipatutako likidazio-planean zehaztutako irizpideak oinarritzat hartuta; entitate kaudimendunen kasuan, entitateko bazkide edo mutualisten artean banatuko da zenbatekoa.

3. Kontsortzioa, haren organoak, ordezkariak edo ahaldunak ez dira, inola ere, likidazio-egoeran dagoen entitateari dagozkion erantzukizunen eta betebeharren erantzuleak edo zordunak izango, ezta administrazioaileak ere.

4. Esku hartu den likidazioetan, likidazioaren esku-hartzea eten egingo da hura Kontsortzioari agintzen zaion momentuan.

5. Likidazio-egoeran dagoen aseguru- edo berraseguru-entitateak nagusiki partaidetutako entitate filialak badaude, horien helburu soziala likidazio-egoeran dagoen entitatearen konturako aktiboen kudeaketa egitea denean, aseguru- edo berraseguru-entitatearen likidazioa Kontsortzioari agintzen zaionean, hura entitate filial horien likidatzaile gisa izendatu beharko da eta organo sozial guztiak ordezkatu beharko dira; izendapen horren inskribapena egiteko, Merkataritza Erregistroan kasuan kasuko administrazio-ebazpena egin beharko da, eta bertan, sozietate-taldearen likidazio bateratua jakinaraziko da.

Entitate filialen likidazioa Kapital Sozietateen Legearen testu bategineko arauei jarraikiz egingo da, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Filiala kaudimengabea bada, Kontsortzioak ez du konkurtsoa eskatu beharko, eta likidazio guztiak modu koordinatuan izapidetuko dira.

6. Aseguru- edo berraseguru-entitate baten likidazioa Kontsortzioari agintzen zaionean, haren egoitza soziala aldatu eta Kontsortzioak izendatutako egoitza ezarriko da, ondorio legal guztietarako. Likidazio-egoeran dagoen entitateak kontrolatutako entitate filialei ere eragingo die egoitza-aldaketak konturako aktiboak, haren helburu soziala likidazio-egoeran dagoen entitate horren konturako aktiboak kudeatzea denean.

Egoitza sozialaren aldaketa Merkataritza Erregistroan eta administrazio-erregistroetan inskribatzeko, hartutako erabakiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Kontsortzioko lehendakariak helarazi beharrekoa.

Egoitza-aldaketa eta haren ondorengo aldaketak merkataritza-legediak estatutuko aldaketetarako zehazten duen publikitatearen eta formaren bitartez jakinaraziko dira.

185. artikulua. *Prozedurako arau orokorrak.*

Kontsortzioaren likidazio-prozedurak honako berezitasun hauek izango ditu:

1. Likidazioa Kontsortzioari agindu ostean, hartzekodun guztiek haren likidazio-prozedura bete beharko dute, eta hartzekodunek eta aseguru-entitateak ezin izango dute konkurtso-aitorpenik eskatu; dena den, entitatea desegin aurretik edo likidazio-egoeran

zehar auzitegietan aseguru-entitate horren aurka jarritako mota guztietako ekintzek aurrera jarraituko dute, epaia edo ebazpen judizial irmoa lortu arte. Nolanahi ere, epaia, prebentziozko enbargoak, judizialki adostutako administrazioak eta agintaritzak judizialak hartutako kautelazko gainerako neurriak, prozedura exekutiboan betearazpena agintzen duen autoa, Espainiako lurraldean dauden ondasun hipotekatuen edo pignoratuen gaineko prozedura judizial sumario eta exekutibo estrajudizialak, eta premiamendu-probidentzia administratiboak eten egingo dira Kontsorzioari likidazioa agintzen zaionetik eta hark prozedura likidatzailea bideratzen duen bitartean.

2. Likidazioa Kontsorzioari agintzen zaion administrazio-ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, aseguru-entitateak ordaintzeko dituen zorrak amaitutzat emango dira, betebeharrean zehaztutako denbora igaro aurretik horien ordainketa egiaztatzen bada dagokion beherapenari kalterik egin gabe; era berean, aseguru-entitatearen zor guztiek interesak sortzeari utziko diote, hipoteka-kredituen eta kreditu pignoratizioen kasuan salbu, kasuan kasuko bermeak duen irismena aintzat hartuta.

3. Izendatu diren administrazioaileek edo likidatzaileek, hala badagokio, inbentarioa, bazkide eta mutualisten zerrenda, eta entitatearen balantzea helaraziko diote Kontsorzioari, hark likidazioa bereganatu duenetik hilabete bateko epean; Kontsorzioak ez dizkio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari edo esku-hartzaileari bidali beharko, eta ez ditu bete beharko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 383. eta 388. artikuluetan ezartzen diren betebeharrak.

Administrazioaile edo likidatzaileen aldetik beharrezko dokumentazioa eta informazioa jasotzen ez badu, Kontsorzioak entitateak dituen ondasunen inbentarioa, bazkide eta mutualisten zerrenda, eta likidazioa bereganatu zuen momentuko zorren zerrenda prestatuko ditu; horretarako, eskura dituen datuak eta aurrekariak erabiliko ditu, eta horiek oinarri gisa hartuko ditu legez eskatzen zaizkion kontabilitate eta zerga arloko betebeharrak betetzeko beharrezko dokumentazioa prestatzeko. Hark ez du inolako erantzukizunik izango dokumentazioan ez dauden edo aurkitutako aurrekariaren inguruko errore edo gabezien kasuan.

4. Hartzekodunei informazioa eman beharra betetzeko orduan, Kontsorzioak likidazioa bereganatu duela berariaz adieraziko da. Era berean, lan-kredituak daudela edo egon daitezkeela jakin bezain laster, hori Soldatak Bermatzeko Funtsari jakinaraziko zaio. Jakinarazpen horrek martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 33.3 artikuluan aipatzen diren ondorioak izango ditu.

5. Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ofizioz likidazio-egoeran dagoen entitate baten aseguru-zorroa lagatzea erabakitzen duenean, ez da aplikatuko lege honen garapen-erregelamenduan informazio publikoari eta aurka egiteko eskubideari dagokionez aurreikusten dena.

6. Likidazio-egoeran dagoen aseguru-entitatearen higiezinaren besterentzea enkante publikorik gabe egin ahal izango da, eta ez da Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren baimenik beharko, betiere aktibo horiek besterentzean behar diren gardentasun-arauak eta aurreikusitako ondasunen kautela-neurriak hautematen badira.

7. Lege honetan berariaz arautzen ez denari dagokionez, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bategineko likidazioari eta iraungitzeari buruzko arauak izango dira aplikagarriak, eta horien ordean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea.

186. artikulua. *Kredituak Aseguruaren Konpentsazio Kontsorzioaren bitartekoen kargura erostea.*

1. Bere jarduera likidatzaileari atxikitako Kontsorzioaren baliabideen kargura, eta hartzekodunek aseguru-kontratu bidez bereganatu dituzten eskubideak azkarrago bete daitezela lortzeko helburuarekin, 179. artikuluari jarraikiz, eta baldintza hori duten Administrazio Publikoak barne, Kontsorzioak hura bereganatu dadila eskaini ahal izango

du bere kredituak lagata; horiek geratu den likidoak duen proportzioan bereganatuko dira, honako arau hauek kontuan hartuta:

a) Aktibora gehituko dira aseguru-entitateak dituen ondasun, eskubide eta kreditu guztiak, baita, hala badagokio, interesak ere, baita horiek entitatearen ondarean mantentzeko edo berriz gehitzeko jarduketa judizialak edo estrajudizialak egin edo abiarazi behar badira ere. Entitatearen aldeko kredituak horien kontabilizatutako balioaren arabera zenbatuko dira; hala badagokio, hari interesak gehituko zaizkio, eta ondorio horietarako, ez dira kenduko zordunek izan dezaketen kaudimen-gabeziaren arabera egin beharreko balio-zuzenketak.

b) Inbertsio materialak eta finantzarioak honako bi hauen gaineko zenbatekoen arabera baloratuko dira: eskurapen-prezioa gehi horiengan egindako hobekuntzen zenbatekoa, legez egin daitezkeen erregularizazioak eta eguneraketak gehituta; edo egite-balioa.

c) Hartzekodunei aseguru-kontratu bakoitzeko eskaini beharreko 179.1 artikuluan adierazitako ehunekoa finkatzeko helburuarekin, ez dira kontuan hartuko kredituen lehentasun-ordena eta Kontsortzioak aurreratutako likidazio-gastuak.

Era berean, eta norbere baliabideen kontura, Kontsortzioak soldatetatik eratorritako langileen kredituak eta, hala badagokio, horiei dagozkien kalte-ordainak bereganatu ahal izango ditu lan-harremanak iraungitzen direnean; dena den, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 53.1.b) artikuluan aurreikusten diren mugak aintzat hartu beharko dira, kaleratze kolektiboetan edo iraungitze kasuetan, testu bategin horretako 52.c) artikuluko arrazoi objektiboak gertatzen direnean, eta horiek likidazioaren eraginez gertatu direnean; hala, hartzekodunen posizioa subrogatu egingo da entitatearen likidazio-planean.

Kontsortzioak Soldatak Bermatzeko Funtsak ordaindu behar duen lan-harremanak amaitzeagatik kalte-ordain edo soldaten zatia bereganatu ahal izango du, eta langilearen posizioa subrogatu egingo da erakunde horri dagokionez.

Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioari likidazioa agintzen dion administrazio-ebazpena nahikoa izango da martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 33. artikuluko 6. eta 7. zenbakietan aurreikusitako ondorioetarako, Soldatak Bermatzeko Funtsak ordaindu behar dituen prestazioei dagokienez.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluko 9. eta 10. zenbakietan aurreikusitako ondorioetarako, kaudimenik gabeko entitate baten likidazioa Kontsortzioari agindu zaionean eta entitate horretan kaleratze kolektibo bat gertatu denean, hark konkurtso-prozeduran gaineratutako enpresen trataera bera izango du.

Bere balio errealetan eta bere funtzio likidatzailea ahalik eta modu eraginkorrean garatzeko gomendagarria den heinean, Kontsortzioak mota guztietako kredituak bereganatu ahal izango ditu likidazio-egoeran dauden entitateen aurka, eta hartzekodunen eskubideak subrogatuko ditu, bereganatutako kredituek zuten posizioa mantenduz. Gainera, likidazio-prozesua hobeto garatzeko komenigarritzat jotzen dituen hitzarmen guztiak egin ahal izango ditu.

2. 1. zenbakian aipatzen den kredituak lagapen bidez bereganatzen direnean, Kontsortzioak ez ditu, inola ere, likidazio-egoeran dagoen aseguru-entitatearen zorrak bereganatuko.

Ordaindutako kantitatea zenbanahikoa delarik ere, kreditu horien lagapena kreditu guztien zenbatekoari dagokiona izango da, eta lehentasun-ordena bera izango dute. Horien titularrek ezin izango dute erreklamaziorik egin kontzeptu horretan. Era berean, Kontsortzioak egindako eskaintza ez onartzea erabaki duten kreditu horien titularrek ere ezin izango dute Kontsortzioaren aurkako erreklamaziorik jarri; horiek beren kredituen titulartasuna mantenduko dute eta likidazioaren ondorioak jasan beharko dituzte.

187. artikulua. *Entitateak dituen bitartekoen kontura egindako ordainketak.*

Likidazio-egoeran dagoen aseguru-entitatearen baliabideen kargura, Kontsorzioak aurrez ordaindu ahal izango ditu benetako eskubidea duten hartzekodunen kredituak, hipoteka-legedian zehaztutako ordena eta terminoak aintzat hartuta. Kreditu horiek ordaintzerik izango ez balu, aipatutako hartzekodunek beren kredituaren arabera lehentasuna izango dute likidazioan, ordaindu gabeko zenbatekoa kobratzeko.

188. artikulua. *Hartzekodunen batzar orokorra.*

1. Likidazio-plana egiten den unean, Kontsorzioak hartzekodunen batzar orokorra deituko du hura egin baino gutxienez hilabete bat lehenago eta gehienez bi hilabetera. Deialdia jakinarazpen pertsonal bidez egingo da, eta deialdiari egokitzat jotzen duen publizitatea egingo dio, kasuan kasuko egoerak kontuan hartuta. Batzarra egiteko egunera arte, hartzekodunek edo haien ordezkariak likidazio-plana aztertu ahal izango dute. Batzarra egin baino hamabost egun lehenago arte, kredituak gehitu edo kanporatu daitezela eskatu ahal izango da, baita gaineratutako kredituen zenbatekoaren inpugnazioa ere, Kontsorzioari idazki bat helaraziz edo, erakunde horren aurrean agertuz, likidazioaren dokumentuak hautatuz edo erabiltzaileak bere eskubidea justifikatzeko erabili nahi duen dokumentazioa aurkeztuz. Kontsorzioak erreklamazio bakoitzaren ebazpena egingo du gero errekurtsorik jarri gabe, betiere 4. zenbakian adierazten den inpugnazio-eskubideari kalterik egin gabe, eta hartzekodunen behin betiko zerrenda prestatuko du.

2. Batzarra deialdian adierazitako egunean, orduan eta lekuan egingo da, eta beste egun batzuetan jarraitu ahal izango da. Batzarburua Kontsorzioako ordezkari bat izango da. Behin betiko zerrendan gaineratutako hartzekodun guztiek joan ahal izango dute, pertsonalki nahiz ordezkarien bitartez. Hartzekodunen batzarra legalki eratuta geratuko da bertaratuen eta ordezkariaren kredituen batura zordunaren pasiboaren hiru bostena bada, lehen deialdian; bigarren deialdian, ordea, zenbanahikoa delarik ere ordezkariaren eta bertaratuen kredituen kopurua, eratu egingo da batzarra; deialdi baten eta bestearen artean hogeita lau ordu igaro beharko dira gutxienez.

3. Kontsorzioako ordezkariak batzarra legalki eratutzat jotzen duenean, saioa abiaraziko da; lehenengo likidazio-plana irakurriko da, eta gero, hura eztabaidatu eta bozkatuko da. Likidazio-plana onartutzat emango da hartzekodun-planaren alde bozkatu dutenen kredituek presente eta ordezkariak dauden kredituen zenbatekoaren erdia baino gehiago ordezkariak badute, lehen nahiz bigarren deialdian; hala, hartzekodun guztiek hura bete beharko dute, eta bakar batek ere ez du abstenitu ahal izango. Ogasun Publiko hartzekodunari aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 10.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Hartzekodunek likidazio-plana onartzen ez badute, Kontsorzioak konkurtso-aitorpena eskatuko du.

4. Batzarra egin eta hurrengo zortzi egunetan, bertan izan ez diren hartzekodunek, edo bertan parte hartuta ere, gehiengoaren botoarekin bat ez datozen edo Kontsorzioaren bitartez 1. zenbakian aipatzen den behin betiko zerrendatik ezabatu diren hartzekodunek likidazio-plana aurkatu ahal izango dute judizialki. Inpugnazioa honako arrazoi hauetan bakarrik oinarritu ahal izango da:

a) Hartzekodunen batzarraren akordioak deitu, ospatu, eztabaidatu eta hartzeko aurreikusitako formetan akatsak izatea.

b) Hutesleren baten gaitasun edo ordezkariaren eza, kredituen gehitze edo eskklusio bidegabea, edo bidezkoztat jotzen den kantitatea baino handiagoa edo txikiagoa duten hartzekodunen behin betiko zerrendan agertzea, uziaren balioespenak gehiengoaren osieran modu erabakigarrian eragiten badu.

c) Kontsorzioak jasandako aktiboaren balioespenean edo kredituen lehentasunean egindako akatsa.

Gainerako guztietan, likidazio-planaren inpugnazioak Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legean xedatutakoa bete beharko du hitzarmenaren onespenera uko egiteko.

5. 4. zenbakian adierazitako epea amaitu eta oposiziorik egin ez bada, edo hura ebatziko duen epai irmoa eman ostean, Kontsorzioak likidazio-plana berretsiko du; hura Hartzekodunen Batzarrean egindako bozketatik eratorritako aldaketetara egokituko da edo, hala badagokio, inpugnazioa eragin duen behin betiko epai bidez txertatutako aldaketetara eta aktiboetan gertatutako aldaketetara egokituko da.

6. Kontsorzioaren bidez, berretsitako likidazio-planaren exekuziorako kredituak ordainduko dira. Erreklamatu ez diren kredituak gordailuan kontsignatuko dira Kontsorzioan bertan, horien legezko jabeen eskura, gehienez ere hogeituro urteko epean; epe hori igaro eta oraindik erreklamatu ez badira, Altxor Publikoan sartuko dira. Likidazio-plana exekutatu ostean, entitatea deuseztatu eta baliogabetu egingo da erregistroetan, 181.6 artikuluan aurreikusitako moduan. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 400. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

7. Denborazko desfasearen ondorioz, eta artikuluko honetako 5. zenbakian aurreikusitako likidazio-planaren inpugnazioa gertatzen ez den kasuan, likidazio-plana hartzekodunen batzar orokorrean onartzen denetik hartzekodunei kredituak modu eraginkorrean ordaintzen zaizkien arte, eta hala badagokio, sozietatearen ondasunak bazkideen artean banatzen diren arte, soberakina geratuko balitz edo gaineratutako aktiboak agertuko balira, horiek Kontsorzioaren ondarrera gehituko dira, hurrengo zenbakian aurreikusten diren ondorioetarako.

8. Hartzekodunen batzar orokorra egin ostean hartzekodunei jakinarazitako epai irmo bidez aitortutako kredituak eta Kontsorzioak batzar horren ostean aitortzen dituen kredituak –zuzenbidearekin bat datozenak– aurreko zenbakian aipatzen den soberakinarekin ordainduko ditu Kontsorzioak edo, hala badagokio, norbere bitartekoekin, likidazio-planaren barnean txertatuta egongo balira bete beharko lituzketen termino beretan. 179. artikuluan aipatzen diren aseguru-kontratu bidezko kredituen kasuan, ordaindu beharreko ehunekoa 186. artikuluko likidazio-etekinak aplikatuz onartutakoa izango da, likidazio-planetik eratorritakoa baino handiagoa bada.

9. Likidazio-egoeran dagoen aseguru-entitatea kaudimengabezia-egoeran dagoenean, hartzekodunen batzarrak likidazio-plana onartzen badu, Kontsorzioak likidazio-gastuak berreskuratu ahal izateko, likidazioan dauden gainerako guztiak guztiz ordaindu beharko dira.

189. artikulua. *Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioaren jarduketa konkurtso-prozeduretan.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak 168.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz igorritako txostena oinarritzat hartuta, epaileak likidazio-fasea ireki dadila erabaki ahal izango du ofizioz eta izapiderik egin gabe, betiere Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 143. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ondorioekin eta lege honetan aurreikusitako berezitasunekin bat etorriz. Kasu horretan, konkurtso-administrazioak, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 74. artikuluan aurreikusitako txostenarekin batera, likidazio-plana aurkeztuko du lege horren 148. artikuluari jarraikiz.

2. Aseguru-entitate baten konkurtso-administrazioa Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioak bakarrik gauzatu ahal izango du. Era berean, eta Konkurtso-bitartekariaren eskaera lege horretako 5.bis artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz egiten bada, izendapena Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioak egin beharko du.

3. Edonola ere, aseguru-entitateen konkurtso-egoeraren aitorten judiziala egiten den kasuetan, Aseguruen Konpentsazio Kontsorzioak, urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako bere Lege Estatutuaren testu bateginaren 14.2 artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak bereganatzeaz gain, 179.2 artikuluan aipatzen den ondasunen zenbatekoa likidatzeari ekingo dio, hala badagokio, hura aseguratu, onuradun eta hirugarren kaltetuen artean banatzeko helburuarekin, konkurtso-prozeduran dagozkien eskubideei kalterik egin gabe.

Konkurtoaren barnean, aseguru-kontratu bidezko hartzekodunak pribilegio bereziak dituzten hartzekodun gisa hartuko dira, 179. artikuluan aurreikusitako moduan.

4. Konkurtsoan parte hartu duen aseguru-entitateak beharrezko likidezirik izango ez balu, Kontsorzioak beharrezkotzat jotzen dituen gastuak aurreratu ahal izango ditu bere baliabideen kargura, konkurtso-prozedura modu egokian garatu ahal izateko. Dena den, konkurtsoaren eskaeran edo oposizioan esku hartu duten letraduen ordainsariak eta hartzekodunen eskubideak, eta eratorri daitezkeen bitartekoak eta suteak izendatutako alderdien kontura ordainduko dira, eta Konkurtsoak ezin izango du harren aurrerakinik ordaindu.

5. 179. artikuluan aipatzen diren aseguru-kontratu bidezko hartzekodunen pribilegio bereziko kredituak konkurtsoaren fase komunean zehar ordaindu ahal izango dira konkurtso-administrazioak egokitzen jotzen badu; horiek 186. artikuluan aipatzen diren ondasunen kargura ordainduko dira, baita ordainketa hura besterendu beharrik izan gabe egin badaiteke edo hura beharrezkoa izango balitz ere; besterentze hori Aseguruen Kontsentsazio Kontsorzioak gauzatuko du, 3. zenbakian xedatutakoari jarraikiz.

6. Kontsorzioak 186. artikuluko likidazio-onurak aplikatu ahal izango ditu, baina atxikitako ondasunen likidazioa gauzatu beharko du, 3. zenbakian aurreikusitako moduan.

7. Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 175. artikuluko 3. zenbakian aurreikusten den kalifikazioari buruzko txostena Kontsorzioak berak igorriko du, entitatearen likidazio-organoa den heinean; hura alderdi interesduna izango da gertakarian, hartzekodunen ordezkari gisa. Hura Kontsorzioak entitatearen aurrekariak eta egoera behar adina jakiteko aukera izan bezain laster igorriko da, aktiboaren inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda zehazteko, eta dagokion kaudimengabeziari eta kalifikazioari buruzko arrazoiaren txosten arrazoitu bat igorri ahal izateko. Ondorio horietarako, Epailak Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 174. artikuluan aurreikusten den kalifikazioaren sekzio autonomoaren irekiera eten ahal izango du organo likidatzaileak txosten hori igortzeko baldintzak betetzen dituela jakinarazten dion arte; edonola ere, Hartzekodunen Batzarraren deialdia egin aurretik egin beharko da.

8. Konkurtsoa amaitzean entitatea likidatu egin bada, 188.8 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

VIII. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

I. KAPITULUA

Arau-haustek

190. artikulua. *Arau-hausleak.*

1. Lege honetan arau-haustetzat jotako ekintzak edo ez-egiteak, eta bereziki, honako hauek burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira arau-hausleak:

- a) Aseguru- edo berraseguru-entitateak.
- b) Aseguru-zorroa duten sozietateak, aseguru-zorroa duten finantza-erakunde mistoak eta aseguru-zorroa duten sozietate mistoak, horiek ikuskapenaren xede den aseguru-entitate talde baten matrizeak direnean, eta mutua-taldeko sozietateak, III. tituluaren aurreikusitakoari jarraikiz.
- c) Hala badagokio, 84. artikuluan aurreikusitako aseguru- eta berraseguru-entitate taldeen kontu kontsolidatuak egin eta onartu behar dituzten entitateak.
- d) Finantza-konglomeratuen nahitaezko entitateak, aseguru-zorroa duen finantza-erakunde misto bat edo aseguru-entitate bat denean; azken kasu horretan, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaio finantza-konglomeratu horren ikuskapen gehigarriaren koordinatzaile-funtzioa betetzea.

e) Aseguru- edo berraseguru-entitateetan partaidetza esanguratsuen titularrak diren pertsona fisikoak edo entitateak.

f) Zuzendaritza eraginkorra edozein titulupean gauzatzen duten pertsonak, aurreko letretan deskribatutako entitateetan, edo horietan 65.3 artikuluan aurreikusitako gobernu-sistemaren funtzioaren bat betetzen dutenak.

g) Lege honen esparru objektiboari dagokionez, legez agindu edo debekuren bat ezarri zaien pertsonak.

h) Aseguru- eta berraseguru-entitateetako likidatzaileak.

2. Aurreko zenbakiko f) letrari dagokionez, zuzendaritza eraginkorra edozein titulupean gauzatzen dutela ulertuko da entitatearen zuzendaritza- eta administrazio-karguak gauzatzen dituzten pertsonak –38.2 artikuluko terminoetan– eta, formalki ez izendatu arren, erantzukizun horiek gauzatzen dituzten pertsonak.

191. artikulua. *Parte-hartzaile, likidatzaile edo administrazio- eta zuzendaritza-karguen erantzukizuna.*

1. 190.1 artikuluko e) letratik h) letrara aurreikusten diren subjektu arau-hausleak bakarrik zigortu ahal izango dira, horiek entitateek egindako arau-hausteen erantzule direnean.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira 190.1 artikuluko a), b) eta c) letretan zerrendatutako entitateek gauzatutako arau-hausteen erantzule gisa hartuko administrazio-karguak gauzatzen dituztenak, honako kasu hauetan:

a) Kide anitzeko administrazio-organoetako kideak ez baziren joan kasuan kasuko bileretara, justifikatutako arrazoia izanda, edo arau-hausteak eragin zituzten erabakien inguruan kontra bozkatu edo beren botoa babestu baldin bazuten.

b) Arau-hausteak batzorde betearazleei, kontseilari delegatuei, zuzendari nagusiei edo pareko organoei, edo 65. artikuluan aurreikusitako funtzioak dituzten pertsonen soilik egoztekoak badira.

Erantzukizunik ez izan arren, aldatutako egoera haren jatorrizko egoerara itzuli beharko da –206.1 artikuluan aurreikusten da–, arau-hausteak eragin dituzten erabaki edo akordioen ondorioz irabaziak lortu badituzte.

192. artikulua. *Zehatzeko ahala beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden aseguru-entitateei dagokienez.*

Espanian kokatzeko eskubideari edo zerbitzuak emateko askatasunaren araubideari jarraikiz jarduten duten beste estatu kide batzuetan helbideratutako aseguru-entitateek Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren zehatzeko ahala bete beharko dute titulu honetan aurreikusitako moduan, aplikagarria den kasuetan, eta honako zehaztasun hauek aintzat hartuta:

a) Baimena baliogabetzeko zigorra Espainiako lurraldean eragiketa berriak abiarazteko debekuarekin edo indarrean dauden polizak berritzeko debekuarekin ordezkatuko da.

b) Jatorrizko estatu kideko agintari ikuskatzaileei behar bezala jakinaraziko zaie prozedura abiarazi dela, lege honi jarraikiz jar daitezkeen zigorrekin kalterik egin gabe, horiek egokitzat jotzen dituzten neurriak har ditzaten eta, hala badagokio, entitateak beren jarduketara arau-hausleari amaiera eman edo etorkizunean gehiago egin ez daitezten. Prozedura amaitzean, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak hartutako erabakia jakinaraziko die aipatutako agintariei.

c) Sukurtsal hori modu eraginkorrean zuzentzen duten pertsonak eta ahaldun nagusia hartuko dira sukurtsaletako zuzendaritza- eta administrazio-kargu gisa.

193. artikulua. *Arau-hauste motak.*

Arau-hausteak oso astunak, astunak edo arinak izan daitezke.

194. artikulua. *Arau-hauste oso astunak.*

Arau-hauste oso astunak izango dira:

1. Nahitaezko gutxieneko kapitala izan beharra ez betetzea.
2. Nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarriak izan beharra ez betetzea, ez-betetze horretatik ehuneko 20ko desbiderapena edo handiagoa sortzen denean.
3. Aktiboen eta pasiboen balorazioari buruzko arauak ez betetzea –hornidura teknikoak barne–, ez-betetze horren ondorioz, nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarrien kalkuluan ehuneko 20ko desbiderapena edo handiagoa sortzen denean.
4. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko arauak ez betetzea, ez-betetze horretatik ehuneko 20ko desbiderapena edo handiagoa sortzen denean.
5. Legez eskatzen zaion kontabilitatea ez izatea eta urteko kontuak, indarreko araudiari jarraikiz, kontu-ikuskaritza baten mende jartzeko betebeharra ez betetzea.
6. Legez berariaz ezarri zaizkien xede sozialarekin lotuta ez dauden jarduerak gauzatzea, edo lege maila duten antolamendurako edo ikuskapenerako arauak debekatzen dituzten edo horietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eragiketak gauzatzea, noizean behin bakarrik egiten direnean salbu.
7. Nahitaezko gutxieneko kapitala edo nahitaezko kaudimen-kapitala nahikoa ez denean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari ez jakinaraztea, 156. eta 157. artikuluetan zehazten den egoeretan eta epeetan, edo artikuluko horietan aurreikusitako berreskuratze- edo finantziazio-plana ez aurkeztea.
8. Desegin izanaren arrazoa epe barruan jakinarazi beharra ez betetzea.
9. 160. eta 161. artikuluetan aurreikusitako kontrol bereziko neurriak behin eta berriz ez betetzea. Ondorio horietarako, ez-betetze hori behin baino gehiagotan gertatu dela ulertuko da neurriak hartzeko ebazpena betetzen ez denean eta, ezarritako epean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ondorio horietarako eskatutako eskakizuna betetzen ez duenean.
10. Gobernu-sisteman urritasunak izatea, batez ere arriskuen kudeaketari, barne-kontrolari, betebeharrak betetzen direla egiaztatzeari eta egiaztatze aktuarialari dagokienez, baina baita funtzioak edo jarduerak kanporatzeko funtzioei dagokienez ere, urritasun horien eraginez, kaudimena murriztu egiten denean edo 131.1.f) artikuluan zehaztutako taldearen, aseguru- edo berraseguru-entitatearen, edo kasuan kasuko finantza-konglomeratuaren bideragarritasuna arriskuan jartzen denean.
11. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eman behar zaizkion datuak edo dokumentuak ez bidaltzea, edo igorritako datu edo dokumentuen egiazkotasunik eza, horren eraginez 131.1.f) artikuluan zehazten den taldearen, aseguru- edo berraseguru-entitatearen, edo finantza-konglomeratuaren kudeaketa osasuntsua eta zuhurra arriskuan jartzen denean, edo hark duen kaudimena hautemateko zailtasunak eragiten dituen eta, hura modu egokian aurkeztuta ere, entitateak, taldeak edo finantza-konglomeratuak kontrol bereziko neurriak hartzeko moduko arrazoiak dituela ondorioztatzen denean, finantza-narriadurako egoeretan edo nahitaezko kaudimen-kapital gehigarria eskatu behar den egoeretan.
12. Aseguru- edo berraseguru-entitate batean partaidetza esanguratsu bat erosi edo gehitzea, 85. artikuluan xedatutakoa betetzen ez denean eta eragiketa hori gauzatzeko haren kontrola eskualdatu behar denean.
13. Baimenik gabe, aseguru- edo berraseguru-entitateen aseguru-zorroa lagatzea, eraldaketa, fusioa, bereizketa eta azkentzea, eta baimena izanez gero, hari egokitu gabe jardutea.

14. Gainbegiratzeari uko egitea edo aurka egitea, betiere, berariazko idatzizko errekerimendua badago horri buruz. Ikuskapen-jarduerei dagokienez aitzakiak jarri, uko egin edo aurre egin dela ulertuko da, jarduketekin lotuta dauden entitateek edo pertsonak horiek behar ez bezala luzatu, oztopatu edo galarazteko jarduketak egiten badituzte.

15. Finantza- eta kaudimen-egoerari buruzko txostena argitaratu beharra ez betetzea.

16. A).a) eranskinen 8. arloan jarduten duten aseguru-entitateek honako hauek ez bidaltzea: Sute eta elementu naturalen kasuan, suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua ezarri edo handitzeko zerga berezien suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua mantentzeko tasen likidazio- eta bilketa-ondorioetarako eman behar den informazioa, hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharra betez, jarrera horrek izaera berrerorlea duenean.

17. Aseguruen esparruko erabilzaileen eskubideak babesteari eta merkatuko gardentasunari buruzko arauen aurkako eragiketak edo ekintzak gauzatzea, baldin eta eragindako pertsonen kopurua, jokabidearen errepikapena, edo bezeroen konfiantzan eta finantza-sistemaren egonkortasunean eragindako ondorioak kontuan hartuta, ez-betetze horiek garrantzi handikotzat jotzen badira.

18. Aseguruen Kontentsazio Kontsortzioaren alde bildutako nahitaezko errekarguak behar ez bezala atxikitzea, epe barruan sartu gabe.

19. Organo eskudunari heriotza estaltzeko aseguru-kontratuen erregistroa arautzen duen legediak aipatzen duen informazioa eskaini beharra ez betetzea, eta igorritako informazioa benetakoa ez izatea, jarrera hori behin eta berriz errepikatzen denean.

20. Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak eta hura garatzen duten arauak onartutako erantzukizun zibilari eta motordun ibilgailuen zirkulazio-aseguruari buruzko Legearen testu bateginako 2.2 artikuluan aipatzen den informazioa ez bidaltzea, eta igorritako informazioa benetakoa ez izatea, horren eraginez, zirkulazio-istripu batean sortutako kalte-ordainak bereganatu behar dituen aseguru-entitatearen identifikazioa edo asegurua bete beharra modu eraginkorrean betetzeko kontrola oztopatzen denean, eta jarrera horiek behin eta berriz errepikatzen direnean.

21. Bazkideei, aseguratupei eta, oro har, publikoari eman beharreko informazioa benetakoa ez izatea, eta aseguratupei eta mutualistei balioetsitako etorkizuneko eskubideei buruzko informazioa eman beharra ez betetzea edo behar bezala ez ematea, horiek Gizarte Segurantzaren ordezkioa edo izaera osagarria duten erremintetatik eratorzen direnean eta horiek erretiro-konpromisoak aurreikusten dituztenean, betiere eragindako pertsona-kopurua edo informazioaren garrantzia dela-eta, ez-betetze hori oso garrantzitsutzat jo daitekeenean.

195. artikulua. *Arau-hauste astunak.*

Arau-hauste astunak izango dira:

1. Nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarriak izan beharra ez betetzea, ez-betetze horretatik ehuneko 10eko desbiderapena edo handiagoa sortzen denean, eta hura arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

2. Aktiboen eta pasiboen balorazioari buruzko arauak ez betetzea –hornidura teknikoak barne–, ez-betetze horren ondorioz, nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarrien kalkuluan ehuneko 10eko desbiderapena edo handiagoa sortzen denean, eta hura arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

3. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko arauak ez betetzea, ez-betetze horretatik ehuneko 10eko desbiderapena edo handiagoa sortzen denean, eta hura arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

4. Eragiketen kontabilizazioaren eta urteko kontuen formulazioaren inguruko arauak ez betetzea, betiere ez bada arau-hauste oso astuna; Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari nahitaez jakinarazi beharreko finantza-egoerak egitearen inguruko arau-hausteak.

5. Noizean behin, berariazko xede sozialarekin zerikusirik ez duten jarduerak egitea, antolamendu- eta ikuskapen-arauek debekatutako egintzak edo eragiketak egitea, edo horietan ezarritako baldintzak ez betetzea.

6. Desegite-akordioa edo administrazioaren desegite-eskaera epe barruan jakinarazi beharra ez betetzea.

7. Gobernu-sisteman gabeziak izatea, arriskuen kudeaketara, barne-kontrolera, barne-ikuskapenera, aktuarialera xedaturiko funtzioei eta funtzioak edo jarduerak kanporatzean bereziki, hori arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

8. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eman behar zaizkion datuak edo dokumentuak ez bidaltzea, edo bidalitako datuak edo dokumentuak benetakoak ez izatea, horren ondorioz, 131.1.f) artikuluan zehaztutako taldearen, aseguru- edo berraseguru-entitatearen, edo dagokion finantza-konglomeratuaren kaudimena hautematea oztopatzen denean eta, horiek modu egokian aurkeztuta ere, aitortutako kaudimen-ratioak murriztu egin direla ondorioztatzen denean.

9. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren akordioak edo ebazpenak behin eta berriz ez betetzea. Ondorio horietarako, ez-betetze hori behin baino gehiagotan gertatu dela ulertuko da akordio edo ebazpen bat betetzen ez denean eta, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ondorio horietarako eskatutako eskakizuna betetzen ez duenean.

10. Aseguru- edo berraseguru-entitate batean partaidetza esanguratsua erosi edo gehitzea, 85. artikuluan xedatutakoa bete gabe.

11. Likidatzaileek edo, desegin aurreko bost urteetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak bete dituzten pertsonak 180. artikuluan zehazten diren betebeharrak ez betetzea.

12. Zergak dagokion moduan eta epean ez biltzea, horiek modu egokian edo behar adina ez jasotzea eta, oro har, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren alde legez eska daitezkeen errekaruak biltzeko betebeharrak ez betetzea.

13. Bazkideei, mutualistei, aseguratupei eta, oro har, publikoari benetako informazioa eman beharra ez betetzea, eta aseguru- edo berraseguru-entitateen informatzeko betebeharra eta publizitatea arautzen duten arauak ez betetzea dakarten ekintzak edo eragiketak egitea.

14. 38.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, ezintasun- edo debeku-arrazoiren bat duten pertsonak ez ordezte, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari zintzotasun- eta gaitasun-eskakizunak ebaluatzeko beharrezko informazioa ez bidaltzea, informazio guztia ez bidaltzea edo benetako informazioa ez bidaltzea.

15. Aseguru-entitateak aseguru-kontratuari buruzko legedia espezifikoko arauak ez betetzea, aurreko bi urteetan zehar, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren hamar eskakizuni baino gehiagori jaramon egin ez bazaie ondorio horietarako emandako epean, finantza-zerbitzuetako bezeroen administrazio-babesa bermatzeko prozeduran planteatu diren kexak eta erreklamazioak sendoak direla ulertzen denean, eta hura arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

16. Aseguruen esparruko erabiltzaileen eskubideak babesteari eta merkatuko gardentasunari buruzko arauen aurkako eragiketak edo ekintzak gauzatzea, aurreko artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, horrek arau-hauste oso astun bat eragiten ez duenean, eta noizean behin edo modu isolatuan gertatzen ez bada.

17. Hartzaile, aseguratu, onuradun edo hirugarren kaltetuen aurka sexuan oinarritutako diskriminazio-jarrerak gauzatzea, epai judizial bidez hala aitortzen direnean eta gizon eta emakumeen berdintasun eraginkorrari buruzko araudiarekin bat etorriz.

18. Bezeroari arreta eskaintzeko departamentu edo zerbitzuen gabezia edo funtzionamendu txarra, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ondorio horietarako emandako epea igaro ostean, hark hautemandako gabeziak konpontzeari ekin ez bazaio.

19. Organo eskudunari heriotza estaltzeko aseguru-kontratuen erregistroa arautzen duen legediak aipatzen duen informazioa eskaini beharra ez betetzea, eta igorritako informazioa benetakoa ez izatea.

20. Kontrol bereziko neurriak ez betetzea, arau-hauste oso astuntzat jotzen ez denean.

21. A).a) eranskineko 8. arloan jarduten duten aseguru-entitateek honako hauek ez bidaltzea: Sute eta elementu naturalen kasuan, suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua ezarri edo handitzeko zerga berezien suteen prebentziorako eta suteak itzaltzeko zerbitzua mantentzeko tasen likidazio- eta bilketa-ondorioetarako hornitu behar den informazioa, hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharra betez.

22. Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak eta hura garatzen duten arauak onartutako erantzukizun zibilari eta ibilgailu motordunen zirkulazio-aseguruari buruzko Legearen testu bategineko 2.2 artikuluan aipatzen den informazioa ez bidaltzea, eta igorritako informazioa benetakoa ez izatea, horren eraginez, zirkulazio-istripu batean sortutako kalte-ordainak bereganatu behar dituen aseguru-entitatearen identifikazioa edo asegurua bete beharra modu eraginkorren betetzeko kontrola oztopatzen denean.

23. Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako erantzukizun zibilari eta ibilgailu motordunen zirkulazio-aseguruari buruzko Legearen testu bategineko 7. eta 22.3 artikuluetan aipatzen diren eskaintza edo erantzun arrazoitua eman beharra ez betetzea, jarrera hori behin eta berriz gertatzen denean.

196. artikulua. *Arau-hauste arinak.*

Arau-hauste arinak izango dira:

1. Nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarriak izan beharra ez betetzea, ez-betetze horretatik ehuneko 10etik beherako desbiderapena sortzen denean.

2. Aktiboen eta pasiboen balorazioari buruzko arauak ez betetzea –hornidura teknikoak barne–, ez-betetze horren ondorioz, nahitaezko kaudimen-kapitala estaltzeko funts propio onargarrien kalkuluan ehuneko 10etik beherako desbiderapena sortzen denean.

3. Nahitaezko kaudimen-kapitala kalkulatzeko arauak ez betetzea, ez betetze horretatik ehuneko 10etik beherako desbiderapena sortzen denean.

4. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari helarazi beharreko datuak edo dokumentuak epez kanpo bidaltzea, edo benetako informazioa ez helaraztea, hura arau-hauste astun edo oso astuntzat hartzen ez denean. Bereziki, 40. artikuluan araututako administrazio-erregistroa modu eguneratuan eraman dadila ahalbidetzeko beharrezko informazioa eta dokumentazioa erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta epeetan ez bidaltzea.

5. Aseguru-entitateak aseguru-kontratuari buruzko legedia zehatzean jasotzen diren arauak ez-betetzea, hilabete bateko epean Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak ondorio horietarako egindako eskakizunari jaramonik egiten ez badio finantza-zerbitzuetako bezeroen administrazio-baimenerako prozeduran planteatutako kexak eta erreklamazioak sendoak direla ulertzen denean.

6. Partaidetza esanguratsua izateari uztea, 85. artikuluan xedatutakoa bete gabe.

7. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari nahitaez jakinarazi behar zaizkion finantza-egoerak guztiz edo zehaztasun osoz ez aurkeztea.

8. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren akordioak edo ebazpenak ez betetzea, arau-hauste astuntzat jotzen ez denean.

9. Aseguru-esparruan, erabiltzaileen eskubideak babesteari eta merkatuaren gardentasunari buruzko arauen aurkako ekintzak edo eragiketak gauzatzea, aurreko artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, horiek arau-hauste astun edo oso astuntzat jotzen ez direnean.

10. Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako erantzukizun zibilari eta ibilgailu motordunen zirkulazio-aseguruari buruzko Legearen testu bategineko 7. eta 22.3 artikuluetan aipatzen diren eskaintza edo erantzun arrazoitua eman beharra ez betetzea, jarrera hori arau-hauste astuntzat jotzen ez denean.

11. Aseguru-entitate bateko bezeroaren defendatzaileak igorritako erabakia ez betetzea, hura aseguru-hartzaileak, aseguratuak, onuradunak edo hirugarren kaltetuak planteatutako erreklamazioaren aldekoa denean.

12. Aseguruen Kontentsazio Kontsorzioaren alde bildutako errekarguak epez kanpo ordaintzea.

13. Oro har, aseguru pribatuen ikuskapenerako lege maila duten arauetan jasotzen diren aseguru-entitateentzako nahitaezko xedapenak ez betetzea, horiek arau-hauste astun edo oso astuntzat jotzen ez direnean. Ondorio horietarako, aseguru pribatuen ikuskapenerako arau gisa hartuko dira lege honetan eta hura garatzeko erregelamendu-xedapenetan jasotzen direnak eta, oro har, lege honen eremu objektiboari dagozkion nahitaez bete beharreko xedapenak dituzten arauetan agertzen direnak.

197. artikulua. *Arau-hausteen preskripzioa.*

1. Arau-hauste oso astunak bost urtera preskribatuko dira, astunak lau urtera, eta arinak bi urtera.

2. Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epaia. Arau-haustea baldin bada luzaroan egindako jarduera batetik sortua, jarduera hori amaitutako egunetik edo arau-haustea gauzatutako azken ekitalditik hasi behar da kontatzen.

3. Interesduna jakitun dela zehatzeko prozedura hasteak preskripzioa etengo du, eta hura berriz hasiko da zehatzeko espedientea bi hilabetez baino gehiagoz geldiarazita badago ustezko arduradunari egotzi ezin zaion kausagatik.

Arau-haustea egin dela adierazten duen ikuskapen-prozedura hasteko preskripzioa ere eten egingo da, interesduna jakitun delarik, eta berriz ekingo da prozedura horri amaiera ematen dion ebazpena eman ostean.

II. KAPITULUA

Zehapenak

198. artikulua. *Entitateei arau-hauste oso astunengatik ezarritako administrazio-zehapenak.*

Arau-hauste oso astunengatik, erakunde arau-hausleari zigor hauetako bat edo gehiago ezarriko zaizkio:

- a) Administrazioaren baimena ezeztatzea.
- b) Aseguru-entitateak baimena duen arlo batean edo gehiagotan jarduteko edo berraseguru-entitateak baimena duen jarduera batean edo gehiagotan jarduteko duen administrazio-baimena etetea, gehienez ere hamar urtez eta gutxienez bost urtez.
- c) Negozio-bolumenaren ehuneko 1eko eta 240.001 eurotik gorako isuna. Ondorio horietarako, prima periodifikatuak hartuko dira negozio-bolumen gisa; horiek arau-haustea egin aurretik itxi den azken jardunaldi ekonomikoan kontsumitu ez diren primen horniduraren aldaketarekin zuzendutako primak izango dira. Kokatzeko eskubideari edo zerbitzuak emateko askatasunari buruzko araubideari jarraikiz jarduten duten entitateen kasuan, zifra horrek Espainiako negozio-bolumenari egingo dio erreferentzia.
Isun horrez gain, a), b) eta d) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.
- d) Publikoki ohartaraztea, Estatuko Aldizkari Ofizialean gertatutakoaren berri emanda.
Isun horrez gain, a), b) eta c) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.

199. artikulua. *Entitateei arau-hauste astunengatik ezarritako administrazio-zehapenak.*

Arau-hauste astunengatik, erakunde arau-hausleari zigor hauetako bat edo gehiago ezarriko zaizkio:

- a) Aseguru-entitateak baimena duen arlo batean edo gehiagotan jarduteko edo berraseguru-entitateak baimena duen jarduera batean edo gehiagotan jarduteko duen administrazio-baimena etetea, gehienez ere bost urtez.

- b) 60.000 eta 240.000 euro arteko isuna.
Isun horrez gain, a) eta c) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.
- c) Publikoki ohartaraztea, Estatuko Aldizkari Ofizialean gertatutakoaren berri emanda.
Isun horrez gain, a) eta b) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.

200. artikulua. *Entitateei arau-hauste arinengatik ezarritako administrazio-zehapenak.*

Arau-hauste arinengatik, erakunde arau-hausleari zigor hauetako bat edo gehiago ezarriko zaizkio:

- a) 60.000 eurora arteko isuna.
b) Ohartarazpen pribatua.

201. artikulua. *Bat-egite, aktiboaren eta pasiboaren lagapen global, edo bereizketa kasuetan duen erantzukizuna.*

Bat-egite, aktibo eta pasiboaren lagapen global, edo bereizketagatik iraungi diren entitateen kasuan, horiek aseguru pribatuen ikuskapen arloko isunei dagokienez duten administrazio-erantzukizuna entitate xurgatzaileari edo berriari eskatuko zaio; bereizketa kasuan, bereganatutako ondarearen ehuneko hartuko da kontuan.

202. artikulua. *Parte-hartzaileek, likidatzaileek eta, edozein titulupean, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenek eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituztenek egindako arau-hauste oso astunengatiko zehapenak.*

Arau-hauste oso astunak egiten direnean, honako zehapen hauetako bat edo gehiago ezarri ahal izango zaizkio arau-hausle bakoitzari:

- a) Kargutik kentzea, eta beraz, 66. artikuluan aurreikusten diren funtzioak betetzeko eta administrazio-, zuzendaritza- eta likidazio-karguak betetzeko gaitasunik gabe uztea – aseguru- edo berraseguru-entitate guztietan–, gehienez ere hamar urteko epean.
- b) Aldi baterako kargutik kentzea, gutxienez urtebetez eta gehienez bost urtez.
- c) 500.000 eta 150.000 euro arteko isuna. Isun horrez gain, a) eta b) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.
- d) Publikoki ohartaraztea, Estatuko Aldizkari Ofizialean gertatutakoaren berri emanda.
Isun horrez gain, a), b) eta c) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.

203. artikulua. *Parte-hartzaileek, likidatzaileek eta, edozein titulupean, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenek eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituztenek egindako arau-hauste astunengatiko zehapenak.*

Arau-hauste astunak egiten direnean, honako zehapen hauetako bat edo gehiago ezarri ahal izango zaizkio arau-hausle bakoitzari:

- a) Aldi baterako kargutik kentzea, gehienez ere urtebetez.
- b) 30.000 eta 150.000 euro arteko isuna. Isun horrez gain, a) letretan aurreikusitako isuna jarri ahal izango da.
- c) Publikoki ohartaraztea, Estatuko Aldizkari Ofizialean gertatutakoaren berri emanda.
Isun horrez gain, a) eta b) letretan aurreikusitako isunak jarri ahal izango dira.

204. artikulua. *Parte-hartzaileek, likidatzaileek eta, edozein titulupean, zuzendaritza eraginkorra gauzatzen dutenek eta gobernu-sistema osatzen duten funtzioak betetzen dituztenek egindako arau-hauste arinengatiko zehapenak.*

Arau-hauste arinak egiten direnean, honako zehapen hauetako bat edo gehiago ezarri ahal izango zaizkio arau-hausle bakoitzari:

- a) 30.000 eurora arteko isuna.
b) Ohartarazpen pribatua.

205. artikulua. *Zehapenak mailakatzeko irizpideak.*

1. Zehapenak ezartzeko orduan, egon daitezkeen larriagotze- edo arintze-faktoreak hartuko dira kontuan.

2. Kasu bakoitzaren arabera, honako hauek hartuko dira larriagotze- edo arintze-faktore gisa:

a) Arau-haustea eragin duten ekintzen izaera eta kopurua, eta horietan izan den nahitasun-maila.

b) Sortutako arriskuaren edo eragindako kalteen astuntasuna.

c) Arau-haustea ekarri duten egintza edo ez-egiteen ondorioz lortutako irabaziak, hala badagokio.

d) Subjektu arau-hausleak egin izaera bereko arau-hausteei dagokienez -194., 195. eta 196. artikuluetan aurreikusten direnak- aurretiaz garatu duen jarrera, horiek oraindik preskribatu gabe badaude eta ebazpen irmo bidez aitortu badira.

e) Arau-hausleak egindakoetan atzeman den erantzukizun maila.

f) Arduradunak entitateko antolamendu-egituran gauzatzen dituen funtzioen edo lanpostuaren garrantzia.

g) Gertaerek aseguru-sektorean, finantza-sisteman edo naziko ekonomian eragiten dituzten ondorio kaltegarriak.

h) Eragindako kalte edo galerak norbere borondatez konpontzea.

i) Entitate arau-hauslearen tamaina, hark duen balantzearen zenbateko osoa kontuan hartuta, eta negozioaren bolumena, haren prima-bolumenak arau-haustea egin aurreko azken jarduera ekonomikoan zuen zenbatekoa aintzat hartuta.

j) Ezarri beharreko zehapenaren zenbatekoak entitate arau-hauslearen bideragarritasunean edo jarraitutasunean izan ditzakeen ondorioak.

k) Nahitaezko kaudimen-kapital edo nahitaezko gutxieneko kapital nahikorik ez den kasuetan, legez eskatutako maila lortzeko edo maila horri eusteko sortutako balizko arazo objektiboak.

l) Subjektu arau-hausleak bere kargua betetzean eskuratu dituen ordainsariak, haren egoera ekonomikoa eta gainerako egoera pertsonalak.

m) Subjektu arau-hausleek zehapen-espeditenteak argitu eta bideratzeko orduan agertu duten kooperazio-maila.

3. Arau-hausteak astunago edo arinago egiten dituzten egoerak subjektu arau-hausle eta egindako arau-hauste bakoitzari dagokionez aplikatuko dira, eta horiek oso kualifikatu gisa hartu ahal izango dira horien garrantzia berezia kontuan hartuta.

4. Ezarri beharreko zehapenak hiru mailatan banatuko dira: txikiena, tartekoa eta handiena. Maila bakoitza honako eragiketa honen emaitza izango da: ezarri beharreko zehapenean aurreikusitako diru-kantitatearen edo denboraren gehieneko zenbatekoa zati hiru. Egoera aringarriak edo larrigarriak dauden kontuan hartuta, zehapena ezarriko da honako arau hauek oinarritzat hartuta:

a) Arau-hauste oso astunetan bi egoera larrigarri baino gehiago badaude eta horietako bi, gutxienez, oso kualifikatuta badaude, 198.a) artikuluan eta, hala badagokio, 202.a) artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da. Azken horren graduaziorako, oso kualifikatuta dauden bi egoera larrigarri horiek ez diren beste egoera batzuk gertatu diren ala ez hausnartuko da.

b) Arau-hauste oso astunetan eta astunetan egoera larrigarriak badaude eta horietako bat, gutxienez, oso kualifikatuta badago, 198.b) edo 199. a) artikuluan eta, hala badagokio, 202.b) edo 203.a) artikuluan aurreikusitako zehapenak ezarriko dira hurrenez hurren, arau-hauste oso astunetan aurreko a) letran adierazitakoa aplikatzeko egoerak gertatzen ez badira. Gainera, zehapena graduatzeko orduan, zehapen horiek ezartzeko egoera larrigarri oso kualifikatua ez den beste egoera batzuk gertatu diren ala ez hausnartuko da, kasu guztietan eta 2. zenbakiko irizpideei jarraikiz.

c) Arau-hauste beraren kasuan, egoera larrigarriak eta aringarriak gertatzen direnean, horiek arrazionalki konpentsatuko dira zehapena ezartzeko orduan, eta guztien balioa graduatuko da; horretarako, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Egoera larrigarri bat bakarrik gertatzen denean, zehapena tartekoa izango da.
2. Egoera larrigarri bat baino gehiago gertatzen direnean, edo oso kualifikatuta dagoen bakar bat gertatzen denean, handiena izango da.

d) Egoera larrigarri edo aringarririk gertatzen ez denean, edo horiek konpentsatuta geratzen direnean, zehapen txikiena ezarriko da.

e) Oro har, eta maila bakoitzak dituen mugen barnean, zehapenaren zenbatekoa dagokion mailaren erdian kokatuko da, eta aurkako kasuan, hura arrazoitu egin beharko da. Gainera, egoera aringarriak gertatuz gero, aplikatu beharreko zehapena mailaren erdiari dagokion zenbatekoari 0,5 biderkatu ostean ateratzen dena izango da, gertatzen den egoera aringarri bakoitzeko. Inguruabar aringarri bat badago, baina hura garrantzi handikoa bada, halakotzat hartzen ez diren bi inguruabar aringarri izango balira bezala hartuko da.

f) Arau-hauste batengatik zenbait zehapen ezartzen direnean, inguruabar larrigarriak edo aringarriak arau-hauste horri dagozkion zehapen guztien graduaziorako aplikatuko dira.

206. artikulua. *Administrazio-zehapenekin lotuta dauden neurriak.*

1. Zehapena jartzen duen organoak jarrera hori eten eta berak aldatutako egoera ezarritako epean jatorrizko egoerara berriraman dezala eskatu ahal izango dio arau-hausleari.

2. Era berean, eteteko edo kentzeko zehapenek eragindako pertsonen kopurua eta mota direla-eta, entitatearen administrazioan eta zuzendaritzan jarraipena bermatze aldera, zehapena ezarri duen organoak erabaki dezake behin-behinean izendatzea beharrezkoak diren kideak, administrazio-organo kolegiatuak administratzaile batek edo gehiagok hartutako erabakiak hartzeko aukera izan dezan, eginkizunak zehaztuta. Behin-behineko administratzaileak lege honetako arau orokorretan xedatutakoaren arabera izendatuko dira, eta horiek beren karguak beteko dituzte, entitatearen organo eskudunaren bidez, berehala deituta, izendapenak egin eta izendatuek karguak hartu arte, hala badagokio, bereizteko edo eteteko epea igaro arte.

3. Ohartarazpen pribatuari dagokion kasuan salbu, zehapenak aseguru- eta berraseguru-entitateen eta aseguru- eta berraseguru-entitateen goi-karguen administrazio-erregistroan adierazi beharko dira, eta exekutatu ostean, haren ostean egindako batzar orokorrari jakinarazi beharko zaizkio berehala.

Kargua uzteko edo eteteko zehapenak, betearaztekoak direnean, jasoko dira, halaber, Merkataritza Erregistroan, eta hala badagokio, Kooperatiben Erregistroan.

4. Era berean, eta ohartarazpen pribatu bidez egiten direnak salbu, horiek gauzatu ostean, zehapenak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta Espainiako Bankuari jakinaraziko zaizkio.

5. Administrazio-erregistroko zehapenen aurrekariak baliogabetu egin ahal izango dira ofizioz edo interesdunek hala eskatuta, zehapen berririk gabe urtebeteko epea igarotzen bada arau-hauste arinen kasuan, hiru urte arau-hauste astunen kasuan, eta bost urte oso arau-hauste astunen kasuan. Epe hori zehapena bete eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da.

207. artikulua. *Administrazio-prozeduren eta prozesu penalen konkurrentzia.*

Zehatzeko ahalaren egikaritzea independentea izango da balizko delitu edo izaera penaleko faltekiko. Dena den, ekintzek delituren bat eragin dezaketela uste bada, horiek agintaritza judizialari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko zaizkio, eta administrazio-prozedura zehatzailea eten egingo da epai irmo bidez erabaki bat hartu arte. Era berean, administrazio-prozedura zehatzailea etetea erabakiko da epai irmo bidez erabaki bat hartu

arte, zigor-prozedura bat egintza berberengatik edo beste batzuegatik izapidetzen ari denean, zehatzekoak direnak lege honen arabera banatzea ezinezkoa bada.

Zehapen penal bat izan denean eta subjektu, egintza eta oinarri berak daudenean, ez da administrazio-zehapenik jarriko. Administrazio-prozedura zehatzailea berrero abiarazi bada, emango den administrazio-ebazpenak errespetatu egin beharko du erabaki judizial horretan jasotako gertaerei buruzko irizpena.

208. artikulua. *Aseguru- eta berraseguru-entitateei gordetako izenak erabili eta jarduerak gauzatzea.*

1. Administrazioaren beharrezko baimenik gabe aseguru- edo berraseguru-eragiketarako egiten dituzten pertsonak edo entitateek eta horietan administrazio- edo zuzendaritzakarguak betetzen dituzten pertsonak, edo aseguru- edo berraseguru-entitateen berezko izendapenak izan gabe erabiltzen dituztenek 500.000 eurora arteko isuna jasoko dute, arau-haustea eragin duen jarreraren publizitatea egiteaz gain. Izendapenak erabiltzeari edo jarduerak egiteari berehala uzteko agindeia egingo zaie. Hala ere, horiek egiten edo erabiltzen jarraitzen badute, 1.000.000 eurora arteko isuna ezarri ahal izango zaie, eta gerora agindei gehiago egiten bazaizkie, isun horiek errepikatu ahal izango dira.

2. Aurreko zenbakian araututako errekerimenduak egiteko eta zehapenak ezartzeko pertsona eskuduna Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendari Nagusia izango da. Errekerimenduak egin baino lehen, eragindako pertsona edo erakundeari entzunaldia eskainiko zaio, eta isunak aseguru- edo berraseguru-entitateei isunak ezartzeko prozedura aplikagarriaren arabera ezarriko dira.

3. Artikulu honetan xedatuta dagoena gorabehera, beste erantzukizun batzuk ere eskatu ahal izango dira, zigor-erantzukizunak barne direla.

209. artikulua. *Zehapenen preskripzioa.*

1. Arau-hauste oso astunak direla-eta ezarritako zigoren indarraldia bost urtera amaituko da, arau-hauste astunengatikoa lau urtera eta arau-hauste arinengatikoa bi urtera.

2. Zehapenen preskripzio-epea zehapena jartzeko erabakia indarrean jarri den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen edo, hala badagokio, ezarritako zehapena hautsi denetik aurrera, hura betetzen hasi den kasuan.

3. Preskripzio-epea eten egingo da zehapena abiaraztean, interesduna jakitun dela; epe hori berrero zenbatzeari ekingo zaio, baldin eta exekuzio hori hiru hilabetez baino gehiagoz geldiarazita egon bada, arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiegatik.

III. KAPITULUA

Zehapen-prozedura

210. artikulua. *Zehapen-prozedura arautzea.*

1. Zehapen-prozedura honako hauen arabera arautuko da:

a) Lege honetan eta haren garapenean emandako erregelamendu-mailako araudian zehaztutako arau berezien bidez.

b) Bestela, finantza-merkatuetan jarduten duten subjektuei aplikatu dakiekeen zehapen-prozedurari buruzko abenduaren 3ko 2119/1993 Errege Dekretuan eta zehatzeko ahala erabiltzeko prozeduraren erregelamendua onartzen duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan aurreikusitakoa bete beharko da. Era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. titulua aplikatuko da haren ordez.

2. Erregelamendu bidez, prozedura sinplifikatu bat arautuko da arau-haustek arinak direnean edo, astunak izan arren, egintzak argi eta garbi zehaztuta daudenean, beste

zehapen-jarduketa batzuetan frogatu direlako edo Aseguruen Ikuskapen Aktetan kontsignatu direlako, interesdunek aitortu edo onartu dituztelako, administrazio-erregistroetan daudelako edo frogatutako beste arrazoi batzuk direla eta.

211. artikulua. *Salaketa publikoa.*

Salaketa publiko bidez, aseguru pribatuen ikuskapen-arauek arau-hausteak eragin ditzaketen egoerak edo egintzak jakinarazi ahal izango zaizkio Administrazioari.

Salaketa bat jasotzean, hura organo eskudunari helaraziko zaio hark dagozkion jarduketak egin ditzan. Organo horrek salaketa artxibatzea erabaki ahal izango du hark funtsik ez duela uste badu edo salatutako egintzak edo pertsonak behar bezala zehaztu edo identifikatzen ez badira. Dagozkion jarduketak abiarazi ahal izango dira egotzitako egintzetan egiazkotasun-aztarna nahikoak daudenean eta Administrazioak horiek ezagutzen ez dituenean. Kasu horretan, salaketa ez da administrazio-espeditareen barne sartuko.

Salaketaren eraginez abiarazten diren administrazio-jarduketetan ez da salatzaile interesduna kontuan hartuko, eta ez zaio horien emaitzaren berri emango. Gainera, ez du errekurtsorik edo erreklamaziorik jartzeko zilegitasunik izango jarduketa horien emaitzei dagokienez.

212. artikulua. *Administrazio-eskumenak.*

1. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendari Nagusiari egokituko zaio zehapen-prozedurak abiaraztea; gainera, hark Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusira xedatutako funtzionario bat izendatuko du instruktore gisa.

2. Arau-hauste astun eta arinengatik zehapen-prozedurak ebatzea Aseguruen eta Pentsio Funtsen zuzendari nagusiari egokituko zaio.

Arau-hauste oso astunen kasuan, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagokio ebazpena ematea, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren proposamena aintzat hartuta.

3. Zehapenak betearaztea Aseguruen eta Pentsio Fondoek Zuzendaritza Nagusiari egokituko zaio.

213. artikulua. *Epeak.*

1. Ebazpena zehapen-prozeduran emateko eta helarazteko epea urtebetekoa izango da, hasteko erabakiaren datatik hasita. Prozedura sinplifikatuari jarraikiz jarduten bada, ebazpena ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da.

2. Ebazpena emateko epea eta kapitulu honetan aurreikusitako izapideak egiteko epeak areagotu egin ahal izango dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.6 eta 49. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera; hartutako erabakia interesdunei jakinarazi beharko zaie.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Europar Batasunaren barnean ez dauden Europako Esparru Ekonomikoko estatuei aplikatu beharreko araubidea.*

Europar Batasuneko estatu kideei, horietan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateei, edo Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateek horietan gauzatzen dituzten jardueri erreferentzia egiten dieten lege honetako xedapenak aplikagarriak izango zaizkie, halaber, Europar Batasuneko kide ez diren Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioan sartzen diren Estatuei, horietan helbideratuta dauden aseguru- eta berraseguru-entitateei, eta Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateek estatu horietan gauzatzen dituzten jardueri.

Bigarren xedapen gehigarria. *Nahitaezko aseguruaren ezarpena eta horiei buruzko informazioa.*

1. Pertsonen osasunean edo segurtasunean arrisku zuzena eta zehatza eragin dezaketen jarduerak gauzatzen dituztenei, finantza-segurtasuna barne, aseguru edo berme baliokide bat sinatu dezatela eskatu ahal izango zaie horiek eragin ditzaketen eta beren ardurapean dituzten kalte-galerak estaltzeko.

Exijitzen den bermea estaltzen den arriskuaren izaerarekiko eta muntarekiko neurrikoa izango da.

2. Aseguruaren harpidetza egin beharra lege-mailako arauen bitartez ezarriko da, eta horiek Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren edo autonomia-erkidegoetako organo eskudunaren nahitaezko txostena izan beharko dute, aseguru-teknikaren esparruan dagozkion oharrak egin ahal izan ditzaten.

Jarduerak aseguru hori gabe gauzatzea administrazio arloko arau-hauste oso astuntzat hartuko da, haren araudi zehatzean xedatzen den kasuan salbu.

Aseguruaren harpidetza egin behar zuen pertsona fisikoa edo juridikoa hartuko da subjektu arau-haustea gisa, eta 1.000 eta 20.000 euro arteko isuna ezarri ahal izango zaio.

Zehapen-prozedura ebatzi eta ematea Administrazio publiko eskudunari egokituko zaio, nahitaezko aseguruaren harpidetza agintzen duen arloan.

3. Aseguruaren Kontentsazio Kontsorzioak kudeatuko duen eta erregelamendu bidez garatuko den erregistroari jarraikiz, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Espainian dauden nahitaezko aseguruaren berri emango dio Europako Batzordeari; era berean, nahitaezko aseguruaren arautzen duten xedapen espezifikoko jakinaraziko dizkio.

4. Ondorio horietarako, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek beren autonomia-erkidegoan dauden nahitaezko aseguruaren berri emango diote Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, lege hau indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean; gainera, gero ezarritako nahitaezko aseguruak jakinarazi beharko dizkio horiek onartu eta hilabete bateko epean, eta aurreko zenbakiko zehaztasunak adierazi beharko ditu.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Administrazio-baimenak Europar Batasun osoan duen baliotasuna.*

Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateei lege honen aurreko legediaren babespean emandako administrazio-baimena Europar Batasun osoan izango da baliagarria, hura Espainiako lurralde guztira hedatzen denean, betiere 21. artikuluan xedatutako moduan, aseguru arloko jarduteko baimenik ez duten Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateen eta kaudimen-araubide berezira atxikitako aseguru-entitateen kasuan salbu.

Laugarren xedapen gehigarria. *Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei emandako prestazioak areagotzeko baimenen baliotasuna.*

Lege hau indarrean jarri aurretik beren prestazioak areagotzeko administrazio-baimena lortu duten, baina kaudimen-araubide berezira atxikitzeko baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek arloko jarduten jarraitu ahal izango dute.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Europako Batzordeari eta Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari Espainiako aseguru- eta berraseguru-entitateen zailtasunei buruzko informazioa ematea.*

Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak Espainiako aseguru- edo berraseguru-entitateek hirugarren herrialdeetan ezarri eta jarduteko dituzten zailtasun orokorren berri emango die Europako Batzordeari eta Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzari.

Seigarren xedapen gehigarria. *Zeregin berezia duten entitateak.*

Espanian helbideratuta dauden eta aplikagarria zaien araudi espezifikoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten zeregin bereziko entitateek administrazioaren baimena eskatu ahal izango dute Espainian beren jarduerak bete ahal izateko. Baimena Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak emango die, erregelamendu bidez zehaztutako prozedurari jarraikiz eta aplikazio zuzeneko Europar Batasunaren araudia kontuan hartuta. Ebazteko eta jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epea igaro bada eta ez bada berriazko ebazpenik jakinarazi, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Eurotan adierazitako zenbatekoen berrikuspena.*

11. eta 78. artikuluetan eurotan adierazitako zenbatekoak bost urtez behin berrikusiko dira, eta horien hasierako zenbatekoa aldatu egingo da Europar Batasuneko estatu kide guztietako kontsumorako prezioen indize armonizatuen portzentaje-aldaketan oinarrituta, betiere Eurostatek argitaratutakoari jarraikiz, 2015eko abenduaren 31tik berrikuspen-datara arte; horiek 100.000 euroren multiplo batera biribilduko dira, gorantz. Aurreko berrikusketatik egin den portzentaje-aldaketa ehuneko bost baino txikiagoa bada, zenbatekoak ez dira berrikusiko.

Berrikusitako zenbatekoak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu Europako Batzordeak, eta hamabi hilabeteko epean aplikatuko dira, argitalpena egin den egunetik hasita.

Horiek errazago jakinarazi eta aplikatzeko, eguneraketak argitaratu egingo dira Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Aseguru- eta berraseguru-entitateen kontu-auditoreen betebeharrak.*

Aseguru- edo berraseguru-entitateetako kontu-ikuskatzaileek nahitaez jakinarazi beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, kontuen ikuskapena arautzen duen araudian ezarritako epean, aseguru- edo berraseguru-entitate baten edo harekin loturaren bat duen aseguru- edo berraseguru-entitate baten –kontrol-harreman baten eraginez– kontu-ikuskapena egiten duen bitartean ezagutu duen aseguru- edo berraseguru-entitate baten edozein egintza edo erabaki, egintza edo erabaki horrek honako hauetakoren bat eragin dezakeenean:

- a) Aseguru pribatuen ikuskapen-araudiaren arau-hauste astun bat eragin dezakeenean;
- b) Aseguru- edo berraseguru-entitatearen jardueraren jarraitutasuna kaltetu dezakeenean;
- c) Kontu-ikuskatzaileak bere iritzia ez ematea, aurkako iritzia ematea edo salbuespenak dituen iritzia ematea, edo kontu-ikuskapenari dagokion txostenaren igorpena galaraztea;
- d) Nahitaezko kaudimen-kapitala ez betetzea; edo
- e) Nahitaezko gutxieneko kapitala ez betetzea.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Aseguru-aktuarioak.*

Aseguru-aktuarioek 66.5 artikuluan eta haren garapen-erregelamenduan aipatzen den funtzio aktuariala bete ahal izango dute.

Edonola ere, aktuario- eta finantza-zientzietan espezializatutako eta izaera aurreratuko goi-mailako unibertsitate-titulu bat lortu dutenak aktuario gisa hartuko dira.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Aseguru-perituak, matxura-komisarioak eta matxura-likidatzaileak.*

Aseguru-perituak izango dira aseguru-kontratu batetik eratorritako kalte-ordainaren zehaztapenean eragiten duten inguruabarren, kalteen balorazioan eta ezbeharraren arrazoiengatik inguruan diktaminatzen duten eta kalte-ordainari dagokion zenbateko likidoaren proposamena egiten duten pertsonak.

Matxuren likidatzaile eta komisario izango dira Itsas Nabigazioaren uztailaren 24ko 14/2014 Legean ezarritako funtzioak garatzen dituztenak.

Kontraesanezko adituen tasazio-prozeduran esku hartzen duten aseguru-perituek, matxura-komisarioek eta matxura-likidatzaileek aseguru-kontratuari buruzko legediaren beharrezko ezagutza teknikoak izan beharko dituzte eta, lanbide erregulatuen kasuan, irizpena eman behar duten arloari dagokion titulazioa izan beharko dute, erregelamendu bidez zehaztutako irismenarekin.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Aseguru-entitateek eta Gizarte Segurantzako Administrazioak erakundeek egindako itunak.*

Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategineko 77. eta 199. artikuluetan eta lege honetan zehaztutakoari kalterik egin gabe, aseguru pribatuen ikuskapen-arauak aplikatuko zaizkie aseguru-entitateek bereganatzen dituzten betebeharrei dagozkien ordainsari-tarifei, oinarri teknikoari eta finantza-bermeei, betiere, eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren edo autonomia-erkidegoetako organo eskudunaren aurretiazko txostenari jarraikiz, Gizarte Segurantzaren Administrazioak erakundeekin edo Gizarte Segurantzako araubide berezietako kudeaketa bereganatu duten –legedia espezifikorekin bat etorritik– zuzenbide publikoko erakundeekin egindako itunei jarraikiz.

Aurreko lerrokan aipatzen diren itunen arabera ezarritako aseguru-polizen ereduak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren edo autonomia-erkidegoetako organo eskudunen eskura egon beharko dute.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Zehapen arloko ikuskatzaileen arteko jakinarazpenak.*

Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak edo Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak zehapen-prozedura bat abiarazten badute beste ikuskatzaile baten kontrolpean dagoen finantza-erakunde batean, egoera hori dagokion ikuskatzaileari jakinaraziko zaio, eta hark beharrezkotzat jotzen duen informazioa lortu ahal izango du beren ikuskapen-eskumenak gauzatu ahal izateko.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoen aldeko kauzio-asegurua.*

Kauzio arloan jarduteko baimena duen aseguru-entitate batekin egindako kauzio arloko aseguru-kontratuak onargarria izango da, berme gisa, administrazio publikoen aurrean, indarrean den legediak kreditu-entitateei edo krediturako finantza-establezimenduei administrazio horien aurrean bermeak izatea eskatzen edo baimentzen dien kasu guztietan. Kauzio arloko aseguru-kontratuak Administrazio publikoen aurrean berme gisa jardun dezan, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Administrazio publikoaren aurrean bermea eman behar duen pertsona aseguru-hartzailea izango da, eta Administrazio hori, aldiz, aseguraturua.
- b) Prima ez ordaintzeak –hura bakarria, lehenengoa edo ondorengoa izan– ez dio aseguratzaleari kontratua suntsiarazteko eskubiderik emango; kontratua ez da iraungiko, eta bere betebeharra bete beharko du, bermea eraginkor egin behar den egoeretan zehar, ezbeharra gertatzen den kasuan.
- c) Aseguratzaleak ezingo ditu asegurudunaren aurka baliatu aseguru-hartzailearen aurka legezkiokkeen salbuespenak.

d) Kauzio arloko aseguru-kontratua formalizatuko den poliza Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren agindu bidez onartutako eredura egokituko da.

Hamalagarren xedapen gehigarria. *Sute eta elementu naturalen arloan jarduten duten aseguru-entitateen informazioa emateko betebeharrak gehigarriak.*

1. Lege honetako A).a) eranskinean aurreikusitako 8. arloan (Sutea eta elementu naturalak) jarduten duten aseguru-entitateek honako informazio hau igorri beharko diote Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzaileari, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako prozedura eta aldizkakotasuna kontuan hartuta:

a) Aseguru-entitatearen identifikazio-datuak: izen soziala, egoitza, eta Aseguru eta Berraseguru Entitateen Administrazio Erregistroan izen emateko erabili den administrazio-gakoa.

b) Suteen aseguru-kontratuengatik jardunaldian zehar kobratu diren primak, udal-mugarteka banatuta, eta horietako bakoitzean kokatutako ondasunengatik bereganatu diren arriskuak aintzat hartuta.

Ondorio horietarako, kontuan hartu beharreko primak honako hauek izango dira: sute-aseguruari dagozkien primen ehuneko 100, eta sute-arriskua barne hartzen duten arrisku anitzeko aseguruari dagozkien premien ehuneko 50.

Koasegururen bat izanez gero, betebeharrak koaseguru-entitate bakoitzari egokituko zaio, bere partaidetza-kuotaren arabera.

2. Betebeharrak hori aplikagarria izango zaie beren jardura Espainian eta kokatzeko eskubidearen edo zerbitzuak emateko askatasunaren araubideari jarraikiz garatzen duten Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan helbideratutako nahiz Espainiako aseguru-entitateei.

Informazioa trataera automatizatuaren xede izango da.

3. Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzaileak, suteak itzali eta horiei aurrea hartzeko zerbitzua mantentzeko tasak eta suteak itzaltzeko zerbitzua ezarri edo areagotzeko ekarpen bereziak likidatu eta biltzeko organo eskudunek eskatuta, udalerritik eta aseguru-entitatearen arabera banatutako informazioa helarazi beharko du; horrela, aseguru-entitate baten sute-aseguruaren prima-bolumenak udalerritik batean kokatuta dauden ondasunen sute-arriskua estaltzen duten aseguru-entitate guztien prima-bolumenaren baturari dagokionez duen ehuneko ezarri ahal izango da.

Informazio hori zuzenean edo Espainiako Udalerritik eta Probintzien Federazioaren bitartez hornituko da, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak zehaztutako prozedura eta epeak betez. Ondorio horietarako, Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzaileak eta Espainiako Udalerritik eta Probintzien Federazioak beharrezko lankidetzak hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte.

Era berean, Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzaileak «Gestora de Concursos para la Contribución a los Servicios de Extinción de Incendios AIE» kudeatzaileari hornitu beharko dio informazioa, hura baita zerga-betebeharrak betetzeko lankidetzak hitzarmenak egiteko aseguru-entitateen erakunderik esanguratsuenak.

4. 1. zenbakian aurreikusitako betebeharrak aseguru pribatuen antolamendurako eta ikuskeraren arau gisa hartuko da, eta hura ez betetzea administrazio arloko arau-hauste gisa hartuko da, lege honetan xedatutakoari jarraikiz.

Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzaileak 1. zenbakian aipatzen den informazioa igorri ez duten eta arlo horretan jarduteko baimena duten aseguru-entitateen zerrenda bidaliko dio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Era berean, Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzaileak betebeharrak hori betetzean gerta daitezkeen ezbehar esanguratsuen berri emango dio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

Betebeharrak ez betetzeak eratorritako administrazio arloko arau-hausteei kalterik egin gabe, Aseguruaren Kontentsazio Kontsultatzailearen jakinarazpenak ikusita, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak errekerimenduak egin ahal izango dizkie aseguru-

entitateei; era berean, kontu-ikuskapen informatikoak edo hornitutako informazioaren egiazkotasuna bermatzera xedaturiko beste neurri batzuk eskatu ahal zaingo dizkie.

5. Aseguru-entitateek kobratutako primen informazioa igortzeko datu-fitxategiak izan behar duen formatua Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez zehaztuko da.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Ehorzketa-aseguruek dituzten arriskuen oinarri teknikoak eta kalibrazioa.*

Erregelamendu bidez, ehorzketa-aseguruei aplikatu beharreko araubide sinplifikatua zehaztuko da, oinarri teknikoari, hornidurei eta nahitaezko kaudimen-kapitalari dagokionez, aseguru-mota honetako arrisku zehatzak kontuan hartuta.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Lege honetan zehaztutako baimenak eta II. Kaudimenera egokitzeko beste neurri batzuk pixkanaka txertatzea.*

1. Lege hau argitaratzen den momentutik aurrera, aseguru- eta berraseguru-entitateek barne-eredu oso edo partzial baten onespren-eskaerak aurkeztu ahal izango dizkiote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, betiere 75.1.b) artikuluari jarraikiz, baita taldearen barne-eredu bati dagozkionak ere, 146. eta 147. artikuluei jarraikiz; Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari egokituko zaio baimen horien inguruko erabakia hartzea.

2. Data horretatik aurrera, aseguru- eta berraseguru-entitateek honako alderdi hauetarako baimena eskatu ahal izango diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari:

- a) 71. artikuluan aipatzen diren funts propio gehigarriak.
- b) 72. artikuluan jasotako funts propioen elementuen sailkapena.
- c) 75.1 a) artikuluan aipatzen diren parametro zehatzen erabilera.
- d) Zeregin berezia duten entitateen sorrera, seigarren xedapen gehigarriari jarraikiz.
- e) Aseguru-zorroa duen bitarteko sozietate baten funts propio gehigarriak, erregelamendu bidez xedatutakoari jarraikiz.
- f) Erregelamendu bidez araututako iraupenean oinarritutako errenta aldakorraren arriskuari dagokion azpi-moduluaren erabilera.
- g) Interes-tasei dagokien aldi baterako egituraren ezkontzagatiko doikuntzaren erabilera, 69.5 artikuluari jarraikiz.
- h) Arriskurik gabeko interes-tasei buruzko neurri iragankorraren erabilera, hemezortzigarren azken xedapenean aipatzen dena.
- i) Hornidura teknikoari buruzko neurri iragankorraren erabilera, hemeretzigarren azken xedapenean aipatzen dena.

3. 2015eko irailaren 1etik aurrera, 101. artikuluan adierazitakoa betetzen duten aseguru-entitateek III. tituluko VIII. kapituluan araututako kaudimen-araubide berezia aplikatu dadila eskatu ahal izango diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari.

4. Aseguru- eta berraseguru-entitateen taldeko ikuskapenari dagokionez, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak honako hauetarako eskumena izango du:

- a) Taldearen ikuskapena aplikatzeko eremua eta maila zehazteko, 133. artikuluan eta 140. artikulutik 142. artikulura adierazten denari jarraikiz.
- b) Taldeko ikuskatzailea identifikatzeko, 134. artikuluan arabera.
- c) Ikuskatzaileen kolegio bat ezartzeko, 135. artikuluari jarraikiz.
- d) Taldean, 2. zenbakiko c), h) eta i) letretan xedatutakoa baimentzeko, Europar Batasunaren aplikazio zuzeneko araudian zehazten denari jarraikiz.
- e) Kreditu-erakundeetan, inbertsio-zerbitzuen enpresetan eta lotetsitako finantza-erakundeetan partaidetza ororen kenkariak erabakitzeke, erregelamendu bidez garatzen den moduan.

f) Taldearen kaudimena kalkulatzeko metodoa aukeratu dadila baimentzeko, erregelamendu bidez xedatzen denarekin bat etorritz.

g) Baliokidetasunari buruzko balorazioa egiteko, hala badagokio, 154. artikuluaekin bat etorritz.

h) Arriskuen kudeaketa zentralizatuko araubidearen aplikazioa baimentzeko, 150. artikuluari jarraikiz.

i) Baliokideak ez diren hirugarren herrialdeetako taldeen ikuskapen egokia bermatzen duten metodoak zehazteko, eta baliokidetasunaren egiaztapen-maila zehazteko, erregelamendu bidez xedatutakoari jarraikiz.

5. Xedapen honi jarraikiz izapidetutako prozedurei amaiera ematen dieten ebazpenek ez dute ondorioz izango 2016ko urtarrilaren 1era arte, data horren aurretik eman badira.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bitartez egin beharra.*

Zirkular bidez, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak harekin bitarteko elektronikoen bitartez harremanetan jartzeko beharra ezarri ahal izango du, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Hornidura teknikoak kontabilitate-ondorioetarako kalkulatzeko araubidea.*

Aseguru-entitateen kontabilitate-plana onartzen duen uztailaren 24ko 1317/2008 Errege Dekretua kontabilitate-ondorioetarako aldatzen ez den bitartean, aseguru pribatuen antolamendu- eta ikuskapen-erregelamendua onartzen duen azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuan eta haren garapen-araudian erregelamendu bidez zehaztutako artikulua izango dira aplikagarriak.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Araudiei buruzko aipamenak.*

Urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskapenari buruzko Legearen testu bategineko beste xedapen batzuetan gauzatutako arau-erreferentziei dagokienez, horiek lege honetako xedapenei buruzkoak direla ulertuko da.

Hogeigarren xedapen gehigarria. *Baliabideak berriz esleitzea.*

Lege honetatik eratorritako betebeharreri Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroaren errekurtso arruntan berresleipen bidez erantzungo zaie, eta ez da zuzkidura gehigarririk eskatuko.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Aseguru-mutuen, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen eta prima aldakorreko kooperatiben araubidea.*

Urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako aseguru pribatuen antolamendu- eta ikuskapen-legearen testu bateginean aurreikusitakoarekin bat etorritz, lege hau indarrean jartzean aseguru-jarduera gauzatzeko baimena duten prima aldakorreko aseguru-mutuek eta prima aldakorreko gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek, eta urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako aseguru pribatuen antolamendu eta ikuskapenerako legearen testu bategineko 69.2 b) artikuluan aurreikusitakoaren bat etorritz, autonomia-erkidegoren batean aseguru-jarduera gauzatzeko baimena jaso duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek eta prima aldakorreko kooperatibek ezin izango dute aseguru-jarduera gauzatzen jarraitu forma juridiko horrekin.

Lege hau indarrean jartzen denetik urtebeteko epean, prima aldakorreko aseguru-mutuek prima finkoko aseguru-mutua edo sozietate anonimo bihurtu beharko dute, edo

hura desegin eta likidatzea erabaki beharko dute. Gainera, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak eta prima aldakorreko kooperatibak prima finkoko gizarte-aurreikuspeneko mutualitate eta prima finkoko kooperatiba bihurtu ahal izango dira, hurrenez hurren.

Bigarren xedapen iragankorra. *Kapital sozialeko eta mutua-funtsaren gutxieneko zenbatekoetara egokitzeko araubide iragankorra.*

1. Lege hau indarrean jartzen den unean urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko legearen testu bategineko seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako araubidera atxikita jarraitzen duten aseguru-entitateek araubide hori mantentzen jarraitu ahal izango dute, hornidura teknikoak behar bezala kalkulaturik, kontabilizatuta eta inbertituta badituzte, nahitaezko kaudimen-kapitala eta legez eskatu daitekeen nahitaezko gutxieneko kapitala badute, eta kontrol bereziko neurrien prozedura bati atxikita ez badaude, eta desegite-arrazoiak edo administrazio-baimena baliogabetzeko arrazoiak ez badituzte.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa aukeratu duten eta bertan eskatutako baldintzaren bat betetzeari uzten dioten entitateek bideragarritasun-plan bat aurkeztu beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari haren baimena jaso ahal izateko, baldintza guztiak betetzeari uzten dioten momentutik aurrera. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak bideragarritasun-plana onartzen badu, entitate horiek lege honetako 33. edo 34. artikuluetan eskatzen diren gutxieneko kapital soziala edo mutua-funtsa lortzeko baldintzak eta epea ezarriko dituzte; azken hori bi urtekoa izango da gehienez ere. Bideragarritasun-planari dagokionez, aurreikusitako epea ez betetzea desegiteko arrazoa izango da.

3. 1. zenbakian xedatutakoa aukeratu duten aseguru-entitateek baimena duten arloetan mantendu ahal izango dute beren jarduera, baina ezin izango dute beste arlo batzuetara hedatu.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Abian diren administrazio-prozedurak.*

Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako administrazio-prozedurak aurreko araudiaren bidez arautuko dira.

Laugarren xedapen iragankorra. *Prestazioak areagotzeko administrazio-baimena lortu ez duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen jarduketarako baldintzen araubide iragankorra.*

1. 2015eko irailaren 1etik abenduaren 31ra, beren prestazioak areagotzeko baimenik ez duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek lege honetako 102. artikuluan aurreikusitako araubide berezira atxikitzeko eskaera egin ahal izango diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Araubide iragankor horren indarraldia hiru urtekoa izango da gehienez ere, lege hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.

2. Araubide berezi horren pean egon ahal izateko, II. kaudimen-araubide berezira egokitzeko plan bat aurkeztu beharko diote Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari, eskaeraz gain.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako aseguru pribatuak antolatzeari eta gainbegiratzeari buruzko Legearen testu bateginari jarraikiz egindako aseguru-eragiketa jakin batzuen araubidea. Mugen salbuespena kapital gisako prestazioetan.*

1. Lege hau indarrean jarri aurretik baimena zuten eta, prestazioak areagotzeko baimenik gabe, defentsa juridikoko edo aholkularitzako eragiketak gauzatzen zituzten edo lanbidea gauzatzea eragozten duten egintza juridikoek arrazoitutako premiak konpontzeko familia-laguntzak eskaintzen zituzten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek eragiketa horiek gauzatzen jarraitu ahal izango dute izaera mugagabez.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa bete gabe egiten diren arriskuen estaldurak debekatutako eragiketa gisa hartuko dira lege honetako 5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Lege honen aurreko legediaren babespean, pertsonen lege honetako 44.1 artikuluan ezarritako mugen gainetik prestazioak legez bermatzen dizkieten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek lehendik ezarrita dituzten prestazioak bermatzen jarraitu ahal izango dute; bestalde, ezin izango dute prestazioak handitu edo birbaloratzeko akordiorik egin horiek xedapen horretan adierazitako mugak baino handiagoak direnean, eta ezin izango dituzte mutualista berriak txertatu prestazioen erregelamendu edo poliza horietara.

Seigarren xedapen iragankorra. *2016ko urtarrilaren 1ean inskribatuta dauden aholkulari laguntzaileak.*

2016ko urtarrilaren 1ean aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 52. artikuluan aurreikusitako Erregistroan txertatuta dauden laguntzaile aholkulariek baja hartu beharko dute, inskribatzeko legezko betebeharra desagertzean.

Zazpigarren xedapen iragankorra. *Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako aseguru pribatuak antolatzeari eta gainbegiratzeari buruzko Legearen testu bateginari jarraikiz baimendutako prestazio sozialen araubidea.*

1. Lege hau indarrean jartzean prestazio sozialak emateko baimena zuten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek –urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko legearen testu bateginako 64.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz– horiek ematen jarraitu ahal izango dute, baita baimenduta dauden gizarte-prestazioak lege honen 44.1 artikuluan aipatutako aseguru-eragiketekin lotuta ez badaude ere, betiere bertan zehaztutako baldintzak eta honako hauek betetzen badituzte:

a) Lege hau indarrean jartzen denetik, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateko gizarte-organoek ezin izango dute gizarte-prestazio berririk eman lege honen 44.4 artikuluan xedatutakoa betetzen ez duten mutualisten alde.

b) Gizarte-organoek lege hau indarrean jarri aurretik adostu dituztenak ematen jarraitu ahal izango dira horiek guztiz iraungi arte, luzatzeko inolako aukerarik gabe.

c) Zenbaki honetako a) eta b) letretan xedatutakoa bete gabe egiten diren gizarte-prestazioak debekatutako eragiketa gisa hartuko dira, lege honen 5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Lege hau indarrean jartzean prestazio sozialak emateko baimena zuten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek –urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko legearen testu bateginaren 64.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz– horiek ematen jarraitu ahal izango dute, baimenduta dauden gizarte-prestazioak lege honetako 44.1 artikuluan aipatutako aseguru-eragiketetara egokitzen badira, eta azken xedapen horretan eskatzen den moduan.

Zortzigarren xedapen iragankorra. *Gizarte-aurreikuspeneko mutualitate-federazioen berraseguru-jardueraren araubide iragankorra.*

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitate-federazioen artean sinatutako aseguru-kontratuak iraungi arte mantendu ahal izango dira, luzatzeko edo berritzeko aukerarik gabe, aurreko legeetan xedatutakoaren babespean eta lege hau indarrean jartzean indarrean bazeuden.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. *Nahitaezko gutxieneko kapitalaren araubide iragankorra.*

1. Lege hau indarrean jartzean urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez eta haren garapen-araubide bidez onartutako aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko legearen testu bategineko 17. artikuluan zehaztutako kaudimen-marjina betetzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateek nahitaezko gutxieneko kapitala estaltzeko moduko oinarrizko funts propio onargarririk ez badute –lege honen 78. artikuluari jarraikiz–, azken xedapen horretan ezarritakoa bete beharko dute 2016ko abenduaren 31 baino lehen. Bestela, aseguru- edo berraseguru-jarduera garatzeko administrazio-baimena ezeztatuko da.

Aurrekoari kalterik egin gabe, beharrezkoa denean egokitzen jotzen diren kontrol bereziko neurriak aplikatuko dira.

2. 2017ko abenduaren 31ra arte, lege honen 78.3 artikuluko lehen lerrokadan aurreikusten diren nahitaezko gutxieneko kapitalaren muga kalkulatzeko ehunekoak nahitaezko kaudimen-kapitalari aplikatuko zaizkio, eska daitezkeen kaudimen-kapital gehigarriak gehitu gabe.

Hamargarren xedapen iragankorra. *Kaudimen-araubide bereziaren aplikazio-eremua.*

2015eko irailaren 1etik abenduaren 31ra, beste estatu kide batzuetan edo hirugarren herrialdeetan kokatzeko eskubidearen edo zerbitzuak emateko askatasunaren araubidearen araberrako jarduerak gauzatzen ez dituzten eta Espainian helbideratuta dauden aseguru-entitateek III. tituluko VIII. kapituluan araututako kaudimen-araubide berezira atxiki ahal izango dute Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eskaera egin ostean eta eskaera egin aurreko ekitaldian zehar erregelamendu bidez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu ostean.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. *2016ko urtarrilaren 1etik aurrera kontratu berririk sinatzen ez duten aseguru- eta berraseguru-entitateak.*

1. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aseguru- edo berraseguru-kontratu berririk egiten ez duten eta beren kontratu-zorroa beren jarduerari amaiera emateko bakarrik kudeatzen duten aseguru- eta berraseguru-entitateek ez dituzte lege honetako I. titulutik V. titulura jasotako xedapenak bete beharko, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

a) Entitateak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari bere jarduera 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen etengo duela jakinarazten badio.

b) Entitateak lege honetako VI. tituluaren aurreikusitako berrantolatze-neurriak bete behar baditu eta administratzaile bat izendatu badu.

2. 1. zenbakian aipatutako entitateek lege honetako I. titulutik V. titulura xedatutakoa bete beharko dute data hauetatik aurrera:

a) 1.a) zenbakiko entitateen kasuan, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera edo, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia entitatearen jarduera lagatzeko egin diren aurrerapenekin bat ez badator, lehenago.

b) 1.b) zenbakiko entitateen kasuan, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera edo, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusia entitatearen jarduera lagatzeko egin diren aurrerapenekin bat ez badator, lehenago.

3. Neurri iragankor horri atxiki ahal izateko, aseguru- eta berraseguru-entitateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Entitatea talde baten barnean badago, taldea osatzen duten entitate guztiek aseguru- edo berraseguru-kontratu berriak sinatzeari utzi beharko diote.

b) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari txosten bat aurkeztu beharko diote urtero, eta bertan, jarduera lagatzeko helburuarekin egin dituzten aurrerapenak jasoko dira.

c) Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari neurri iragankor horren aplikazioa jakinarazi beharko zaio.

4. Neurri iragankor hori hartuta ere, entitateek lege honi eta hura garatzen duen erregelamenduari jarraikiz jardun beharko dute.

Hamabigarren xedapen iragankorra. *Aldi baterako indarraldia.*

Hemezortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari kalterik egin gabe, eta lege hau garatzeko erregelamendu bidezko xedapenak eman bitartean, honako hauek indarrean jarraituko dute: abenduaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretu bidez onartutako aseguru pribatuen antolamendu- eta ikuskapen-erregelamendua; abenduaren 27ko 1430/2002 Errege Dekretu bidez onartutako gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen erregelamendua; uztailaren 24ko 1317/2008 Errege Dekretuak onartutako aseguru-entitateen kontabilitate-plana; eta aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeko legearen testu bategina garatzeko eman diren izaera orokorreko gainerako xedapen guztiak, lege honen aurkakoak ez diren heinean.

Hamahirugarren xedapen iragankorra. *Lege honetako azken xedapenetatik lehenengoaren bitartez Aseguru Kontratuaren Legean txertatu diren aldaketan araubide iragankorra.*

Aseguru-entitateek sei hilabeteko epea izango dute lege hau indarrean jarri ostean merkaturatutako polizak Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legearen azken xedapenetatik lehenaren bidez txertatutako aldaketetara egokitzeko. Epe hori igaro eta gehienez ere urtebeteko epean, aseguru-entitateek indarrean dauden kontratuei dagozkien polizak egokituko dituzte horiek berritzean. Dena den, lege hau indarrean jartzen denetik aginduzko izaera duten xedapenak zuzenean aplikatu beharrekoak izango dira.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik gelditzen dira lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; zehazki, honako hauek:

a) Aseguru Kontratuari buruzko 50/1980 Legearen 33.a) eta 75. artikulua, eta 107.2 artikuluko arrisku handien definizioa.

b) 2020/1986 Errege Dekretua, abuztuaren 22koa, aseguru-entitateen batzorde likidatzailearen Erregelamendua onartzen duena.

c) 2226/1986 Errege Dekretua, irailaren 12koa, Aseguru Entitateen Batzorde Likidatzaileari abuztuaren 20ko 11/1981 Legegintzako Errege Dekretu bidez sortutako Batzordeari esleitutako funtzioak esleitzen dizkiona.

d) 731/1987 Errege Dekretua, maiatzaren 15ekoa, Aseguruen Konpentsazio Kontsortzioaren erregelamendua onartzen duena, hura indarrean egon daitekeenean.

e) 1988ko martxoaren 25eko Agindua, abuztuaren 22ko 2020/1986 Errege Dekretua garatzen duena.

f) 312/1988 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Aseguru Entitateek Batzorde Likidatzaileari gizarte-aurreikuspeneko entitateen likidazioa esleitzen diona.

g) Urriaren 29ko 6/2004 Legegintzako Errege Dekretua, aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena, mutuei, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei eta aseguru-kooperatibei dagozkien 9., 10. eta 24. artikulua salbu; seigarren xedapen gehigarria; zazpigarren xedapen gehigarria; eta Legegintzako Errege Dekretuaren xedapen indargabetzailean jasotzen den erreferentzia –a).8 letran–; haren bidez, indarrean mantentzen da aseguru pribatuak antolatu eta ikuskatzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamalagarren xedapen gehigarria. Horiek indarrean jarraitu beharko dute.

Azken xedapenetatik lehena. *Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legea aldatzea.*

Aldatu egin da Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legea. Honela egongo da idatzita:

Bat. Honela geratzen da idatzita zortzigarren artikuluko 3. zenbakia:

«3. Arrisku estaliaren izaera, kontratuan emandako estaldurak eta bermeak argi eta garbi eta modu ulergarrian deskribatuz, baita horietako bakoitzari dagokionez ere, eragiten dieten salbuespenak eta mugak modu tipografikoan nabarmenduz.»

Bi. Hamaikagarren artikulua honela idatzita geratu da:

«1. Kontratuaren indarraldian zehar aseguruaren hartzaileak edo aseguratuak aseguratzailari lehenbailehen jakinarazi beharko dizkio aurreko artikuluan aurreikusitako galdeketa aitortutako egoerak eta faktoreen aldaketak, haien izaeragatik, aseguratzailak kontratua burutzeko unean inguruabar horiek ezagutu izan balitu, kontratua ez gauzatzeko edo baldintza garestiagoak jartzeko bide emango luketenean.

2. Pertsonen aseguruetan, hartzaileak edo aseguratuak ez du aseguruaren osasun-egoerari buruzko egoeren aldaketa jakinarazi beharko, eta horiek ez dira arriskuaren larriagotze-arrazoi gisa hartuko.»

Hiru. Hogeita bigarren artikulua honela idatzita geratuko da:

«1. Kontratuaren iraupena polizan zehaztuko da, baina bertan ez da hamar urtetik gorako epea finkatu ahal izango. Dena den, hura behin edo gehiagotan luzatu ahal izango da, aldi bakoitzean gehienez ere urtebetez.

2. Alderdiak kontratuaren luzapenari uko egin ahal izango diote. Horretarako idatzizko jakinarazpena bidali beharko diote beste alderdiari, indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago, luzapenaren aurka dagoena hartzailea denean, eta bi hilabete lehenago, hura aseguratzaila denean.

3. Aseguratzailak aseguru-kontratuan egindako aldaketa oro jakinarazi beharko dio hartzaileari, abian den aldia amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago.

4. Alderdi bakoitzaren luzapenari uko egiteko edo aurkajarezintasunerako baldintzak eta epeak polizan nabarmenduko dira.

5. Aurreko zenbakietan xedatutakoa ez da aplikagarria izango hura bizitza-aseguruaren araudiarekin bat ez badator.»

Lau. Bosgarren atala gehitu da, «Ehorzketa- eta mendekotasun-aseguruak», III. tituluaren barnean, eta honako artikulua hauek ditu:

«Ehun eta sei bis artikulua.

1. Ehorzketa-aseguruaren bitartez, aseguratuak polizan itundutako hileta-zerbitzuak eman beharko ditu, titulu honetan eta kontratuan zehaztutako mugen barnean, aseguratuak hil egiten bada.

Aseguratutako zenbatekoa aseguru-entitateak emandako zerbitzuaren kostua baino handiagoa bada, diferentzia hori hartzaileari edo, hala badagokio, oinordekoei egokituko zaie.

2. Bere borondateaz gaindiko edo halabeharrezko arrazoiak direla-eta, edo zerbitzua aseguru-entitateak eskaini ez dituen beste bitarteko batzuen bitartez egiten den kasuan, aseguru-entitateak prestazioa eman ahal izan ez badu, aseguru-entitateak aseguratuak zenbatekoa ordaindu beharko die hil den aseguruaren oinordekoei, eta ez da eskaintako zerbitzuen kalitatearen erantzule izango.

3. Aseguru-entitate berean ehorzketa-aseguru bat baino gehiago badaude, aseguru-entitateak itzuli egin beharko ditu, hartzaileak hala eskatuta, konkurrentzia gertatu ostean balio gabetu nahi izan diren ordaindutako polizako primak.

4. Heriotza gertatzen bada, eta aseguru-entitate batean baino gehiagotan ehorzketen aseguru-konkurrentzia gertatu bada, hileta-zerbitzua kontratuan aurreikusitako moduan eta baldintzetan eskaintzeko betebeharra bete ahal izan ez duen aseguru-entitateak aseguratuakoa zenbatekoa ordaindu beharko die hil den aseguratuaren oinordekoei.

5. Hartzekodunak bakarrik egin ahal izango dio uko kontratua luzatzeari.

Ehun eta sei ter artikulua.

1. Mendekotasun-aseguruaren bitartez, aseguru-entitateak nahitaez bete beharko du hitzartutako prestazioa, betiere titulu honetan eta kontratuan zehaztutako mugen barnean eta mendekotasun-egoeraren bat gertatzen den kasuetan; horren helburua aseguratuarentzat kaltegarriak diren egoera horretatik eratorritako ondorio kaltegarriei guztiz edo hein batean erantzutea izango da, zuzenean nahiz zeharka.

2. Artikulu honen ondorioetarako, mendekotasun-egoera gisa hartuko da mendekotasun-egoeran dauden pertsonen erantzuteko eta autonomia pertsonala sustatzeko araudian aurreikusten dena.

3. Aseguru-entitatearen prestazioa honako hauetan oinarritu ahal izango da:

- Aseguratuari hitzartutako errenta edo kapitala ordaintzea.
- Aseguratuari laguntza horretatik eratorritako gastuak itzultzea.
- Aseguratuari laguntza-zerbitzuak eskaintzen zaizkiola bermatzea; aseguru-entitateak zerbitzu horiek aseguratuaren esku jarri eta horien kostua zuzenean bereganatu beharko du.

4. Hartzekodunak bakarrik egin ahal izango dio uko kontratua luzatzeari.

Ehun eta sei quáter artikulua.

Osasun-laguntza, mendekotasun eta ehorzketarako aseguruetan, aseguru-entitateek zerbitzu-emailea aukeratzeko askatasuna bermatuko diete aseguratuari, kontratuan zehaztutako mugak eta baldintzak kontuan hartuta. Kasu horietan, aseguru-entitateak aseguratuaren eskura jarri beharko du, erraz eskuratzeko moduan, aukeratzeko askatasun eraginkorra bermatuko duen zerbitzu-emaileen zerrenda bat, zerbitzu-emaile bakar bat aurreikusten den kontratuen kasuan salbu.

Ehorzketa-aseguruetan, 106 bis.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, oinordekoek zerbitzuak kontratatzeke orduan, aseguru-entitateak aurreko lerrokadari jarraikiz eskaintako bitartekoak ez diren beste batzuk erabiltzen dituenean.»

Azken xedapenetatik bigarrena. *Zergen, Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legea aldatzea.*

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako aldaketa hauek txertatuko dira Zergen, Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Arloko Neurriei buruzko buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legean:

Bat. 12 artikulua bederatzigarren apartatuko 2. zenbakia ezabatu da.

Bi. 12. artikulua hamalagarren zenbakia ezabatu da.

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea aldatzea.*

Eraikinen antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea aldatu da, eta honela idatzita geratu da:

Bat. Honela geratzen da idatzita 19. artikuluko 1. zenbakia:

«1. Lege honen 2. artikuluan jasotzen diren eraikinen eraikuntza-lanetarako bermeen araubidea behar bezala gauzatuko da, bigarren xedapen gehigarria

aplikatuz zehazten den nahitaezkotasunarekin bat etorritz, eta honako berme hauek erreferente gisa hartuta:

a) Kalte materialen aseguru, kauzio-aseguru edo finantza-bermea, urtebetez, lanak amaitzeko elementuei eragiten dieten exekuzio-akatsengatik kalte materialak ordaintzen direla bermatzeko; horren orde, sustatzaileari obrako exekuzio materialaren ehuneko 5a atxiki ahal izango zaio.

b) Kalte materialen aseguru, kauzio-aseguru edo finantza-bermea, hiru urtez, 3. artikuluko c) letrako 1. zenbakian jasotzen diren bizigarritasun-baldintzak ez betetzea eragiten duten instalazioen edo eraikuntza-elementuen akatsek sortutako kalteak ordaintzen direla bermatzeko.

c) Kalte materialen aseguru, kauzio-aseguru edo finantza-bermea, hamar urtez, zimenduetan, euskarrietan, habeetan, solairuetan, karga-horretan edo bestelako egiturazko elementuetan eragiten duten edo horietan jatorria duten eraikineko akatsek eragindako kalte materialak ordaintzen direla bermatzea, eraikinaren egonkortasuna eta erresistentzia mekanikoa zuzenean arriskuan jarri dezaketenean.»

Bi. Aldatu egiten da lehenengo xedapen gehigarria, eta honela geratu da idatzita:

«Lehenengo xedapen gehigarria. *Eraikuntzan zehar, prezioaren konturako kantitateak jasotzea.*

Bat. Kantitate aurreratutako jasotzen dituzten sustatzaileen betebeharrak.

1. Mota guztietako etxebizitzaren eraikuntza sustatzen duten –jabeen erkidego-erregimenean edo kooperatiba-sozietateen erregimenean egindakoak barne– eta eskuratzaileen aldetik horiek eraikitzeke dirua bereganatu nahi duten pertsona fisikoek eta juridikoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eraikitzeke baimena lortzen den momentutik, entregatutako diru-kantitateak eta legezko interesak itzuliko direla bermatuko dute. Horretarako, kauzio-aseguru bidezko kontratua egingo dute Espainian jarduteko baimena duten aseguru-entitateekin, edo behar bezala baimendutako kreditu-entitateek igorritako abal solidario bidez, etxebizitza entregatzea hitzartu den epean, eraikuntza abiarazi edo amaitzen ez bada.

b) Erosleek aurreratutako zenbatekoak kreditu-erakunde bidez jasoko dituzte. Horiek kontu berezi batean jarri beharko dira, sustatzaileari dagozkion beste mota batzuetako funtsetatik bereizita, baita jabeen erkidego edo kooperatiba-sozietateen kasuan ere, eta horiek etxebizitzaren eraikuntzatik eratorritako ondorioetarako bakarrik erabili ahal izango dira. Kontu edo gordailu horiek ireki ahal izateko, kreditu-erakundeak aurreko baldintzan aipatzen den bermea eskatuko du, bere erantzukizunaren pean.

2. Bermea eskuratzaileek jarritako kantitateetara hedatuko da, zerga aplikagarriak eta diruaren legezko interesa barne.

Bi. Bermeen baldintzak.

1. Kauzio-aseguruaren kontratuak etxebizitzaren eraikuntza eta salmentan aurreratutako kantitateen berme gisa balio dezan, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Aseguru-poliza indibidual bat egingo da eskuratzaile bakoitzeko, eta bertan, modu aurreratuan entregatu diren kantitateei edo merkataritza-ondorioei dagokien higiezinak identifikatuko da.

b) Aseguratutako zenbatekoaren barnean sartuko dira salmenta-kontratuan, sustapenera atxikitzeke kontratuan edo kooperatiba-fasean aurreratutako

kantitateen zenbateko osoa, aplikatu beharreko zergak barne; hura diruaren legezko interesaren arabera handituko da, aurrerakina modu eraginkorrean entregatzen denetik sustatzaileak etxebizitza ematea aurreikusten duen datara arte.

c) Sustatzailea izango da aseguru-hartzailea, eta hari egokituko zaio aseguru-aldi osoaren prima ordaintzea, salmenta-kontratua, sustapenera atxikitzeko kontratua edo kooperatiba-fasea edo erreminta juridiko baliokidea eskritura publiko egin arte.

d) Aseguratu izaera izango dute salmenta-kontratuan agertzen diren eskuratzailleak.

e) Aseguratzailleak ezingo ditu asegurudunaren aurka baliatu aseguru-hartzailearen aurka legozkioken salbuespenak. Sustatzaileak prima ordaintzen ez badu, hura ez da, inola ere, aurkatzeko moduko salbuespena izango.

f) Kontratuaren iraupena ez da eraikuntzarako konpromisoari eta etxebizitza entregatzeari dagokion iraupena baino laburragoa izango. Etxebizitzak entregatzeko epea luzatu egiten bada, sustatzaileak aseguru-kontratua luzatu ahal izango du dagokion prima ordainduta; aseguratuari luzapen horren berri eman beharko dio.

g) Asegurua indarrean den bitartean, aseguru-entitateak sustatzaile-hartzailearen dokumentuak eta datuak egiaztatu ahal izango ditu horiek aseguratuari dagokienez bereganatutako betebeharrekin lotuta badaude.

h) Eraikuntza ez bada hitzartutako epean abiarazten edo ondo amaitzen, eta modu frogagarrian sustatzaileari kontura ordaindutako ekarpenak itzultzeko eskatzen bazaio, zerga aplikagarriak eta zergak barne, eta hark hogeita hamar eguneko epean zenbateko hori itzultzen ez badu, aseguratuak kasuan kasuko kalte-ordaina ordaindu dezala eskatu ahal izango dio aseguru-entitateari. Era berean, aseguratuak zuzenean egin ahal izango dio eskaera aseguru-entitateari, sustatzailearen alde aurretiko erreklamazioa egitea posible ez denean.

Aseguru-entitateak hogeita hamar eguneko epea izango du aseguratuari ordaintzeko, hark erreklamazioa egiten duenetik kontatzen hasita.

i) Aseguratuaren ekarpenak direla egiaztatzen ez den kasuan, kantitateak ez dira ordainduko, ezta aseguru-kontratuko zenbateko aseguratuaren barnean sartu badira ere, lagapen-kontratuan haren entrega atzeratua hitzartu delako, hain zuzen.

j) Aseguru-entitateak aseguratuari ordaindutako kantitateak eskatu ahal izango dizkio sustatzaile-hartzaileari, eta horretarako, horiei dagozkien eskubideetan subrogatuko da.

k) Aseguru-kontratuak estalitako ezbeharraren eraginez, aseguru-entitateak aseguratuari kalte-ordaina ordaindu badio, sustatzaileak ezin izango du etxebizitza besterendu aseguru-entitateari aurretiaz kalte-ordainari dagokion kantitatea ordaindu ez badio.

l) Berriaz xedatzen ez den guztietan, Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legea aplikatuko da.

2. Kauzio-aseguruaren kontratuak etxebizitzaren eraikuntza eta salmentan aurreratutako kantitateen berme gisa balio dezan, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Kreditu-erakundeak salmenta-kontratuan, sustapenera atxikitzeko kontratuan edo kooperatiba-fasean edo erreminta juridiko baliokidean aurreratutako kantitatearen zenbateko osoa igorri eta indarrean mantendu beharko du, aplikatu beharreko zergak barne; hura diruaren legezko interesaren arabera handituko da, aurrerakina modu eraginkorrean entregatzen denetik sustatzaileak etxebizitza ematea aurreikusten duen datara arte.

b) Eraikuntza ez bada hitzartutako epean abiarazten edo ondo amaitzen, eta modu frogagarrian sustatzaileari kontura ordaindutako ekarpenak itzultzeko eskatzen bazaio, zerga aplikagarriak eta zergak barne, eta hark hogeita hamar eguneko epean zenbateko hori itzultzen ez badu, onuradunak kantitate horien ordainketa eskatu ahal izango dio abal-emaileari. Era berean, onuradunak zuzenean

egin ahal izango dio eskaera berme-emaileari, sustatzailearen alde aurretiko erreklamazioa egitea posible ez denean.

c) Sustatzaileak bermatutako betebeharra bete ez duenetik bi urteko epea igaro ostean, eskuratzailerak kontratua deuseztatzeko eta aurreratutako kantitateak itzultzeko eskaera egiten ez badu, abala iraungi egingo da.

Hiru. Kontratuari buruzko informazioa.

Etxebizitzak erosteko kontratuetan, sustatzaileari kantitate aurreratuak ematea hitzartzen bada, jabeen erkidego kasuetan edo kooperatiba-sozietate kasuetan barne, berariaz adierazi beharko da:

a) Sustatzaileak eskuratzailerari kontura jasotako kantitateak itzultzeko betebeharra izango duela, baita zerga aplikagarriak eta legezko interesak ere, eraikuntza kontratuan zehaztutako hitzartutako epeetan abiarazi edo amaitzen ez bada edo bizitzeko baimena, lehenengoz okupatzeko lizentzia edo etxebizitza okupatzeko dokumentu baliokidea lortzen ez bada.

b) Xedapen honetako bat.1.a) zenbakian aipatzen den aseguru-kontratuaren edo banku-abalaren erreferentzia; era berean, aseguru-entitatearen edo entitate abal-emailearen izena adierazi beharko da.

c) Eskuratzailerak egindako kontratuaren eraginez aurreratu behar dituen kantitateak emateko erabiliko duen kontuaren eta kreditu-erakundearen izendapena.

Salmenta-kontratua emateko orduan, sustatzaileak, jabeen erkidego edo kooperatiba-sozietateak barne, prezioaren kontura aurreratu behar diren kantitateen bermea, aipatutakoa eta banakakoa, egiaztatuko duen dokumentua eman beharko dio eskuratzailerari.

Lau. Bermearen exekuzioa.

Eraikuntza abiarazi ez bada edo etxebizitza entregatu ez bada, eskuratzailerak kontratua hutsaltzea eta kontura entregatutako kantitateak jasotzea erabaki ahal izango du, zerga aplikagarriak eta gehitutako legezko interesak barne. Bestela, sustatzaileari luzapen bat ematea erabaki ahal izango du, eta kasu horretan, epe berria argi eta garbi adierazi beharko da luzatutako kontratuaren baldintza gehigarri batean, eraikuntza amaitu eta etxebizitza entregatzeko data berria adieraziz.

Bost. Bermea baliogabetzea.

Administrazio-organo eskudunak bizigarritasun-zedula, etxebizitza lehenengoz okupatzeko lizentzia edo etxebizitza okupatzeko dokumentu baliokidea eman ostean, eta sustatzaileak eskuratzailerari etxebizitzaren entrega egiaztatu ostean, aseguru-entitateak edo abal-emaileak emandako bermeak baliogabetu egingo dira. Aurreko baldintzak bete ostean, ondorioak berdinak izango dira eskuratzailerak etxebizitza jasotzeari uko egiten badio.

Sei. Etxebizitzen promozioari dagokion publizitatea.

Lanak abiarazi aurretik edo eraikuntza-fasean zehar konturako kantitateak jaso dituzten etxebizitzen promozioari dagokion publizitatea egiterakoan nahitaez adierazi beharko da sustatzailearen jarduketa eta kontratazioa lege honetan zehaztutako baldintzen arabera izango dela; era berean, aseguru-entitate edo abal-emaile bermatzailea aipatu beharko dira, baita aurreratutako kantitateak sartu beharko diren kontu berezia irekita dagoen kreditu-erakundea ere.

Zazpi. Arau-haustek eta zehapenak.

Xedapen honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzea arau-hauste gisa hartuko da kontsumo arloan; horrenbestez, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko

araudian eta legedia orokorrean aurreikusitako kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko zehapen-araubide berezian xedatutakoa aplikatuko da, betiere indarrean den Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren araudiak esleitutako eskumenei kalterik egin gabe.

Xedapen honetako bat.1 zenbakian aipatzen den bermea eratu beharra betetzen ez bada, aseguru behar den itzuli beharreko kantitateen ehuneko 25era arteko zehapena edo autonomia-erkidegoetako araudian xedatutakoari jarraikiz dagokion zehapena ezarriko da.

Aurrekoaz gain, sustatzaileari eraikuntza antolatzeke legedia zehatzari jarraikiz dagozkion arau-hauste eta zehapenak ezarriko zaizkio, baita jabeen erkidego edo kooperatiba-sozietateei ere.

Zortzi. Erregelamendu bidezko garapena.

Erregelamendu bidez zehaztu ahal izango dira xedapen gehigarri honetan ezarritako baldintzak bete beharko ez dituzten etxebizitzaren sustapenerako erakunde publikoak.

Gobernuak beharrezko xedapen gehigarriak eman ditzake xedapen gehigarri honetan xedatutakoa garatzeko.»

Hiru. Hirugarren xedapen iragankorra erantsi da, eta honela dio:

«Hirugarren xedapen iragankorra. *Eraikinen antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legea aldatzen duen aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak jasotako lehen xedapen gehigarrian («Eraikuntzan zehar prezioaren konturako kantitateak jasotzea») gehitutako araubidera egokitzea.*

2016ko uztailaren 1a baino lehen, eta egun horretatik aurrera ematen diren konturako kantitateen kasuan, aseguru-entitateek behar bezala egokitu beharko dituzte 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden polizak aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen azken xedapenetatik hirugarrena bi puntuan txertatutako araubidera; haren bidez, Eraikuntzaren antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen lehen xedapen gehigarria («Eraikuntzan zehar prezioaren konturako kantitateak jasotzea») aldatu da.»

Lau. Hirugarren xedapen indargabetzailea gehitu zaio, eta honela dio:

«Hirugarren xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik gelditzen dira lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak; zehazki, honako hauek:

- a) 57/1968 Legea, uztailaren 27koa, Etxebizitzak eraiki eta saltzean kantitate aurreratuak jasotzeko buruzkoa.
- b) 3114/1968 Dekretua, abenduaren 12koa, Etxebizitzaren kooperatiba eta erkidegoei uztailaren 27ko 57/1968 Legea aplikatzeko buruzkoa.
- c) Etxebizitzetarako aurrerakinak finkatzeko aseguruari buruzko 1968ko azaroaren 29ko Agindua, indarrean dagoenaren inguruan.»

Azken xedapenetatik laugarrena. *Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko testu bategina aldatzea.*

Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina honela aldatu da:

Bat. 2. artikuluko testua honela idatzita geratuko da:

«2. artikulua. *Pentsio-funtsen izaera.*

Pentsio-funtsak pentsio-planak betetzeko helburuarekin sortutako ondareak dira, eta horiek lege honetan adierazitakoari jarraikiz kudeatu, zaindu eta kontrolatuko dira.

Era berean, pentsio-funts irekiak sortu ahal izango dira beste pentsio-funts batzuetako inbertsioak kanalizatzeko, 11 ter artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.»

Bi. Honela geratzen da idatzita 10. artikuluko 2. zenbakia:

«2. Erregelamendu bidez, pentsio-funtsaren eta planaren arteko harremanek bete beharko dituzten baldintzak zehaztuko dira, eta bereziki, plana kokatuta dagoen kontua pentsio-funts batetik beste batera aldatzeari dagozkionak, baita planaren likidazioari dagozkionak ere. Erregelamendu bidez, funts bati atxikitako pentsio-plan baten kontrolerako batzordeak bere kontuan dauden baliabideak beste pentsio-funts batzuetara bideratzeko baldintzak ezarri ahal izango dira; horiek zenbait kudeaketa-erakundek kudeatuko dituzte.»

Hiru. Hona nola geratzen diren idatzita 11. artikuluko 9. eta 10. zenbakiak:

«9. Garatutako inbertsio-prozesuei dagokienez, pentsio-funtsak bi motatakoak izan daitezke:

a) Funts itxia, zeinak instrumentatzen baititu bertan txertatzen den pentsio-planaren edo pentsio-planen inbertsioak bakarrik.

b) Funts irekia, zeinak kanalizatu baititzake beste funts batzuetara atxikitako beste pentsio-plan eta pentsio-funts batzuen inbertsioak, 11 ter artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

10. Prestazio definituko pentsio-planak gaineratzen dituzten pentsio-funtsetan, hasierako gutxieneko ondare bat eraiki dadila eskatu ahal izango da, erregelamendu bidez zehaztutako mailen arabera, haren finantza-garapen egokirako eskatzen diren bermeen arabera.»

Lau. 11 ter artikulua berria erantsi da; honela dio:

«11 ter artikulua. *Pentsio-funts irekiak.*

1. Pentsio-funts irekiak sortu ahal izango dira beste pentsio-funts batzuetara atxikitako beste pentsio-plan eta pentsio-funts batzuetako inbertsioak kanalizatzeko helburuarekin, artikulua honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Pentsio-funts irekiak honako kategoria hauetakoren batean txertatuko dira nahitaez:

a) Enplegurako pentsio-funts irekiak; horiek enplegurako pentsio-funtsen inbertsioak bideratzeko helburua dute. Erregelamendu bidez zehaztutako moduan, enplegu-sistemako pentsio-planek ere kanalizatu ahal izango dituzte errekurtsioak beren posizio-kontutik enplegurako pentsio-funts irekietara.

b) Pentsio-funts ireki pertsonalak; horiek pentsio-funts pertsonalen inbertsioak bideratzeko helburua dute. Erregelamendu bidez zehaztutako moduan, banakako sistemari dagozkion pentsio-planek ere kanalizatu ahal izango dituzte errekurtsioak beren posizio-kontutik pentsio-funts ireki pertsonaletara.

Pentsio-funts inbertitzaile eta pentsio-plan inbertitzaile guztiak partaidetza-kontu bat izango dute funts irekian.

Pentsio-planak zuzenean txertatu ahal izango dira pentsio-funts irekietan, baina horiek enplegu-kategoria edo kategoria pertsonal berekoak izan beharko dute.

2. Enplegurako pentsio-funts irekietan funtsa kontrolatzeko batzorde bat sortuko da, eta hura pentsio-plan eta -funts inbertitzaileen ordezkariak osatuko dute, eta hala badagokio, baita zuzenean txertatutako planetako ordezkariak ere; horiek

funts eta plan horien kontrolerako batzordeak izendatuko ditu, kideen artean. Inbertsio-funts edo pentsio-plan inbertitzaile edo integratu bakar bat dagoenean, hura kontrolatzeko batzordeak pentsio-funts irekia kontrolatzeko batzorde gisa jardungo du.

Pentsio-funts ireki pertsonalen kasuan ez da beharrezkoa izango funts irekia kontrolatzeko batzorde bat eratzea, eta hala badagokio, entitate kudeatzaileari egokituko zaio araudiak hari esleitzen dizkion funtzioak garatzea.

Pentsio-funts irekia kontrolatzeko batzordeak 14. artikulua eta erregelamendu bidez hura garatzen duten arauak bete beharko ditu, eta hala badagokio, pentsio-planen erreferentziak pentsio-funts inbertitzaileei edo pentsio-plan inbertitzaileei egiten zaizkiola ulertuko da.

Pentsio-funts irekia kontrolatzeko batzordearen funtzionamendu-gastuak funtsak berak ordainduko ditu; dena den, gastu horiek entitate kudeatzaileek edo hartzaileek edo pentsio-planen sustatzaileek bereganatu ahal izango dituzte, guztiz nahiz zati batean.

3. Pentsio-funts ireki bat sortzeko, kudeaketa-entitatearen eta entitate gordailuzainaren adostasuna beharko da.

Administrazio-baimena lortu ostean, pentsio-funts irekiak sortzeko orduan 11. artikuluan eta 11.bis artikuluan araututako prozedura bete beharko da, hala badagokio, erregelamendu bidez zehaztutako zehaztapenak kontuan hartuta. Haren izenarekin batera, «pentsio-funts irekia» kontzeptua adierazi beharko da.

Pentsio-funts irekia eratzeko eskritura publikoan haren funtzionamendu-arauak gaineratu beharko dira, eta bertan, haren jarduketa-eremua zehaztuko da; era berean, funts ireki gisa duen helburua adieraziko da, baita haren enplegu-kategoria edo kategoria pertsonala, eta 11.2.c) artikuluan aurreikusitako gutxieneko edukiak ere, horiek aplikagarriak direnean, eta hala badagokio, jabetza-kontuen erreferentzia partaidetza-kontuetara egiten dela ulertuko da.

Enplegurako pentsio-funts edo pentsio-funts pertsonal itxi bat pentsio-funts ireki bihurtu daiteke, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

4. Pentsio-funts irekiek lege honetako xedapenak eta pentsio-planak gaineratzera xedaturiko enplegurako funtsen edo funts pertsonalen pentsio-funts zehatzei buruzko garapen-arauak bete beharko dituzte, eta hala badagokio, pentsio-planen buruzko erreferentziak pentsio-funts inbertitzaileei edo pentsio-plan inbertitzaileei dagozkiela ulertuko da.

Erregelamendu bidez, baldintza zehatzak arautu ahal izango dira pentsio-funts irekien jarduera eta funtzionamenduari dagokienez, eta zehazki, gutxieneko ondarea eskatu ahal izango da.

Pentsio-funts irekiei IX. kapituluko xedapenak aplikatuko zaizkie eta, hala badagokio, pentsio-planen erreferentziak pentsio-funts inbertitzaileei eta pentsio-plan inbertitzaileei dagozkiela ulertuko da.»

Bost. 20. artikuluko 1. zenbakiko g) letra honela idatzita geratuko da:

«Administrazio-kontseiluko kide diren pertsona fisikoei eta bazkideei, eta pentsio-funtsetako entitate kudeatzaileetako zuzendari orokorre eta azken horietako parekatuei aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 36. eta 38. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie, edozein dutelarik erregelamendu bidezko zehaztapena.»

Sei. Honela geratzen da idatzita 20. artikuluko 6. zenbakia:

«6. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 363. artikuluan zerrendatutakoez gain, pentsio-funtsen entitate kudeatzaileak desegiteko arrazoia izango da: administrazio-baimena ezeztatzea, entitateak berak baimen horri uko egiten dion kasuan salbu; uko hori haren helburu soziala aldatzen denean bakarrik gauzatu ahal izango da,

aurreko 1. zenbakiko c) letran aipatzen den pentsio-funtsen administrazioari dagokion helburu soziala ez den beste bat garatzeko.

Kapital-sozietateen Legearen 369. artikuluan aipatzen den publizitateaz gain, desegite-hitzarmena Administrazio Erregistroan inskribatuko da eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; gainera, iraungitako entitatea Administrazio Erregistrotik baliogabetuko da, eta Kapital Sozietateen Legearen 396. artikuluan jasotakoa betetzeaz gain.

Dena den, pentsio-funtsen kudeatzaile gisa baimendutako aseguru-entitateak desegin, likidatu eta iraungi ahal izateko, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen araudi zehatza bete beharko da.»

Zazpi. Hona nola geratzen diren idatzita 24. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak:

«1. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari dagokio lege honetako arauak betetzen direla bermatzeko administrazio-ikuskapena eta antolamendua egitea. Lege- eta erregelamendu-xedapenak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko helburuarekin, hark beharrezko informazioa eskatu ahal izango die kudeaketa- eta gordailu-entitateei, funtzioak eskuordetu edo kanporatu dituen pertsona edo entitateei, pentsio-plan individualen merkaturatzaileei, pentsio-planen sustatzaileei, kontrol-batzordeei, aktuarioei, eta beste estatu kide batzuetako pentsio-funtsen ordezkari.

Aseguruen eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiak, pentsio-funtsen esparruko Espainiako ikuskapen-agintaritza den heinean, Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritza osatuko du, Ikuskapenerako Europako Agintaritza osatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 1094/2010 Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz; pentsio-funtsen esparruan, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 17. artikuluan zehaztutakoa aplikatuko da.

2. Pentsio-funtsen eta -planen eta kudeaketa-entitateen ikuskapenari aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluan aseguru-entitateei dagokienez xedatzen dena aplikatuko zaie.

Pentsio-planei buruzko zehaztapenetan edo pentsio-funtsen funtzionamendu-arauetan aurkakoa berariaz adierazten ez bada, pentsio-planen eta -funtsen ikuskapenetik eratorritako jarduketa guztiak jakinarazi direla ulertuko da, pertsona fisikoei dagozkienak salbu, jakinarazpena kasuan kasuko entitate kudeatzailearen aurrean egiten bada.

Era berean, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak pentsio-funtsen gordailu-entitateen ikuskapena agindu ahal izango du pentsio-funtsei eta -planei buruzko araudia modu egokian betetzen dela egiaztatzeko. Kasu horretan, entitatearen ikuskapena eta kontrola gauzatu behar duen administrazio-organismoari edo -erakundeari ikuskapen-agindua jakinaraziko zaio, eta hark jardun edo bertaratu dadila eskatu ahal izango du beharrezkoa den kasuetan; era berean, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluan aseguru-entitateen ikuskapenari buruz xedatzen dena aplikatuko da.»

Zortzi. Hona nola geratzen diren idatzita 24. artikuluko 4. eta 5. zenbakiak:

«4. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak pentsio-funtsen antolamendu eta ikuskapenerako bere funtzioak gauzatzean eskura dituen datu, dokumentu eta informazioek isilpeko izaera izango dute, izaera publikoko administrazio-erregistroetan daudenak salbu.

Pentsio-funtsen esparruan antolamendu- eta ikuskapen-jardueraren bat gauzaten duten edo gauzatu duten, eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak aginduta horiekin lotutako funtzioak bereganatu dituzten pertsona guztiek sekretu

profesionala mantendu beharko dute, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko V. kapituluaren zehazten diren moduan, eta bertan xedatzen diren erantzukizunak eta salbuespenak kontuan hartuta.

5. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak hirugarren bati besterendutako funtzioen ikuskapena agindu ahal izango du, baita pentsio-planak merkaturatzeko funtzioen ikuskapena ere, horiek pentsio-funtsen eta -planen araudiarekin bat etorriz garatzen diren edo ez egiaztatzeko. Kasu horretan, zerbitzu-emailearen ikuskapena eta kontrola gauzatu behar duen administrazio-organismoari edo -erakundeari ikuskapen-agindua jakinaraziko zaio, eta hark jardun edo bertaratu dadila eskatu ahal izango du beharrezkoa den kasuetan; era berean, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen IV. tituluko IV. kapituluaren zehazten diren moduan, ikuskapenari buruz xedatzen dena aplikatuko da.»

Bederatzi. Letra berri bat eranstean zaio 31. artikuluan 2. zenbakiari: d) letra. Honela geratuko da idatzita:

«d) Pentsio-funts irekiak beste pentsio-funts edo pentsio-plan batzuetatik inbertsiorik kanalizatu gabe eta pentsio-planik gaineratu gabe urtebeteko epea igarotzen denean, edo jardueraren hutsune eraginkorra hautematen denean, erregelamendu bidez zehazten diren moduan.»

Hamar. Hona nola geratzen diren idatzita 34. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak:

«2. Kasu bakoitzean ezarri beharreko administrazio-zehapena dena dela, kontrol bereziko neurriak honako hauek izan daitezke, egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta:

1. Entitate kudeatzaileei dagokienez, «aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 160. eta 161. artikuluetan arautzen diren aseguru-entitateetarako neurriak hartu ahal izango dira, horiek aplikagarriak diren heinean; dena den, xedapen horietan behar bezala adierazten da aseguru-entitateak aseguru berrien kontratazioa desegin edo berrasegurua onartu ahal izango duela, eta dagoeneko egin diren aseguru-kontratuaren luzapenaren debekua pentsio-funts berrien administrazio eta kudeaketaren etete gisa hartuko da entitate kudeatzailearen aldetik.

Gainera, entitate kudeatzaileari pentsio-funtsen edo -funtsaren bere administrazio-funtzioak eten ahal izango zaizkio; kasu horretan, funtsa kontrolatzeko batzordeak entitate bat izendatu beharko du aurrekoa ordeztzeko, betiere Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren baimena jaso ostean; azken horrek hura izendatu ahal izango du, hark hala egiten ez badu.

2. Pentsio-planari eta -funtsei dagokienez, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 160. eta 161. artikuluetan araututako neurriak hartu ahal izango dira, aplikagarriak zaizkien heinean eta honako berezitasun hauek kontuan hartuta: pentsio-plana edo pentsio-funtsa kontrolatzeko batzordeak onartu egin beharko du finantziario- edo berreskuratze-plana; aseguru berrien kontratazioa edo berraseguruen onespina eta dagoeneko eginda dauden aseguru-kontratuak luzatzeko debekua pentsio-planetan parte hartzen duten partaide berrien edo pentsio-plan berrien txertaketa eteteko neurriaren bidez ordeztuko da; eta xedapen horietan egiten diren administrazio-organoei edo aseguru-entitateari buruzko erreferentziak pentsio-planari edo -funtsari egiten zaizkiola ulertuko da, hurrenez hurren, edo kasu bakoitzaren arabera, entitate kudeatzaileei edo gordailuei, edo funtsa kontrolatzeko batzordeei edo pentsio-planari.

3. Era berean, eta aurreko zenbakietan jasotako kontrol bereziko neurrien osagarri gisa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak entitate

kudeatzailearen edo pentsio-funtsaren edo -funtsen esku-hartzea adostu ahal izango du hura behar bezala betetzen dela bermatzeko, betiere aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 163. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

3. Gainerako guztietan, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 164. eta 165. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da entitate kudeatzaileei eta pentsio-plan eta -funtsei dagokienez hartu beharreko kontrol bereziko neurrien esparruan, kontrol bereziko eta administrazio-organoen behin-behineko ordezkapenerako neurriak hartzeko administrazio-prozedurari buruzkoak; dena den, aseguru-entitatearen administrazio-organoei egindako erreferentziak kontrolerako batzordeari edo, hala badagokio, entitate kudeatzaileari dagozkiola ulertuko da, hartu beharreko neurriak pentsio-plan eta -funtsei buruzkoak direnean.

Pentsio-funtsen entitate kudeatzaile edo gordailu bat konkurtso-egoeran dagoela aitortzen duen epaileak ebazpenaren berri emango dio, berehala, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari. Azken horrek pentsio-funtsen entitate kudeatzaileei eta gordailuei eragiten dieten konkurtso-prozeduren egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa eskatu ahal izango die konkurtsoetako epaileei.»

Hamaika. 36. artikulua honela idatzita geratuko da:

«36. artikulua. *Administrazio-zehapenak.*

1. Lege honen 35. artikuluko 1. zenbakian aipatutako entitateei eta pertsonen -2., 3. eta 4. zenbakietan aipatzen direnak salbu- aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 198., 199. eta 200. artikuluetan aurreikusitako administrazio-zehapenak aplikatuko zaizkie; dena den, administrazio-baimena eteteari buruzkoak edozein pentsio-funtsen jarduera kudeatzaile edo gordetzaileari buruzkoak edo banakako sistemaren pentsio-planetako sustatzaile izateko gaitasunari buruzkoak izango dira. aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 198. artikuluko c) letran aurreikusitako arau-hauste oso astunengatiko isuna jartzeko orduan, arau-haustea egin aurretik itxi den azken ekitaldiko pentsio-planetara egindako ekarpenak hartuko dira negozio-bolumen gisa. Ondorio horietarako, honako ekarpen hauek zenbatuko dira: entitate kudeatzaile eta gordetzaileen kasuan, bere kudeaketa eta zaintzapean pentsio-planetara egindako ekarpen guztiak, hurrenez hurren; entitate kudeatzaile eta gordetzaileenak ez diren beste planen sustatzaileen kasuan, sustatzaileak diren pentsio-planetara egindako ekarpen guztiak; funtzioak besterendu diren pertsonen edo entitateen kasuan, besterentze horri eragiten dieten pentsio-funtsetara atxikitako pentsio-planetara egindako ekarpen guztiak; eta entitate kudeatzaile edo gordetzaileak ez diren beste likidatzaileen kasuan, likidazioak eragiten dien pentsio-funtsetara atxikitako pentsio-planetara egindako ekarpen guztiak.

2. Aktuario adituei eta horiek beren jarduera garatzen duten entitateei, pentsio-planekin eta -funtsekin lotuta betetzen dituzten jarduketak direla-eta, honako isun hauek ezarriko zaizkie arau-hauste oso astunak egiteagatik: arlo horretan diktaminatzea debekatuko zaie, gehienez ere hamar urteko epean eta, gutxienez, bost urteko epean, edo 150.253,02 eta 300.506,05 euro arteko isuna ezarriko zaie. Arau-hauste astunak egiteagatik, aktuarioei honako zehapen hauetakoren bat ezarriko zaie: esparru horretan diktaminatzea debekatuko zaie gehienez ere bost urtez, edo 30.050,61 eta 150.253,02 eurora arteko isuna ezarriko zaie. Arau-hauste arinak egiteagatik, aktuarioari gehienez 30.050,61 eurora arteko isuna jarriko zaio. Aktuarioak sozietate baten izenean jarduten badu, zehapen berdinak aplikatuko zaizkio sozietateari.

3. Lege honen 35. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren entitateen administrazio- eta zuzendaritza-karguei behar bezala aplikatuko zaie aseguru- eta

berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 191., 202., 203. eta 204. artikuluetan arautzen diren aseguru-entitateen administrazio- edo zuzendaritza-karguen erantzukizun-araubidea, beren jarduera merkaturatze-entitateetan garatzen dutenen kasuan salbu. Dena den, 202. artikuluko a) letran aipatzen den administrazio- edo zuzendaritza-karguak gauzatu ahal izateko gaitasunik gabe utzi ahal izango da, kasu bakoitzaren arabera eta edozein entitate kudeatzaile edo gordetzailetan, aktuarioek beren jarduera garatzen duten edozein entitatetan edo, azkenik, pentsio-planak eta -funtsak kontrolatzeko edozein batzorde edo azpi-batzordetan.

Era berean, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 191., 202., 203. eta 204. artikuluetako araubidea aplikatuko zaie pentsio-planen entitate kudeatzaileetako administrazio- eta zuzendaritza-karguei, eta entitate kudeatzailearen edo gordetzailerearen funtzioak besterendu zaizkien entitateei.

Kasu horietan, gaitasungabetzeak aipatutako entitateetako administrazio- eta zuzendaritza-karguei eragingo die, pentsio-funts eta -planei buruzko funtzioak eta gaitasunak gauzatzeko orduan.

4. Aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko 26/2006 Legearen 56.1 artikuluko b), c) eta d) letretan eta 56.2 eta 56.3 artikuluetan aurreikusitako administrazio-zehapenak aplikatuko zaizkie pertsona edo entitate merkaturatzaileei; halere, aldi baterako etenaldiak pentsio-planen merkaturatze-jardueraren jarduerari egingo dio erreferentzia.

Era berean, Aseguru eta berraseguru pribatuen bitartekaritzari buruzko 26/2006 Legearen 57.3 artikuluko b) eta c) letretan eta 57.4 artikuluan aurreikusitako administrazio-zehapenak aplikatuko zaizkie entitate merkaturatzaileetako zuzendaritza- eta administrazio-karguei. Kasu horietan, aldi baterako etenaldiak aipatutako entitateetako administrazio- eta zuzendaritza-karguei eragingo die, pentsio-funts eta -planei buruzko funtzioak eta gaitasunak gauzatzeko orduan.

Aurreko lerroketan aipatzen diren zehapenak 56. eta 57. artikuluetan adierazitako moduan ezarriko dira.

5. Parte-hartzaileak 5. artikuluko 3. zenbakian aurreikusitako ekarpenaren muga aintzat hartzen ez badu, eta muga horren soberakina hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen kentzen ez badu, hari soberakin horren ehuneko 50eko isuna jarriko zaio eta dagozkion pentsio-plan edo -planetatik soberakin hori kenduko zaio. Zehapen hori ekarpena egiten duen pertsonari ezarriko zaio, hura parte-hartzailea izan ala ez, baina parte-hartzailea salbuetsita geratuko da hark ekarpenaren berri ez duenean.

6. Artikulu honetan eta aurrekoan aipatzen den zehatzeko ahala gauzatzeko helburuarekin, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 197. eta 201. artikulua eta 205. eta 213. artetako artikulua aplikatuko dira, bi horiek barne.

Arau-hauslea kreditu-erakundea edo kredituak besterendu zaizkion entitate edo pertsona bat bada, edo pentsio-planen merkaturatzaile gisa jarduten bada, edo horietako administrazio- eta zuzendaritza-kargua bada, zehapena ezartzeko entitate edo pertsona horien ikuskapena eta kontrola gauzatzen duen administrazio-organoaren edo -erakundearen txostena aurkeztu beharko da.

7. Administrazio-baimenik gabe pentsio-funtsen kudeaketa-entitateen edo pentsio-funtsen berezko jarduera garatzen duten edo, izaera hori ez izan arren, «pentsio-plan», «pentsio-funts», «pentsio-funtsen entitate kudeatzaile» edo «pentsio-funtsen entitate gordetzailere» izena hartzen duten pertsonari edo entitateei, eta horietan administrazio- edo zuzendaritza-karguak gauzatzen dituztenei dagozkien zehapena ezarriko zaie, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 208. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.»

Hamabi. 46. artikulua honela idatzita geratuko da:

«46. artikulua. *Beste estatu kide batzuetako enplegurako pentsio-funtsen Espainiako ordezkariak.*

Beste estatu kide batzuetan helbideratuta dauden eta Espainian Espainiako legediari atxikita dauden enplegurako pentsio-planak garatu nahi dituzten pentsio-funtsek ordezkari bat izendatu beharko dute. Hura Espainian bizi den pertsona fisikoa edo bertan kokatuta dagoen pertsona juridikoa izango da, eta honako eskumen hauek izango ditu:

a) Funtsari atxikita dauden eta Espainiako legediari atxikita dauden planen onuradunek, partaideek eta kontrolerako batzordeek aurkezten dituzten erreklamazioei erantzutea. Horretarako, pentsio-funtsa ordezteko nahikoa ahalmen izan beharko du, baita prestazioak ordaindu daitezela agintzeko ere.

b) Pentsio-funtsa ordezkatzeko du Espainiako agintari judizialen eta administrazio-agintarien aurrean, Espainiako funtsaren jarduerari eta planen garapenari dagokionez.

Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak artikulua honetan aurreikusitako betebeharren edukiari, moduari eta epeei buruzko arau xehatuak agindu ahal izango ditu.»

Hamahiru. Bigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Administrazio-baimenaren eskaerak eta izen-emateak ebazteko epea.*

Lege honetan arautzen diren administrazio-baimenen eskaerak eta izen-emateak eskaera aurkeztu eta hurrengo hiru hilabeteetan ebatzi beharko dira. Administrazioaren isiltasunak izaera positiboa izango du.»

Hamalau. Zortzigarren xedapen gehigarria honela geratzen da idatzita:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. *Eskubide ekonomikoak alde zurretik eskuratzea pentsio-planen antzeko gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemetan.*

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren gaineko legeen partezko aldaketari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen 51. artikuluan jasotako bermatutako aurreikuspen-planen, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planen eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin harpidetutako aseguru-kontratuei ordaindutako primen, ekarpenen eta kontribuzioen ondoriozko aseguratuaren edo mutualisten eskubide ekonomikoak alde zurretik ordaindu ahal izango dira lege honen 8. artikuluan 8. zenbakian pentsio-planentzat aurreikusitako likideziako eta aurretiazko erabilerako salbuespenezko kasuetan, manu horretan eta erregelamenduz garatzen duten arauetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

Enpresen gizarte-aurreikuspeneko planen eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin enpresetako langileentzat harpidetutako planen kasuan, gutxienez hamar urte lehenago egindako primen, ekarpenen edo kontribuzioen ondoriozko eskubideak alde zurretik erabili ahal izango dira, baldin eta horretarako aukera ematen badu konpromisoak, eta hala aurreikusten bada dagokion aseguru-polizan edo prestazioen erregelamenduan. Aseguru-erakundeak atxikitako inbertsioak badiu, esleitutako aktiboen merkatu-balioaren arabera baloratuko da alde zurretik erabiltzeko eskubidea.

Aseguru pribatuen antolamenduari eta ikuskapenari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera,

beren konturako langileen edo autonomoen gizarte-segurantzako araubide bereziko altaren sistema alternatibo gisa jarduten duten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetan ezin izango dira hautazko funtzio hori betetzeko erabili diren produktuen edo aseguruaren eskubide ekonomikoak gauzatu, lege honen 8. artikuluko 8. zenbakiko lehen eta bigarren lerrokatetan aurreikusitako likidezia-egoeretan.»

Hamabost. Zortzigarren xedapen iragankor berri bat eransten da, eta honako hau dio:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. 2016ko urtarrilaren 1aren aurretik zeuden pentsio-funts irekiak.

Pentsio Funtzen Administrazio Erregistroan inskribatuta dauden eta, 2015eko abenduaren 31n, pentsio-funts ireki gisa jarduten zuten enplegurako pentsio-funtsek edo pentsio-funts pertsonalek jarduera hori gauzatzen jarraitu ahal izango dute; gainera, funtsa kontrolatzeko batzordearen osaerari buruzko aurreko araubidea aplikatzen jarraitu ahal izango dute, zuzenean txertatutako pentsio-planak mantentzen dituzten heinean.»

Azken xedapenetatik bosgarrena. *Konkurtsuari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea aldatzea.*

Konkurtsuari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legea honela aldatzen da:

Bat. 233. artikuluari zenbaki berri bat gehitu zaio:

«5. Aseguru-entitateen kasuan, izendatutako bitartekaria Aseguruaren Kontentsazio Kontsorzioa izango da.»

Bi. «Kreditu-erakundeei, inbertsio-zerbitzuen enpresei eta aseguru-entitateei aplikatu beharreko araubide berezia» izeneko bigarren xedapen gehigarrian berriz idatzi da 2.h) zenbakia:

«h) Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen VI eta VII. artikulua; eta urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Aseguruaren Kontentsazio Kontsorzioaren Lege Estatutuaren testu bategina.»

Azken xedapenetatik seigarrena. *Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzea.*

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginean beste xedapen gehigarri bat gehitu dugu, hamazazpigarrena (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori); honako termino hauetan, hain zuzen:

«Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Informazioa eskuratzea, suteei aurrea hartu eta suteak itzaltzeko zerbitzua mantentzeko tasak eta suteak itzaltzeko zerbitzuak ezarri edo areagotzeko zerga bereziak likidatu eta biltzeko helburuarekin.*

Tokiko entitateek suteei aurrea hartzeko eta suteak itzaltzeko zerbitzuari eta suteak itzaltzeko zerbitzuak ezarri edo areagotzeko ekarpen bereziei dagozkien tasak likidatu eta biltzeko beharrezko informazioa eskatu ahal izango diete aseguru-entitateei, betiere aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian zehazten denari jarraikiz.»

Azken xedapenetatik zazpigarrena. *Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren aldaketa –martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen lege hori–.*

Ez-egoiliarren errentari buruzko Legearen testu bateginean –martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua–, 31. artikuluko 1. zenbakiko e) letra aldatzen da; aldaketa horrek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta honela geratzen da idatzita:

«e) Espainian zerbitzuak emateko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-entitateak, Espainian gauzatzen diren eragiketeki dagokienez.»

Azken xedapenetatik zortzigarrena. *Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguruen Kontentsazio Kontsorzioaren Lege Estatutuaren testu bategina aldatzea.*

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguruen Kontentsazio Kontsorzioaren Lege Estatutuaren testu bategina aldatzea:

Bat. Honela geratzen da idatzita 6. artikuluko 1. zenbakia:

«1. Ezohiko arriskuen arloan, Kontsorzioak, Lege Estatutu honetan zehazten den moduan, eta kontentsazio-arau bidez, Espainian gertatu diren aparteko gertakariak eragindako galeren kalte-ordaina ordaindu beharko du, Espainian bertan kokaturik dauden arriskuei eragiten dizkieten kalte-ordainak, alegia.

Era berean, Kontsorzioak atzerrian jazotako ohiz kanpoko gertaeretatik eratorritako kalte pertsonalak ere indemnitzatu ahalko ditu, polizaren aseguratuak Espainian duenean ohiko bizitokia.

Ondorio horietarako, pertsonengan eta ondasunengan eragindako kalte zuzenak galera gisa hartuko dira, baita horien ondorioz sortutako diru-galerak ere, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta mugekin. Erregelamendu bidez zehaztutako moduan, ezohiko gertaeratzat hartuko dira:

a) Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak, sumendietako erupzioak, ekaitz zikloniko atipikoa eta gorputz sideral eta aerolitoen erorketak.

b) Terrorismoak, erreboltak, albaramenduak, altxamenduak eta herri-matxinadak indarkeriaz eragindako ezbeharrak.

c) Indar Armatuek edo Segurtasun Indarrek bake garaian eragindako gertaerak edo ekintzak.»

Bi. 7. artikuluko b) idatzi-zatia honela idatzita geratuko da:

«b) Gauzen aseguruei dagokienez, lurreko ibilgailuak, trenbideko ibilgailuak, suteak eta elementu naturalak, ondasunei eragindako beste kalte batzuk, eta askotariko diru-galerak, horien modalitate konbinatuak, edo horiek modu osagarrian kontratatzen direnean. Erantzukizun zibileko esparruan, lurreko ibilgailu automobiletan.

Dena den, lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko arloan errekargu bat beharko da, automobilaren nahitaezko harpidetzaren erantzukizun zibileko asegurua estalduraz gain, norbere borondatez, motor-ibilgailu berarekin lotuta kalteen aseguru bat edo erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta bada.»

Hiru. Honela geratzen da idatzita 8. artikuluko 5. zenbakia:

«5. Lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko eta kalteen aurkako aseguruetan, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Kontsorzioak hala eskatuta,

frankizia bat finkatu ahal izango du aseguruaren kargura, Kontsortzioak kalte-ordainak emateko obligazioa duen kasuetarako.»

Lau. 14. artikulua honela idatzita geratuko da:

«14. artikulua. *Aseguru-entitateen likidazioari dagokionez.*

1. Kontsortzioak aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 27.1 artikuluan adierazitako Espainiako aseguru-entitateen likidatzaile izaera bereganatuko du horiek Estatuaren edo autonomia-erkidegoen exekuzio-gaitasunari atxikita daudenean, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo eskudunak haren likidazioa agintzen dionean.

Honako kasu hauetan agindu ahal izango zaio likidazioa:

a) Aseguru-entitatea desegin eta berehala, administrazioaren aldetik hura gauzatu bada.

b) Entitate bat desegin ostean, hark entitatea desegin eta hamabost eguneko epean likidatzaileak izendatzeari ekin ez badio, edo epe horren barnean egindako izendapenak legez eta estatutu bidez ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

c) Likidatzaileek aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legean zehazten diren aseguratuak babesteko arauak betetzen ez dituztenean. Baita, likidazioa atzeratzeagatik edo hala gomendatzen duten egoerak egoteagatik, Administrazioak likidazioa Kontsortzioari dagokiola uste duenean ere. Likidazioan esku hartu behar izanez gero, esku-hartzailearen aurretiko txostena egin beharko da Kontsortzioari agindu hori eman aurretik.

d) Aseguru-entitateak berak egindako eskaera onartuz, behar bezala frogatutako arrazoiak daudela hautematen duenean.

2. Konkurtsoari buruzko legedian aurreikusitako moduan, Kontsortzioari dagozkio konkurtso-administrazioaren berezko funtzioak eta baldintzak, edozein aseguru-entitate atxikita dagoen konkurtso-prozeduretan, eta karguaren onespena jaso beharrik izan gabe. Prozedura horietako jarduketa ez da ordainduko.

Kontsortzioak bere karguan ordezkatzeko duen pertsona fisikoaren nortasuna jakinarazi beharko dio auzitegiari, eta hari Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 28. artikuluan jasotako arauak aplikatuko zaizkio, bertan zehaztutako salbuespenak kontuan hartuta.

Gainera, konkurtso-bitartekariaren funtzioak gauzatu ditu aseguru-entitate batek hala eskatzen duenean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 5 bis artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

3. Hala badagokio, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 175. artikuluan aipatzen den ondasunen likidazio berezia egingo da.

4. Erregelamendu bidez zehazten den moduan, eta Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna lortu ostean, Kontsortzioak aseguru-kontratu bidezko hartzekodunei informazioa emateko jarduerak gauzatu ahal izango ditu Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratuta dagoen aseguru-entitate baten likidazio-prozesuei dagokionez, entitate horrek Espainian kokatzeko eskubidearen edo zerbitzuak emateko askatasunaren araubideari jarraikiz egin dituen kontratu-aseguruei dagokionez.

Kontsortzioak hitzarmenak egin ahal izango ditu administrazio-organoeekin edo organo judizialekin, jatorrizko estatu kideko araudiari jarraikiz, horiei entitatearen likidazioa agindu bazaie, betiere Espainian bizi diren aseguru-kontratu bidezko hartzekodunek likidazio-organoen aurrean erreklamazioak errazago aurkeztu eta bideratu ahal izan ditzaten.

Zenbaki honetan adierazitako jarduerak betetzeak ez du esan nahi Kontsorzioak Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako aseguru-entitateen edo horiek Espainian dituzten sukurtsalen likidazio-funtzioak bereganatu behar dituenik, eta beraz, ez du ordainketarik egin beharko aseguru-kontratuak egiteagatik, ezta ordainketa horien konturako aurrerakinik ere; horrenbestez, ez da aplikatu beharko aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 179. artikulutik 185. artikulura xedatutakoa.»

Bost. Aldatu egin da 2 eta 4. zenbakien idazketa, eta 18. artikuluan 7. zenbaki berri bat gehitu da:

«2. Aseguru-entitateek nahitaez bildu beharko dituzte Kontsorzioaren alde egindako errekareru guztiak, baita horien primak ere.

Primak zatitu egiten badira, entitateek errekareru horiek lehen ordainketa zatikatuarekin batera jasotzea edo primaren zati horiek gaintitzean egitea aukeratu ahal izango dute; azken kasu horretan, zatikapen-tasak aplikatu beharko dira errekareru-zatikapenen gainean, Kontsorzioaren aldeko errekareruen tarifetan finkatzen direnak, edo aseguru-entitateen likidazio-funtzioak finantzatzera xedaturiko errekareruen kasuan, 3. zenbakian zehazten direnak.

Dagozkion prima-zatikapenak iraungitzearekin batera Kontsorzioaren alde errekareruak zatikatzeko aukera hautatzen bada, entitateen oinarri teknikoetan hala adierazi beharko da; gainera, Kontsorzioari jakinarazi eta hura sistematikoki aplikatu beharko da dagokion arloan edo arriskuan, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean salbu.»

«4. Kontsorzioari haren kontura bildutako errekareruen aitortpena aurkezten zaionean, aseguru-entitateek likidazio bat egin eta haren zenbatekoa sartu beharko dute erregelamendu bidez zehazten den aldizkakotasunarekin eta arauei jarraikiz.

Kontsorzioari jakinarazpen fede-emailea egin ostean, entitateek igorritako primen arabera likidatu ahal izango dituzte errekareruak, egin beharreko aldirian behingo erregularizazioei kalterik egin gabe. Aukera hori aukeratzen bada, hura entitateko polizen zorro guztiei aplikatu beharko zaie, urte naturalaren arabera.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak egindako ikuskapen-aktetatik eratorritako likidazioak eta arau zehaztetan diru-sarrera egiteko eperik ez duten likidazioak hamabost eguneko epean sartu beharko dira, aseguru-entitateari likidazioa jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasita.»

«7. Kontsorzioari egindako errekareruen araberrako diru-sarrerak guztiz edo zati batean egokiak ez direnean, horiek itzuli egingo dira interesdunek hala eskatuta, betiere dagozkion egiaztapenei eta informazio-eskaerei kalterik egin gabe; horretarako, horiek hamabost eguneko epea izango dute, ohartarazitako akatsaren dokumentazio frogagarria aurkezten den egunetik kontatzen hasita.»

Sei. Honela geratzen da idatzita 19. artikuluko 2. zenbakia:

«2. Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, Estatuko Aseguruen Ikuskapenaren bitartez eta Kontsorzioak proposatuta onartutako ikuskapen-planak kontuan hartuta, Kontsorzioaren kontura errekareruak eta primak biltzen dituzten enpresak ikuskatuko ditu, horiek entitate juridikoak nahiz pertsona fisikoak izan.

Ikuskapen-zerbitzu horrek eragindako baliabide pertsonal eta materialen kostuak Kontsorzioak ordainduko ditu; ondorio horietarako, dagokion hitzarmena egingo da Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarekin, eta bertan, xede horretara, hau da, kostu horiek ordaintzera bideratu diren baliabideen organoari ordaindu beharreko konpentsazio ekonomikoa zehaztuko da.»

Zazpi. Beste xedapen iragankor bat gehitu da; honela dio:

«Xedapen iragankorra. *Indarrean diren aseguru-kontratuak Aseguru-en Konpentsazio Kontsartzioaren Lege Estatutuko testu bateginaren 7.b) eta 8.5 artikuluetan gauzatutako aldaketara egokitzea.*

Indarrean dauden aseguru-kontratuak aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzko Legearen zortzigarren azken xedapenak txertatutako aldaketara egokitu beharko dute, urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Aseguru-en Konpentsazio Kontsartzioaren Lege Estatutuko testu bateginaren 7.b) eta 8.5 artikuluetan, lege hori indarrean jarri eta hurrengo sei hilabeteetan egin beharreko lehen berritzearen aurretik. 2016ko uztailaren 1etik aurrera egin beharreko igorpen berriko aseguru-kontratuak hari egokituta egin beharko dute.»

Azken xedapenetatik bederatzigarrena. *Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretua aldatzea. Dekretu horren bidez, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioaren inguruko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen da.*

8. artikulua honela idatzita geratuko da:

«8. artikulua. *Kalte-ordain zuzeneko hitzarmenak. Adiskidetasunezko istripu-aitorpena. Trafiko-istripuetako zaurituei osasun-laguntza eskaintzeko hitzarmenak.*

1. Motor-ibilgailuen erabilera eta zirkulazioa dela-eta eragindako kalteen esparruko kalte-ordainak arintzeko, aseguru-entitateak aseguru-entitateen arteko kalte-ordain zuzeneko hitzarmenetara atxiki beharko du kalte materialen ezbehar-likidazioetarako.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, aseguru-entitateak adiskidetasunezko istripu-jakinazpena deiturikoaren aleak helarazi beharko ditu, eta gidariak horiek erabili beharko ditu bere aseguru-entitateari ezbeharren berri emateko.

3. Trafiko-istripuetan lesionatu direnei laguntza azkarrago eskaintzeko, aseguru-entitateak trafiko-istripuetako lesionatuentzako osasun-laguntzarako sektore-hitzarmenak egin ahal izango ditu, baita kalte pertsonaletarako kalte-ordainetarako hitzarmenak ere.

4. Ondorio horietarako, hitzarmen horiek baldintza baliokideak eta ez diskriminatzaileak izango dituzte aseguru-entitate guztientzat, eta ezin izango dira mugak ezarri, helburua lortzeko beharrezkoak ez badira.»

Azken xedapenetatik hamargarrena. *Aseguru eta berraseguru pribatuetako bitartekotzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legea aldatzea.*

Aseguru eta berraseguru pribatuetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 17ko 26/2006 Legea honela aldatu da:

Bat. Honela geratzen da idatzita 6. artikuluko 1. zenbakia:

«1. Aseguru-bitartekariak benetako eta beharrezko informazioa eskainiko dute aseguru-kontratuak sustatu, eskaini eta sinatzean, eta oro har, aholkularitza-jardueran osoan zehar, betiere Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak zehaztutako moduan.»

Bi. 8. artikulua honela idatzita geratuko da:

«8. artikulua. *Aseguru-bitartekarien kanpoko kolaboratzaileak:*

1. Aseguru-bitartekariak merkataritza-kontratuak egin ahal izango dituzte aseguru-produktuen banaketan laguntzen dieten kanpo-kolaboratzaileekin; horiek

beren erantzukizun eta zuzendaritzapean jardungo dute, alderdiek modu askean adostutako terminoei jarraikiz.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak kolaboratzaileak prestatzeko programek bete beharko dituzten ildo nagusiak eta oinarritzko printzipioak zehaztuko ditu, haren edukiari, antolamenduari eta exekuzioari dagokionez.

2. Kanpo-kolaboratzaileek ez dute aseguru-bitartekariaren izaera izango, eta jarduten duten aseguru-bitartekariaren zuzendaritza, erantzukizun eta finantza-gaitasunaren arabera garatuko dute beren jarduera.

Kolaboratzaileek hala identifikatu beharko dute beren burua, eta jarduten duten bitartekariaren nortasuna adierazi beharko dute. Harekin egindako merkataritza-kontratuari jarraikiz, aseguru-hartzaileari 42. artikuluan zehaztutako informazioa eskaini beharko diote, guztiz nahiz zati batean, eta hartzaileak informazio guztia jasotzen jarraituko du.

3. Aseguru-bitartekariak erregistro-liburu bat izango dute, eta bertan, kanpo-kolaboratzaileak identifikatzeko datu pertsonalak adieraziko dituzte; era berean, alta-eguna adieraziko dute, eta hala badagokio, baita baja-eguna ere; hura Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren kontrolpean geratuko da.

4. Aseguru-bitartekari baten kanpo-kolaboratzaile batek –persona fisikoa edo juridikoa– ezin izango du lehenengo kontratatu duenaren klase bereko beste aseguru-bitartekari batzuekin lankidetzan jardun. Gainera, agente eskusibo baten kanpo-kolaboratzailea bada, aseguru-entitate beraren beste agente eskusibo batzuekin bakarrik jardun ahal izango du lankidetzan.»

Hiru. Honela geratzen da idatzita 15. artikuluko 2. zenbakia:

«2. Aseguru-agente eskusiboen erregistroan jasotako datuek eguneratuta egon beharko dute, eta aseguru-entitate bakoitzak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari igorri beharko dizkio telematikoki, gehienez ere bi hilabeteko epean, horiek lege honen 52. artikuluan aurreikusitako administrazio-erregistroan inskribatu daitezzen. Aseguru-agente eskusiboak ezin izango du bere jarduera abiarazi Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak erregistro horretan inskribatu arte.»

Lau. Hona nola geratzen diren idatzita 21. artikuluko 3.e) eta 4. zenbakiak:

«e) Atxikitako aseguru-agenteei kanpoko langileak eta kolaboratzaileak prestatzeko programa bat izan beharko dute.

Era berean, aseguru-entitateek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte zenbaki honetako b) letrako bigarren lerrokadan aurreikusitako zuzendaritza-organoa osatzen duten pertsonen eta lotetsitako aseguru-agenteei aseguru-produktuei buruzko prestakuntza eskaintzeko.

Prestakuntza-programei dagokien dokumentazioa Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren eskura egongo da, eta hark beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egin daitezela eskatu ahal izango du.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak lotetsitako aseguru-agenteei prestatzeko programek bete beharko dituzten ildo nagusiak eta oinarritzko printzipioak zehaztuko ditu edukiari, antolamenduari eta exekuzioari dagokionez.»

«4. Lotetsitako aseguru-agente gisa inskribatzeko eskaera Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko zaio, eta harekin batera, 3. zenbakian zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira. Eskaeraren berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera hori aurkezten den egunetik kontatzen hasita. Inskribapenean behar bezala adieraziko da lotetsitako aseguru-agenteei zein aseguru-entitatearentzat egin ahal izango duen aseguru-bitartekariaren jarduera. Inskribapen-eskaera ukatu egingo da hura lagatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez bada.»

Bost. Hona nola geratzen diren idatzita 27. artikuluko 1.c), 1.g) eta 2. zenbakiak:

«1.c) Aseguru-artekaritzako sozietateetan, administratzaileen erdiek, gutxienez, administrazio-funtzioak gauzatzeko moduko esperientzia izan beharko dute.»

«1.g) Jarduera-programa bat aurkeztu beharko dute, eta bertan, honako hauek adierazi beharko dituzte, gutxienez: aseguru arloak eta bitartekaritza gauzatzeko duen arrisku mota, eta bere jarduketaren lurralde-eremua eta printzipio nagusiak; programa hori betetzeko erabiliko diren bitarteko pertsonalak eta materialak, eta bezeroen kezak eta erreklamazioak ebazteko hartuko diren mekanismoak.

Era berean, aseguru-hartzaileekin eta aseguratuekin harreman zuzenagoa eragingo duten funtzioak bereganatuko dituzten kanpo-kolaboratzaile edo enplegatu gisa jardungo duten pertsonentzako prestakuntza-programa bat izan beharko dute. Ondorio horietarako, Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak aseguru-artekarien kanpoko kolaboratzaileak eta langileak prestatzeko programek bete beharko dituzten ildo nagusiak eta oinarritzko printzipioak zehaztuko ditu edukari, antolamenduari eta exekuzioari dagokionez.»

«2. Aseguru-artekari gisa inskribatzeko eskaera Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari aurkeztuko zaio, eta harekin batera, aurreko zenbakian zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira. Eskaeraren berriazko ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, inskribapen-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita. Inskribapen-eskaera ukatu egingo da hura lagatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez bada.»

Sei. Honela geratzen da idatzita 28. artikuluko 2. zenbakia:

«2. Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak hiru hilabeteko epea izango du, informazioa aurkezten den egunetik kontatzen hasita, partaidetza esanguratsua bereganatzeari edo ehuneko 20ko, ehuneko 30eko edo ehuneko 50eko mugak berdindu edo gainditzen dituzten gehikuntzei uko egiteko, baita bereganatze horren bidez artekaritza-sozietatea kontrolatu daitekeenean ere. Horretarako, hura bereganatu nahi duenak zintzotasun komertzialari eta profesionalari dagozkion baldintzak betetzen ez dituela –lege honetan zehaztutako moduan– edo lege honetako debekuren bat gauzatzen duela adierazi beharko du oposizioak. Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak hiru hilabeteko epean adierazpenik egiten ez badu, partaidetza erosi edo areagotzeari ekingo zaio. Zuzendaritza Nagusiak partaidetza esanguratsua bereganatu edo areagotzeko berriazko adostasuna adierazten badu, gehieneko beste epe bat finkatu ahal izango du erosketara egiteko.»

Zazpi. Hona nola geratzen diren idatzita 39. artikuluko 2. eta 4. zenbakiak:

«2. Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak finantza eta aseguru pribatuen arloko prestakuntza-ikastaroek bete beharko dituzten oinarritzko printzipioak eta baldintzak ezarriko ditu edukari, antolakuntzari eta exekuzioari dagokionez; horiek bertaratuek egiaztatutako ezagutzen eta titulazioaren arabera programatu beharko dira.

Aurreko zenbakian aipatzen diren ikastaroak antolatu nahi dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari aurretiazko eskaria egin beharko diote. Erregelamendu bidez, prestakuntza-ikastaroak antolatze baimena emateko baldintzak garatuko dira. Ikastaroen antolatzaileek horiek betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak igorriko dituzte.»

«4. Edozein agintari eskudunek prestakuntza-zentroei emandako baimenak nazioan izango du eraginkortasuna. Baimenaren titularrak prestakuntza-zentro berriak irekiko direla jakinaraziko dio bere autonomia-erkidegoko agintari eskudunari edo Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari, dagokion moduan.»

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 42. artikuluko 4. zenbakia:

«4. Aseguru-artekariak nahitaez bete beharreko analisi objektiboa egin beharri jarraikiz egindako aholkularitza erraztu egingo da estalduraren xede diren arriskuen merkatuan eskainitako aseguru-kontratu nahikoak badaude, betiere irizpide profesionalak kontuan hartuta eta bezeroaren premiei jarraikiz egokitzat jotzen den aseguru-kontratuaren arabera, hark gomendio bat egin ahal izan dezan.»

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 52. artikuluko 1. zenbakia:

«1. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak aseguru-bitartekariak, aseguru-artekariak eta horien goi-karguen administrazio-erregistro berezia gauzatu du; bertan, lege hau bete behar duten eta egoitza Espainian duten edo bertan helbideratuta dauden berraseguru-artekariak eta aseguru-bitartekariak inskribatuko dira, beren jarduerak abiarazi aurretik. Pertsona juridikoen kasuan, zuzendaritza osatzen duten pertsonak eta administrariak inskribatuko dira, bitartekaritza-jardueren arduradunak, alegia.

Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batzuetan kokatuta dauden eta kokatzeko eskubidearen edo zerbitzuak emateko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten aseguru- eta berraseguru-bitartekariak ere adieraziko dira.

Lege honen 4.1 artikuluan aipatzen diren banaketa-kontratuak ere adieraziko dira erregistro horretan.

Administrazio-erregistro horretan erregelamendu bidez zehaztutako egoerak adieraziko dira, eta haren edukia modu orokorrean eta doan eskuratu ahal izango da.»

Hamar. Laugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakiaren a) letra honela geratzen da idatzita:

«a) Banka-aseguru-tako operadore edo aseguru-agente gisa jarduten duten pertsonak —horiek eskusiboak nahi lotetsiak izan— aseguru-bitartekari, berraseguru-artekari eta horietako goi-karguen aseguru-bitartekariak administrazio-erregistro berezian inskribatzea, aseguru-artekari edo berraseguru-artekari gisa.»

Hamaika. «Kanpo-laguntzaile», «laguntzaile aholkulari» edo «laguntzaile» gisa egindako erreferentziak «kanpo-kolaboratzaileari» erreferentzia egiten diotela ulertuko da, hurrengo artikuluko eta xedapen hauetan: 10.4, 16.1, 17.2, 18, 19, 21.3.e), 23.2, 24, 25.1 eta 4, 27.1.g), 30.2, 31.2.b), 53, 55.2.u), 62.1.d), 62.2, laugarren eta hamaika.1 xedapen gehigarriak.

Azken xedapenetatik hamaikagarrena. *Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko, ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legea aldatzea.*

Ondorioak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituztela, honako aldaketa hauek sartzen dira Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko, ez-egoiliarren errentaren gaineko eta ondarearen gaineko zergen legeak partzialki aldatzen duen azaroaren 28ko 35/2006 Legean:

Bat. Aldatu egiten da 99. artikuluko 2. zenbakia. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«2. Zerga honi lotuta dauden errentak ordaintzen dituzten pertsona juridikoen eta entitateen —errentak esleitzen dituzten entitateak barne— konturako sarrerak eta atxikpenak egin beharko dituzte jasotzaileari dagokion Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa; horiek erregelamendu bidez zehazten den kopurua txertatu beharko dute Altxorrean, berariaz zehaztutako kasuetan eta

moduan. Betebehar hauek bete beharko dituzte, halaber, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zerga honen zergadunek, jarduera horiek burutzean errentak ordaintzen dituztenean, baita egoitza lurralde espainiarrean izan gabe, bertan establezimendu iraunkorraz zein iraunkorrik gabe jarduten duten pertsona fisikoek, juridikoek eta bestelako entitateek ere, beraiek ordaintzen dituzten lan-errentei dagokienez, baita atxiki edo kontura sartu beharreko beste etekin batzuei dagokienez ere, baldin eta ez egoiliarren zergari buruzko Legearen testu bateginaren 24. artikuluko 2. zenbakian aipatzen dituen errentak lortzeko gastu kengarriak badira.

Entitate batek, egoiliarra izan ala ez, zergadunei lan-etekinak ordaintzen dizkienean eta zergadun horien zerbitzuak Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren 16. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz hari lotuta dagoen entitate egoiliar batek edo espainiar lurraldean dagoen establezimendu iraunkor batek jasotzen baditu, atxikipena edo konturako sarrera zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituen entitateak edo establezimendu iraunkorrak egin beharko du.

Espainian zerbitzuak emateko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-entitateek atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharko dituzte Espainian gauzatzen dituzten eragiketei dagokienez.

Europar Batasuneko beste estatu kide batean helbideratuta dauden pentsio-funtsek Espainiako legeriari atxikitako enpleguko pentsio-planak Espainian garatzen badituzte, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2003ko ekainaren 3an enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta ikuskapenari, edo hala badagokio, horien erakunde kudeatzaileei buruz emandako 2003/41/EB Zuzentarauan aurreikusitakoari jarraikiz, horiek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute Espainian gauzatzen dituzten eragiketei dagokienez.

Azterriko estatuek Espainian dituzten bulego kontsularrek eta misio diplomatikoek ez dute atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharko.»

Bi. Aldatu egiten dira 105. artikulua 2. zenbakiko g) eta h) letrak; hona nola geratzen diren idatzita:

«g) Espainian zerbitzuak emateko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-entitateentzat, Espainian gauzatzen diren eragiketei dagokienez.

h) Lege honen 99. artikuluko 2. zenbakiko azken-aurreko lerrokadan aurreikusitako entitateentzat, Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez.»

Azken xedapenetatik hamabigarrena. *Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen apirilaren 1eko 4/2014 oinarrizko Legea aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da 6. artikulua 3. zenbakia. Hona nola gelditzen den idatzita:

«3. Administrazio babesleak arautuko du zein kasutan eta zein prozeduraren bidez sortu, integratu, bateratu, desegin, likidatu eta xedatuko den merkataritza, industria, zerbitzu eta nabigazioko ganbera ofizialen eta ganberen kontseiluen ondarea.»

Bi. 38. artikulua berri bat eransten da, honako testu honekin:

«38. artikulua. *Bideragarritasun-plana eta bideraezintasun ekonomikoagatik desegitea.*

1. Estatuko Administrazio Orokorren babespean dauden Ganberak ondoko bi kontabilitate-ekitalditan zehar ustiapen-emaitza negatiboak lortzen dituztenean, eragindako Ganberak babes-administrazioari haren berri eman beharko dio, egoeraren berri izan eta gehienez ere hilabete bateko epean.

Jakinarazpen horrekin batera, Plenoak ikuskatu eta onartutako bideragarritasun-plan bat gehitu beharko da; bertan, desoreka zuzentzeko egingo diren jarduketak deskribatuko dira, beharrezkotzat jotzen den epean eta, hala badagokio, gehienez ere bi kontabilitate-ekitalditan. Era berean, inbentario bat, balantzea, egindako kontu-ikuskapenaren txostena eta Ganberaren egoera ekonomikoa eta aurkeztutako plana baloratzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa gehituko dira.

2. Bideragarritasun-plana aurkeztu ostean, babes-administrazioak hura baimendu, aldatu edo egokituz jotzen dituen jarduketak finkatu ahal izango ditu.

3. Plan bat aurkeztuta bideraezintasun ekonomikoko egoera ebaztea ezinezkoa dela erakusten duten egoeretan, edo plan hori betetzen ez den kasuetan, babes-administrazioak gobernu-organismoak eten eta desegin ahal izango ditu, 37. artikuluari jarraikiz, edo Ganbera iraungi eta likidatu dadila zehaztu ahal izango du.

4. Iraungipena adosten bada, momentu horretatik aurrera, Ganberak ezin izango du inolako egintza juridikorik gauzatu, likidazioaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoak direnak salbu. Likidazioa adostu ostean, Ganberak likidazio-plan bat aurkeztuko dio babes-administrazioari, eta Administrazioak hura baimendu beharko du.

Iraungitze-erabakian Espainiako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialak delegazioa irekitzea adosten badu, delegazio hori irekitzeko, Espainiako Ganberak proposamen bat egin ahal izango du aktiboak edo produkzio-unitateak igortzeko. Ganberak proposamena onartzen badu, haren terminoak likidazio-planera txertatuko dira.

Babes-administrazioak likidazio-plana betetzen dela ikuskatuko du. Ganberaren likidazioa amaitu ostean, hura automatikoki iraungiko da.

Likidazio- eta iraungitze-prozesutik ez da, inola ere, babes-administrazioarentzako obligaziorik eragin edo sortuko.

5. Autonomia-erkidegoek babestutako Ganberen kasuan, horiek legeria zehatzean ezarritakora egokituko dira.»

Azken xedapenetatik hamahirugarrena. *Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea.*

Aldaketa hauek izango ditu sozietateei buruzko zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 128. artikuluko 1. zenbakiak. Aldaketok 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

«128. artikulua. *Atxikipenak eta konturako sarrerak.*

1. Zerga honi lotutako errentak ordaintzen dituzten entitateak, baita ondasun-komunitateak eta jabe-komunitateak ere, konturako diru-sarrerak egitera edo atxikitzaera eta kontura ordaintza behartuta egongo dira. Horiek artikuluko honetako 6. zenbakian adierazitako atxikipen-ehunekoak aplikatuko dituzte erregelamendu bidez zehaztutako atxikipen-oinarrira; era berean, horien zenbatekoa Altxorrean ordaindu beharko dute, ezarritako kasuetan eta moduan.

Pertsona fisikoak ere atxikitzaera eta kontura ordaintza behartuta daude, beren jarduera ekonomikoetan ordaintzen dituzten errentak direla-eta. Azkenik, Espainian egoitza ez duten eta establezimendu iraunkor bitartez jarduten diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak ere hala behartuta daude.

Era berean, Espainian zerbitzuak emateko eskubidearen araubideari jarraikiz jarduten duten Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-entitateek atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharko dituzte Espainian gauzatzen diren eragiketei dagokienez.»

Azken xedapenetatik hamalagarrena. *Eskumen-titulua.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 11. eta 13. zenbakietan aurreikusitakoaren arabera eman da, berorietan, Estatuari egozten baitzaizkio, hurrenez

hurren, aseguruaren antolamendu-oinarriak zehazteko eskumenak, baita jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren gaineko oinarriari eta koordinazioari buruzkoak ere. Aurretikotik salbuetsita daude ondorengo aginduak:

- a) 16., 17., 18., 40., 119., 120., 121., 123., 126. artikulua eta 210. artikulutik 213. artikulura, horiek ez baitute oinarritzko izaera izango.
- b) 130. artikulua Konstituzioaren 149.1.3 artikuluan ezarritakoaren babesean eman da; artikulua horrek nazioarteko harremanen gaineko eskumen esklusiboa esleitzen dio Estatuari.
- c) 9., 10., 11., 12., 13., 24., 27., 28., 29., 30., 31., 33., 34., 36., 37. artikulua, III. tituluko II. kapitulua eta IV. kapitulua, 89.3, 96, 98.1 eta 2., 165.4, 168., 172., 173., 175. artikulua, 179. artikulutik 189. artikulura eta eranskina; horiek Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6. zenbakiaren babespean eman dira, hark merkataritza-legeriaren arloko eskumena esleitzen baitio Estatuari.
- d) 97. artikulua Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan ezarritakoaren babesean eman da; artikulua horrek prozesuei buruzko legeriaren gaineko eskumena esleitzen dio Estatuari.
- e) 53. eta 59. artikulua Konstituzioaren 149.1.14 artikuluan ezarritakoaren babesean eman dira; artikulua horrek ogasun orokorraren gaineko eskumena esleitzen dio Estatuari.
- f) 167.2. artikulua Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan ezarritakoaren babesean eman da; artikulua horrek legedia zibilaren gaineko eskumena esleitzen dio Estatuari.

Azken xedapenetatik hamabosgarrena. *Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bitartez, bizitza-aseguruari eta aseguru- eta berraseguru-jardueran hasi eta aritzeari buruzko (II. kaudimena) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 2009/138/EE Zuzentaraua partzialki txertatuko da Espainiako zuzenbidera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 2014/51/EB Zuzentarauak aldatzen duena; hark 2003/71/EE eta 2009/138/EE Zuzentarauak eta 1060/2009 (EE), 1094/2010 (EB) eta 1095/2010 (EB) Erregelamenduak aldatzen ditu Europako Ikuskapen Agintaritzaren agintariei (Aseguruaren eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritza) eta Europako Ikuskapen Ikuskaritzari (Balio eta Merkatuen Europako Agintaritza) (Omnibus II Zuzentaraua) dagokienez.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 16ko 2011/89/EB Zuzentaraua txertatu da; haren bidez, 98/78/EE, 2002/67/EE, 2006/48/EE eta 2009/138/EE Zuzentarauak aldatu dira, finantza-konglomeratu bat osatzen duten finantza-entitateen ikuskapen gehigarriari dagokionez.

Azken xedapenetatik hamaseigarrena. *Lege honetan araututako prozedurei aplikagarri zaizkien arauak.*

Lege honetan araututako prozedurak, lehenik eta behin, legean bertan eta legearen garapenerako arauetan jasotako aginduen bidez arautuko dira eta, osagarri moduan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta arau osagarrien bidez.

Azken xedapenetatik hamazazpigarrena. *Erregelamenduak egiteko ahala.*

1. Gobernuari dagokio, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak proposatuta eta Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordearen ikuskapena egin ostean, lege hau erregelamenduak egiteko ahalari berariaz esleitzen zaizkion arloetan garatzea eta, oro har, horiek modu egokian gauzatzeko beharrezkoa izan daitekeen erregelamendu bidezko garapena jasan dezaketean arloetan garatzea; horretarako, erregelamendua eta beharrezkotzat jotzen diren aldaketak onartu beharko dira.

2. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari dagokio, Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Kontsulta Batzordearen ikuskapena egin ostean, lege hau garatzea ministro horren erregelamenduak egiteko ahalari esleitzen zaizkion arloetan, eta halaber, erregelamendua garatzea, beharrezkoa denean eta bertan hala aurreikusten denean.

Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei buruzko xedapenen erregelamendu bidezko garapena Gobernu bidez gauzatuko da, mutualitate horietarako erregelamendu zehatz baten bidez.

Azken xedapenetatik hemezortzigarrena. *Arriskurik gabeko interes-tasei buruzko neurri iragankorra.*

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren baimena jaso ostean, aseguru-edo berraseguru-entitateak doikuntza iragankor bat aplikatu ahal izango du aseguru eta berraseguru esparruan onargarriak diren betebeharrei arriskurik eragiten ez dieten interes-tasen aldi baterako egituran, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta baldintzetan.

Azken xedapenetatik hemeretzigarrena. *Hornidura teknikoei buruzko neurri iragankorra.*

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren baimena jaso ostean, aseguru- edo berraseguru-entitateak kenkari iragankor bat aplikatu ahal izango du hornidura teknikoetan, betiere erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta baldintzetan.

Azken xedapenetatik hogeigarrena. *Beste neurri iragankor batzuk.*

Erregelamendu bidez, dagozkion terminoak eta baldintzak zehaztuko dira aseguru- eta berraseguru-entitateek honako hauek egin ahal izan ditzaten:

1. 80. eta 114. artikuluetan aipatzen den informazioa aurkeztu eta hedatu ahal izango dute, urtero edo lehenago.
2. Araubide iragankor bat aplikatu ahal izango dute oinarrizko funts propioak mailatan sailkatzeko.
3. 79. artikuluan jasotzen diren baldintzak aplikatu ahal izango dituzte 2011ko urtarrilaren 1a baino lehen igorritako finantza-erreminta batzuetan.
4. Araubide iragankor bat aplikatu ahal izango dute merkatuko arriskuen, pilaketaren eta diferentzialen azpimoduluetan eta errenta aldagarriko arriskuaren azpimoduluaren.
5. Taldeko barne-eredu bat onartu dadila eskatu ahal izango dute taldeko zati batek arrisku-profil desberdina duenean.
6. Kontratuen zorroa kudeatu ahal izango du jarduerari amaiera emateko.

Azken xedapenetatik hogeita batgarrena. *Indarreen sartzea.*

1. Lege hau 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarreen.
2. Dena den, hamahirugarren xedapen iragankorra eta hamaseigarren xedapen gehigarria argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarreen. Laugarren eta hamargarren xedapen iragankorrak 2015eko irailaren 1ean jarriko dira indarreen. Azken xedapenetatik bederatzigarrena 2016ko uztailaren 1ean jarriko da indarreen.

Horrenbestez,
Lege hau errespeta dezaten eta errespetaraz dezaten agintzen diet espainiar guztiei, norbanako zein agintari izan.

Madril, 2015eko uztailaren 14a.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

ERANSKINA

Aseguru arloak

A) Bizitza-asegurua ez den beste aseguru arlo batzuk eta arrisku gehigarriak.

a) Bizitza-asegurua ez den beste aseguru zuzenean, arriskuen arlokako sailkapena honako hauetara egokituko da:

1. Istripuak.

Arlo honetako prestazioak honela eman daitezke: oroharreko prezioan, kalte-ordainetan, bien arteko prestazio misto gisa, eta ibilgailuetako bidaiarien estaldura bidez.

2. Gaixotasuna (osasan-laguntza eta mendekotasuna barne).

Arlo honetako prestazioak oroharreko prezioan –konpontzekoak– eman daitezke, baita eragindako gastuak itzuliz, zerbitzuaren prestazioa bermatuz edo horien arteko bide misto baten bidez ere.

3. Lurreko ibilgailuak (tren-ibilgailuak kanpo).

Lurreko ibilgailuek jasandako kalte guztiak sartzen dira barne, horiek automobilak izan ala ez, eta tren-ibilgailuak kanpo.

4. Tren-ibilgailuak.

5. Aireko ibilgailuak.

6. Itsasoko, aintzirako eta ibaiko ibilgailuak.

7. Garraiatutako salgaiak (ekipajeak eta garraiatutako gainerako ondasunak barne).

8. Suteak eta elementu naturalak.

Ekaitzak, energia nuklearra eta lur-erorketak ez diren gainerako elementu natural, ekaitz, leherketa eta suteek eragindako ondasunek jasandako kalte guztiak (3., 4., 5., 6. eta 7. arloetan jasotakoak kanpo).

9. Ondasunei eragindako beste kalte batzuk.

Ondasunek jasandako txingorrek edo izotzak eragindako kalte guztiak sartzen dira barne (3., 4., 5., 6. eta 7. arloetan sartzen direnak kanpo), baita lapurreta edo 8. arloan sartzen ez diren gainerako ezbeharrek eragindako kalteak ere.

10. Lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibila (garraiolariaren erantzukizuna barne).

11. Aireko ibilgailuen erantzukizun zibila (garraiolariaren erantzukizuna barne).

12. Itsasoko, aintzirako eta ibaiko ibilgailuen erantzukizun zibila (garraiolariaren erantzukizuna barne).

13. Erantzukizun zibil orokorra.

10., 11. eta 12. arloetan aipatzen ez diren erantzukizunak hartzen ditu barne.

14. Kreditua.

Kaudimen orokorra, epekako salmenta, esportazio-kreditua, hipoteka-kreditua eta nekazaritzako kreditua hartzen ditu barne.

15. Kauzioa (zuzena eta zeharkakoa).

16. Askotariko diru-galerak.

Enpleguko arriskuak, diru-sarreraren eskasia (oro har), eguraldi txarra, onuren galera, gidabaimenaren aldi baterako gabeziak eragindako diru-laguntza, gastu orokorren iraunkortasuna, aurreikusi gabeko merkataritza-gastuak, salmenta-balioaren galera, alokairu edo errenten galerak, aurrekoak ez diren zeharkako beste merkataritza-galera batzuk, merkataritzakoak ez diren diru-galerak eta beste diru-galera batzuk.

17. Defentsa juridikoa.

Aseguru-entitateek honako kudeaketa-modalitate hauetako bat aukeratu beharko dute:

a) Juridikoki desberdina den entitate bati defentsa juridikoaren arloko ezbeharren kudeaketa fidatzea; hori kontratuan jaso beharko da. Entitate hori bizitza-asegurua ez den beste aseguru arlo bat gauzatzen duen beste bati atxikita badago, ezbeharren kudeaketaz edo kudeaketa horren inguruko aholkularitza juridikoaz arduratzen diren lehenengo horretako kideek ezin izango dute jarduera bera edo antzekoa burutu bigarrenagoan. Era berean, bi entitateetan zuzendaritza-karguak betetzen dituzten pertsonak ez dira berdinak izango.

b) Aseguru-kontratuan behar bezala bermatu beharko da kudeaketa horren inguruko aholkularitza juridikoaz arduratzen diren langileek ez dutela beste arlo batean antzeko jarduera bat gauzatzen, aseguru-entitateak hainbat arlotan jarduten badu edo bizitza-asegurua ez den beste arlo batzuetan jarduten badu, eta defentsa juridikoko aseguru-entitatearekin finantza-, merkataritza- edo administrazio-loturak baditu, arlo horretan espezializatuta egon ala ez.

c) Kontratuan behar bezala aurreikusi beharko da aseguratuak bere interesen defentsa abokatu bati konfiatzeko eskubidea izango duela, hark aseguratuaren esku-hartzea eskatzeko eskubidea duen momentutik aurrera eta polizan xedatutakoarekin bat etorritz.

18. Bertaratzea.

Egoitzan edo bizi ohi den lekuan ez egoteagatik edo joan-etorriak egiteagatik zailtasunetan dauden pertsonen laguntzea. Laguntza eskainiko zaie, halaber, beste egoera batzuetan zailtasunak bizi dituzten pertsonen; egoera horiek erregelamendu bidez finkatuko dira, eta horiek ez dira beste aseguru arlo batzuen barne sartuko.

19. Heriotzak.

Heriotza gertatzen denean, hileta-zerbitzuen prestazioa bermatzen duten aseguru-eragiketak hartzen ditu barne, edo bestela, prestazioa gauzatzea ezinezkoa denean, halabeharrez edo zerbitzua aseguru-entitateak eskainitakoak ez diren beste baliabide batzuen bitartez gauzatu delako, hil den aseguratuaren legezko oinordekoei aseguratuak zenbatekoa itzuliko zaie; zenbateko horrek ez du, inola ere, heriotza batek eragindako hileta-gastuen batez besteko balioa gaindituko.

Arlo batean gaineratutako arriskuak ezin izango dira beste arlo batean sailkatu, betiere 4. zenbakiko arrisku osagarriei dagokienez xedatutakoari kalterik egin gabe.

Baimena aldi berean zenbait arlotarako ematen denean, honako izendapen hauek izango ditu:

1. «Istripuak eta gaixotasuna»: 1 eta 2. arloak baimentzen direnean.
2. «Ibilgailuaren aseguru»: Baimenak 1. arloan eta 3, 7 eta 10. arloetan jasotzen den bidaiarien estaldura barne hartzen duenean.
3. «Itsasoko eta garraioko aseguru»: Baimenak 1. arloan eta 4, 6, 7 eta 12. arloetan jasotzen den bidaiarien estaldura barne hartzen duenean.
4. «Abiazio-asegurua»: Baimenak 1. arloan eta 5, 7 eta 11. arloetan jasotzen den bidaiarien estaldura barne hartzen duenean.
5. «Suteak eta ondasunei eragindako beste kalte batzuk»: 8 eta 9. arloak baimentzen direnean.
6. «Erantzukizun zibila»: 10., 11., 12. eta 13. arloak baimentzen direnean.
7. «Kreditua eta kauzioa»: 14 eta 15. arloak baimentzen direnean.
8. «Aseguru orokorrak»: Bizitza-asegurua ez den eta artikulua honetan jasotzen diren aseguru zuzeneko arlo guztiak baimentzen direnean.

b) Arrisku gehigarriak.

Bizitza-asegurua ez den beste aseguru arlo bati edo arlo-multzo bati dagokion arrisku nagusi baterako baimena lortzen duen aseguru-entitateak beste arlo batean gaineratzen

diren arriskuak estali ahal izango ditu arrisku horietarako baimena lortu beharrik izan gabe, honako baldintza hauek betetzen diren heinean:

1. Arrisku nagusiarekin lotetsita badaude.
2. Arrisku nagusiaren aurka estalitako objektuari erreferentzia egiten badiote.
3. Arrisku nagusia estaltzen duen kontratuak estaltzen baditu.
4. Arrisku osagarriari dagokion arloan baimena lortzeko arrisku nagusirako alde zurretiko finantza-bermeak baino handiagoak ez eskatzea, azken baldintza horri dagokionez, arrisku gehigarria erantzukizun zibilari buruzkoa denean eta haren estaldurak erregelamendu bidez zehaztutako mugak gainditzen ez dituztenean.

Arlo gehigarria 2.a denean (gaixotasuna), hark ez ditu osasun-laguntzako prestazioak edo mendekotasunagatik laguntza-prestazioak barne hartuko.

14. (kreditua), 15. (kauzioa) eta 17. (defentsa juridikoa) arloetan sartzen diren arriskuak ez dira beste arlo batzuetako osagarri gisa hartuko, 17. arloaren (defentsa juridikoa) kasuan salbu; izan ere, aurreko lerrokadan adierazitako baldintzak betetzen direnean, hura 18. arloko (laguntza) arrisku osagarri gisa hartu ahal izango da arrisku nagusia zailtasunak bizitzen ari diren pertsonen eskaintako laguntzari badagokio, horiek helbidez edo ohiko egoitzaz aldatu edo joan-etorriak egiten dituztenean, baita 6. arloko arrisku osagarri gisa ere (itsasoko, aintzirako eta ibaiko ibilgailuak), itsasontziak erabiltzeagatik eratorritako auziekin edo arriskuekin lotuta daudenean edo erabilera horrekin zerikusia dutenean.

B) Bizitza arloa eta arrisku gehigarriak.

a) Bizitza-aseguru zuzena arlo bakar batean gaineratuko da, bizi arloa, eta honako hauek hartuko ditu barne:

1. Bizitza-asegurua, heriotza nahiz biziraupen kasuetan, edo bi kasuetan, eta biziraupenean errenta-asegurua sartuko da barne; kontra-aseguru bidezko bizitza-asegurua; ezkontza-asegurua eta jaiotza-asegurua. Era berean, aseguru horietako edozein hartuko du barne horiek inbertsio-funtsekin edo 73. artikuluan aipatzen diren beste aktibo batzuekin lotuta daudenean. Horrez gain, mendekotasun-asegurua barne hartu ahal izango du.

2. Teknika aktuarialean oinarritutako kapitalizazio-eragiketak, iraupenari eta zenbatekoari dagokionez konpromiso zehatzak lortzeko helburua dutenean, aurretiaz finkatutako ordainketa bakar edo periodikoen truke.

3. Erretiro-funts kolektiboen kudeaketarako eragiketak, hau da, aseguru-entitateak inbertsioak administratzea eta, batez ere, heriotza eta bizi kasuetan edo jarduerak eten edo murrizten diren kasuetan ematen dituzten entitateen erreserben aktibo ordezkariak. Eragiketa horiek ere gaineratuko dira, horiek aseguru-berme bat dutenean, hura kapitala mantentzeari buruzkoa nahiz gutxieneko interesa hautemateari buruzkoa denean.

4. Tontina eragiketak, hau da, beren ekarpenak elkarrekin kapitalizatzeko eta horrela eratutako aktiboa bizirik iraun dutenen edo horien oinordekoen artean banatzeko partaidetzak dituzten sozietateak eratzen dituztenak.

b) Arrisku gehigarriak.

Bizi arloan jarduteko baimena duten entitateek arrisku gehigarri gisa estali ahal izango dituzte 1. arloan (istripuak) eta 2. arloan (gaixotasuna) gaineratzen diren arrisku gehigarriak, arlo horietarako baimena lortu beharrik izan gabe, baina honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Arrisku nagusiarekin lotetsita badaude.
2. Arrisku nagusiaren aurka estalitako objektuari erreferentzia egiten badiote.
3. Harekin kontratu berean bermatuta badaude.
4. Arlo gehigarria 2.a denean (gaixotasuna), hark osasun-laguntzako prestazioak edo mendekotasunagatik laguntza-prestazioak ez barne hartzea.